Historiagintzaren ikuspegi berriak
Teoria eta praktika

Bakarne Altonaga Begoña
Maialen Aranguren Alonso
Aintzane Rincón Díez

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UEU

Historiagintzaren ikuspegi berriak: teoria eta praktika

Aintzane Rincón Díez
Bakarne Altonaga Begoña
Maialen Aranguren Alonso

Udako Euskal Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea
Bilbo, 2017

© Udako Euskal Unibertsitatea
© Euskal Herriko Unibertsitatea
© Aintzane Rincón Díez, Bakarne Altonaga Begoña, Maialen Aranguren Alonso

UPV/EHUren ISBNa: 978-84-9082-752-9
Lege-gordailua: BI-1553-2017

Inprimategia: PRINTHAUS S.L., Bilbo
Azalaren diseinua: Igor Markaida
Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 946790546 Faxa. 944793039
Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.eus
www.ueu.eus

Euskal Herriko Unibertsitatea
Helbide elektronikoa: argitalpenak@ehu.eus
www.ehu.eus/argitalpenak

Elkar Banaketa: Igerabide, 88 DONOSTIA

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright-jabeen baimenik gabe.

Liburu honek UEUren argitalpengintzako ebaluazio-prozesua gainditu du; liburuaren jakintza-alorreko bi adituk ebaluatu dute jatorrizkoa, peer review erako ebaluazioan, horietako batek egilearen daturik ezagutu gabe (double-blind).

Aurkibidea

SARRERA 7

1. ATALA. AURREKARIAK. HISTORIOGRAFIA KLASIKOTIK POSTMODERNORA 9

1. HISTORIA MITOLOGIKOTIK ZIENTIFIKORA 11
1.1. Historiagintza modernitatearen aurretik 11
1.2. Leopold von Ranke eta historia modernoaren jaiotza 17
1.3. Karl Marx eta materialismo historikoa 23

2. MODERNITATEAREN KRISIA 31
2.1. Modernitatearen ezinegona 32
2.2. Historia sozial berria: Annales eskola eta eskola marxista britainiarra 35
2.3. Estrukturalismoa 42
2.4. Historia kulturala 47

3. POSTMODERNITATEA 51
3.1. Postestrukturalismoa 51
3.2. Biraketa linguistikoa 58
3.3. Ekarpen berriak: inkorporazioaren paradigma 61

2. ATALA. IKERKETA-KATEGORIAK ETA KORRONTE ANALITIKO BERRIAK 65

1. KATEGORIAK 67
1.1 Modernitatea/Postmodernitatea 67
1.2. Identitateak/Subjektibitateak 75
1.3. Esperientzia 80
1.4. Gorputza 84
1.5. Boterea 88

2. KORRONTEAK 93
2.1. Emakumeen historiatik genero-historiara 93
2.2. Teoria postkoloniala 101
2.3. Ikasketa kulturalak 107
2.4. Emozioen historia 112

3. ATALA. ITURRIAK 119

1. IDATZIZKO ITURRIAK 121
1.1. Literatura 121
1.2. Autobiografia 128
1.3. Gutun-liburua 132

2. AHOZKO ITURRIAK 135
2.1. Memoria eta narrazioa 137
2.2. Ahozko iturrien sorkuntza: elkarrizketak 140
2.3. Transkripzioa 145

3. ZINEMA 147
3.1. Zinema eta Historia: XX. mendeko masa-gizartearen espektakulua 147
3.2. Zer da zinema? Zer informazio mota lortuko dugu zinemarekin? ... 150
3.3. Iturriekin lan egin 152
3.4. Iturriak gure ikerketan txertatu 155

BIBLIOGRAFIA 157

Sarrera

Irakurleak esku artean daukan testua hutsune bikoitza betetzeko asmoz sortua izan da. Alde batetik, historiagintzaren alderdi teorikoenen berri ematen duen testuliburu didaktikoa sortzea unibertsitateko gradu-mailan Historia ikasten duten ikasleentzat. Eta bestetik, horrelako ikasmaterial bat euskaraz plazaratzea[1].

Liburu hau idaztean, iraganari luzatzen diogun begiradan ikuspuntu teoriko berritzaileak erabiltzearen beharra azpimarratu nahi izan dugu. Ikuspuntu berrien aldarrikapenak, haatik, ez du zorroztasun historikoaren balioa gutxitzen duenaren irudia eman behar. Izan ere, azken bi hamarkadetan beren lanetan berrikuntza teorikoak gehitu dituzten historiagileek ikerketa historikoen kalitatea areagotzeko asmoz jokatu dute. Tradizionalki kontuan hartu ez diren hainbat subjektu historiara gehitzeaz gainera, iraganeko esperientziak kontzeptu eta nozio berrien argira ezagutzea posible bihurtu dute joera historiografiko berriek, ezezagunak ziren alderdiak desestaliz.

Ildo horiei jarraituz, gure historiari buruzko planteamendu teorikoa historiografiaren metodoei buruzko hausnarketa kritiko sakonetik sortzen da. Lehenik eta behin, historia egiteko eredu positibista eta zientifistetatik aldendu nahi izan dugu, haren metodoak iragana eta memoria ulertzeko argirik ez, baizik eta itzalak eskaintzen dituelako. Horrekin batera, 60ko eta 70eko hamarkadetan marxismo klasikoaren berriskuspenetik sortu zen historia sozialaren hainbat kritikatan kokatzen da gure planteamendu teorikoa, post-soziala deitu izan denaren eremu zabalean. Horrela, postestrukturalismotik eta proposamen postmodernoetatik eratorritako nozioek gidatu dituzte gure kritika eta proposamenak. Ildo horri jarraituz, ulertzen dugu subjektu eta gertakari historikoak ez direla kondizio material eta ekonomiko hutsen arabera azaltzen, baizik eta tokian tokiko eta garaian garaiko marko diskurtsibo eta emozionalek ere prozesu eta aldaketa historikoetan erabakigarriak izan direla. Datu-metaketan oinarritzen diren ikerketen aurrean prozesu historikoen

1. Lan hau hiru egileen elkarlan kooperatiboaren eta transbertsalaren emaitza da. Gutako baikoitzak eginkizun eta erantzunkizun berberak hartu ditu. Maialen Arangurenen eta Bakarne Altonagaren kasuan EHUko Errektoreordetzak emandako Ikertzaileak Prestatzeko Kontratazioaren (2013.eko deialdia) laguntzaren pean sortu da. Halaber, hiru egileak kide diren hurrengo ikerketa proiektuen markoan sortu da: «La experiencia de la sociedad moderna en España: Emociones, relaciones de género y subjetividades (siglos XIX y XX)» Ministerio de Economía, Industria y Competitividad y el Fondo Social Europeo, FEDERek finantzatua, (HAR2016-78223-C2-1-P kodea), eta «La experiencia de la sociedad moderna en España 1870-1990» UPV/EHUk fiantzatua, (GIU08/15 kodea).

esangura eta haren aldaketak ulertzeko eta interpretatzeko helburua duen hurbilpena hobesten ditugu. Eta horrekin batera, aztertzen ditugun subjektuen, identitateen eta kategorien esanahiak aldakorrak eta inoiz ez esentzialak edo estatikoak direla, alegia, historikoki espezifikoak direla kontuan hartu behar dugu. Azkenik, lanean zehar ikusiko den moduan, aipatu behar dugu metodologiaren aldetik ikasketa kulturalek eskaintzen dizkiguten tresnetatik abiatzen garela, bai ikerketetarako aukeratzen ditugun iturri moten aukeraketan bai eta horiek ikertzeko darabilzkigun kontzeptu eta marko teorikoen definizioan ere. Zentzu horretan, iragana ulertzeko ikuspegi zabalak, pluralak eta malguak aldarrikatzen ditugu, ikerketa-objektuen edo metodologien arteko hierarkizaziorik egin gabe: fanzineek, pelikulek, panfleto politikoek edo literarioek, fikziozko lanek edota ahozko testigantzek artxiboko espediente judizialek zein estatistika demografikoek daukaten bezainbesteko balioa daukate iragana ikertzeko orduan.

Orobat, garrantzitsua iruditzen zaigu aipatzea ezen Historiako ikasleei zuzenduta dagoen lan batean ezinbestekoak direla teoria feministaren eta generoaren ikuspegiak. Emakumeen historiak ez luke Historiaren, letra larriz idatzitakoaren, atal bereizgarri bat izan behar, historiaren joanari itsasten diogun elementu exogeno bat, alegia. Genero-harremanak botere-harremanak dira, «klasea» edota «nazioa» kategoriak bezain erabakigarriak. Horregatik, generoari, emakumeei, diferentzia sexualari zein sexualitateari buruz dihardugunean, garrantzitsu deritzogu adierazteari ez diogula historiari ekarpen bereizgarri bat egiten horiek historiaren bilakaeratik kanpo egon izan balira ulertuta. Elementu horiek guztiak historiaren bilakaeraren parte zentrala izan dira —gudak, iraultzak zein langileriaren mugimenduak bezain garrantzitsuak—, prozesu eta aldaketa guztiak transbertsalki gurutzatuz.

Testuaren antolaketari dagokionez, lehenengo atalean, historian zehar historiografiak berak —historiaren idazketaren inguruko hausnarketa kritikoak— izan duen garapenaren ikuspegi orokor bat eskaini nahi izan dugu gaur eguneko teoria berrienetara helduz, testuinguruaren eta aldaketa teoriko garrantzitsuenen berri emanez. Bigarrenez, azkeneko hamarkadetan historiagintzaren alorrean berebiziko garrantzia hartu duten eta gure aburuz interesgarrienak diren kategoria eta korronte analitikoen berri eman nahi izan dugu, haien esanahia eta aplikagarritasun-eremuak azalduz. Eta azkeneko atalean, hainbat iturrirekin lan egiteko zenbait eredu eta proposamen praktiko planteatu ditugu. Liburua, osotasun koherente bati jarraitzeko egina izan den arren, atal bakoitza bere kabuz irakurgarria izan dadin idatzia dago, batez ere kontsultarako testu modura erabiliko duen irakurlearentzat.

Hitzaurre honi amaiera emateko, alde batetik, UEUren eskuzabaltasuna eskertu nahiko genuke lan honen sorkuntza eta argitalpena ahalbidetzeagatik. Eta bestetik, testuan bildu ditugun ideia gehienak erakutsi dizkiguten «Experiencia moderna» ikerketa-taldeko gure kide guztiei.

Leioa, 2017

1. atala. Aurrekariak. Historiografia klasikotik postmodernora

1. Historia mitologikotik zientifikora

Azpiatal honetan, XIX. mendean historia diziplina *zientifiko* gisa sortu aurretik —Historia unibertsitateetan diziplina instituzionalizatu gisa sortu baino lehen— eta gaur arte eraginkorrenak izan diren bi eskolak —historizismoa eta materialismo historikoa— sortu arte, historiagintzaren nondik norakoak era laburtuan berrikustea dugu helburu. XIX. mendean hain zuzen ere, natura-zientzien ikerketa-eredu positibistak imitatze nahi horrek eraginda, *objektibotasun* kontzeptuak humanitateen alorrean agerpena egin zuen eta ordura arte historia egiteko irizpideak aldatu. Baina, jakina, gizakiak eta giza komunitateek, arrazoi ezberdinengatik eta askotariko metodoak erabiliz, betidanik izan dute iragana kontatzeko premia.

Historiografiaren —historiaren idazketaren— historiari buruz egiten diren hausnarketak gurutzatzen dituen auzi teoriko batekin topo egiten dugu: zein da historiaren estatus epistemologikoa? Alegia, zein irizpideren arabera erabaki da iraganari buruz sortutako errelato edo kontaketa «benetako» historia dela edo mitoaren, kontakizunaren edo narrazio literarioaren alorrera mugatzen dela? Hausnarketa honek, noski, beste elementu batzuk aintzat hartzea eskatzen du: zeri buruz da posible historia egitea? Hau da, zeintzuk dira historiarentzat «interesgarriak», «garrantzitsuak» edo «legitimoak» diren objektu edo gertakariak? Edo, zein da sortu den iraganari buruzko ezagutza horren legitimitatea esparru zientifiko eta akademikoan? Historian zehar egiazkotasunaren kontzepzio desberdinak existitu izan dira eta denboraren zein aldaketa historikoaren kontzepzioa bera ere era ezberdinetan ulertu izan dira. Jendarteek iraganaren, orainaldiaren eta etorkizunaren arteko harreman horiek era anitzetan errepresentatu izan dituzte. Alegia, norbanakoek eta giza kolektiboek iraganari eta orainaldiari zentzua emateko askotariko moduak izan dituzte eta objektu historiko askoren inguruan interesatu dira. Ikusiko dugunez, garatu izan diren narrazio historiko horietako asko zientifikotasun modernoaren irizpideetatik at leudeke. Horrek esan nahi du balio histokorik ez dutenik? Galdera horri erantzuteko argumentuak lortze aldera, egin dezagun Mendebaldeko herrialdeetan praktika historiografikoak historian zehar izan dituen esanahi eta formei buruzko berrikuspena.

1.1. HISTORIAGINTZA MODERNITATEAREN AURRETIK

Mendebaldeko munduan egitate onartutzat hartzen dugu historia grekoen asmakuntza izan zela. Baina antzinateko historiografiaren eta historiografia modernoaren —XIX. mendean diziplina akademiko gisa sortu zenaren— izaera desberdina zen.

Zein da greziarrek iraganari luzatu zioten begirada? Galdera horrek poetaren eta historiagilearen arteko diferentziari buruz hausnartzera garamatza. Mendeetan zehar, poesia epikoa izan zen gizarte presokratikoek beren iragana ezagutzeko erabili zuten baliabide garrantzitsuena. Poeta epikoek antzinateko gudetako heroien ekintza gogoangarriak abesten zituzten, ahozkotasunaren bidez garai haietako balentria eta gertakari ospetsuak gogoratu eta memorizatu ahal izateko. Gure orainaldiko irizpideen arabera, ezinezkoa litzateke poesia epikoa historiatzat edo praktika historiografikotzat jotzea. Izan ere, ahozkotasunean oinarritzen zen mundu grekoarentzat poema epikoek iraganari buruzko kontzientzia-sortzaile gisa funtzionatzen zuten eta identitate kolektiboa zein politikoa eraikitzeko modu bat ziren. K.a. VIII. mende bitartean Troiako gudari buruz sortu zen *Iliada* poema famatua esaterako, Greziako historiaren eta greziarren identitate politikoaren mugarri bilakatu zen. Gakoa zen, hain zuzen ere, greziarren identitatea ahanzturan galdu ezin zitezkeen iraganeko ekintza gogoangarriekin identifikatzeko aukera ematen zuela. Iturri mota horren garrantzia nabaria da, are gehiago kontuan hartzen baldin badugu Tuzididesek (K.a. 460-396) berak bere lanaren fidagarritasuna justifikatzeko poema homerikoekin konparatu zuela. Tuzididesen arabera, bere behaketa Homerorena baino askoz fidagarriagoa zen. Historiografiaren ikuspuntutik, zehaztasun-maila handiago edo txikiagoaren inguruko norgehiagoka hori baino datu garrantzitsuagoa da poema homerikoa Greziako erreferente historiko eta intelektualentzat erabili izan zela (Nicolai, 2007:15).

Iraganari buruzko diskurtso arrazionalaren inguruko hausnarketak mitoaren (*mythos*) eta logosaren (*lôgos*) arteko desberdintasunaren eztabaidara garamatza. Tradizionalki mitoa iruditeria kolektiboak iraganari buruz sortutako istoriotzat jo den bitartean, historia ikerketa batetik eratorritako egia objektiboekin osatutako narraziotzat hartu da (Saïd, 2007: 77). Ezin eztabaidatuzko egitate onartutzat hartu izan da, objektiboa zen ezagutza baten bidean, pentsamendu arrazionala «mitotik» askatu egin zela (Roldán, 2005:22). Baina, ez dago hain argi, ostera, zein den bi arrazoibide mota horien arteko desberdintasuna. Izan ere, zenbait ikerketa berrik diotenez, antzinateko historiografia erretorikaren parte litzateke eta, hortaz, literatura legez sailkatu beharko genuke. Eta aldi berean, pentsamendu mitikoa historia intentzionaltzat jo beharko genukeela dioenik ere badago, preseski, erabateko garrantzia zeukalako komunitateek beren izaera eta iragana ulertzeko prozesuetan (Saïd, 2007: 77).

Nolanahi ere, ahozkotasunean oinarritzen zen gizarte batetik idatzizko formuletan oinarritzera igaro zen gizarte baterako aldaketa-testuinguruan sortu zen historiografia. Prozesu horrek egiazkotasunaren printzipioaren ulermenari ere eragin zion. Grezia eta Erroma klasikoan historiaren edo beste motatako diskurtsoen —filosofia esaterako— eta mitoaren arteko ezberdintasun zorrotzak ezartzea zaila baldin bada ere, ukaezina da kontaketa historikoaren egiazkotasunarekin kezkatu

ziren autoreak egon zirela. Bai Herodotok (K.a. 484-425) bere Mediar Gerrei buruzko *Historia*n, bai Tucididesek *Peloponesoko Gerraren Historia*n zein Xenofontek (K.a. 431-354) bere *Hellenica*n iturri eta metodo ezberdinak erabili baldin bazituzten ere, hainbat ezaugarri komun zituzten. Elkarrekin partekatzen zituzten ezaugarrien artean, beren iraganari buruzko kontakizuna lengoaia mitikotik desberdintzeko asmoa izan zutela adierazten dutenak azpimarratu nahi ditugu. Gizarte grekoari buruz *benetakoa* zen informazioa komunikatzea zuten helburu, iraganeko gertakari eta pertsonaia inportanteenak edota gogoangarriak azpimarratuz eta gertakariak giza kausalitatearen arabera azalduz. Azken ideia horren arabera, kausalitatearena, fenomenoen arteko kausa-efektuzko azalpenak sortu zituzten egitura diakroniko bati jarraituz. Haien helburua ez zen intelektual hutsa, baizik eta politikoa ere: hiri-estatuaren goraipamena eta ikuspuntu politiko-militar zehatz baten defentsa egitea bilatzen zuten. Historiagile erromatarrek ere, Julio Cesarrek (K.a. 100-44), Tito Libiok (K.a. 59 - K.o. 17) edota Tazitok (K.o. 55-120), esaterako, greziar historiagileengandik jasotako egiazkotasunaren nozioa landu zuten eta era berean haien objektu historikoak guda eta botere politikoaren antolaketa izan ziren. Horrela, historiak haien orainaldiko aintza politiko eta militarra defendatzeko, justifikatzeko eta etorkizunean gogorarazia izateko funtzioa betetzen zuen.

Antzinate klasikoari buruzko hausnarketa egiteko orduan, uste dugu kontatu zutenaren fidagarritasunaren gaineko juzgua egiteak ez duela interes handirik; izan ere, haien idatzietan pentsaera mitikoaren eta erlijiosoaren arrasto ugari agertzen zirela nabaria da, zeren mitoa haien mundu-ikuskeraren parte baitzen hein handi baten. Agian ez da hain garrantzitsua zehaztea ea *benetako kontaketa historikoak* ziren, baizik eta aztertzea zer esanahi zuten mundu klasikoarentzat. Hala ere, kontuan izan behar dugu iraganari buruz egin zuten kontaketan nolabaiteko egiazkotasuna jomugatzat zuen egitura narratiboa eta metodo batzuk praktikan jartzeko borondatea agertu zutela greziar eta erromatar munduko gertakari handiak ahanzturaren atzaparretatik salbatzeko eta kontaketa horiek haien nortasun politikoa sortzeko eta aldarrikatzeko funtzionatu zutela.

Antzinate klasikoan denborak izaera ziklikoa zeukala uste zen nagusiki; alegia, gertakariak eta denbora hasiera eta amaierarik gabeko zikloen arabera garatzen ziren diseinu errepikakor baten arabera. Horren aurrean, lehenengo judaismoak eta ondoren kristautasunaren sorkuntzak eragin erabakigarria izan zuten historiaren kontaketan, zeren *denbora historiko*aren nozioan aldaketa ekarri baitzuten pixkanaka (Balmaceda, 2013: 59). Batzuen aburuz eztabaidagarria den arren (Bermejo eta Piedras, 1999: 18), greziarrek denborari buruz zeukaten ikusmolde ziklikoaren aurrean, idazle kristauak denboraren ikusmolde linearra finkatzera etorri ziren. Ideia horri jarraituz, munduak norabide jakin bati jarraitzen ziola uste zuten, zeina errepikaezina baitzen. Kristautasunaren historiaren ikuspuntuak hasiera bat, norabide bat eta amaiera bat zeuzkan: Kreazioa, Jesukristoren haragitzea eta Azken Judizioa (Balmaceda, 2013: 67). Horrela, kristauek gizakia zikloen errepikapenaren fatalismotik askatu zutela

uste zuten, historiari izaera teleologikoa (norabide bat duena) emanez (Roldán, 2005: 41)[2].

Halaber, historiografia kristauaren beste ezaugarri garrantzitsu bat unibertsalismoa izan zen. Autore greziarrek eta erromatarrek lantzen zituzten iturri zehatzek herrialde eta gertakari konkretu batzuei buruz idatzi bazuten ere, kristauek gizadiari buruzko historiaren diseinu osoa kontatzeko gai ikusten zuten beren burua (Balmaceda, 2013:65). Eta, beste alde batetik, lehenago aipatu dugun giza kausalitateren ideia problematikoa bihurtu zen, Jainkozko probindentzia munduko gertakariak azaltzeko orduan elementu printzipala bilakatu zelako. Kristautasunarekin, beraz, ezagutza historikoaren konfigurazio berri bat eman zen oro har, autoritate historikoaren iturria bera aldatu zelako. Egiaren eta egiazkotasunaren ideiak dogmetan eta errebelazioetan oinarriturik zeuden. Erakunde eklesiastikoak eta haien jarduera pastorala bilakatu ziren egia horren bermerako eta hedapenerako medio. Kristautasunaren liburu sakratua, Biblia, bihurtu zen edozein motatako ezagutzarako erreferentzia nagusi eta Elizak pixkanaka finkatu zuen zein ziren interpretazio askeen aurrean ezagutza historikoaren eremuan kontsultatu beharreko iturriak eta haien interpretaziorako mugak (Bermejo eta Piedras, 1999:24).

Erdi Aroa teologia kristauaren eraginpean garatuko zen hein handi baten. Analak, genealogiak eta kronikak (gurutzadenak, nazionalak eta unibertsalak) izan ziren Erdi Aroko genero landuenak. Garai horretan autoretza intelektualaren identitatea galdu egin zen —idazlearen paperaren garrantzia txikitu zen—, lan historiografikoa konpilatzailearen lanera mugatu zelako neurri handi baten. Testu historikoek interpretaziorako joera handiagoa zuten azalpenerako baino. Izan ere, kronistek testu historikoa agerikoa zen informazioarekin osatzen zuten, interpretazio historikorik gehitu gabe eta datuen sailkapen sinpleak eskainita, narrazio edo kontakizun sinpleak sortuz. Garai horretako ikerketetan ez da antzematen iturriak interpretatzeko metodoen gaineko inolako aurre hausnarketarik ez eta kritikotasun analitikorik ere, askotan material historikoak legenda edo kontakizun mitikoarekin nahastuta agertzen direlarik (Aurell, 2013: 100). Zentzu horretan, kronista tradizioaren transmisore bat izango litzateke. Kronista haien lanak interes politiko batzuen pean eta funtzio jakin bat betetzera bideratu ziren: leinu errealak eta monarkien jainkotiar legitimazioa bermatzera.

Baina denboraren poderioz historiagileek deskribapenerako joera nabarmena garatu baldin bazuten ere, gertakarien kausei buruzko interesa ere garatu zuten. Alegia, gertakari historikoen nolakotasunaz gainera, gertakarien zentzuan eta esanahian ere interesa agertu zuten. Teologiarekin zeukaten harreman estua zela-

2. Aldaketa horrek izugarrizko garrantzia eduki zuen, ez bakarrik garaiko pertzepzio historiko eta erlijiosoarentzat, baizik eta, hurrengo ataletan ikusiko den eran, ordudanik Mendebaldeko gizarteek beren historia nola ulertuko zuten finkatu zuelako. Herrialdeen historia etorkizunera begiratzen zuen ardatz batean kokatzen zen lerro zuzen baten gisa irudikatu zen eta beharrezkoa izan zen XIX. mendearen amaiera arte itxarotea kontzepzio horren lehenengo kritikak entzuteko eta XX. mende arte historiaren izaera teleologikoa erabat gaitzesteko.

eta, gertakariei bi azalpen mota ematera mugaturik egon ziren: azalpen naturala eta naturaz gaindikoa. Azalpen naturalak behe-mailan kokatu ziren beti, Jainkozko azalpenen azpitik, zeinak izan baitziren lehen mailako interpretazioen lekua hartu zutenak, gertakarien kausa Jainkoaren borondatearen pean geratzen zelarik beti (Bermejo eta Piedras, 1999: 27).

XV. mendetik XVIII. mendera mugatu genezakeen Aro Modernoa momentu bereziki garrantzitsua izan zen, mundu zientifiko eta intelektualerako berrikuntza nabarmenak ekarri zituelako. Europako testuingurua humanismoaren sorkuntzak eta erlijio-gerrek —erreformak eta kontrarreformak eta protestantismoak zein Trento ondorengo katolizismoak kristauen bizimoduetan zein munduaren ulerkeran ekarri zituzten aldaketengatik— baldintzatu zuten hein handi baten. Horrekin batera, XV.-XVII. mende bitartean Koperniko, Galileo, Kepler, Descartes, Newton eta beste hainbat zientzialari eta filosoforen eskutik Iraultza Zientifiko izena jaso duten hainbat aurkikuntza egin ziren astronomiaren, matematikaren eta fisikaren alorrean. Horren eraginez, kosmosaren funtzionamenduari azalpen berria ematen hasi zitzaion, Erdi Aroko kosmos itxi eta hierarkizatuaren irudia hautsiz eta oinarri matematikoa zuen mundu-ulerkera bat sortuz. Berrikuntza zientifikoek, behaketa astronomikoek eta horren ondorioz gertatu zen eskatologia kristauaren gainbeherak aldaketak ekarri zituzten gizakiek mundua, espazioa eta denbora ulertzeko zuten eran (Díaz Freire, 2014). *Cogito* kartesiarraren sorkuntza ere berrikuntza handia izan zen, zeren Mendebaldeko pentsamendu moderno eta garaikidea errotik baldintzatu duen subjektuaren formulazioa eskaini baitzuen: cogito modernoa, arimaz (*res cogitans*) —naturaz gaindikoa den kontzientziaz— eta materiaz edo gorputzez (*res extensa*) —naturaren parte zenaz eta lege fisikoen arabera funtzionatzen zuenaz— osatutakoa.

Hala ere, historiografiaren alorrean, XVIII. mende arte ez zen sortu teologiatik guztiz banaturik garatutako historiari buruzko teoria edo diskurtsorik. Alegia, bilakaera historikoaren zentzua tradizio biblikoak baldintzatu zuen luzaro. Historia ebidentzia dokumental hutsetan oinarritzen zen ezagutza motaren eredua sortzeko itxaron behar izan zen harik eta pentsamendu ilustratuaren garapena gertatu zen arte. Humanismoak eta iraultza zientifikoak egindako ekarpenek Ilustrazioan sortutako praktika historiografikoei eragin zieten. Erdi Aroan zehar herrialde konkretuetara mugaturik zegoen denboraren ikuspuntu erlatibo eta zatikatua atzean utziz, denbora etorkizunera luzatzen zen entitate absolutu legez ulertzera igaro zen. Aro Modernoan zehar zientzietako aldaketekin lotutako denboraren kontzeptu neurgarria eta kontrolagarria agertuz joan zen, zeina infiniturantz hedatzen baitzen, denboraren ikuspegi matematizatua, alegia. Kristautasunak paradisua eternitatearen eremuan kokatu zuen bitartean —mundu terrenala apokalipsira/amaierara kondenatuz—, mundu-ikuskera berri honek, infinitua mundu materialean kokatu zuen, lege mekaniko eta matematikoen arabera funtzionatu eta azter zitekeen mundu naturalean. Honek guztiak eragin zuzena izan zuen gizakiak bere historia ulertzeko formetan. Kondenaziora bideratuta zegoen gizadi batetik gizakia etorkizunera

begira hobekuntzarako eta aurrerapenerako posibilitate infinituen eremuaren aurrean aurkitzen zen subjektu moderno baten gisa ulertu zelako.

Horrekin batera, metodo zientifikoek eraginda, kausalitatearen legeak aldaketa historikoa zein gizarte eta gizakiaren eboluzioa ulertzeko eta azaltzeko garrantzia berreskuratu zuen eta iturriaren fidagarritasuna bermatzea beharrezkoa bilakatu zen. Testuinguru europarrean Giambattista Vicoren (1668-1744) *Principi di una scienza nuova* (*Zientzia berri baten oinarriak*) (1725) Italian edo Voltaireren (1694-1778) *Essai sur les moeurs* (*Ohiturei buruzko saiakera*) (1756) Frantzian hartzen dira iraganari eta historiari buruzko begirada modernoaren oinarrien hasieratzat. Korronte ilustratuen barnean askotariko ikuspegiak egon ziren eta, hortaz, iragana ulertzeko eta metodoak aplikatzeko era desberdinak egon ziren —Voltaire antiklerikal konbentzitua izan zen bitartean, William Robertson eskoziarra historia filosofikoa eta teologia konbinagarritzat ulertu zituen, esaterako—. Baina, oro har onar daiteke planteamendu ilustratuek, batez ere Erresuma Batuko eta Frantziako giro intelektualetan, desberdintasun nabarmena ekarri zutela Erdi Aroarekin eta Aro Moderno goiztiarrarekin. Zein izan zen aldaketarik garrantzitsuena? Hain zuzen ere, XVIII. mendeko testuinguru intelektualeko eta zientifikoko pentsalariek beren orainaldia eta gizarte-eredua, alegia, Argien Garaia, historiaren joanean momentu singular bat zelako kontzientzia bizia zeukaten (Bentley, 1997: 400). Argiei esker, hau da, arrazoian zeukan fedeari, zientziari eta teknikari esker, gizakiak bere iraganeko kateetatik askatu beharra zeukan eta historiaren zein zibilizazioaren garapenean jarraitu, teknikaren bidez mundu naturalaren eta materialaren ustiaketa eginez. Aurrerapenaren kontzeptu horrek berebiziko garrantzia izan zuen tresna hermeneutiko bilakatu zen historiaren bilakaera ulertzeko. Alde batetik, gizateriaren historiaren garapenari jainkozko botere transzendentalen mediaziorik gabeko zentzua ematen ziolako. Eta bestetik, gizadia hartu zuelako historiaren bilakaeraren subjektu immanentetzat (Bermejo eta Piedras, 1999: 40). Zentzu horretan ulertutako historia tresna teoriko eta moral garrantzitsua bilakatu zen ilustratuentzat, aurrerapenaren ideala, arrazoiaren, ohituren eta moralaren garapena defendatzeko erabili zelako eta oraina iragan pisutsua baino aurreratuagoa zela erakusteko.

«Zibilizazio-prozesu»ari —emozioak, ohiturak eta jarrerak kontrolatzeko, mugatzeko, moldatzeko eta fintzeko prozesuari— emandako garrantziaren ildoari jarraituz, XVIII. mendean korronte historiografiko garrantzitsu bat garatu zen, batez ere Erresuma Batuan, baina baita Europako beste estatuetan ere, Frantzian esaterako, Ilustrazioko praktika historiografikoen artean aipagarriena. Adam Smith, David Hume, William Robertson, John Millar edo Edward Emily Gibbon pentsalariek, besteak beste, garatutako korronte edo ikuspegia izan zen eta «estadioetako historia» izena jaso zuen. Egile horiek nazioen, estatuen eta gizarteen garapen politikoan, ekonomikoan, sozialean eta moralean agertu zuten interesa. Haien ustez, zibilizazio-garaira heltzeko gizarte batek, nazio batek —estatu batek, azken finean— hainbat estadio edo garai historikotatik iragan behar zuten, barbarismo eta egoera basati batetik loraldi ekonomiko eta kulturalaren egoerara

heltzeko. Zibilizazioaren eta zibilizatuaren esangurak idazleen herriei zegokien ereduan oinarritutako definizioari erantzuten zion. Zentzu horretan, historialarien lana gizarteen garapen-legeak ikertzea zen nazioen zibilizazio-maila neurtu ahal izateko (Ka-May Cheng, 2012: 29-61). Egile horien interesa ez zen bakarrik mugatu egitura politikoak, diplomatikoak eta militarrak aztertzera. Zibilizazio-maila egitura sozialen, ekonomikoen, moralen eta sentimentalen arteko konbinazio bat zen. Izan ere, horietako asko —John Millarren *From the Origin of the Distinction of Ranks* (*Mailen desberdintasunaren iturria*) (1771) izanik agian lanik adierazgarriena zentzu horretan— alor sentimentalaren garapenean zentratu ziren. Izan ere, aldaketa historikoaren kausak, aurrerapenaren kausak, gizakiaren eta gizarteen eremu emozionalean eta moralean bilatu ziren hein handi baten. Susma daitekeenez, gizarte eta nazio zibilizatuak zibilizatu gabeko gizarteekin konparatzen ziren eta gaitzesten zen barbarismo hura Europakoak eta Mendebaldekoak ez ziren giza komunitateei egozten zitzaien. «Beste»aren, inzibilizatuaren, azken finean, kolonizagarriaren irudia sortzeko errekurtso ideologiko paregabetzat ere funtzionatu zuten teoria horiek guztiek. Europako muga geografikoetan bertan ere aurkakotasun nazionalak eta belikoak adierazteko, barbarismo, inzibilizazio eta immoralismoaren salaketak gurutzatuz. Ez da kasualitatea, beraz, gizarte eta estatu zibilizatuenak beti izatea historiagile horien jatorrizko herrialdea.

Amaitzeko beraz, Aro Modernoan zehar garatu ziren humanismoaren, iraultza zientifikoaren eta Ilustrazioaren garrantzia berebizikoa izan zen praktika eta teoria historiografikoentzat. Erlijioaren pisua ez zen inoiz guztiz desagertu eta, berehala ikusiko dugunez, arrazoibide teologikoak zientifikoekin nahastu ziren sarri askotan. Baina historiagileentzat giza ekintza eta arrazoia bilakatu ziren aldaketa historikoaren kausa eta norabidearen gidari nagusiak. XIX. mendeko teorikoak eta historiagileak Aro Modernoan zehar arrazoian, objektibotasunean eta zientzian jarri zuten fedearen oinordekoak izan ziren.

1.2. LEOPOLD VON RANKE ETA HISTORIA MODERNOAREN JAIOTZA

Esan dugunez, XVIII. mende bukaeratik eta Aro Garaikideko zibilizazio modernoaren eraikitze-prozesuaren barne, zientziak gero eta ahalmen eta legitimitate handiagoa lortu zuen gizarteko esparru guztietan bere *egia* inposatzeko. Positibismoa izan zen zientziarekiko fede berri horren erakuslerik adierazgarrienetako bat. Benetako ezagutza bakarra zientifikoa zela sinetsirik, pentsamendu positibistarekin bat egiten zutenek zera uste zuten: metodo zientifikoa gizarteen azterketari ere aplika zekiokeela. Planteamendu horietatik abiatuta, uste zuten natura ezagutzeko erabiltzen zen metodo zientifikoaren prozedura historia ikertzeko metodoei ere aplika zekiekeela. Proposamen horren zilegitasuna lortze bidean, garrantzi handia izan zuen Auguste Comtek (1798-1857), soziologiaren sortzailetzat eta positibismoaren sistematizatzailetzat hartzen den adituak. Gure diziplinari dagokionez, Leopold von Ranke (1795-1886) aipatu behar dugu, berak aldarrikatu zuen historialariaren lanak

metodo enpirikoari jarraitu behar ziola eta bera jotzen dugu «Historia moderno»aren aitatzat (Gunn, 2011: 21). Ludger Mess historialariak adierazten digun moduan, testuinguru horretan jaio zen historizismoa edo zientzia historiko berria: Alemanian jaio eta ondoren Europa osoan zehar «instituzionalizatu egiten den eta bere metodologia propioa duen zientziaren» sorrera-garaia izan zen (1995: 15).

Gertaera historikoa —benetakoa, frogagarria eta objektiboa— eta lehen mailako dokumentu ofizialak hartuta berreraikitzen zen hori hartu zuten historialari modernoek beren egitekoaren printzipio funtsezkoentzat. Iraganean gertatutakoa bilatzeko eta zehazteko, ezinbestean idatzizko dokumentuetara jo beharra zegoen, eta horrela hazi zen iturri paleografikoekiko interesa. Historiagintza positibistarentzat, gauzak gertatu ziren moduan erakutsi behar zituen historialariak, eta, beraz, iraganaren kontaketa horretan interpretazioak ez zuen tokirik. Azken finean, iragana berreraikitzeko ahaleginean ziharduen historialariak iturriak ordenatzera mugatu behar zuen bere egitekoa, dokumentuen sistematizazioa egitera, alegia. Edozein formatako injerentziak, izan filosofikoa, teorikoa, interpretaziozkoa zein iritzizkoa, historiak izan behar zuen izaera *zehatza* faltsutzea ekarriko luke. Horrela, metodo zientifikoez eta teknika objektiboez hornitua, gure diziplinak zientzia-izaera lortu zuen eta unibertsitateetan sartu zen.

Positibismoak historian izan zuen eragin hori Europako herrialdeetara iritsi zen, eta bereziki garrantzitsua izan zen, Grezia bezala, independentzia-prozesuetan edo, Italia eta Alemaniaren kasuetan bezala, batasun politikoko prozesuetan murgildurik zebiltzan herrietan. Azken bi herrialde horien kasuetan bezala, aipatutako estatu-nazioen eraikitze-prozesuetan oso garrantzitsua bihurtu zen iragan komunaren inguruko narrazio objektiboa sortzeko beharra. Izan ere, herri-izaeraren existentziaren froga bezala funtzionatu eta Estatua eraikitzeko zilegitasun-iturri bihurtu zen Historia. Nazioen historiaren kontaketa zientifikoa herri horietako agintarien borondate politikoen zilegitasunaren bermatzaile eztabaidaezina bilakatu zen. Beste era batera esanda, zientziaren barruan kontsideratua egoteak izaera inpartzial, objektiboa eta neutrala eman zien iraganari buruzko narrazioei, eta hori, baliagarria suertatu zitzaion bestelako ekuazio politiko bati: errealitateak helburu politiko jakinei arrazoia —eta, beraz, zilegitasuna— ematen zien. Beraz, forma ezberdina hartu bazuen ere, iraganaren kontaketa modernoak antzinatean zuen funtzio soziala betetzen jarraitu zuen nolabait. Hau da, Historiak, belaunaldiz belaunaldi egiten zen transmisioaren bidez herrien eternitatea bermatzeaz gainera, garaiko testuinguru politikoaren zerbitzura egoten jarraitu zuen.

Alemanian agertu zen historiagintza positibistaren ordezkaririk nabarmenena eta eraginkorrena: lehen aipatu dugun Leopold von Ranke, alegia. Batasun-prozesuaren testuinguruan murgilduta, germaniar historiografiak berebiziko garrantzia lortu zuen identitate kolektibo nazionala sendotzeko bidean. Zentzu horretan, nazio-eraikuntza prozesua eta diziplina historiko zientifikoaren garapena eskuz esku joan ziren. Norabide horretan aritu ziren historialariek garaiko filosofo

idealisten planteamenduetatik aldentzeko borondatea izan zuten. Adibidez, garaiko pentsalari idealisten arteko ordezkari adierazgarrienak ziren Immanuel Kanten (1724-1804) eta Georg W. Friedrich Hegelen (1770-1831) ideiei aurre egin zien aipatutako historiografia positibista alemaniar horrek. Historiaren inguruan erromantizismoak ematen zion mitifikazioa eta, bestalde, historiak teologiarekiko eta filosofiarekiko zeukan menpekotasunak abandonatu behar ziren (Mess, 1995: 15). Oro har, eta translazio automatiko eta erabatekoa izan ez zela onartuta ere, esan genezake nazionalismoaren borondateekin bat egin zuen historiografia hori bat zetorrela Berrezarkuntzaren —Antzinako Erregimena berrezartzearen aldeko mugimenduaren— ideiekin; nolabait, Ilustrazioaren garaiko jarrera kontserbadoreekin identifikatu genitzakeen jarrerekin, alegia. Azken finean, Berrezarkuntzaren mugimenduarekin bat egin zutenek garai bateko egonkortasuna galtzen zegoela sentitu zuten. Sentimendu horren arabera, iraultza liberalak —Ilustrazioaren adarrik erradikalenak— eta haien inspirazio-iturri izan ziren mugimenduaren eta aldaketaren ideiak izan ziren (edo ikusi ziren) egonkortasuna arriskuan egotearen arduradun. Izan ere, 1789. urteko Frantziako Iraultzaren ondoren Europako beste herrialde batzuetan zehar ere hedatu egin ziren erregimen monarkikoekin bukatzeko saiakerak. Garaikide batzuek iraultza liberalak ezegonkortasunarekin identifikatu zituzten, *statu quo*aren aldaketa sakon eta erabatekoa ari baitziren ekartzen. Gizarteko zenbait sektoreren artean sekulako ezinegona eragin zuen mundua ulertzeko forma berrien eskutik sortu zen aurreko erregimen politikoaren hausturak. Haien ustez, aldaketa sakonen testuinguru hark kaos absolutu batera zeraman mundua. Horrelakoa izan zen, aipatu bezala, Alemaniako batasun-prozesuaren barruan hedatuz edo gailenduz joan zen izaera kontserbadoreko ikuspuntu nazionalista. Historia zientziari zegokion jakintza bezala aldarrikatzean, datu, gertakari eta iturri konkretu eta materialetan gauzatzen zen gertakarien azaleratzea planteatzean —filosofiaren abstrakzio eta ideia unibertsalistetatik aldenduz—, gizarte-ordena eta egonkortasunaren aldarrikapen bat egiten ari zen.

Historiaren kontzepzioan eragin zuzena izan zuen joera politiko kontserbadore horren baitan kokatu behar dugu Leopold von Ranke, historiagintza modernoaren aita. Haren ustez, giza gertaeretara hurbiltzeko bi era kontrajarri zeuden: literarioa eta zientifikoa. Lehenbizikoa filosofiatik gertu zegoen eta abstrakziozko ikuspuntu bat zuen oinarri; bigarrena historikoa, objektiboa eta pasiorik gabekoa zen. Rankeren ustez, Historiak hausnarketa filosofikoetatik aldendu behar zuen, gauzen izaera unibertsalei so egin gabe, gizataldeen ekintzen baitan orokortasunak ulertzeko borondatea izan gabe eta, funtsean, fenomeno globalen ulerpena helburu izan gabe. Gauza bereziak, partikularrak, are eta ezohiko edo salbuespeneko kontsideratzen diren gertakariak ere izango lirateke historiari berezkoak zaizkion esparruak. Historialari saxoniarraren ustez gertakari guztiak indibidualak baziren ere, ahalik eta gertaera gehien aztertuz gero, historiaren zentzu orokorra ulertzeko aukeraren bat ireki zitekeen, edo behintzat, hori «usaintzera edo susmatzera» iritsi zitekeen (Mess, 1995: 15). Beraz, historialariaren lanbidea zehazturik geratu zen Rankerekin, eta hark

formulaturiko definizio horren arabera, Historia filosofiaren joera abstraktuetatik eta espekulatiboetatik erabat aldendua eta, alderantziz, objektibitatearen eremuan kokatuko litzateke (Hernández, 2004: 53). Horren arabera, historialariaren zeregina gertakarien segida bat burutzea izango zen: erudizioa izango zen oinarrizko lan-tresna, lehen mailako dokumentuak berreraikitze historikoaren legea, eta hermeneutika horien irakurketa egiteko metodologia. Aipaturiko literaturaren prozedura ohikoetatik aldenduz, Rankeren ustez, ez zen zilegizkoa historialariak iturrien literalitatea gainditzea, ezin zitzakeen *gertakizunak* historiatik kanpoko eremuetatik ekarritako apaindurez dekoratu. Aditu saxoniarraren ustez, *errealitate* bat eta *egia* bat leudeke, eta dokumentuek —ofizialek— emango lukete horretara iristeko sarbide *zuzena*. Ikuspuntu horrek iturri idatzi eta publikoei estatus berezia eman zien, zilegitasun eta legitimitate absolutuko estatusa.

Tradizio protestanteko familia batean jaiotako saxoniarraren lanek garrantzi handia lortu zuten laster Alemaniako historia sortzeko bai eta identitate kolektibo nazionala eraikitzeko ere. Rankek XVI. eta XVII. mendeen arteko Europako historia politiko eta diplomatiko erraldoia egin zuen: 1841. urtean Prusiak «erreinuko historialari» izendatu eta hango historia nazionala osatzeko betekizuna egin zion, zeina 1848. urterako prest eduki zuen; hurrengo bi hamarkadetan Frantziari eta Ingalaterrari buruzko lanak ere eskatu zizkioten. Bere obretan oinarria izan zen dokumentu originalen bilaketa sistematikoa burutu zuen, eta, metodologia enpirista erabiliz, iraganaren berreraikuntza objektibo batean oinarritutako *gertakari*en kontaketa egin zuen. Aipaturiko lanotan erabilitako metodologia bere lehenbiziko lanean —arrakastatsuena izan eta historiagintzan aztarna sakon, eraginkor eta iraunkorrena utzi duena— azaldu eta aplikatu zuen: 1824. urtean argitaratu zuen *Geschichte der romanischen und germanischen Völker von 1494 bis 1514* (*Herri Erromatar eta Germaniarren Historia, 1494-1514*) obraz ari gara. Edukiagatik eta, agian garrantzitsuagoa dena, hitzaurrean planteatu zituen lan-metodologia irizpideengatik izan zuen hainbesteko garrantzia Rankeren aurreneko ikerketa-lan horrek. Bertan aipatu zuen historia modernoaren ardatz bihurtu zen ideietako bat:

> Historiari iragana epaitzeko zeregina eman zaio, etorkizuneko egunen mesederako mundu garaikidea irakasteko zeregina. Honako saio honek ez du bere egiten holako funtzio handirik: gauzak, egiatan, gertatu ziren eran erakutsi baino ez dut helburu (Ranke, 1948: 38).

Baina, nola lor daiteke *gauzak, egiatan, gertatu ziren eran erakustea*? Zelan egin iraganeko gertakariak *egiatan gertatu ziren bezala azalarazteko*? Galdera horren erantzunean aurkituko dugu historialari alemaniarraren bigarren funtsezko ekarpena: haren ustez, lekuko zuzenak izan diren dokumentu idatzi eta publikoetara jo eta haien irakurketa zehatza egin behar du historiagileak diziplinaren oinarrizko helburua bete ahal izateko. Lehenago aipatu dugun bezala, adituaren ustetan, badago errealitate eta *egia* bat, eta ikertzaileak badu horretara *iristeko bide zuzena*, nola eta dokumentuen bidez. Errealitate horretara sarbide ematen diguten dokumentuak

izaera publikoko iturri idatziak lirateke. Horiek ziren, Rankeren ustez, errealitatearen gordailu hoberenak, benetakoenak, egiazkoenak, zehatzenak eta iraunkorrenak (Hernández, 2004: 54). Rankek eta haren jarraitzaileek lehen mailako iturri idatziek beren kabuz hitz egiten dutela sinisten zuten, garai baten lekuko izan diren idatziak iraganerako ate irekiak direla, alegia. Horregatik historialariaren iritziak, balorazioak eta emozioak ez dira gertaeren kontaketarekin nahastu behar, ez dute narrazioan parte hartu behar. Historialariak ez du ahotsik, alderantziz, dokumentuei beraiei utzi behar die hitz egiten. Inpartzialtasuna lortzeko, historiagileak momentuko pasioak eta interesak alboratu behar ditu eta, are gehiago, «norberaren izaera ahaztu» behar du, bere «nia ezabatu eta gauzei hitz eginarazi» behar die (Navarro 1999: 95-96). Rankek onartu zuen oso gauza zaila zela subjektibotasunetik erabat askatzea, baina, haren ustez, objektibotasuna jomugatzat edukita, historialariak arbitrariotasunean jauzteko arriskua saihestuko zuen. Zentzuren batean, objektibotasunaren ideiak kontrapisu-funtzioa izango luke. Planteamendu horien defentsaren oinarrian, Rankeren erlijiotasun-sentimendu sakonaren aztarna aurki dezakegu. Izan ere, berarentzat, ikerketa historikoaren lehen baldintza «egiarekiko maitasun purua» zen eta, beraz, historiagilearen «indar moral»aren araberakoa izango zen haren lanetan objektibotasunak lukeen presentzia handiagoa edo txikiagoa. Hein batean, apaizaren jardunbidearekin parekatuz, historialariak, emozioen eta pasioen eremuetatik aldenduta, eta «erabateko inpartzialtasunaren bidez, bere arreta objektuari berari, eta ez beste ezeri» eskaini behar ziola sinetsi zuen (Navarro 1999: 97). Rankeren pentsamendu erlijiosoak bestelako ondorioak ere izan zituen mundua eta denboraren joana ikusteko moduan. Saxoniarraren ustez, herri bakoitza «arnas jainkotiarretik sortua» zen eta, herriko belaunaldi bakoitza «izpiritu jainkotiarraren pentsamendu bat» litzateke (Navarro, 1999: 97). Esan bezala, planteamendu horrekin lotuta, herrien historia ulertzeko denboraren ideia modernotik aldendu zela pentsa genezake. Hori ondoriozta dezakegu jarraian irakur dezakegun haren hausnarketa honetatik:

> Dibinitatearen bidegabekeria bat litzateke belaunaldi oro hurrengoak hobetua izango dela eta, ondorioz, azkeneko hori etengabe hobea izango delako pentsamendua […] nire ustez, ordea, generazio bakoitzak zuzeneko harremana dauka Jainkoarekin; generazio bakoitzaren garrantzia berorren existentzian bertan dago (Navarro, 1999: 94).

Azken finean, Rankeren proposamenaren arabera, Jaungoikoa denboratik at legoke, eta, hortaz, iraunkorra eta historizatu ezina litzateke. Pentsamendu erlijiosoan oinarritzen zen ideia hori Rankeren egitekoaren erdigunean zegoen. Gizonen, herrien eta estatuen arteko interakzioaren erdigunean, historiari zentzua ematen zion Jaungoikoa zegoen. Paradoxikoa gerta dakiguke hori, zalantza gabe. Izan ere, Ranke bera izan zen Historia imajinarioen, filosofiaren, ideia abstraktuen eta literaturaren esparruetatik «askatu» eta egiaztagarritasunaren, arrazoiaren eta objektibotasunaren eremuan kokatu zuena. Egia esan, zientzia *egia*ren iturri bezala agertzen zen neurrian, erlijioaren lehiakide zuzena zen, baina, hala ere, bi eremuen arteko banaketa ez zen erabatekoa izan ez eta bat-batekoa ere. Historia zientziaren alorrean murgildu bitartean, sinesmen eta kontaketa mitikoetatik aldendu bazen ere,

Jainkoaren ideiak toki protagonista bat mantendu zuen Rankeren historiagintzan. Badirudi saxoniarrak nolabaiteko uztartzean edo harremanean jarri zituela bi instantziak, historiaren metodologia zehaztu eta haren zeregina mugatu zuenean. Hau da, Historia iragana *gertatu zen bezala* enpirikoki ikertzen zuen zientzia bezala definitu zuen, eta gertakarien sekuentzia egitetik kanpo zeuden gainontzeko hausnarketak —gertakarien zergatia, nolakotasunaren bilaketa eta abar— zientziatik, eta, beraz, historiatik kanpo geratzen zen esparru jainkotiarrera mugatu zituen.

Rankeren lanen beste ekarpen garrantzitsu batek ikerketa-objektuarekin du zerikusia. Berarekin hasitako historizismoarekin —gertakari historikoen objektibitatearen eta gertakarien arteko harreman kausalik ezartzearen ordez, haien izaera konkretu eta espezifikoaren defentsa egiten duen jarrera— lotua, subjektu historiko berri baten aldarrikapena egin zuen Rankek: izaera organikoa izango lukeen estatu-nazioarena. Haren pentsamendu erlijiosoaren eta nazionalistaren ikuspuntutik ulertutako nazioak egon ziren Rankeren obren erdigunean, eta estatu-gizon handiak, eliteak, politika diplomatikoak eta klase boteretsuak identifikatu zituen nazio horietako eta, beraz, historiaren protagonista bezala. Rankek ezagutza objektiboa eta inpartziala lortzeko metodo historiografikoa garatu zuen, baina, lehenago adierazi dugun bezala, egiatan orainaldiaren *estatu quo* politikoa eta erlijiosoa indartzeko instrumentu bilakatu zen. Zentzu horretan ez da kasualitatea Rankeren historiaren kontzepzioan Estatua elementu klabea izatea (Iggers, 1997: 26). Ezagutza zientifikoa aurrerapenerako baldintza zen, eta historia nazioen, estatuen eta gizakien aurrerapen hori ziurtatzera zetorren iraganari buruzko zientzia bilakatu zen. Logika horretan, Historia, diziplina profesionalizatu gisa, nazioen legitimaziorako ezinbesteko ezagutza bilakatu zen, ez bakarrik iraganeko handitasun nazionalak ezagutzeko, baizik eta, orainaldiari begira, jarrera politiko jakinen zilegitasuna bermatzeko eta, etorkizunera begira, nagusitasun horren garapena bermatzeko ere. Dena den, adierazi beharra dago, historizismoaren bigarren belaunaldia izan zela Rankek ezarritako oinarrien instrumentalizazio politikoa era erradikalagoan gauzatu zuena (Mess, 1995: 16).

Rankek berehala irabazi zuen onarpen soziala eta erreferentzia eta historia positibistaren ordezkaririk bikainena bihurtu zen Mendebaldeko historialarientzat. Haren lanak egiteko orduan erabilitako metodoek sekulako iraultza ekarri zuten eta historiagintza-eredu berri bati eman zioten hasiera, ondorengo belaunaldietako historiagileek berak hasitako bideari jarraitu ziotelako. Saxoniarrak proposatutako pausoei jarraituz, «edonolako elementu subjektiboa kanpoan uzten zuen prozesu edo metodo bat erabiliz», posible izango litzateke iragana ezagutzea (Pons, 2008: 136). Era horretara, Rankeren lanen agerpenetik historia zientziaren eremuan sartu zen eta herrien mito eta bestelako kontaketa historikoen erabateko deslegitimazioa etorri zen. Lehen mailako iturri idatzietan oinarritutako narrazioen zalantzagabeko legitimazio sendo eta irmoaren aro luzea hasi zen. Gaur egun oraindik dirauen eta garai batean nagusi izan zen errealismo objektibista batera egokitutako estiloa gailendu zen (Hernández, 2004: 53). Aurrerantzean pentsaezina izango zen

iraganaz gutxieneko zilegitasunez eta sinesgarritasunez hitz egitea, dokumentu idatzi ofizialetan oinarritutako ikerketa historikoaren emaitzak kontuan izan gabe. Horrela sartu zen Historia XX. mendean, sinesgarritasun eta ziurtasunezko egoera indartsu batekin. Horren adierazle esanguratsua da 1900. urtean egin zen Zientzia Historikoen Nazioarteko Lehen Kongresuan egindako aldarrikapena: Historia giza zientzien *zientzia gidari —sciemce maîtresse—* bezala aurkeztu zuten. Garapena, zientzia eta positibismoa fede berri bezala nagusitu ziren testuinguru horretan «metodo zientifiko»aren handitasuna aldarrikatu egin zen, historiarentzat ere bai. Historia iragana aztertzeko gaitasuna zuen zientzia izateaz gain, etorkizun egonkorra kontrolatzeko edo bermatzeko ahalmena ere bazuen: politikari ideala historialari perfektua izango zen (Carreras, 2002: 14). Izan ere, ikusi dugunez, XIX. mendean zehar gertatu zen historiaren instituzionalizazio-prozesuak bere alderdi ideologiko eta instrumentala izan zuen —nagusiki Alemaniako kasuan— (Iggers, 1997: 23-31).

Ideia horiek nabarmenki gailendu baziren ere, ez dugu XX. mendera arte itxaron behar positibismoari egindako kritikak ikusteko. Garaikide batzuek ere zalantzan jarri zituzten planteamendu horiek, historiagintzak eta natur zientziek ezin zituztela ikerketa-metodo berberak erabili arrazoituz eta zientzia eta metafisika bereizi beharra aldarrikatuz. Hala ere, pasa den mendeko erdialdera arte itxaron beharko zen azaldu ditugun historia modernoaren fundamentuak zalantza sakoneko egoeran jar zitezen. Rankeren garaikideak izan ziren Friedrich Engelsek eta Karl Marxek ere saxoniarraren metafisika eta zientziak uztartu zituzten, era, hori bai, erradikalki diferente batean oraintxe ikusiko dugunez.

1.3. KARL MARX ETA MATERIALISMO HISTORIKOA

Jakina denez, Friedrich Engelsek (1820-1895) eta, batez ere, Karl Marxek (1818-1883) idatzitako lanetan jasotzen dira gerora materialismo historikoa deitu izan denaren oinarri teorikoak. Materialismo historikoa aldaketa soziala eta mundua ulertzeko eragin handia izango zuen corpus teoriko berritzailea izan zen. Engelsek 1850ean argitaratutako *Der deutsche Bauernkrieg* (*Nekazari gerra Alemanian*) liburuaz aparte aipatutako bi autoreek historia-liburu bezala ulertzen den obrarik idatzi ez bazuten ere, haien lanak erreferentzia eta zentzu historikoz josita daude. Gainera, euren obra teorikoetan kontzeptu edo kategoria ugariri azalpen historikoak emateko baliagarritasuna eman zieten, hala nola «produkzio-indarra», «produkzio-harremanak», «klase-borroka» eta «azpiegitura eta gainegitura» kategoriei. Gizartearen iragana, baita oraina eta etorkizuna ere, ulertzeko modu berri eta iraultzaile bat proposatzea eta ikerketa historikoan aplikatzeko marko analitiko zabal bat eskaintzea izan ziren, besteak beste, bi autore horiek utzitako ondarerik esanguratsuena. Gerora izan duten eraginarekin alderatuta, XIX. mendearen bigarren erdialdean bi autore horien ikuspuntu teorikoak irismen txikia izan zuen ikerketa historikoetan. XX. mendean iraultza boltxebikearen garaipenaren ondorioz haien lanek eragin handiagoa lortuko zuten. Ikusiko dugun bezala, eragin hori, besteak beste,

iragana aztertzeko orduan marxismoaren corpus teorikoan oinarrituko diren korronte edo eskolen sorreran gauzatuko da. Denboran zehar marxismoaren paradigma teorikoak aldaketak jasan ditu eta, ondorioz, aldaketa soziala azaltzerakoan korronte edo adar batzuek beste batzuek baino pisu handiagoa emango diote ekonomiari. Hala ere, bakoitzak dituen berezitasunak garrantzitsuak direla ahaztu gabe, historiaren ikuspuntu marxistaren barruan kokatzen diren lanek beren ikerketen erdigunean izan zituzten zenbait arazo edo gai, hala nola industria-iraultza eta industrializazioa, feudalismotik gizarte industrialera doan trantsizioa, langile-klasearen *sorrera* edo *formakuntza* eta langile-mugimendua. Akademian ez ezik, Marxen ideiek XX. mendeko gizarteek munduaren inguruan zuten ikusmoldean ere berebiziko eragina izan zuten, batez ere, mundua aldatzeko bidea erakusten zutelako.

Zalantzarik gabe, bizi izan zituzten aldaketa sakonek inspiraturik garatu zuten Marxek eta Engelsek errealitate soziala eta historia ulertzeko jorratutako ikuspegi teorikoa. Horrela, historiografian luzaroan sekulako eragina izan duen materialismo historikoaren sorreran berebiziko garrantzia izan zuten XIX. mendeko testuinguru sozioekonomikoak eta teorikoak, hau da, modernitatearen ikur izango ziren industrializazioak eta kapitalismoak batetik, eta zientziaren ideiak, bestetik.

Bi autoreek Europaren industrializazioaren eta liberalismo ekonomikoaren garapenaren testuinguruan idatzi zituzten euren obrak, gizartearen esparru desberdinetan ordena burges-kapitalista finkatzen ari zen garaian, alegia. Aipatutako liberalismo ekonomiko klasikoak harreman estua izan zuen Ilustrazioarekin garatu ziren indibiduoaren zentralitatearen eta askatasunaren ideiekin. Iraultza liberalekin gailendu zen askatasun indibidualaren ideia ekonomiari ere aplikatu zitzaion. Alor horretan ere liberalismoaren askatasunaren kontzeptua jaun eta jabe zen eta, horrela, merkatuari erabateko askatasuna eman behar zitzaion, inolako mugarik jarri gabe, izan ere, ekonomiak lege naturalen (eskaintza eta eskariaren legea) arabera funtzionatu behar zuen. Merkatuan parte hartzen zuten faktore guztietara aplikagarria zen askatasunaren kontzeptu hori, eta zentzu horretan, soldatak ere, merkantzia soilak kontsideratuak ziren neurrian, lege horren menpe zeuden. Liberalismoaren oinarriak ekonomian aplikatzean, herrialdeen panorama produktiboa errotik aldatzen hasi zen. Aldaketa horrek ondorio sozial garrantzitsuak izan zituen, eta klase-gizartearen sorreraren testuinguru horretan erabateko gehiegikeriak egin ziren: erabateko askatasunaren izenean, burgesiak egundoko irabaziak egin zituen bitartean, langileriaren egoerak izugarri egin zuen okerrera. Langileen lan-egoera tamalgarriaren aurrean ugazaben borondatea gailendu zen, eta lege naturalen justifikazioaren izenean, langileen eskubideak umezurtz geratu ziren. Mugarik jartzen ez zitzaion kapitalismo horrek eragiten eta sustatzen zuen langileen egoera lazgarriak kezkak sortu zituen zenbait autore garaikideren artean. Hain zuzen ere, Marxen eta Engelsen ekarpenen aurretik, XIX. mendearen bigarren erdialdean nagusituko zen liberalismo ekonomiko klasikoaren aurrean, eredu alternatiboak proposatu zituzten joera goiztiarrak ere egon ziren, esaterako ludismoa, kartismoa edota hausnarketa teoriko handiagoa zuen sozialismo utopikoa. Marxismoa

sozialismo utopikoaren proposamen teoriko erreformistetatik eta idealetatik aldendu zen. Marxek garaikideak zituen aipatutako jendarte-aldaketa sakon horiek ikuspuntu kritiko batetik jorratu zituen bere idazkietan. Hain zuzen ere, materialismo historikoa kapitalismoari eta burgesiaren nagusitasunari egindako kritika erradikala izan zen. Bestalde, aipatzekoa da ere Marxek eta Engelsek garatutako historiaren kontzeptua ordura arte burgesiak garatutakoarekiko haustura bat izan zela (Pagès, 1983: 173). Gizarte modernoaren sorrerarekin, merkatuko indarren liberalizazioarekin eta fabrika-industriaren garapen bizkorrarekin sortu zen testuinguru horretan zabaldu zen errealitate soziala ekonomiak eta teknologiak determinatzen zutelako ideia, zeren merkatuaren askatasun hura langileen bizi-baldintza penagarrien arduradun zuzentzat hartzen baitzen (Bilbao, 1997: 35). Marxismoak, hain zuzen ere, ideia horretatik edan zuen. Baina Marx eta Engels ez ziren mugatu garaiko politika ekonomikoaren kritika garatzera. Haien lanetako proposamenak eta hausnarketak alor teorikoa gainditu zuten, borondate politiko eta iraultzaile nabarmena zutelarik. Hala, aipatutako autoreek ekintzarako deia ere egin zuten. Ideia horren adierazlerik esanguratsuena 1848an kaleratutako *Manifest der Kommunistischen Partei* (*Alderdi Komunistaren Manifestua*) liburuxkan egindako «Herrialde guztietako proletarioak, elkar zaitezte!» ekintzarako deia dugu, XX. mendeko belaunaldi desberdinetako langileen borrokaren lema bihurtu zen deia, alegia.

Bestalde, modernitatean indarrean zegoen zientziarekiko mirespena ere marxismoaren ezaugarrietako bat izango zen. Aurretik ikusi dugun bezala, garai horretan zientzia naturalen eta gizarte-zientzien oinarrien arteko muga lausoa zen eta gizarte-zientzien barruan zeuden diziplinetan lan egiten zuten autoreek zientzia naturalen izaera hartzeko joera egon zen (Bilbao, 1997: 45). Hala, Marx eta Engels beren garaian nagusi ziren ideiez hornitu ziren euren obrak idazterakoan. Hain zuzen ere, zientziaren eta progresoaren, Auguste Comteren ikuspuntu positibistaren eta Charles Darwinen eboluzioaren inguruko ideiez baliatu ziren. Zentzu horretan, Marxen pentsamenduan «klase-borroka eboluzioari eta zientziak gidatutako Progresoari lotu zitzaion» (Etxebarria, 2015: 145). Rankeren jarreraren kontrako norabidean, Marxek zientzia eta filosofia uztartu zituen, zientzia giza ekintzen ebaluazioari aplikatuz. Hau da, Marxek historiaren eta zientziaren arteko harremanarekin kezkaturik, giza historiaren nondik norakoak ahalbidetu edota eragin zuten lege unibertsalak bilatu nahi zituen. Nagusitasuna lortze aldera, garaiko korronte sozialisten arteko lehia zientziaren eremuan eman zen. Horrela, orduko ekonomialari desberdinen antzera, Marxek bere burua zientifikotzat zuen eta 1867an kaleratutako *Das Kapital* (*Kapitala*) liburuaren lehen liburukian adierazi zuen bezala, bere helburua, zientzialari bezala, ekoizpen kapitalistaren lege naturalak ikertzea zen, behar sendoz jarduten eta ezartzen diren legeak, alegia. Horrela, Marxek sozialismoari izaera edo oinarri zientifikoa eman nahi izan zion eta Engelsekin batera garatu zuen materialismo historikoaren teoria aldaketa historikoa azaltzeko modu zientifiko gisa ulertu zuen. Marxek eta Engelsek garatutako sozialismo zientifikoa, hau da, munduari begiratzeko teoria filosofikoa zientziarekin uztartzen zuena eta

sozialismo utopikoari kontrajartzen zitzaiona, behaketa eta ikerketa enpirikoan (ez sozialismo utopikoa bezala, filosofia espekulatiboan) eta materialismo dialektikoan oinarrituko litzateke.

Modernitatean ezagutza metatze-prozesu bat bezala ulertzen zen, jendarteak aurrera egitea eragiten zuen jakintzaren pilaketa bezala (Gunn, 2011: 136). Aurrerago ikusiko dugunez, Jean-François Lyotard eta Jürgen Habermas filosofoek modernitatearen eta postmodernitatearen inguruan izandako eztabaidan, biek ala biek adierazi zuten modernitatea ezagutzarekin eta, zehatzago, arrazoiarekin, objektibitatearekin eta progresoarekin lotzen zela. Marxek ere ideia horietatik edan zuen. Zentzu horretan, renaniarraren aburuz, ezagutza zientifikoa progresiboa zen, hau da, pilatu egiten zen, eta ezagutza-pilaketa horrek gizarteak aurrera egitea ahalbidetzen zuen. Hori horrela, esan dezakegu marxismoak bete-betean egin zuela modernitatearen progresuaren ideiarekin. Aurrerapenaren ideia horrek jendarteak etorkizun oparo batera iritsiko zelako promesa eskaintzen zuen, aurrera egiten ari zelako ilusioa inplikatzen zuelarik. Eta ideia hori da, hain zuzen ere, *Manifestu*an jasotzen den lelo ezagun baten —eta historia garaikidean eragin handia izan duen— oinarrian dagoena. Era honetara agertzen da laburbildurik Marxen eta Engelsen testu ezagun hartan: «Proletarioek beren kateak baizik ez dituzte galtzeko. Mundu bat dute irabazteko» (2004: 270). Hobekuntza teknikoei eta zientifikoei esker gizartean emandako aldaketekin jendartea perfekzio sozialaren bidean zihoala uste zen. Ikuspuntu horrek hainbat interpretazio izan zituen: esaterako, arrazaren perfekzioaren ikuspuntu batetik, perfekzio-estadiorik gorenak gizon burges zuriaren menperatze mundiala ekarriko luke. Marxismoarentzat, ordea, perfekzio sozial hori klaserik gabeko gizartearen finkapenarekin, hau da, komunismoarekin lortuko litzateke. Beraz, diogunaren harira, XIX. mendean zehar, korronte positibistarekin paraleloan, autoreek, gaur egun euren garaiko *alemaniar* filosofia izendatzen denaren kritikatik abiatuz, ustez zientzian oinarritzen zen historia ulertzeko marko teoriko berri bat garatu zuten. Haien lanek, jarraian ikusiko dugun bezala, historiaren kontzepzio materialista zuten oinarritzat.

Bada, nola ulertzen zituzten mundua eta historia Marxek eta Engelsek? Hegelen eta Feuerbachen ideiek eragin handia izan zuten Marxengan eta Engelsengan eta, izan ere, bi autore horietan oinarritu ziren beren materialismo dialektikoa garatzeko orduan. Marxek bere egin zuen mugimenduan oinarritzen zen Hegelen dialektika. Dialektikak gertakariek, euren baitan, kontraesana daramatela defendatzen du, eta Marxen aburuz, kontraesan hori da, hain zuzen, aldaketa historikoaren eragilea. Garaikidea zen Rankek hasiera eman zion historiagintzak gertakari partikularretan jartzen zuen arretari, orokortasunarekin loturik egin gabe. Orduan nagusi zen ikuspuntu horren kontra, Marxen lan teorikoen ekarpenetako bat historiaren izaera dinamikoa, dialektikoa, gatazkatsua, azpimarratzea izan zen. Bestalde, 1845ean idatzitako *Thesen über Feuerbach* (*Feuerbachi buruzko Tesiak*) obran aditzera eman zuen bezala, ordura arte, filosofia mundua interpretatzera edo ulertzera mugatu zen, baina, Marxen aburuz, diziplina horren helburuak mundua eraldatzea izan beharko

luke. Marxek eta Engelsek historiaren ikusmolde materialista bezala ezagutzen diren ideiak garatu zituzten 1846an *Die deutsche Ideologie* (*Ideologia Alemaniarra*) liburuan. Bertan, Hegelen planteamenduetatik aldenduz, bilakaera historikoa mundu materialarekin lotu zuten, hau da, garapen ekonomikoarekin, produkzio-moduen eraldaketekin eta ondorioz gizartean sortzen den klase desberdinen banaketarekin eta klaseen arteko borrokarekin. Haien inspirazio-iturri garrantzitsua izan zen Hegelen arabera, historia ideien eta adimenaren bidez garatzen zen, gizakiok munduarekiko eta geurekiko kontzientzia areagotzen zihoan heinean. Hala, pentsalari horren aburuz ideiek, pentsamenduek eta kontzeptuek gizakia, haren baldintza materialak eta haren bizitza erreala sortzen, determinatzen eta menderatzen zituzten. Ekuazio edo baieztapen hura irauli zuten Marxek eta Engelsek: «Kontzientziak ez du bizitza determinatzen, baizik bizitzak determinatzen du kontzientzia» (Marx, 2004: 183). Marxek gizateriaren historia mundu materialarekin, ekonomiarekin eta lanarekin harremanean ulertuz, oinarrizko ekintza historikoa bizitza materialaren ekoizpena zela argudiatu zuen, hau da, indibiduoen beharrak asetzea ahalbidetzen duten bitartekoen ekoizpena. Izan ere, haren aburuz, lanak egiten gaitu gizaki, norbanakook lan egiteko dugun gaitasunak bereizten baikaitu animaliengandik. Errealitate materialak indibiduoak, gizartea, baldintzatzen dituelako ideiak sekulako eragina izan du, eta oraindik ere badu, historiagintzan. Are gehiago, ideia hori, Rankeren objektibitatearen ideiarekin batera, XX. mendeko korronte historiografiko askoren muinean egon da.

Aipatutako *Alderdi Komunistaren Manifestua* agiri ezagunean ere, ideia hori azpimarratzen da. Jatorrian 1847an eratutako Liga Komunistaren manifestu fundatzailea izan zen liburuxka horretan esaten da produkzio-moduak gizarte bateko bizitza politikoa eta soziala itxuratzen dituela. Hau da, produkzio-moduak gizarteko gainontzeko jarduerak baldintzatzen dituela, hala nola politikoak, judizialak, kulturalak, erlijiosoak eta ideologikoak. Hori azaltzeko, eraikinaren metaforaren bitartez produkzioaren (azpiegitura) eta politikaren, ideien eta Estatuaren (gainegituraren) arteko harremana deskribatu zuten. Autoreen aburuz, gizarte baten azpiegitura oinarrizkoa izango litzateke eta gizartearen gainegitura determinatuko luke. Hala, materialismo historikoak analisi soziala egitean lehentasuna aitortzen zion egitura ekonomikoari, baldintzatzen zituelako gainegitura osatzen zuten gainontzeko elementuak (politika, legeak, kontzientziaren eta sinesmen sozialen garapena, etab.). *Manifestuak,* langileen alderdi politikoak eta elkarteak ugaritzen joan ziren heinean, egonezina sortuko zuen, batez ere, agintarien artean, *mehatxu gorri*aren beldur baitziren. Lan horretan planteatutako kausalitate historikoa ulertzeko aipatutako modu berritzaile hark, hots, gizarte-egituraren eta aldaketa sozialaren inguruko ikuspuntu eta azalpen-ereduak, gerora, eragin handia izango zuen historiografian. Baina historiografian ez ezeik, historian ere oihartzun handienetakoa izan duen agiri politiko horren eragina XX. mendeko mundu osoko alor politiko, ekonomiko eta sozialean nabaritu zen, eta, *Manifestu Komunista*ren ideietan inspiratuta, erregimen komunista ugari aldarrikatu ziren.

Bestalde, Marxen aburuz, produkzio-bideen eta produkzio-harremanen arteko kontraesanak bultzatzen zuen historiaren garapena. Hau da, kontraesana eutsiezina zenean, produkzio-modua iraultzaren ondorioz aldatzen zen. Produkzio-indarren eta produkzio-harremanen izaeren arabera produkzio-modu desberdinak sortuko dira. Historian zehar, bata bestearen ondoren eta halabeharrez, lau produkzio-modu egon zirela baieztatu zuen: komunala edo primitiboa, esklabista, feudala eta kapitalista. Horrela, Marxek eta Engelsek jendartearen historia halabeharrez bata bestearen ondoren zetozen etapa desberdinen ezarpen gisa deskribatu zuten. Iraganeko aldi desberdin guztietan eta bakoitzean, beraz, bi klase sozial antagonikoen arteko gatazkatik, aldi oro, produkzio-modu berri bat sortzen zela argudiatu zuten. Hau da, garai bakoitzeko produkzio-moduak, bera suntsituko zuen klase soziala zuen bere baitan (ikuspuntu dialektikoa da hau: tesia, antitesia, sintesia). Marxen aburuz, produkzio-indarren garapenak oreka eza eta gatazka eragiten ditu gizartean. Gizarte-iraultzako etapa bat zabalduko litzateke orduan, klase-borrokaren bitartez produkzio-modu berri bat ezarri arte. Horrela, aldaketa soziala, eta beraz historia, klase-borrokaren ideian oinarritu zuten: «Orain arteko gizartearen historia klase-borroken historia da» (Marx eta Engels, 2013: 51). Aldaketa soziala nola gertatzen den azaltzen duen eskema hori kapitalismoari aplikatu zioten. *Kapitala* obran produkzio-modu kapitalista sakonki aztertu zuen Marxek. Produkzio-modu horretan funtzio ekonomiko propioak zituzten bi klase antagoniko zeudela argudiatu zuen: burgesia eta proletarioa. Burgesia nagusitasuna zuen klasea izango litzateke, produkzio-bideen jabego pribatua haien esku egongo litzateke eta soldata pean zituen langileen lanetik eratorritako ekoizpenak merkatuan zuen gainbalioa bereganatzen zuen. Proletarioek, aldiz, klase menderatua osatzen zuten, produkzio-bideen jabegorik ez zuena eta, hortaz, soldata baten truke lan egitera behartua zegoena, soldata ekoitzitako produktuak merkatuan zuen balioa baino baxuagoa izango litzateke. Burgesiak langilearen lanaren zati bat —gainbalioa— lapurtuz aberasten zela argudiatu zuen. Beraz, ideia horri jarraituz, bi klase horien arteko harremana esplotazioan oinarrituta zegoela adierazi zuen Marxek, eta talde bakoitzaren interes kontrajarriak izango lirateke aipatu dugun klase-borrokaren oinarria.

Iraultza egiteko baldintza subjektibo nagusia proletariotzak bere klase-interesak bere egitea da, hau da, klase-kontzientzia hartzea. Izate soziala da, hots, existentzia-baldintza materialak dira kontzientzia hura determinatuko dutenak. Baina, Marxek zioen langile guztiak ez zirela beren klase egoeraren jakitun eta, hala, bi langile mota bereizi zituen: alde batetik jakitunak, hots, euren klase-interesak ezagutzen eta defendatzen zituztenak, eta, bestalde, euren existentzia-baldintza materialak ezagutzen ez zituztenak, alienatuta zeudenak, alegia. Azken horiek «kontzientzia faltsua» zutela adierazi zuen. Garaikidea zuen produkzio-forman ere, kapitalismoan, iraultzarako etapa bat zabaltzen ari zela iragarri zuen. Kapitalismoa garatzen zihoan heinean langile kopurua ere handitzen ari zen, eta horien guztien batasunetik sortuko zen borrokaren ondorioz, eta gainontzeko aldi historikoetan gertatu bezala —besteak beste, aipatutako Hegelen ideietan inspiraturik eta kapitalismoaren

barne-kontraesanetatik abiatuz—, halabeharrezko burgesiaren eta kapitalismoaren suntsipena eta sozialismoaren garaipena gertatuko zela iragarri zuten (Marx eta Engels, 2004: 251). Hortaz, sozialismoaren garaipena langile-klasearen botere iraultzailearen jardunaren eskutik ezarriko zen. Klaserik gabeko gizartea, komunismoa, ezartzea zen helburua, gizateria esplotaziotik eta zapalkuntzatik askatuko zuen produkzio-modua, alegia. Arestian aipatu bezala, modernitatean zientziak, halabeharrez, aurrerabidea zekarrela zirudien, eta aurrerabideak esanahi positiboa zuen. Ikus daitekeen moduan, marxismoa Ilustrazioaren barruan sortutako filosofia baikorra izan zen, etorkizun hobea agindu baitzuen (Bilbao, 1997: 46). Hori guztia dela-eta, hainbat autorek materialismo historikoa teleologikoa dela esan ohi dute.

2. Modernitatearen krisia

Zientifizismoarekin batera, XIX. mendeko historiagintzaren ezaugarrietako bat haren ikuspuntu teleologikoa izan zen. Alegia, uste zuten gizadiaren historiaren joanak norabide bat zeramala. Ideia hori pentsamendu kristauak indarrean jarri zuen, baina Ilustrazioak, historisizmoak zein marxismoak, bakoitzak bere ezaugarriekin, ikuspuntu teleologikoa sartu zuten historia ulertzeko beren ereduetan. Objektibitatearen aldarrikapenak etengabe egiten ziren arren, korronte bakoitzak ikertutako objektuek —izan gizadia, estatu-nazioak edota klase-borroka— historiaren joanean norabide bat zeramatela eta funtzio bat (morala, erlijiosoa edota ekonomikoa) betetzen zutela uste zuten.

Aro Garaikidea proiektu modernoaren garapenean sartu zen bete-betean. Industrializazioak, estatu-nazioen sorrerak, liberalismoen sendotzeak eta aurrerapen teknikoekin batera kapitalismoaren garapenak gizakia aurrera begira jarri zuten etengabeko bilakaera-prozesu baten. Mundu-ikuskera horretan, gizakia entitate ahalguztiduntzat agertzen zen: iraganeko kateetatik aske, teknika eta arrazoiaren bidez bere ingurua eta etorkizuna konkistatzeko gai zen. Testuinguru sozioekonomiko horretan, marxismoak metodo zientifikoak gizakiaren historiari buruz ezagutza objektiboa sortzeko zeukan gaitasunean itxaropena konpartitu zuen XIX. mendeko beste korronte historiografiko garrantzitsuena izan zen Leopold von Rankek edota August Comtek jorratutako historizismo eta positibismoarekin. Rankeren zein Marxen aburuz, ezagutza baldintzatzen zuten alderdi ideologikoak agerian utziz, posible zen ezagutza objektiboa lortzea. Aurreko historialarien eragina jasoz eta dialektika hegeliarrean oinarrituz, materialismo historikoak gizakiaren historia azaltzeko metodo zientifiko unibertsal bat sortzea zuen helburu. Beraz, baiezta genezake XIX. mendean zehar iragana ulertzeko hurbilpen zientifikoak sortzea izan zela teorialari garrantzitsuenen helburua. Lehen eskuko dokumentua eta artxibategia bihurtu ziren iragana irakurtzeko iturri fidagarri bakarra eta horien behaketa zehatzak erakutsiko zuen nolakoa izan zen iragana era aseptiko eta neutral baten. Iragana objektu eta datu behagarriek osatzen zuten eta historiak horiek *gertatu ziren moduan* ezagutzeko metodoa gara zezakeen.

XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen lehen erdialdeko hamarkadetan zehar historia eta errealitatea ulertzeko eta egiteko eredu horien kritiketatik sortu ziren korronte historiografiko berriak. Kritika goiztiarrenak Friedrich Nietzsche edota Walter Benjamin teorialariek sortu zituzten. Frantziako École des Annales ere

30eko hamarkadatik aurrera subjektu historiko berriak aztertzen hasi eta denbora ulertzeko eredu berriak proposatu zituen. Horrekin batera, marxismo klasikoaren kritikatik abiatu zen historia sozialaren garapenak izugarrizko garrantzia izan zuen. Estrukturalismoaren garapenak, halaber, alor historiografikoan ere eragin handia izan zuen. Eta historia kulturalaren gorakadak aztergai eta ikuspuntu pluralagoak eta zabalagoak ekarri zituen.

2.1. MODERNITATEAREN EZINEGONA

XIX. mendearen amaierarako modernitatearen proiektu zientifista eta emantzipatzailearen izaera engainagarri eta ideologikoa desestaltzeko lehen saiakerak egin ziren. XIX. mendearen amaieran, Friedrich Nietzschek (1844-1900) «Hil da Jainkoa» lemaren bidez argitara eman nahi izan zuen ez zegoela jada inolako egia absoluturik justifikatzeko modurik (Munslow, 2006: 187). Moralitate kristauari egotzitako kritika basatiaz gainera, Nietzschek zalantzan jarri zuen modernitateak giza arrazoiari errealitatearen inguruko ezagutza fidagarria sortzeko aitortu zion ahalmena. Ikuspuntu arrazionalistentzat hizkuntzak errealitateko «egitateak» eta «datuak» deskribatzeko eta azaltzeko gaitasuna zeukan, alegia, ezagutza objektiboa eta unibertsala —zientifikoa— sortzeko gaitasuna. *Dagoena* erakusteko bidea litzateke. Baina egile alemaniarrak hizkuntzari eta zientziari egindako kritika hau zen: hizkuntzaren kategoriak objektiboak eta beharrezkoak izan beharrean, kulturalki baldintzatutakoak zirela aldarrikatu zuen, hau da, arbitrarioak. Horren adierazle izan zen 1873ko haren Über Warheit und Lüge im aussermoalischen S*inne* (*Egiaz eta gezurraz moraletik kanpoko zentzuan*) saioa. Testu horretan azaldu zuenez, zientziaren eta objektibotasunaren hizkuntzak zerabiltzan ustezko kategoria objektiboak interpretazioak, balorazioak, ideologia pertsonalak edota botere-nahi partikularrak justifikatzeko diskurtsoen parte dira. Objektibotasunaren diskurtsoek sofistikazio-puntu garrantzitsu bat daukate, kategoria arbitrarioak denboraren eta erabileraren poderioz «datu» eta «egitate» legez finkatu eta fosilizatzen direlako beren izaera interpretatiboa maskaratuz. Nietzscheren ustez, historia ez zen ustezko ezagutza objektiboa lortzeko botere-nahi horretatik libratu. 1874. urtean idatzitako *Von Nutzen und Nachteil der Histoire fur das Leben* (*Historiaren erabilgarritasunaren eta kaltearen inguruan*) obran adierazi zuen moduan, objektibotasunaren eta zientifikotasunaren izenean, historiak iraganera luzatutako begiradek eta datu hutsen bilaketek iraganaren singularitate eta izaera kontingentea hiltzen zuten. Gainera arriskua zegoen objektibotasunaren diskurtsoan maskaraturiko narrazio historikoak interes instituzionalak, nazionalak eta politikoak justifikatzeko erabiltzeko.

XX. mendearen lehen erdialdeak erakutsi zuen modernitatearen proiektuak bortizki porrot egin zuela. Zenbait gertakarik Gerra Handia lehenengo eta Bigarren Mundu Gerra geroago izan zituzten emaitzatzat, hala nola inperialismoarekin batera indartu zen harrotasun nazionalen hazkundeak —eta horrekin lotutako lurralde kolonial zabalak kontrolpean izateko «beharrak»—, horren ondorioz sortutako

nazioen arteko konpetentziak, gero eta armamentu sofistikatuagoak lortzeko lasterketak, muturreko ideologien —faxismoaren eta nazismoaren— garapenak eta potentzien arteko norgehiagokek. Gerra horiek eragindako suntsipen-mailak ez zuen inolako aurrekaririk, ez bakarrik Europa mailan izan zuen ondorioengatik, baizik eta mundu mailan izan zituenengatik. Bi gerren ostean, eta bereziki bigarrenaren ondoren, ordura arte indarrean egon ziren aurrerapen zientifiko eta moralaren kontaketa handi eta itxaropentsuei eustea oso zaila izan zen. Mundu «zibilizatu»aren nozio garrantzitsuena izan zen aurrerapenaren ideiarenganako fedea, zeina XVIII. eta XIX. mendeetako pentsamendu historikoaren ildo nagusia izan baitzen, Lehen Mundu Gerraz geroztik krisi sakonean sartu zen (Löwith, 1998: 336). Sentipen horren harira historiaren kontzepzio eta ikuspuntu kritiko berriak garatu ziren, horien artean etorkizuneko historiagintzari begira izan zuen eraginarengatik esanguratsuena Walter Benjaminena (1892-1940) izan zen. Ez da erraza haren lana ezaugarritzea, hainbat diziplinatatik —literaturatik, filosofiatik, historiatik…— eta teoriatatik edan zuelako eta izaera desberdinetako lanak idatzi zituelako. Hemen historiaren alorrari egindako ekarpenaz arituko gara.

Walter Benjaminen azkeneko lan ezaguna historiaren filosofiari buruzko hausnarketa bat izan zen, *Geschichtsphilosophische Thesen* (*Historiaren kontzeptuari buruzko tesia*) 1940an erredaktatua. Bizitzan zehar erromantizismo alemaniarraren eta mesianismo juduaren eraginak jaso zituen bai eta marxismoaren materialismo historikoaren eragin garrantzitsua ere, baina azkeneko horren zantzu eboluzionistetatik eta positibistetatik aldenduta. *Frankfurteko Eskola*ko kideekin eta teoriekin ere harreman estua izan zuen. Ortodoxietatik at iragana ulertzeko modu berezi bat proposatu zuen, zeinak aurrerapenaren eta eboluzio historiakoaren ideiak guztiz suntsitzen baitzituen. Benjaminen lanetik eratortzen denez, historia ezin zen ulertu bata bestearen atzean jazo ziren gertakarien metaketa baten legez. Ezin uler daiteke prozesu koherente, beharrezko eta lineal baten gisara, alegia. Beraz XIX. mendean zehar historiografia akademikotik egin zuten proposamen edo interpretaziotik erabat aldendu zen Benjamin. Nietzschek adierazi zuen antzeko zentzuan, ikuspuntu horiek iraganari begirada totalizantea luzatzen zioten iragana behaketa-objektu autonomo bihurtuz eta orainaldia justifikatuko zuen eta etorkizunaren izaera aurreratuko zuen narrazio lineal absolutu batean integratuz. Benjaminen aburuz, alde batetik, historiaren ikuspegi monolitiko horrek gertakari historikoetan garaituak izan zirenei buruz hitz egitea eragozten zuen. Hau da, nazioen eta estatuen historia ofizial handietatik eta heroikoetatik at geratzen ziren horien ahotsa entzutea eta erredentziolana egitea eragozten zuen. Eta bestetik, historia *continuum* baten gisara ulertzeak arrisku bat zekarren: aurrerapen tekniko eta zientifikoaren ideologia indartzen zuela, hain zuzen.

Egiazki, Benjaminek iragan historikoarekin planteatu zuen harremana konplexuagoa zen eta haren proposamenak orainaldiko subjektuek iraganarekin daukaten harremana problematizatzea zuen erdigune. Aurreko ataletan ikusi dugun moduan, historizismoaren arabera, historiagileak —historizazio-lana egingo duen

subjektuak— iragana ulertzeko bere orainaldiko zantzu guztietatik libre egon behar zuen, fenomeno historikoek esanahi autonomo, independente eta autoebidentea izango balute bezala tratatuz. Haatik, diskurtso horrek, ikusi dugun moduan, tradizionalki orainaldiaren *statu quo*a justifikatzeko medio gisa funtzionatu zuen. Egile alemaniarraren planteamenduak, ordea, aintzat hartu zuen historia ezagutzeko gogoa eta borondatea subjektuek gizakia eta historia ulertzeko daukaten desira batetik sortzen zela. Zentzu horretan, iragana ulertzeko moduak dialektika baten logika hartzen zuen, orainaldia eta iragana harremanean jartzen zituen logika bat. Benjaminen aburuz, iragana ezin zen esanahi autoebidentea zeukan totalitate hil baten gisa irudikatu, baizik eta subjektu desberdinek bizi izandako esperientzia eta eraikuntza material anitz gisa. Zentzu horretan, historia ezin zitekeen ideien eta haien aldaketen hurrenkera huts legez ulertu. Historiak gizaki konkretuen esperientzien berri eman behar zuen, alegia, ideien historia hila baino gehiago, esperientzien historia izan behar zuen. Iraganeko esperientzia singular historiko horien berreraiketak orainaldiarekin zerikusi handia dauka, aipatu bezala, historiagileak bere orainaldiko interesetatik ikertzen duelako iragana. Horrek ez du esan nahi orainaldiak iragana desitxuratuko edo faltsutuko duenik —horixe litzakete, Benjaminen aburuz, historizismo positibistaren ustezko objektibismoak egingo lukeena—. Baina haren proposamenak onartzen zuen iragana berreraikitzeko daukagun bideetan giza memoriak, ikertzailearen subjektibitateak, paper erabakigarria jokatzen duela —aurrerago «memoria» kategoriari buruz jardutean ikusiko dugun moduan—. Zentzu horretan, memoria horri egitura narratiboa ematea litzateke historiagilearen lana[3].

Horrekin batera, Benjaminen ekarpenaren alderdi garrantzitsuenetariko bat zera izan zen: garaileek kontatutako historiatik urrundu nahi izan zuen, historia akademikoa eta profesionala nolabait haien morroi zirela aldarrikatu zuelarik. Horren aurrean, teorialari alemaniarrak zapaldutako eta garaitutako klaseen historia kontatu nahi zuen eta haien memoria berreskuratu. Beste era batera esanda, etorkizunera begira eta gelditu ezinik aurrerapenaren, garapenaren, zibilizazioaren eta zientziaren lorpenen altzoan zihoan lokomotorraren gurpilen azpian trabatuta geratu zirenen historia kontatu nahi zuen. Zentzu horretan, halaber, aurrerapen zientifikoak eraginda zegoen marxismotik aldendu zen, ez zuelako positibismo zientifikoan sinesten eta ez zuelako uste historiak, aurrerapen zientifiko horrek eraginda, langileentzat etorkizun hoberik ekarriko zuenik. Michael P. Steinbergek esan bezala, Benjaminek iraganaren beheko geruzari begiratu zion. Beste era batera adierazita, heroi historiko eta kulturalen ospeak ez zion axola; bai, ordea, haien anbibalentzia eta kontraesanek, historiografia ofizialak alde batera utzitako aspektu ilunak edo garrantzirik gabekoak ziruditenak, baina iraganeko esperientzia singularrak aditzera ematen zituztenak. Kontrarreformak bere garaiko munduaren distiran egin zuen enfasia ikusi beharrean, berak protestantismoak mundu barrokoan ikusitako miseria eta fragmentazioa

3. Walter Benjaminen historiari buruzko pentsamendu konplexua ulertzeko ikusi Löwy, M. (2003): *Aviso de Incendio. Una lectura de las tesis «Sobre el concepto de Historia»*, itzul.: Horacio Pons, Fondo de Cultura Económica, Buenos Aires.

antzeman nahi izan zituen eta Frantziako Bigarren Inperioko kultura ofiziala aztertu beharrean Benjaminek bohemiarren eta modernisten gisako bizitzetan —marjinetan bizi ziren subjektu historikoetan— izan zuen interesa (Steinberg, 1996: 3)

Laburbilduz, Benjaminek orainaldiaren eta iraganaren arteko harremana ordura arte nagusi izan ziren ikuskerak baino era konplexuago baten ulertu zuen. Historizismoaren eta marxismoaren ikuspuntu lineal eta ebolutiboari aurre egin zion eta iragana ulertzeko kontzientzia historiko eta iraultzaile berri bat sortzeko borondatea izan zuen. Geroago ikusiko dugunez, Benjaminek proposatutako tesiak postestrukturalismoarentzat eta postmodernitatearen garapenarentzat oso garrantzitsuak izan ziren eta oro har XX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera historiografia tradizionalaren metodoak zalantzan jarriko zituzten korronteentzat.

2.2. HISTORIA SOZIAL BERRIA: ANNALES ESKOLA ETA ESKOLA MARXISTA BRITAINIARRA

Historizismoaren gainbeherarekin batera, XX. mendeko lehenengo hamarkadetan historiaren ikuspegi berriak sortu ziren. Oro har, historia soziala historia politikoaren ordezkoa edo alternatiba izateko asmoz sortu zen eta bere baitan ikuspuntu desberdinak biltzen zituen. Pertsona entzutetsuek egindako ekintzak aztertu ordez, gizartearen fenomenoak aztertzen zituen joera zen. Oro har, esan daiteke, historia sozialak *zientzia* sozialetatik, batez ere soziologiatik, mailegu metodologikoak eta teorikoak hartu zituzten korronteak biltzen dituela bere baitan. Gizarteko fenomenoak aztertzeko joera hori XX. mendearen lehen erdialdean garatzen joan zen, aurreko atalean aipatu den testuinguru soziopolitikoan. Historia sozialak bere baitan ikerketa heterogeneoak bilduz (Hernández Sandoica, 2004), bi joera historiografiko nagusi desberdindu izan ohi dira: alde batetik, Frantziako Annales eskola, eta bestetik, eskola marxista britainiarra. Zentzu horretan, historia sozialaren garapenaren ondorioz, 1960rako bi korronte horiek oso sendoturik zeuden Frantziako eta Erresuma Batuko alor akademikoan eta beste herrialdetara hedatzen ari ziren. Hala ere, ordurako historia sozialaren azalpen-eredua zalantzan jartzen zuten paradigma kritikoak agertzen hasi ziren.

2.2.1. Annales eskola

Historiagintzaren eredu tradizionalekin kritikoa izan ziren korronteen arteko adierazgarriena eta egun ere eragina daukana Annales eskola izan zen. Korronte historiografiko horrek historiagile asko bildu zituen bere inguruan eta, hortaz, metodologia eta ikuspuntuen aldetik oso heterogeneoa izan zen. Annales eskola *Annales d´histoire économique et sociale* aldizkariaren argitalpenarekin batera sortu zen 1929. urtean Lucien Febvreren (1878-1956) eta Marc Blochen (1886-1944) eskutik. Aipaturiko egile horiek historiografia frantsesean auzi politikoek eta diplomatikoek zeukaten nabarmenkeria baztertu eta beste gai batzuk ere analisi historikoaren objektu izan zitezkeela defendatu zuten (Green eta Troup, 1999: 87).

Febvreren eta Blochen lanek elite aristokratikoen eta politikoen analisien, klase arrunten, gizartearen eta herrialdeen egitura sozialen, geografikoen, materialen, kulturalen eta erlijiosoen ikerketa egin zuten. Horrekin batera, dimentsio horiek beren artean izan zuten eraginari buruz ere interesa agertu zuten. Febvrek 1911. urtean kaleratu zuen bere *Philippe II et la Franche Comté* (*Filipe II eta Franko Konderria*) lan goiztiarrean, XII.-XIII. mendeetako testuinguru naturalak eta egitura materialek Frantziako lurralde horren bizitza sozialaren eta politikoaren garapenean izan zuten eragina landu zuen. Geroagoko lanetan, ordea, gai erlijiosoen eta kulturalen azterketara hurbildu zen. Blocheri dagokionez, bere *La société féodale* (*Gizarte Feudala*) (1939-1940) obrak Erdi Aroko aristokraziaren izaera sozialaren eta ekonomikoaren ikerketa zehatza burutu zuen, nekazariekin zeuzkaten harremanak ere kontuan hartuz. Lurraldeak kudeatzeko orduan talde bakoitzaren ohiturak eta erritualak aztertu zituen. Biek, Febvrek zein Blochek, izan zuten orokortasun-borondatea eta hori izan zen haien ekarpen garrantzitsuena: «historia total» deritzon eredu historikoa garatu zutela, hain zuzen ere. Ikuspuntu horren arabera, gizarteko aspektu oro errealitate historikoaren parte zen, eta, hortaz, analisi historikoarentzat garrantzia zuela aldarrikatu zuten (Green eta Troup, 1999: 88).

Eskola horrek XX. mendean zehar zenbait garapen izan zituen, bai ikuspuntu analitikotik baita ikertu zituzten objektu historikoei zegokienez ere. Fernand Braudelek (1902-1985) egin zuen 50eko hamarkadan ekarpenik garrantzitsuena eta Annales eskolaren beste mugarri bat ezarri zuen, denbora historikoaren eredu berri bat eskainiz. Eskola horren bigarren belaunaldittzat jo izan da garai hura. Haren 1949ko *La Méditerranée et le monde Méditerranéen à l'époque de Philippe II* (*Mediterraneoa eta mundu mediterraneoa Filipe II.aren garaian*) lanak hiru denbora geruzak osatutako kronologia berri bat proposatu zuen. Denbora horietako bakoitza abiadura historiko desberdinean mugitu egiten zela eta bakoitzak objektu eta gai historiko desberdinekin zerikusia zeukala proposatu zuen Braudelek. Lehenengoa denbora geografikoa zen, zeinak iraunaldi luzeko geruza eta historian zehar gertatutako aldaketa geografiko eta klimatiko geldoei erreferentzia egiten baitzien. Bigarrena, iraunaldi ertainekoa, *conjunctures* zeritzana zen, eta hautemangarriak ziren aldaketei erreferentzia egiten zien: ziklo ekonomikoen aldaketak, merkantziak, populazioaren aldaketak etab. Azkenik gertakarien historia zegoen, zeina aldaketa efimeroetan zentratu eta historia politiko eta diplomatiko tradizionalarekin zerikusia baitzuen (Green eta Troup, 1999: 89). Geografia eta demografiaren elkarketa izan zen haren ekarpen garrantzitsuena.

70eko hamarkadatik aurrera, Annales eskolaren hirugarren garaiari eman zitzaion hasiera. Etapa horretako historiagileek —horien artean garrantzitsuenak Emmanuel Le Roy Ladurie, Jacques Le Goff eta Georges Duby— kolektibitateen zein indibiduoen mentalitateen, egitura mentalen eta mundu-ikuskeren analisiari eman zioten lehentasuna. Horrekin batera, mundu materialak giza pentsamenduak, joerak eta ikusmoldeak baldintzatzeko zeukan gaitasuna aztertu zuten. Horrek ikerketa-objektu anitzen agerpena ekarri zuen metodologia kuantitatiboetatik

urrunduz eta objektibitate zientifikoaren aldarrikapenak alde batera utziz. Annaleseko hirugarren belaunaldiko ikertzaileek mentalitateen ikerketak egin zituzten pertsona arrunten bizitzaren eta kulturaren esperientzia pertsonaletan eta gizarteen barne-funtzionamenduan zeukaten interesa: gizabanakoek eta taldeek sexuaren, erlijioaren, maitasunaren, familiaren, lanaren zein heriotzari buruz zeuzkaten ikuskeren gaineko interesa zeukaten haien ikerketek. Gizarteen eta giza kolektiboen aldaketa-prozesu subjektiboetan eta jokaeretan interesa agertu zuten eta, hortaz, nolabait objektibotasuna-subjektibotasunaren auzia mahai gainean ezarri zuten (Green eta Troup, 1999: 92).

Historiografiaren alorrean Frantzian Annales eskolaren garapena nagusitu zen bitartean, Britainia Handian, jarraian ikusiko dugun bezala, marxismo klasikoaren materialismo historikoaren berrikuspenak nagusitu ziren.

2.2.2. Eskola marxista britainiarra

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran emandako marxismoaren hedapena Alemaniako alderdi sozialdemokrataren hazkundearekin eta 1917ko errusiar iraultzaren garaipenarekin lotzen da. Testuinguru horretan, obra ugari argitaratu ziren marxismoaren corpus teorikoa herritar ez ikasiei helarazteko helburuz (Muñoz, 2010: 252). Aurreko azpiatalean azaldu dugun materialismo historikoa, hain zuzen ere, 1917ko errusiar iraultzaren ostean hasi zen historiografiaren alorrean eragina izaten. Eragin hori ez zen norabide bakarrekoa izan, alderantziz, askotarikoa izan zen. Autore batzuek gertakari zehatzak, bereziak, alboratzera eta epe ertain eta luzeko prozesuak, oro har, fenomeno ekonomiko-sozialak, ikertzera jo zuten, historiografia rankearraren planteamenduetatik urrunduz. Beste batzuek proletarioen bizi-baldintza materialetan, teknologian, oinarri sozioekonomikoetan eta produkzio-harremanetan jarri zuten beren ikerketa-lanen arreta. Korronte historiografiko marxista, salbuespenak salbuespen eta aipaturiko askotariko eragina gauzatu arren, estalinismoaren ortodoxiaren barruan kokatu zen 1960ko hamarkada arte (Bourdé eta Martin, 1992: 2007). Aro estalinistaren ortodoxia atzean utzi eta aipatutako hamarkadan tradizio marxista eztabaida-, kritika- eta berrikuntza-gune bilakatu zen (Eley, 2008: 44). Marxismoaren berrikuntza bultzatu zuen eskola nagusietako bat britainiarra izan zen. Eskola marxista britainiarra osatzen zuten historialariek, historia sozialaren eta, oro har, historiografiaren berrikuntzari ekarpen handiak egin zizkioten.

Britainia Handian I. Mundu Gerra arte XIX. mendeko metodologia positibistak indar handia izan zuen. Gerra horrekin aurrerabidearekiko eta positibismoarekiko fedeak gainbehera sakona izan zuen, baina garai hartan historialariek ez zuten saiakera handirik egin berrikuntza historiografikoa bultzatzeko (Casanova, 2003: 116). 30eko hamarkadan historia ekonomikoak eta langile mugimenduaren historiak bultzada jaso zuten herrialde horretan, baina ez zituzten historia liberalaren zutabeak zalantzan jarri. Aipatutako eskola marxista britainiarraren sorrera-garaian, Britainia

Handian indarrean zegoen historia ofizialak klase buruzagietan edo eliteetan eta gertakari handietan soilik jartzen zuen arreta. Horren aurrean, joera orokorrago baten baitan, esaterako aurretik Annaleseko historialariek egin bezala, eskola marxista britainiarreko historialarien helburuetako bat pertsona arruntei (industria-langileei, nekazariei, etab.) ahotsa ematea zen, horiek ikerketa historikoaren subjektu bilakatuz. Hortaz, aipatu bezala eta modernitatetik zetorren historiografia-forma tradizionalaren aipaturiko interesaren aurka joanez, buruzagien edo eliteen ikuspuntutik idatzi beharrean, behe-mailakoen esperientzien, ekintzen, eguneroko bizitzaren, protesta-moduen eta borroken eta kulturaren inguruan idatzi zuten. Are gehiago, pertsona arruntei protagonismoa eman zieten, egituraren gainetik ikusgai eginez. Horregatik esaten da «historia behetik» egiten zutela. Zentzu horretan, politika instituzionala diziplinaren ikerketa-objektu nagusia izateari utzi zion historialari haien ustez behekoen bizitzak baldintzatzen zituzten fenomeno sozialen eta ekonomikoen mesedetan.

Adierazi dugun bezala, II. Mundu Gerraren ostean, tradizio marxistako historiografiak indarra hartu zuen Britainia Handian. Nagusiki, sendotasun hori, batik bat, 1946an sortutako *Communist Party Historians' Group* delako taldearen eskutik etorri zen. Besteak beste, Eric Hobsbawm, E. P. Thompson, Raphael Samuel eta Christopher Hill izan ziren talde horretako kideak. Eskola marxista britainiarreko kide gehienek britainiar arazoen edo gaien inguruan idatzi zuten —beharbada Eric Hobsbawm historialaria izan zen salbuespena— eta hainbat esparrutan eragina izan duten lan garrantzitsuak argitaratu zituzten. Historia garaikideari dagokionez, Hobsbawmen *Primitive Rebels* (*Matxino primitiboak*) (1959) eta Thompsonen *The Making of the English Working Class* (Ingeles Langile klasearen formakuntza) (1963) azpimarra daitezke. Bi historialarien lanek berebiziko garrantzia izan dute mendebaldarron testuinguru akademikoaren baitan garatu den historiagintza garaikidean. Biek funtsezko ekarpenak egin zituzten joera historiografiko horren garapenerako, eta, besteak beste, ideologia, kontzientzia, esperientzia eta subjektibitate kontzeptuen inguruan egin zituzten proposamenek berebiziko eragina izan dute. Izan ere, marxismo ortodoxoari egindako berrikuspenen barruan, materialismo historikoaren oinarrizko elementu bat ezbaian jarri zuten: azpiegituraren eta gainegituraren arteko aldebakarreko harremana, alegia, kausalitate sozialaren ideia. Labur esanda, eskola horrek materialismo historikoaren, hots, eredu marxistaren, izaera zurruna gaitzetsi zuen.

Britaniar marxistek osatutako talde hura ez zen homogeneoa, baina hura osatzen zuten historialariek hainbat ezaugarri zituzten komunean: autore gehienak akademiaz kanpoko esparruetatik zetozen, historiaren izaera edo helburu pedagogikoa azpimarratzen zuten, eta historia popularrarekin identifikatzen ziren. Bestalde, aipatutako taldeko zenbait kidek, Eric J. Hobsbawm, Christopher Hill eta Rodney Hilton, esaterako, *Past and Present* aldizkaria ezagunaren sorrera bultzatu zuten 1952. urtean. Aldizkari horretan kaleratutako artikuluek historia sozialaren hedapenari lagundu zioten eta eztabaidak eta hausnarketak bultzatu zituzten mundu

akademikoan, azken finean, historia sozialaren garapena eta berrikuntza mesedetuz. Jatorrizko taldea hura 1956-57 bitartean desegin zen, desestalinizazioaren testuinguruan hain zuzen ere. Jakina denez, prozesu horren eraginez hainbat Herri Demokraziatan irekierarako pausoak eman zituzten, baina SESBk prozesu horiei mugak jarri zizkien —armada bidaliz— eta aipatutako desestalinizazioaren mugak agerian utzi. Aipaturiko interbentzioa gertatu arren, hausnarketarako —erdizka bazen ere— zabaldutako ateak ez ziren berriz itxiko. Inbasio hark aldaketak eragin zituen ez soilik Hungarian, baizik eta Mendebaldeko intelektual komunisten artean ere. Testuinguru horretan sortutako eztabaiden harira hain zuzen, *Communist Party Historians' Group*eko intelektual askok Alderdi Komunista uztea erabaki zuten.

Marxismo ortodoxoari egingo zaizkion kritiken testuinguru horretan, aipatu dugun Eric J. Hobsbawmek, adibidez, bere ikerketetako azalpenetan marxismo ortodoxoaren azpiegituraren eta gainegituraren harreman kausal determinista lausotu egin zuen eta gainegiturari nolabaiteko gaitasuna aitortu zion aldaketa historikoa azaltzerakoan (Castells, 1996: 170). Marxismoaren ikuspuntu berri batetik lan egin zuen, zeren klase-esperientziaren kontzeptuaren esanahia zabaldu baitzuen (Kaye, 1989: 124). Hobsbawmek arreta berezia jarri zuen klasearen eta klase-borrokaren artean. Bi kontzeptu horiek lanaren eremura ez ezik, praktika sozialetara eta horien adierazpenetara ere zabaldu zituen. Hala, kulturari eta ideologiari —gainegiturari dagozkion instantziei— garrantzia eman zien bere ikerketetan, batez ere, langile-klasearen formakuntzaren eta langile-kontzientziaren sorrera aztertu zituenean. Bestalde, ikerketa-esparru zabala jorratu zuela esan daiteke eta, oro har, haren ikerketak hiru multzotan bil daitezke: langile-klasearen historia, nekazari-klasearen inguruko ikerketak eta munduko historia.

60ko hamarkada arte langile-klasearen inguruan argitaratutako obra gehienak langileen elkarteen eta antolatutako mugimenduen —eta horien buruzagien— inguruan aritzen baziren ere, aditu britainiarrak langile-klasearen —osoaren, ez soilik antolatutakoaren— esperientzian zuen interesa. Era horretara, langile-mugimendu antolatuaren eta langile-klasearen arteko identifikazioak ekar zitzakeen arriskuen inguruan ohartarazi zuen eta langile-klaseen —beren osotasunean— esperientziak aztertu zituen. Zentzu horretan, lanaren historiaren barruan, ordura arte kontuan hartzen ziren eremuak zabaldu zituen eta arreta gizarteko sektore popularretan ere jarri zuen, ez soilik industriako langileengan (Kaye, 1989: 129-30). Izan ere, nekazariak, industriaurreko langileak eta artisauak ere izan ziren haren obretako protagonistak. Gainera ikerketa-lanen esparru geografikoa Britainia Handiaz haratago zabaldu zuen, bere interesgunea Europara eta Latinoamerikara ere hedatu baitzuen. Hobsbawmek 1959. urteko *Primitive Rebels* liburuan, esaterako, Europa mendebaldeko hiritar eta nekazari-munduko mugimendu sozial arkaikoak aztertu zituen.

Bestalde, langileen antolamendu-moduen inguruan ez ezik, bere ikerketetan aipatutako klase-kontzientziaren, gatazken eta herri-protesten inguruko interesa ere bazuela erakutsi zuen. Izan ere, azpimarragarria da langileen bizipenak

berreraikitzeko klaseari eta klase-borrokari emandako garrantzia. Hobsbawmek ez zuen klase-borrokaren ikerketa lan-arloaren eremura mugatu, zeren gainontzeko praktika sozialetara hedatzen zela uste baitzuen. Horregatik, adierazpen kulturalek, sinboloek, erritualek eta abarrek, klase-harremanen osagai diren heinean, lekua zuten autorearen lanetan. Bestalde, langile-klasearen formakuntza edo sorrera ere, zeina kontzientzia-hartzearen eta antolamendu-formekin lotzen baitzuen, bere ikerketetan landu zituen (Castells, 1996: 166).

Hobsbawmen lanen ekarpena oso garrantzitsua izan bazen ere, ikuspuntu teoriko batetik, Edward P. Thompsonen ekarpenek eragin handiagoa izan dute historiagintzaren alorrean. Izan ere, Hobsbawmen kidea zen aditu horren lanek ekarpen handia egin zioten britainiar historiografiari eta, oro har, historia sozialari. Besteak beste, XVIII. mendeko gizarte ingelesaren historiaren inguruko ikerketak burutu zituen eta horien emaitzetako bat 1975ean argitaratutako *Whigs and Hunters: The Origins of the Black Act* (*Whigak eta harrapariak: Lege Beltzaren jatorria*) liburua da. Hori bezalako ikerketa historikoez gain, klasearen kontzeptuaren eta horrekin lotutako klase-formakuntzaren, klase-borrokaren eta klase-kontzientziaren inguruko arazo teorikoak ere jorratu zituen. Haren esperientzia eta kontzientziaren nozioak, elkarri lotuta daude, eta bereziki garrantzitsuak dira haren obran. Hain zuzen ere, autorearen ekarpenik esanguratsuenak kontzeptu horien ingurukoak dira eta, ikusiko den bezala, liburu honetan zehar gehiagotan joko dugu horietara. Horrela, marxismo klasikoaren azalpen-eskema zurrunean giza ekintzari lekua egiteko helburuz, azpiegituraren eta gainegituraren ereduari, kutsu erredukzionista zuelakoan, alternatiba bat bilatzen saiatu zen. Hala, determinismo ekonomikoa eta giza ekintza ukatzen zituzten joera teorikoak gaitzetsi zituen. Thompsonen arabera, historialari ekonomikoek giza esperientziaren eta aldaketa sozialaren prozesuaren ikuspuntu oso mugatua erabiltzen zuten (Kaye, 1989: 162; Eley, 2008: 92).

Aditu ingelesak egindako berrikuntza teoriko garrantzitsuetako bat, batez ere gerora izan zuen eraginagatik, aipatutako esperientziaren kontzeptuan oinarritu zen. Marxismo klasikoarentzat, adierazi dugun bezala, izate sozialak, hau da, norbanakoaren existentzia-baldintza materialek determinatuko lukete klase-kontzientzia. Historialari britainiarrak mediaziorik gabe gauzatzen den eragiketa hori ukatu zuen eta, giza ekintzari lekua eginez, esperientzia izate sozialaren eta kontzientziaren arteko bitartekari bezala ulertu zuen. Eskema berri horren arabera, norbanakoa esperientziaren bidez jarriko litzateke harremanetan bere existentzia-baldintzekin. Thompsonentzat, klase-esperientzia norbanakoak bizi dituen produkzio-harremanek determinatua dago. Bestalde, klase-kontzientzia esperientzia hura kulturalki moldatzen den moduaren araberakoa izango da. Gizabanako bakoitzak behar, interes edo aurkakotasun moduan ulertuko lituzke bere bizi-baldintzak, eta, hala, eskura lukeen kulturaren arabera esperientzia hori interpretatuko luke. Subjektuen ekintza esperientzia kulturalki argitzean gertutako litzateke. Beraz, Thompsonentzat, esperientzia, instantzia objektibo batek determinatua agertzen da, baina ez klase-kontzientzia —hau indibiduoak kulturaren bidez esperientzia

objektibo horretaz egiten duen irakurketak baldintzatzen du—. Horrela, ordura arte ohikoa zen bezala arazo edo gai ekonomikoetan arreta jarri beharrean, Thompsonek kulturari eman zion toki protagonista esperientziaren inguruan egin zuen birdefinizio horretan. Adituak, beraz, esperientzia kontzeptua kulturaren alorrean txertatuz, gerora beste adituen artean handitzen joan zen kulturarekiko kezka edo ezinegona zuela ikus dezakegu. Adituaren esperientzia kontzeptuak agentzia-eremu bat onartu zien subjektuei, egitura-determinaziotik askatzen zituelako. Aurrerago ikusiko dugunez, Joan W. Scottek historialari iparramerikarrak Thompsonek egindako planteamenduei erantzungo die, historiari ekarpen handia eginez.

Thompsonen obrarik ezagunena 1963an argitaratutako *The Making of the English Working Class* liburua dugu. Ospetsuena ez ezik, gerora britainiar historialariaren eragin handienetakoa ere izan da (Eley, 1994: 63-4). Izan ere, gaur egunean ere eragin handia duen (langile) «klase» kontzeptua ulertzeko modu berri bat planteatu zuen (Babiano *et al.,* 2016). Liburu horretan 1790-1830 urteen artean Ingalaterrako langile-klasearen *formakuntza* eta haren klase-kontzientziaren agerpen-prozesua nola gauzatu ziren ikertu zituen. Formakuntza kontzeptuaren bitartez historialari britainiarrak agerian utzi nahi izan zuen klasea ez dela berezko existentzia duen zerbait, sortu egiten den zerbait baizik. Thompsonen borondatea sortze-prozesu hori aztertzea izan zen. Haren aburuz, klasea ez da «egitura objektibo» bat, emandako errealitate egonkor edo esentzia sozial bat (ortodoxia marxistaren zentzuan). Alderantziz, adituarentzat klasea kategoria aldakorra da, eta, beraz, historizagarria den instantzia bat. Historialari ingelesaren aburuz, klasea fenomeno edo prozesu historikoa da eta pertsonen esperientziaren eskutik eratzen da, norbanakoek esperientziaren bitartez klase-kontzientzia bereganatzean. Thompsonentzat ez dago klaserik kontzientziarik gabe.

Bestalde, marxismo klasikoarentzat ez bezala, Thompsonek zioen ekintzak subjektuek esanahiak antzeman eta horietaz jabetu ostean gauzatzen direla. Horrek esan nahi du klase-interesaren eta klase-kontzientziaren arteko korrelazioa ez dela halabeharrez gertatzen, subjektuek kontzientzia hartzen dutenean baizik ez da gertatzen haiekiko —interesekiko— koherentea litzatekeen ekintza. Egituraren eta ekintzaren artean indibiduoen esku-hartzea ahalbidetzen duen indeterminazio eta kontingentziazko puntu bat egongo litzateke (Cabrera, 2002: 257-8). Zentzu horretan, identitateak objektiboak dira, esfera sozialean inplizituki existitzen baitira, baina historikoki sortzen dira esfera subjektiboan. Hau da, identitatea ez litzateke espontaneoki azaleratuko, soilik kontzientzia sortzen denean baizik. Garairako sakonki berritzailea zen proposamen horrek klase-borroka kontzeptuaren berrikuntza ere eragin zuen. Nozio hori, klasearen kontzeptua bezala, talde historikoen esperientzian oinarrituta zegoela adierazi zuen, hark zituen ezaugarri ekonomikoez gain, ezaugarri sozialak eta kulturalak ere onartu zizkiolarik.

Historia sozialak izandako garapenak testuinguru sozialaren eta kontzientziaren arteko determinazio-loturaren malgutasuna eragin zuen, kausalitate sozialaren

kontzeptua zalantzan jarriz. Hau da, marxismo klasikoak proposatzen zuen aldebakarreko norabideko kausalitatea ezbaian jarri zuen eta esfera kulturalari aitortutako nolabaiteko autonomiaren bidez eskema haren zuzenketa partziala proposatu. Horrela, esan dezakegu subjektuei esanahien sorkuntzan nolabaiteko agentzia aitortu zitzaiela. Thompsonen esperientziaren kontzeptuak, esaterako, harreman sozialen kontzeptualizazioei funtsezko ekarpena egin zien. Autore britainiarrak kulturari emandako garrantzia marxismoaren biraketa kulturala izan zela esan dezakegu. Ez da kasualitatea, zentzu horretan, Thompsonen lanen eragina ikerketa kulturalen «aurrehistorian» kokatzea (Eley, 2008: 101). Hala ere, biraketa horrek ez zuen eragin ikuspuntu *objektibista* bertan behera uztea (Muñoz, 2010: 266). Historia sozialaren berrikuntza eta ikerketa-lanen interesgunearen aldaketa hori, hein handi batean, kulturarekiko interesa handitzearekin eta historia sozialaren oinarri teorikoarekiko asegabetasunarekin lotu ditzakegu (Cabrera, 2001: 24).

2.3. ESTRUKTURALISMOA

Estrukturalismoaren sorrera XX. mendeko lehenengo hamarkadetan kokatzen da eta Lehen Mundu Gerraren urteetan Ferdinand de Saussure (1857-1913) suitzarrak hizkuntzalaritzaren alorrean egindako ekarpenekin lotu ohi da. Eskola filosofiko bat eraiki zuela ezin esan daitekeen arren, estrukturalismoak eragin handia izan zuen, beranduago, hainbat ikerketatan eta beste hainbeste diziplinatan. Haren eragin eta hedapen nabarmenena 1945. urtetik aurrera gertatu zen, bereziki Frantzian, eta jakintza-eremuei edo eskolei dagokienez, Antropologia eta teoria politiko marxistaren barruan izan zuen eraginik nabarmenena. Historiagintzari dagokionez, influentzia hori ez da hain agerikoa edo zuzenekoa izan (Gunn, 2011: 31-33). Historia sozialaren asegabetasunaren ondorioz garatzen joan zen historia soziokulturalak antropologiari bideratutako begiradan aurki dezakegu, agian, eragin hori. Zentzu horretan, kulturalista haiek izan ziren, XX. mendeko azken hamarkadetan, iraganaren azterketarako lengoaiari geroz eta garrantzi handiagoa emango ziotenak. Azken horien hausnarketen eta proposamenen harira gertatutako historiografiaren berrikuntzaren barruan aurki dezakegu estrukturalismotik gertu aritu diren ikertzaileen lanen —historialariak ez izan arren— eragin nabarmena.

Estrukturalismoan kokatutako adituen arabera, esanahia gizabanakoekiko independentea da eta ikertzaileek aztertu behar duten lengoaiaren sistema edo egitura propioari atxikirik dago. Haien interesa, beraz, esangura hori posible egiten duen sistema linguistiko horretan kokatua dago. Sistema-, egitura- edo konbentzio-marko horren barruan dago, hain zuzen ere, ekintzek hartzen duten esangura. Esaterako: saski bat eta pilota bat dauzkagun bitartean, pilota saskiratu dezakegu; baina saskiratze hori aurretik ezarri den arau multzo bat errespetatuz egiten denean baino ez da tantoa gertatuko —orduan bakarrik emango diogu ekintza horri tanto-esangura—. Edo, beste adibide bat jartzearren, euskararen arauek ahalbidetzen dute soinu-sekuentziek hitz egiten duenarentzako eta entzuten dionarentzako esangura

bat edukitzea, esaldi gramatikalki zuzenak eta okerrak eratzea. Euskal mintzaideak elkarri ulertzen diote, batak besteari igortzen dizkion mezuak biek partekatzen dituzten kodeetan daudelako. Objektuei edo ekintzei ematen zaien esanahia ez bada zorizko zerbait, orduan distintzio-, kategoria- eta operazio-sistema bat egon behar du. Eta sistema edo egitura hori azaldu egin beharko litzateke. Hau da linguistikaren metodologietatik —zehazkiago fonologiatik— beste diziplina batzuetara estrapolatu diren planteamenduen muina.

Estrukturalismoaren pentsalari adierazgarrienen artean kokatu ohi dira, lehenago aipatutako Ferdinand de Saussurerekin batera, Claude Lévi-Strauss (1908-2009) eta Louis Althusser (1918-1990). Arestian esan bezala, Ferdinand de Saussure estrukturalismoaren eta hizkuntzalaritza modernoaren fundatzailea kontsideratzen da. Bera baino lehenagoko hizkuntzalariek denboran zehar hizkuntzek bizi duten garapena ikertu zuten. Suitzarrak onartu zuen hizkuntza etengabe aldatzen dagoen egitura erraldoia dela. Baina, haren ustez, hizkuntzaren eboluzio historikoari —azterketa diakronikoa— begiratu beharrean, lengoaiaren analisiak sinkronikoa izan behar zuen: momentu jakin batean zentratu eta hizkuntza eraikitzen duten arau guztien azterketa gauzatu behar zuen. Garrantzitsua zen zehaztea zerk egiten zuen momentu jakin batean zeinu batek esangura bat edo beste izatea. Proposamen horiei jarraituz, hizkuntza bakoitza patroi bakar baten arabera eratua dago eta lokuzioen analisian identifikatzen ditugun unitateak, hizkuntza berberaren beste unitateekin harremanean baino ezin dira identifikatu. Hizkuntza diferentzialaren —eta ez erreferentzialaren— ideia litzateke hori, geroago historiagintzako joera diskurtsiboek inkorporatuko dutena, alegia.

Saussureren ekarpen nagusiak 1916. urtean argitaratutako *Cours de linguistique genérale* (*Hizkuntzalaritzaren kurtso orokorra*) hil ondoko obran laburbildurik agertu ziren. Han aurki ditzakegu hizkuntzalaritzaren garapenerako, bai eta beste diziplinetarako ere, hain garrantzitsuak izan diren ideiak. Besteak beste, hizkuntzen ezagupenerako gakoa den dikotomien planteamendua azaltzen da bertan. Semiologiaren —bizitza sozialeko zeinuak aztertzen dituen diziplina[4]— arabera, hizkuntzen sakoneko edo barneko egitura ezkutua konektaturik dauden bi elementuz eraturiko unitateek edo zeinuek osatzen dute. Guretzat garrantzitsuenak esangura-adierazlea (*signifié-signifiant*) eta hitzak-lengoaia (*parole-langue*) unitate dikotomikoak dira. Lehenengo dikotomiari dagokionez, edozein hizkuntzatan, esanguraren —kontzeptua edo objektua— eta adierazlearen —gizakiak hauteman dezakeen hizkuntzaren zeinu sonoroa— arteko harremana arbitrarioa da, ohitura historikoetan eta ikusmolde kulturaletan oinarritua. «Zaldia» hitzaren (adierazlearen) parte diren letrek eta soinuek ez dute, berez, inolako konexiorik zelaian ikusten dugun

4. Semiologia grekotik dator: *semeion* —zeinua— eta *logos* —ikasketa edo tratadua—. Semiologia bizitza sozialeko zeinuen ikerketaz arduratzen da. Batzuetan semiotikaren sinonimo bezala erabiltzen da, baina berez, ezberdinak dira. Semiologiak zeinu guztien analisia egiten du, linguistikoak (semantikari eta idazketari dagozkienak) zein semiotikoak izan (gizakien eta naturaren zeinuak). <http://definicion.de/semiologia/> Semiotikaren eta semiologiaren arteko ezberdintasunetan sakontzeko, ikusi: Basterretxea eta Gonzalez, 1997: 27-28.

animalia horrekin. Zaldiari ingelesez «horse», frantsesez «cheval», alemanieraz «pferd», norvegieraz «hest», kroaziako serbieraz «konj», galesez «ceffyl» eta existitzen den hizkuntza beste eratan izendatua izan daiteke, baina hizkuntza batean zein bestean adierazia izan, guk egiten dugun asoziazio-ariketa berdinberdin mantenduko da. Beraz, esangura ez da hitzei atxikirik dagoen zerbait bezala ulertuko, baizik eta lengoaiaren azpian dagoen sistema estruktural batek eraikitako zerbait bezala. Ideia horretatik ondorioztatzen da, bestalde, ez dagoela zeinuaren eta haren erreferenteen arteko halabeharrezko harremanik. Hots, zeinuaren esangura ez dagokio, berez, erreferenteari. Esangura ez da errealitatearekiko harremanean sortzen, baizik eta sistema edo egitura linguistikoaren baitan. Ondorioz, esanguraren funtzionamenduaren gakoa ez dago soinu eta letren baitan, baizik eta hizkuntzaren osotasunean. Zeinu linguistiko bakoitza hizkuntzaren sisteman barneraturik dauden gainontzeko zeinuekiko kontraposizioan eraikitzen da.

Historiagintzan izan duen eraginagatik, bereziki interesatzen zaigu Saussureren beste funtsezko ekarpen bat, aipaturiko bigarren dikotomiari dagokiona: hizkuntzaren eta hizketaren artekoari, alegia. *Langue* edo lengoaia —hizkuntza— eta *parole* —hitz egitearen unitateak— ezberdindu egin zituen. Hizkuntzalari suitzarraren aburuz, eta banaketa horretatik abiatuta, lengoaia ulertzeko ez da nahikoa hitzak ezagutzea. Hitz egitea ahalbidetzen duen sistema bera ezagutu beharra dago, lengoaiaren egitura, alegia (Tilley, 1990). Hitz egitea orokortasun bat bezala ulertzerik baino ez dago, eta, era berean, azpisistema batzuen ondorio bezala baino ez da existitzen —beren artean koherentzia izan behar duten hitz-egite unitate bezala—.

Saussureren teorien garapenetik joan zen gorpuzten, pixkanaka, linguistika estrukturalaren metodo eta teoria. Era berean, suitzarraren lana abiapuntu izanik, haren ekarpenak giza kulturaren aspektu guztien analisirako aplikagarriak direla defendatzen duen tendentzia agertu zen. Lévi-Strauss antropologoa izan zen linguistikan sortu ziren proposamenak kulturaren esparruan aplikatu zituen lehenengo aditua. XX. mendeko 50eko eta 60ko hamarkadetan, filosofo eta antropologo frantsesaren ekarpenen hedapenak estrukturalismoaren finkapena ekarri zuen. Antropologia estrukturalistaren lehenbiziko obratzat jotzen dira Lévi-Straussen *Anthropologie structurale* (*Antropologia estrukturala*) (1958) eta *La pensée sauvage* (*Pentsamendu basatia*) (1962) tituluak. Bertan aurki ditzakegu adituaren oinarrizko ideietako batzuk. Horien artean eraginik sakonena izan zuena kulturaren inguruan egindako hausnarketari dagokio. Kultura hizkuntza bat bezala ulertu zuen Lévi-Straussek. Horrela, gizartearen aspektu guztiak, giza harreman guztiak, arau orokor batzuek gobernaturik daudela adierazi zuen. Arau horiek oposizio binario batzuen arabera antolaturik daude: goi/behe, ongi/gaizki edo maskulino/femenino. Proposamen horiek sekulako eragina izan zuten antropologian, baita beste jakintzaeremuetan ere.

Lehenago hizkuntzen inguruan esan dugun bezala, antropologia estrukturalistarentzat gizarte baten barruan ekintza jakin bati ematen zaion esangura ekintza

horrek egitura kultural osoaren barruan okupatzen duen tokiaren araberakoa izango da. Era berean, zeinu linguistikoei koherentzia ematen dien sistema bat dagoen bezala, antropologia estrukturalarentzat, giza fenomenoei zentzua ematen dieten estruktura batzuk ere badaude. Aipaturiko ereduari jarraituz, kulturaren esparruan begi-bistan agertzen diren adierazpen kulturalak —mitoa, kanta, dantza, erritualak eta abar— sakoneko egitura logiko baten adierazpenak dira. Ezkutuko egitura horren antolaketa-printzipioa identifikatzea eta argitzea, horren esanguraren logikarik sakonenera iristea izan zuen jomuga Lévi-Straussek (Smith, 2000). Hizkuntzalaritzan bezala, kultura batean gertatzen diren harremanen ordena azaltzeko orduan, garrantzi berezia eman zitzaien oposizio binarioei, bereziki giza eta natura-munduei dagozkienei. Azken finean, aditu frantsesak, kulturaren esparrurako hizkuntzalaritzak proposatutako lengoaiaren ezaugarriekiko eta oinarri teorikoekiko paraleloa litekeen egitura proposatu zuen.

Laburbilduz, antropologia estrukturalistaren arabera, gizakien kulturak lengoaia-formak dira eta, beraz, zeinu-sistematzat har ditzakegu. Horrela, fenomeno kulturalak ulertzeko linguistika erabilgarria edo baliagarria bihurtuko litzateke: giza eta kultura-produktuak zeinu bezala aztertuko dira eta zeinu horiek, berezko esentziarik edo esanahirik eduki beharrean, barneko eta kanpoko harreman-sare batek definituta daudela proposatuko da. Zeinuak aztertzeko orduan, esangura produzitzea ahalbidetzen duen harreman-sistema kontuan izan behar dugu, eta alderantziz ere, elementuen arteko harreman horiek agerian jartzen dira zeinu bidez. Estrukturalismoaren arabera, giza produkzioek edo ekintzek esangura bat dute, zeina hizkuntzaren azpiegitura edo azpisistema batek emana edo ahalbidetua baita. Ikusten dugunez, erreferenteak ez du berezko esanahi naturalik, baina estrukturak edo egiturak baldintzatzen du. Azken batez, estrukturaren edo hizkuntzaren azpisistema hori naturalizaturik geratzen da estrukturalismoarentzat. Zentzu horretan, nolabait, proposamen horrek oinarri determinista duela baiezta genezake: kulturak azaleratzen duena, sakonean dauden mekanismo jakin batzuen isla baino ez delako.

XX. mendeko 60ko hamarkadan estrukturalismoak hedapen garrantzitsua izan zuen Frantzian. Testuinguru horretan erreferentzia egin behar diogu lehenago aipaturiko Louis Althusserri eta hark teoria marxistan zein estrukturalismo frantsesean izandako eraginari. Ikusiko denez, aditu frantsesak, estrukturalismoaren ekarpenez baliatuz, marxismoari kritika sakona egin zion. Althusserrek hizkuntzalaritzaren planteamenduak gizartearen azterketara hedatu zituen. Gizarte baten eremu ekonomikoa erabakigarria den arren, gainegiturari nolabaiteko autonomia-maila bat egotzi zion: haren ustez, norbanakoak errealitateaz duen irudia baldintzatuko duen ideologia baten existentzia ezinbestekoa da azpiegituraren izatea bermatzeko. Eta, proposamen horrekin loturik, esparru kulturalari helduz, Althusserren ustez, «Estatuaren aparatu ideologikoak» dira ideologia hori gizartean zabalduko eta errepikatuko dutenak. Antonio Gramsciren (1891-1937) hegemonia kontzeptuarekin bat eginez nolabait, Althusserrek adierazten zituen aparatu ideologikoek —eliza, hekuntza, sindikatuak, familia, zuzenbidea, kultura…— gizabanakoa *interpelatuko*

lukete subjektua sortuz[5]. Aipatutako *interpelazio-mekanismo* hori da, agian, aditu frantsesak utzi digun ondarerik baliotsuena. Horren esanahia argitze aldera, adituak proposatutako poliziaren *interpelazio*aren adibidea ekarriko dugu: polizia gizabanako bati zuzenduko zaio —*interpelatuko* du— «aizu! hor zauden hori!», eta indibiduo hori itzuli egingo da. Era sinple horretan, norbanako horren 180 graduko biraketa fisikoaren bidez subjektu bihurtuko da, zergatik eta aintzatetsi duelako interpelazio hori zehazki berari eta ez beste inori zuzendua dagoela. Beraz, ideologia dominantearen interpelazioak sortuko lituzke, Althusserren esanetan, subjektuak (1989: 202). *Interpelazio*aren bidez, ideologiak subjektu indibiduala eratuko luke[6]. Horrela, ideologia, gizabanakoen eta haien existentzia-baldintzen arteko harreman imajinarioa eta indibiduoak subjektu bezala eraikiko lituzkeen lehenbiziko instantzia izango litzateke. Marxismo ortodoxoari zuzendutako planteamendu kritiko horrek sakoneko ondorioak izan zituen subjektuaren sorkuntzari dagokionez. Azken finean, indibiduo bat subjektu sortze aldera, gainegiturari ahalmena edota autonomia-eremu bat onartu zion (Althusser, 1989: 183-206). Beraz, Althusserren proposamen horrek ez zuen ekarri subjektibitateari edo gizakien ekintza-ahalmenari autonomia handiagorik eskaintzea, baina marxismo klasikoak ematen ziona baino garrantzi txikiagoa ematen zion esfera ekonomikoari. Era horretara, azpiegitura eta gainegitura kontzeptu marxistek mugikortasuna hartu zuten Althusserren lanean.

Estrukturalismoak deskriptibo gisa ez, esplikatzaile gisa aurkeztu zuen bere lana: ikusten dugun irudi erreal horren azpitik dagoen egitura azaltzeko gai den zientzia gisa (Smith, 2000). Beraz, giza begiaren bistatik kanpo dagoen eremu ezezagun batean barneratu egiten da. Gizakiak ikusgai duena, ikus dezakeena, isla bat baino ez da, eremu ezezagun horren isla bat baino ez. Horrekin lotuta pentsa dezakegu berriz ere ezartzen hasi zela, estrukturalismoaren eskutik, historizismo positibistak ezabatu zuen zientzia naturalen eta giza zientzien arteko banaketa. Hala ere, zientziari eta gizakiari dagozkien eremuen arteko banaketa batera bueltatzea proposatu bazuten ere, estrukturalistek subjektibitatea edo gizakien autonomia era mugatzaile batean ulertu zuten. Izan ere, azpiko edo begien bistatik kanpo aurkitzen ziren egiturek norbanakoaren subjektibotasuna baldintzatzen zuten. Beraz, izaera objektiboa edo determinantea den eta gizabanakoak baldintzatzen dituen eremu batek existitzen jarraituko du.

5. Antonio Gramsciren arabera, klase boteretsuak ezin dezake errepresioa eta indarra bakarrik erabili menpeko klaseak mende hartzeko. Haren ustez, klase buruzagiak edo menperatzaileak «hegemonia kultural» bat gauzatzen du, nola eta komunikabideen, elizaren edota hezkuntzaren kontrolaren bidez. Beraz, klase xumeen jarrerak eta ekintzak baldintzatuko dituen kultura bat inposatuz, kolektibo horien gaitasun iraultzailea desaktibatu eta kontrolpean geratuko da.

6. Beranduago, joera postmodernistetatik Althusserren interpelazio kontzeptu honi ñabardurak egingo zaizkio, eta azpimarratuko da interpelazioaren subjektu normatiboak eraikitzeko ahalmenaren huts egiteko posibilitatea kontuan hartu behar dela. Hau da, intepelazioak subjektu normatiboak eraikiko ditu hauek intepelaturik sentitzen direnean, interpelazioa arrakastatsua denean. Izan ere, joera postmodernistek Althusserren subjektuari egingo zioten kritika, horren izaera aurre-determinatuari dagokio.

Estrukturalismoak gizarteak ulertzeko orduan hizkuntza-egiturei eman zien garrantziak berebiziko eragina izan zuen XX. mendearen bigarren erdialdeko historiagintzaren garapenean. Batez ere, harremanean dauden estrukturalismoaren hiru ideiek izan dute eragin nabarmena gure diziplinan: lehena, errealitatearen eta horri ematen diogun esanguraren arteko harremana ez dela berezkoa eta, are, errealitateari ematen diogun zentzu edo esanahia ez dela objektuetan aurkitzen, baizik eta sistema linguistikoen egituraren baitan. Bigarren ideia aurrekoaren ondorioa da: sistema linguistikoa kulturaren, ekonomiaren eta gizartearen funtzionamenduaren giltza dela. Bukatzeko, hirugarren ideia, sistema edo egitura horiek era inkontzientean funtzionatzen dutela, indibiduo edo subjektuen ezagutzarik gabe. Hau da, gizakien izatean lengoaiaren egitura gailentzen dela eta horiek ez dutela lengoaiaren arauetatik kanpo dagoen ezertan pentsatzeko «aukerarik». Agian, hasiera batean historiagileak estrukturalismotik aldenduarazi zituen planteamendu garrantzitsuena analisi sinkronikoarekin lotua dago: lengoaia baten azpiazalean artikulatzen den egitura ikertzeko formarik hoberena denboraren momentu jakin batean gelditu eta ikerketa aldi horretara mugatzearen ideiarekin. Analisi estrukturalak, beraz, eredu diakronikoa alboratu eta historiaren kontzeptutik aldendu egin zen, marko sinkroniko baten barruan dauden ordena eta kode batzuen esanetara mugatuz. Zentzu horretan, Lévi-Straussen ustez, progresio kronologiko batean oinarritzen zen historia jarraitutasunaren nozio faltsu batean oinarritzen zen, Mendebaldeko kultura konkretuari dagokion kontzepzioan alegia (Lévi-Strauss, 1994: 259-260). Baieztapen horrek antza du beste eremu batetik lehenago azaldu dugun Walter Benjaminek egindakoarekin. Izan ere, denboraren kontzeptualizazio moderno baten arabera mugatutako diziplina historikoa jakintza- eta hausnarketa-esparru ezberdinetatik jasaten ari zen kritika zorrotzen testuinguruko bi adibide dira Benjaminen edo Lévi-Straussen ahotsak.

Dena den, historiagintzaren baitan, estrukturalisten eta, bereziki, haren baitan beren ikerketak hasi eta hortik abiatuta kritikak eta ekarpen berriak egin zituzten pentsalari postestrukturalisten eragina sakona izan dela ukaezina da. Azken horiek estrukturalismoaren oinarrizko ekarpenetatik abiatu ziren, hau da, errealitatearen eta esanguraren arteko harremana berezkoa ez delako aldarrikapenetik eta hizkuntzaren kontzepzio ez-erreferentzialaren aldarrikapenetik. Proposamen horiekin batera, postestrukturalistek estrukturalismoak alboratutako norbanakoaren agentzia eta azterketa diakronikoaren —hizkuntzaren ibilbide historikoa— ideiak berreskuratuko dituzte. Ikusiko dugunez, horien artean legoke Michel Foucault, XX. mendeko 70eko hamarkadatik historiagintzak linguistikarantz ibili duen bidean sekulako eragina izan duen pentsalari frantsesa.

2.4. HISTORIA KULTURALA

XX. mendeko 60ko eta batez ere 70eko hamarkadan zehar historia sozialak eskaintzen zuen eredu esplikatiboak berrikuspen kritiko sakona bizi izan zuen. Berrikuspenek

haren eraldaketa sakona ekarri zuten eta, horren ondorioz, historialari sozialak —materialista historikoak zein annaletakoak izan— gero eta arduratuago azaldu ziren kulturarekiko. Historia sozialaren oinarri teorikoak eragiten zituen asegabetasunak eragin zuen, hein handi batean, historia sozial klasikotik historia soziokulturalerako trantsizioa (Cabrera, 2001: 24). Berrikuntza ez zen bakarrik izan kulturarekiko interesa, humanitatearen eremu hori ez zen ikerketa-esparru berri bezala agertu. Iragana begiratzeko forma berri bat izango da, Roger Chartierrek deskribatu duen bezala, kulturaren historia sozialetik, gizartearen historia kulturalera gertatutako igarobide bat gertatu zen. Gauza oro termino ekonomikoetan eta sozialetan azaltzeak gero eta asegabetasun handiagoa sortzen zuen, eta testuinguru horretan hainbat historialarik kulturaren izaera eta paper soziala birpentsatzen hasi ziren (Appleby, Hunt eta Jacob, 1994: 218; Stone, 1979: 8-9).

Insatisfakzio horrek eragin zuen historia sozialaren berrikuntza kulturarekiko interesa areagotzearekin batera gertatu zen. Historia sozialak izandako garapenak testuinguru sozialaren eta kontzientziaren arteko determinazio-loturaren malgutasuna eragin zuen, kausalitate sozialaren kontzeptua zalantzan jarriz. Hau da, aldebakartasun objektibistaren zuzenketa partziala egin zen eta, zentzu batean, esfera kulturalari autonomia aitortu zitzaion. Subjektuei esanahien sorkuntzan nolabaiteko eginkizuna aitortu zitzaien. Zentzu horretan, Thompsonek, adibidez, esperientzia kontzeptuaren bidez, edo Chartierrek, errepresentazio nozioaren bidez, harreman sozialen kontzeptualizazioei funtsezko ekarpenak egin zizkieten. Historia sozialaren biraketa kulturalista edo subjektibista izan zen. Ikuspuntu berri horrekin bat egin zuten historialariek kulturari berezko garrantzia eman zioten. Horrela, kultura dimentsio materialaren funtzio soil bat bezala ikusi ordez, «pertsonen sinesmenek eta ekintza erritualek, batetik, eta beren espektatiba sozioekonomikoek, bestetik, elkarri eragiten» ziotela kontsideratzen zuten (Appleby, Hunt eta Jacob, 1994: 220). Elkarri eragite horretan bilatu behar zen, hain zuzen, norbanakoen ekintzen esplikazioa.

Kulturan arreta handiagoa jartzen hasi ziren historialarien arten ditugu aipatutako Roger Chartier, Robert Darnton, Lynn Hunt, Gabrielle S. Spiegel edo Sarah Maza, besteak beste. Kulturalista horiek historiagintzan nabarmenki hedaturik eta txertaturik zegoen premisa bat jarri zuten zalantzan: bizitza eta kultura intelektuala gizartearen —eta historiagintzaren— txokorik baztertuenean kokatzen zuen premisa, alegia (Hunt, 1990: 102). Historialari kulturalek interesgunea tokiz aldatu zuten: gizarte-egituretatik praktika kulturaletara, errealitate «objektibo»tik berau jasotzeko bitartekari diren kategorietara —errealitatea jasoa izan dadin behar ditugun kategorietara—, kontzientzia kolektibotik kode kognitiboetara, eta giza izatetik ordena sinbolikora (Samuel, 1991: 90 eta 92). Berrorientazio horren ondorioz historiagintzak soziologiarekin zituen harremanak hoztu ziren eta gure diziplina antropologiara hurbildu zen gogotsu. Praktika kulturalen ekarpenaren zehaztasunak argitzea helburu izanik, antropologia erreferentzia-puntu eta diziplina lagun funtsezko bihurtu zen. Eta une horretan, orobat, jarri zioten hizkuntzari arreta

handiagoa gero eta historiagile gehiagok, arestian aipatu dugun estrukturalismo eta postestrukturalismoaren hausnarketen baitan.

Horrek guztiak eztabaida teoriko eta metodologiko sakona ekarri zuen. Zenbaitek, kulturaren aldeko tendentzia hori, kausalismo sozialaren baztertzea eta horrekin lotuta zetorren historia total bat egiteari uko egitea bezala ikusi zuten. Ikuspuntu horietatik esaten zen historiaren *birrindura* gertatzen ari zela (Cabrera, 2001: 26). Gai berriei eta praktika subjektiboei arreta handiagoa jartzean, ikertzaileentzat geroz eta agerikoagoa izan zen kausalitate sozialaren nozioa mugatzailea zela eta ez zela baliagarria haien ikerketarako. Kulturalistak geroz eta deserosoago sentitu ziren historia sozialaren premisa teorikoekin[7]. Haien ustez, gizarte-praktikak beren espezifizitate kolektiboetan edo indibidualetan aztertzen direnean, determinazio objektiboaren ideia errefraktaturik geratzen da esfera kulturalak baldintza sozioekonomikoen gainean operatzeko eta horiek errekreatzeko daukan ahalmenagatik. Hau da, norbanakoen posizio sozialarekin automatikoki lotu ezin daitekeen aukeratzeko ahalmenagatik, edo gizabanako horiek bizi-estrategiak gauzatzeko duten ahalmenagatik —zeinak ezin baitira zuzenean ondorioztatu beren posizio sozialetik— (Cabrera, 2001: 27).

Laburbilduz, historia sozial klasikoari historialari soziokulturalek egin zioten errebisio kritikoa, funtsean, gizartearen osagai ezberdinen arteko harremanaren birdefinizioan oinarritu zen. Historia sozialarentzat estruktura sozialaren eta ekintza kontzientearen arteko harremana ulertzeko determinazio-norabide bakarra bazegoen —lehenengoak bigarrena baldintzatzen zuen—, historia kultural berriarentzat instantzia bien artean dagoen harremana elkarren arteko interakzio dialektikoa izango da. Eredu berri horrek lehenagoko banaketa dikotomikoa ukitu gabe mantendu bazuen ere, esfera subjektiboari edo kulturalari funtzio aktibo bat onartu zion identitatea eraikitzeko orduan eta harreman eta praktika sozialen konfigurazioan. Mentalitateen edo ideien historiatik zein historia kultural tradizionaletik (intelektualetik) aldendurik, antropologiaren eta historiaren metodologiak uztartuz, errepresentazio kulturalaren eremuetan barneratu ziren.

7. Historia sozialaren barne-garapena izan zen, azken batez, historia kultural berria, mikrohistoria edota Alemanian burututako eguneroko bizitzaren historia (*Alltagsgeschichte*).

3. Postmodernitatea

50eko eta 60ko hamarkadetan kokatu ohi dute askok modernitatearen eta haren metakontaketen erabateko krisia eta joera postmodernoen hedapenaren hasiera —historiaren diziplina barruan behintzat—. Ordudanik bizi izan dugun panorama intelektuala plurala baino pluralagoa izan da eta historiagintzak hainbat korronte filosofiko zein ikuspuntu teorikoetatik eraginak jaso ditu. Edonolako laburpenak eta eskematizazioak egitea arriskutsua bada ere, garai postmodernoetan historiagintzaren alorrean garatu diren ildo teoriko nagusi batzuk marraztea da gure helburua. Horrela, lehenik eta behin 60ko eta 70eko hamarkadetatik aurrera postestrukturalismoaren nondik norakoak aztertuko ditugu, iraultza teoriko handia ekarri zuelako historiagintzan zein gainerako humanitateen eta giza zientzien alorrean. Ondoren, aldaketa handi horiek eraginda eta historia sozialaren kritikatik abiatuta, 80ko eta 90eko hamarkaden artean eta gaur egun ere eragin handia daukan korronte teoriko batean zentratuko gara: biraketa linguistikoa. Atala amaitzeko, «biraketa» edo berrikuntza teoriko berrienetan zentratuko gara, zeinek zalantzan jartzen baitute XX. mendeko azken hamarkadetako historiagintzak errealitate historikoa eraikitzeko eta ulertzeko hizkuntzari aitortutako nagusitasuna.

3.1. POSTESTRUKTURALISMOA

Postestrukturalismo deritzon fenomeno intelektualak 60ko hamarkadan izan zuen hasiera, Frantziako teorialarien artean batez ere. Literatur kritikaren alorrean izan zuen sorburua, baina laster bere premisek gainerako giza zientzien eta humanitateen esparruak eragin zituzten, metodo eta ikusmolde intelektual tradizionalei erronka joz. Izenagatik beragatik antzeman daitekeenez, korronte horren izenpean kokatu izan diren egileek estrukturalismoaren proposamenen kritikatik ere etorri ziren (Green eta Troup, 1999: 298). Errealitate soziala, kulturala eta hizkuntza osatzen duten egituren diferentziak aztertuz, estrukturalismoak munduari buruzko ezagutza ziurra lortzea posible zela mantendu zuen. Postestrukturalismoak egindako kritikek Mendebaldeko arrazionaltasunak «ezagutza ziurra» lortzeko —alor filosofikoan, baina baita soziologikoan zein historikoan ere— sortu zituen irizpideak, logikak eta baldintzak desestaltzea eta deseraikitzea zuten helburu. «Ziurtasun»aren nozioa bera, historiaren, filosofiaren edo edozein zientziaren fundamentu absolutu gisa zalantzan jarri zuten. Horixe da hain zuzen ere Jean-François Lyotard teorialari postmoderno frantsesak adierazi zuena bere *La Condition Postmoderne: Rapport*

sur le savoir (*Kondizio Postmodernoa: Jakiteari buruzko txostena*) (1979) lanean, garai postilustratuan errealitateari zentzua ematen zioten «metakontaketenganako» sinesgaiztasuna garatu dugula, alegia (Munslow, 2006: 166). Horrek esan nahi du gizakiok ez daukagula jada garai batean arrakastatsuak izan ziren emantzipazioari edo aurrerapenari buruzko narrazioetan sinesterik, izan erlijiosoak, zientifikoak, historikoak zein ideologikoak. Egilearen aburuz, horietako ezerk ez zuen jada gure existentziari inolako fundamentaziorik emateko gaitasunik.

Hausnarketa filosofikoaren alorrean egin ziren aldaketek historiografian eragin sakona izan zuten. Egile postestrukturalistek hizkuntzaren eta errealitatearen, subjektuaren eta objektuaren arteko harremana problematizatu zuten. Era horretara, Mendebaldeko pentsamenduaren eta Aro Modernoan sortu eta XVIII.-XIX. mendeetan zehar finkatu ziren kategoria eta dikotomia nagusien oinarriak hankaz gora jarri zituzten: arima-gorputza, objektiboa-subjektiboa, arrazionala-irrazionala, gizakia-animalia, natura-kultura edota gizona-emakumea. Berrirakurketa teoriko horiek pitzadura bat sortu zuten gizakiok errealitatetik eratortzen ditugun esanahien gainean daukagun ziurtasun horretan —historia enpiristan nozio erabakigarria izan dena—. Gure identitatearen, ezagutza- eta pertzepzio-gaitasunen, artearen eta kulturaren ulermenean tradizionalki jarritako fedea zalantzan jarri zen, objektibitatea aldarrikatzen zuten planteamenduetako eduki ideologiko inplizitua eta arbitrariotasuna bera agerian utziz. Egile postestruktualisten analisiek —Jacques Derridarenak eta Michel Foucaultenak bereziki eragin handikoak izan dira, baina baita Gilles Deleuze, Julia Kristeva, Jean Baudrillard edo Gayatri Chakravorty Spivakenak ere— Mendebaldeko arrazionaltasun tradizionalaren irakurketa kritikoa eskaini dute, horrek sortzen zituen esanahi hegemonikoen marjinetan geratzen zena eta baztertzen zituzten aspektu eta gaiak agerraraziz. Historiari dagokionez, kritika horrek —eta metodologia berrien erabilerak, batez ere hurbilpen feminista eta postkolonialek— hainbat objektu eta subjektu historiko berriren agerpena ekarri zuen. Zentzu horretan, zalantzan jarri ziren moralitateari eta balioei (ongia-gaizkia-purutasuna), esentziei (arraza, nazioa edo generoa) edota egiari (historian zein politikan) buruz oinarri fundamentaltzat jotzen ziren kontzeptuak.

Postestrukturalismoak historiografian izan zuen eragina ulertzeko biderik egokiena postestrukturalistatzat hartu izan diren autoreek esandakoa aztertzea da. Noski, korronte hori, gainerakoak bezala, fenomeno heterogeneo bat izan zen eta hainbat ikuspuntu bildu zituen. Horien artean, alta, historiarentzat Jacques Derridaren eta, batez ere, Michel Foucaulten ekarpenak garrantzitsuenak izan zirela baiezta daiteke.

Esan ohi da Jacques Derrida «dekonstrukzio-metodo»aren sortzailea izan zela. Filosofo frantsesak berak defendatu zuen berak ez zuela inolako «metodorik» sortu; izan ere, «metodo» nozioa susmagarria iruditzen zitzaion. Derridak Mendebaldeko pentsamenduan kanoniko bilakatu ziren hainbat testu filosofikoren eta literarioren irakurketa «dekonstruktiboa» eskaini zuen (Bennington eta Derrida, 1993: 6).

Dekonstruktibo nozioak zera esan nahi du: irakurketa kritiko bat egitea, testuak testuinguru historiko eta kultural batean sortutako artefaktu testual legez hartzea. Derridak berak Descartes, Jean Jacques Rousseau, Marx, Nietzsche, Sigmund Freud, Edmund Husserl, Martin Heidegger, Paul de Man zein James Joycen lanen inguruan egindako irakurketa kritikoetan aztertu zuen nola sortzen zituzten esanahiak, zein azpialde zituzten eta zein beste esanahi baztertzetik sortzen ziren. Hau da, hizkuntzaren eta diskurtsoen joko dialektikoan esanahiak nola sortzen ziren aztertu zuen eta zein mekanismo linguistikoren eta ideologikoren bidez bilakatu diren esanahi horiek kanoniko.

Derridaren lanaren parte handi bat Ferdinand de Saussureren estrukturalismo linguistikoaren kritikatik eratorritako hausnarketek osatzen dute. Estrukturalistentzat, hizkuntza esanahiak sortzeko sistema bat zen. Laburbilduz, esanahiak terminoen desberdintasunen arteko kontraesanetik sortzen ziren eta terminoen definizio positiboak antitetikotzat jotzen den beste kontzeptu baten ukapenean edo errepresioan oinarritzen dira. Terminoen arteko esanahien diferentziak beste terminoekin finkoak eta egonkorrak ziren dikotomiak eta polaritatek ezarriz sortzen ziren, diferentzia sexuala izan zitekeen bezala, gizona-emakumea, kultura-natura, gizakia-animalia, objektiboa-subjektiboa, partikularra-unibertsala, etab. (Scott, 2000: 416). Esanahia hizkuntzaren barne-sistema horretatik sortzen bada ere, hizkuntza kanpoko errealitatea irudikatzeko (errepresentatzeko) gai da. Estrukturalismoak bezala, Derridak hizkuntza errealitatea, eta hortaz, historia ulertzeko entitate pribilegiatutzat zeukan. Harreman horren nolakotasunean eta esanahiaren sorkuntzan, alabaina, Derridak estrukturalismoaren ikuspegia kritikatu zuen. Izan ere, hizkuntzaren bidez errealitatea eta haren esanahiak era ziur eta argian irudikatzea posible zela arbuiatu zuen.

Egile frantsesaren ahalegin deseraikitzaileek zera erakutsi zuten: Mendebaldeko pentsamenduaren eta historiaren oinarri diren dikotomia binario horien artean harreman hierarkiko bat dagoela. Hierarkia horren muina da dikotomia horietako elementu bat autentikotzat eta autonomotzat jotzen dela eta bestea horretatik eratorritzat. Derridaren hurbilpen deseraikitzaileak hizkuntzak sortzen dituen dikotomia horien ustezko esanahi finko eta autonomoa zalantzan jartzea proposatzen du, kontrajarritzat hartzen diren kontzeptu horien esanahiak bata bestearekiko interdependenteak direlako. Izan ere, eratorritzat jotzen den termino hori egiatan, hegemonikotzat edo autentikotzat jotzen den terminoaren existentzia-baldintza bilakatzen delako (Derrida, 1975). Derridak berak *L'Animal que donc je suis* (*Animalia beraz naizena*) (2006) obran landutako adibide baten bidez naturaltzat edo esentzialtzat jotzen diren dikotomia horien izaera eraiki, kultural eta linguistiko agerraraziko digu. Mendebaldeko pentsamendua gizakiaren eta animaliaren artean dagoen diferentzia gaindiezinaren onarpenean eraikia dago. Diferentzia horren hainbat bertsio eman dira diskurtso desberdinetatik —filosofikotik, zientifikotik zein antropologikotik—: gizakiek kontzientzia (arima) daukate *versus* animaliek ez dute kontzientziarik; gizakiak arrazionalak dira *versus* animaliak irrazionalak

eta instintu hutsa dira; gizakiak erreflexiboak gara *versus* animaliak irreflexiboak dira; gizakiok identitatearen nozioa daukagu *versus* animaliek ez dute beren burua kategorizatzeko gaitasunik, eta abar eta abar. Baina diferentzia horren formulazio hauek guztiak hurbiletik eta haien testuinguruan irakurrita (izan Grezia klasikoa zein XX. mendea), ikusiko genuke gizakiak berak bere izaera (edo ustezko esentzia bat) definitzeko sortu izan dituela. «Animalia»ren eta animaliatasunaren nozioak gizatasuna definitzeko balio izan du eta, bide batez, gizakiak lurrean daukan kokalekuan eremu pribilegiatua eskaintzeko. Gizakia desberdintzen den horietatik izendatzeko kategoria da, animalien artean existitzen den aniztasun ikaragarria kontuan hartu gabe. «Animalia» kategoria orohartzaile eta homogeneizatzaile horren pean subsumitutakoak ez dauka agentziarik, ez dauka emoziorik, erabil daiteke eta erail daiteke. Gizakiak sortutako murru linguistiko honek «animaliarengan» eragiten duen, eta historikoki frogagarria den, biolentzia sistematikoa justifikatzen du. Kontua ez da gizakion eta animalion artean diferentziarik ez dagoenik onartzea. Izan ere, diferentziak nonahi daude, «animalien erreinuan» zein gizakion gizartean. Baina diferentzia batzuek beste batzuek baino pisu eta atentzio handiagoa jaso dute eta hori ez da aspektu natural edo berezko bat, baizik eta politikoa eta kulturala —geroago aztertuko dugunez, Gayle Rubinek diferentzia sexualaren eraikuntzari buruz adierazi zuen bezala—. Esaterako, animalia askok gizakiokin antzekotasun handiagoak dauzkate beste animaliekin dauzkatenak baino eta, hala ere, «animalia» kategoria horren pean izendatu izan dira gizatasunak eskaintzen dizkigun pribilegioetatik at utziz. Irakurketa dekonstruktiboak ahalbidetzen du gizakiok linguistikoki eraiki eta praktika sozialen bidez naturalizatzen ditugun diferentzia horien eduki eta izaera kultural, ideologiko eta politikoak deseraiki eta desestaltzea. Azken finean, adibide honen bidez zera erakutsi nahi dugu: eraikuntza linguistikoen eta diskurtsiboen analisiak dominazio-egiturak eta -logikak deseraikitzeko aukera eskaintzen digula. Agerikoa denez, horrek iragana ulertzeko orduan daukan eragina oso handia izan da.

Derridak eta deseraikuntzak sortutako ikuspegi kritikoek izan duten eragina oso garrantzitsua izan da. Besteak beste, gure diziplinaren ibilbide garaikidean hain erabakigarriak izan diren Joan W. Scott, Keith Jenkins, Alun Munslow edota Frank Ankersmit historiagileengan eta teorialariengan eragin nabarmena izan du filosofo frantsesak. Baina zein da deskonstrukzioaren eragina azterketa historikoaren praktikan? Hain zuzen ere, naturaltzat edo unibertsalki onartutzat ematen diren kontzeptuen eta kategorien historizazio erradikala egitea: gertakari historikoak baloratzeko orduan kategorien balioa bere horretan naturalak izango balira bezala ez onartzea eta sortuak diren testuinguruan aztertzea, momentu eta testuinguru horretan hartzen duten esanahia kontuan hartzeko (Scott, 2000: 416). Kategorien esanahiak beti dira aldakorrak.

Foucaulten lan paregabearekin batera, beste alorren artean, generoaren historia eta historia feministarentzat hurbilpen hau bereziki emankorra izan da, onartu ahal izan delako «emakumea» eta «gizona» kategoriek esanahi aldakorrak dituztela eta emakumetasunaren eta gizontasunaren esperientziak berak historikoki

espezifikoak direla. XVIII. eta XX. mendeetan zehar garatutako feminitate nozioak, adibidez, zeharo desberdinak izan dira, ez delako existitzen emakumeei berezkoa zaien inongo esentzia ahistorikorik. Are gehiago, momentu historiko jakin batean emakumetasunaren nozio desberdinak daudela eta emakumeek beren esperientziei esanahi desberdinak egozten zizkietela onartu ahal izan da berrikuntza teoriko hauei esker. Arrazoibide horri jarraituz, emakumeek beren bizi-esperientziei esangura ematen diete haien testuinguru historikoek eta kulturalek eskainitako marko diskurtsiboek emandako tresnen arabera. Ikuspuntu horretatik, historiagilearen lana deseraikitzea da tradizionalki gertakari historikoei buruz kanonikotzat jo izan diren narrazio egonkorrak eta mugiezinak, betierekotzat eta arrazionaltzat jo izan direnak (objektibitatearen, ongi moral edo politikoaren edota ordena sozialaren *statu quo*aren izenean). Aldi berean, haien sorkuntza-momentuko erro kontzeptualetara eta ideologikoetara jo behar dugu esanahi historikoen artean esentziarik existitzen ez dela onartuz, eta kontuan hartuz iraganeko esperientziak ezin ditugula orainaldiko balioen patroien arabera epaitu. Iraganeko esanahien bereizgarritasuna bilatu behar da, alegia.

Irakurketa honek, aldi berean, onartzen du edozein testutan —eta edozein testuinguru historikoren irakurketan— beti egongo dela erabakiezina den zeozer, ez dugula inoiz betierekoa eta «osoa» den azalpenik edo esanahirik sortzeko aukerarik izango. Izan ere, hizkuntzaren diferentzien jokoan esanahia beti dago zehaztugabetasunaren eremuan, erabakiezina denaren eremuan, hain famatu bilakatu den *différance* derridarraren eremuan (Derrida, 1982). Linguistikatik eratorritako ideia hauek historiaren eta kulturaren analisira aplikatzeak ondorio sakonak dauzka gertakari eta subjektu historikoak ulertzeko orduan, deseraikuntzak kategoria eta nozio historikoen erabilera kritiko eta ez-esentzialista egitera garamatzalako. Aurrean aipatu dugun adibide bat gogora ekarriz ulertuko dugu hori: «emakumea» kategoriarena. Denboraren poderioz esentziala edo berezkoa den esanahia daukan kategoria dirudien arren, «emakume» adierazleak ez du originala edo benetakoa den erreferente egonkor bat izendatzen. «Emakumea» kategoriaren esanahiak beti sortu izan dira beren testuinguruko beste kategoriekin harremanean: «natura», «gorputza», «identitatea», «sexua»… Emakume-ren esanahia, beraz, beste hainbat adierazlek edo kategoriak osatzen duten kate horren baitan sortuko litzateke, zeina etengabe aldakorra baita testuinguruaren arabera. Horrek esan nahi al du fenomeno historikoei buruzko azalpenak sortzea ezinezkoa dela? Ez. Bai, ordea, onartzea esanahien eta diferentzien multiplizitatearen eta etengabeko aldakortasunaren eremuan mugitzen garela, historizazio erradikala eskatzen duen eremuan, alegia.

Historiografiaren alorrean eragin erabakigarria izan duen pentsalari frantses esanguratsuena Michel Foucault izan zen. Derridak ez bezala, Foucaultek analisi historiko konkretuak bideratu zituen, gerora historian zein giza zientzietan eragin erabakigarria izan duten berrikuntza teoriko eta analitiko esanguratsuak ekarriz. Iraganari eta subjektu historikoen sorkuntzari buruzko ikuspegi berriak sortu zituen eta diskurtsoak, askatasuna, sexualitatea, baina batez ere, boterearen nozioaren gaineko

berrikuspen kritikoak eskaini zituen. 1969. urtean argitaratu zen *L'archéologie du savoir* (*Jakiteari buruzko arkeologia*) liburuan ikerketa historikoaren eremuan genealogiak eta metodo arkeologikoak duten garrantzia azaldu zuen. 70eko hamarkadan zehar haren lanik esanguratsuenak *Surveiller et Punir: Naissance de la prison* (*Jagon eta Zigortu: Kartzelaren jaiotza*) (1975) eta *Histoire de la sexualité, 1. La volonté de savoir* (*Sexualitatearen historia, 1. Jakitearen borondatea*) (1976) izan ziren, boterearen, errepresioaren, subjektibitatearen eta identitateen sorkuntzari buruzko ordura arteko teoriei kritika eginez. Horiekin batera, historiagintzarentzat oso garrantzitsua izan den *Nietzsche, la généalogie, l'histoire* (*Nietzsche, genealogia, historia*) argitaratu zuen 1971n.

Foucaultek Ilustraziotik eratorritako subjektuaren nozioaren irakurketa kritikoa egin zuen, Kanten *Was ist Aufklärung?* (*Zer da Ilustrazioa?*) (1784) testuan, Ilustrazio filosofikoaren barnean esanguratsuenetarikoa, autore alemanak iraganeko tutoretzatik eta kateetatik askatutako indibiduo autonomo legez irudikatu zuen subjektu modernoa. Hau da, boluntarioki niaren heldutasunera iristeko prozesua deskribatu zuen. Kritika kantiarraren arabera, ni modernoak bere ezagutzaren mugen jakitun izan behar zuen, oinarrizko lege unibertsalak sortuz fundamenturik gabeko ezagutza baztertzeko. Etikaren alorrean ere lege unibertsalen arabera, era autonomoan jokatu behar zuen, bere askatasunaren erabilera eginez. Foucaultek, 1984ko *Qu'est-ce que les Lumières?* (*Zer da Ilustrazioa?*) izenburuko idatzian proposamen kantiar kritikoaren berrikuspen bat eginez, argudiatu zuen *kritika* lan historiko bilakatu behar zela geure buruak egiten, pentsatzen eta esaten dugunaren subjektu gisa ulertzera eraman gaituzten sorkuntza-baldintzak aztertuz (Foucault, 1993). Alegia, historiak gizarte modernoa ezaugarritzen zuten ereduak, praktika kulturalak eta gizaki modernoaren sortze-prozesuak aztertu behar ditu denboran zehar. Azken finean, gizakia definitzeko eta den bezalakoa izateko martxan jarri diren mekanismo teknikoen, zientifikoen, kulturalen eta sozialen funtzionamendua ulertzeko erabilgarria izan behar du historiak.

Foucaultek ez zuen kritika historiko hori proposatu gizakiari buruzko ezagutza historiko ziurra, deduktiboa eta lineala sortzeko asmotan. Ez zuen egin bilakaera historikoaren «zentzua» zein izan zen asmatzeko asmoz, gizaki modernoaren kontaketa (edo metakontaketa) unitario «alternatibo» bat sortzeko asmoz. Alderantziz, aditu frantsesaren nahia zera izan zen: historia eta gizakia diren bezalakoak izatera heldu izanaren bilakaera diferentziaz, apurketaz, prozesu diferentez eta multipleaz osatuta zegoela erakustea, kontingentziak agintzen duen agertokietan. Zentzu horretan Foucaultek bi dimentsio desberdindu zituen historia kritiko horretan: helburu genealogikoa eta metodo arkeologikoa. Lehenengo dimentsioari dagokionez, ikerketa historikoak genealogikoa izan behar duela adierazi zuen, alegia, historian zehar sortu diren eta orainaldian operatzen duten botere modu konplexuen analisiak eta interpretazioak egin behar direla. Genealogiak, noski, ez dira historia monolitikoak, baizik eta hausturen konstelazioak (Williams, 2005: 94). Arkeologiaren dimentsioak, bestetik, historiagilearen metodoari egiten dio erreferentzia. Metodo horren arabera,

ikertzaileak, honako galdera hauek planteatu beharko lituzke: nola bilatuko ditugu genealogiaren aztarnak? Zer motatako aurreiritziek ez digute genealogia hauek aztertzen uzten? Zer kategoria edo aurrejuzguetatik hartzen dute forma «ebidentzia» historikoek?…

Metodo arkeologikoa ez dago datu objektiboak lortzera konprometitua, objektibitatea ez delako datuan edo artxiboan aurkitzen den «zeozer», baizik eta ikertzailearen ekintzen eremura trasladatzen den auzia. Egin beharreko galderak hurrengoak dira: zer motatako ebidentziak hartzen ditugu kontuan eta zergatik? Zer irizpideren arabera aukeratu ditugu? Zergatik sailkatzen ditugu era batera eta ez beste batera? Galdera horien atzean dago, eta ez ebidentziari egotziriko inolako balio transzendentalean, objektibitatearen arazoaren muina. Objektibitatearen izenean ebidentzien arteko harremanen kate lineal eta koherenteak sortzen ditugunean, haien arteko kausa-efektu garbiak sortu nahian. Horrela diharduguneAn, egiatan, ebidentzia horiek «sortzeko» onarpen sinplifikatzaileak egiten dihardugu ez-jarraitua eta ez-beharrezkoa den horretan zentzu historikoa daukan kontinuitate bat, kontaketa koherente bat, sortzeko. Izan ere, ebidentziak ikertzailearen pertzepzioaren pean sortzen dira eta irizpide batzuen arabera baino ez dira ebidentzia eztabaidaezintzat azalarazten. Foucaultek zalantzan jarri zuen ikerketa enpiriko egiaztagarriak edo faltsugarriak aurrera eramateko ebidentziaren edo datu historikoaren nozioa, kontinuitate eta zentzu historiko lineal eta koherenteen posibilitatea kinka larrian jarriz (Williams, 2005:95).

Aurrekoari loturik, ez dugu uste behar Faucaultek historia fragmentario sinple bat irudikatu zuenik; auzia konplexuagoa da. Historia kontaketa anitzez dago osatua; beharrezkotasunak baino areago kontingentziak agindutako agertoki desberdinen aurrean aurkitzen gara egitate edo testu historikoak ikertzerakoan, eta ez dago aukerarik asegarria edo totalizantea izango den kontaketa finalik sortzeko, hain zuzen ere, botereak diskontinuitateen bitarteko sareetan eragiten duelako. Hain zuzen ere, bigarren atalean garatuko dugun moduan, boterearen birdefinizioa izan zen Michel Foucaulten lanak historiografiari eskaini zion berrikuntzarik garrantzitsuenetariko bat.

Foucaulten lanak ikerketarako bide berriak eskaini zizkion historiagintzari. Haren proposamenak mahai gainean jarri zuen oinarrizko auzi hau: zein zen hizkuntza/diskurtsoen eta errealitatearen arteko harremana eta nola eragiten zion horrek ikerketa historikoari? Gogoeta horrek, aldi berean, subjektu historikoen sorkuntzari eta izaerari buruzko azalpen diferenteak eta konplexuagoak sortzeko aukerak eman zituen. Horrek historia ofizialetako marjinetan geratutako subjektu historikoen agerpenari ekarpen handia egin zion, genero-historiaren eta historia postkolonialaren kasuak izanik adierazgarrienak.

Laburbilduz, kritika postestrukturalistak, aldi berean, arrazionaltasun eta subjektu modernoaren kritika egitearekin batera, historiografia tradizionala zalantzan

jarri zuen. Jarrera kritiko hori erabakigarria izan da agerian uzteko Mendebaldeko historiografiak datu objektibo hutsarekin daukan obsesioaren oinarriak ideologikoak eta arbitrarioak direla. Eta horrekin batera, erakusteko iragana kontatzeko forma hori Mendebaldeko historia lineal eta koherente triunfalista bat idazteko eta justifikatzeko erabilia izan dela, orainaldiko *status quo*a indartuz. Iraganaren esanahiak eta esperientziak, orainaldiko kuriositatetik sortzen dira, hori ez dago ukatzerik. Baina, ezin dugu iragana orainaldiko egoera historikoaren beharrezko baldintza izango balitz bezala ulertu. Hau da, gertakari historikoen esanahiak beren momentuko baldintzen arabera ulertu behar ditugu, eta ez egungo baldintzen arabera, hain zuzen ere, gertatu zirenean etorkizuna eremu ireki eta definitu gabea zelako eta bilakaera historikoaren posibilitate infinituen potentzialitatea zegoelako. Hori ez da objektibitate rankearra edo enpirista berreskuratzeko borondate bat, baizik eta onartzea iraganaren ikerketa ikertzaileen eta gertakarien orainaldiarekin zerikusi handia izan dezakeen eremua dela eta ikertzailea ezin dela bere orainalditik askatu. Kontuan hartu behar da iraganeko aktoreek ez zekitela etorkizuna nolakoa izango zen, alegia ez zekiten been ikuspegiak historiaren garaile edo galtzaile izango ziren. Beraz, iraganeko esanahiak orainaldiko aurrejuzguetatik aldenduz berreraiki behar dira, orainaldian errepikapenaren poderioz fosilizatu diren kategorien desnaturalizazio eta deseraikuntzaren bidez. Ikertzaileak historiaren emaitza desberdina izan zatekeelako posibilitatea onartu behar du, bestela, beharrezkotasunak agintzen duen kontaketa handi bat elikatzeko ebidentziak baino ez ditu aurkituko.

3.2. BIRAKETA LINGUISTIKOA

Era laburbilduan planteatzearren, historiagintzan historia sozialetik historia post-sozialera emandako ibilbidea honela deskriba genezake: kausalitatearen bazterketa eta esanahiaren azterketaren gaineko arreta pribilegiatzearen alde egin den ibilbide bezala. Historia linguistikaren alorretik zetozen proposamen teoriko berriez —hain berria ez zen estrukturalismotik eta postestrukturalismotik— hornitu zen, eta 70eko hamarkadan eta, batez ere, 80ko hamarkadan historia, linguistika eta antropologia kulturalaren arteko harremanetik *biraketa linguistikoa* deitu dena sortu zen. Historiaren alorrean biraketa linguistikoaren joera da, hain zuzen ere, esanahiaren lehentasuna azpimarratu duena. Korronte horren inguruan interpretazio desberdinak daude, eta horrek haren inguruko azalpen zehatza zaildu egiten du. Hala ere, irakurketa horiek guztiek komunean dute honako ideia hau: errealitatearen esanahia lengoaian aurkitzen dela, lengoaia dela munduari forma ematen diona eta ulergarri egiten duena esanahiaren arau linguistikoen bitartez (Díaz Freire, 2007: 19). Hala, biraketa linguistikoak ez zuen ikerketa-gai edota metodologia berririk proposatu. Aldiz, paradigma horren ezaugarri eta ekarpen nagusia errealitatearen eraikuntzan lengoaiari ematen dion lehentasuna da. Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea den José Javier Díaz Freireren hitzetan, «biraketa linguistikoa, batez ere, esanahiaren lehentasunaren baieztapena da» (2007: 16).

Biraketak lengoaiaren inguruan estrukturalismoak eta postestrukturalismoak egindako ekarpen garrantzitsuenak jaso ditu. Paradigma horren barnean kokatzen diren historialariek estrukturalismoaren hizkuntza nozioari egindako kritikak inkorporatu zituzten ikerketa historikoetan. Biraketak baieztatzen du —estrukturalismoak egin zuen bezala— esanahiaren sorkuntza sistema diferentzial baten bidez egiten dela. Baina, estrukturalismoak zioenaren aurka, diferentzia edo dikotomia horiek ez lirateke berez hierarkikoak izango, arrazionaltasun tradizionalak burututako hierarkizazioaren emaitza baitira. Postestrukturalismoaren barruan Derridak erakutsi bezala, diferentzia horien esanahiak beti dira aldakorrak eta inoiz ez egonkorrak. Horrela, biraketak kategorien historizazioari berebiziko garrantzia ematen dio, horrek ahalbidetzen baitu kontzeptuek momentu bakoitzean duten esanahia zein den eta zer beste nozioekin harremanean ezarri den ezagutzea.

Bestalde, historia sozialak lengoaia komunikabide-tresnatzat zuen. Historia materialarentzat lengoaia testuinguru sozialaren espresio modu bat izango litzateke, hau da, lengoaia errealitate sozial objektiboa deskribatzeko bide gardena izango litzateke, eta, hortaz, hitzek izaera autoebidentea izango lukete eta begi-bistakoa dena deskribatuko lukete. Beste modu batera esanda, lengoaiak izaera erreferentziala izango luke eta ez diferentziala, hots, kontzeptu baten esanahia balioztatzeko erreferentzia egiten zion objektua ikustea besterik ez zegoen. Biraketa linguistikoarentzat, aldiz, errealitatea ulergarri egiten duten esanahiak sistema diferentzial baten bidez sortzen dira eta ez, estrukturalismoaren eta postestrukturalismoaren kanpo kokatzen diren historialariek uste zuten bezala, sistema erreferentzial baten bidez. Aurretik beste azpiataletan ikusi dugun bezala, esanahiak ez dira munduaren isla gardena, terminoen arteko eta kategorien arteko diferentzien bidez sortuak baizik. Hau da, aurkakotasunaren bidez eta modu hierarkiko batean, termino bati lehentasuna ematen zaio besteak mendean jarriz. Esanahia, horrela, termino diferentzialen etengabeko birkokatzearen menpe dago eta, hortaz, esanahien finkapena kontingentea eta arbitrarioa da. Zentzu horretan, aurreko korronteekin alderatuz, biraketa linguistikoaren barnean kokatzen diren ikerketa historikoetan erreferenteak garrantzia galdu zuela aipatzen da, zeren eta, diogun moduan, esanahia, dagoeneko, ez baita objektuan edo erreferentean kokatzen.

Halaber, biraketak lengoaiaren izaera osatzailea edo eraikitzailea azpimarratu du, objektuen eta subjektuen sorkuntzan parte hartzen duelarik. Biraketa linguistikoaren ikuspuntutik, mundu soziala edo errealitatea linguistikoki edo diskurtsiboki eraikia dago. Lengoaiak ez luke, beraz, esanahia helaraziko edo islatuko, baizik eta errealitate sozialaren esanahien eraikuntza gauzatuko luke. Hortaz, momentu jakin bateko gertakarien edo ekintzen esanahiek ez dute gertakari edo ekintza horietan sorburua, garai historiko bakoitzean indarrean dagoen/dauden marko diskurtsiboetan (esanahi multzo bezala ulertua) baizik. Díaz Freireren azalpenari jarraituz, eta historia sozialaren terminologiaz baliatuz, biraketarekin esanahiaren lekualdaketa bat egin da, hau da, esanahia ez da azpiegituran aurkitzen, gainegituran baizik, hots, eremu materialetik eremu idealera pasa da (2007: 16). Azken finean, aldaketa sozialaren

bultzatzailea ez da eremu ekonomikoan ezta eremu politikoan edo sozialean ere aurkituko, baizik eta leku eta garai jakin batean indarrean dauden marko diskurtsiboetan. Postestrukturalismoaren oinarri teorikoetatik abiatuta, biraketa linguistikoarentzat, lengoaia esanahi-matriza izango litzateke. Zentzu horretan lengoaia mundua ulergarria egiten duen esparru soziala, eta autonomoa, izango litzateke.

80ko hamarkadatik aurrera, errealitate objektiboaren kontzeptua zalantzan jarri zen. Biraketak ez du errealitate soziala egitura edo estruktura bat bezala ulertzen, hau da, errealitateak ez lituzke berezko esanahiak gordeko. Horrela, marxismoaren irakurketa klasikoenek proposatzen zutenaren aurka, kontzientzia ez da errealitate sozialaren errepresentazio bat eta existentzia-baldintzek ez dute indibiduoaren jarrera determinatzen. Hain zuzen ere, historia sozialaren premisa teorikoak *islatze* kontzeptua erabiltzen zuenean, indibiduoen portaera faktore materialen efektua zela adierazteko erabiltzen zen. Biraketa linguistikoarekin kausalitate-harreman hori ezbaian jarri zen. Egoera sozial jakin batek ez du zertan halabeharrez ekintza jakinik eragin. Indibiduoek burutzen dituzten ekintza horiek ez dira aukera arrazional bat, ezta testuinguru sozialaren efektu bat ere. Beraz, pertsonek modu batean edo bestean jardutea ez da posizio sozial jakin bat dutelako, baizik eta testuinguru sozialaren eta bertan okupatzen duten posizioaren artikulazio jakin baten emaitza izango litzateke, hau da, posizio hori imajinario sozial baten arabera errealitateari esanahi jakin bat eman izanaren efektua da. Hortaz, horrek adieraziko luke ezen testuinguru sozialaren eta ekintzaren arteko kausa-efektu harremana ez duela testuinguruak finkatzen, baizik eta sortzen den bitartekotza diskurtsiboak. Marko diskurtsiboek —medikoek, juridikoek, politikoek…— kategoriak eta kontzeptuak eskaintzen dituzte norbanakoek beren posizioa esanahiz betetzeko eta esperimentatzeko. Haien esperientziari esanahia eta zentzua emateko, azken baten. Laburbilduz, esan liteke, biraketa linguistikoak ikerketa historikoaren norabidea zuzendu zuela esanahien eraikuntzara, kausalitate historikoa baztertu eta esanahiaren alde egin zuela.

Biraketak analisi historikoari egin dion beste ekarpen bat esanahiari izaera historikoa aitortu izana izango litzateke. Joera horren izaera antiesentzialista dela-eta, bertan kokatzen diren historialarientzat ikerketa-objektua esanahiaren eraldaketa da. Hizkuntza deskriptibotzat jotzen zuten korronteen arabera, esanahiak objektuarekin sinkronia mantentzen zuen eta hura soilik eraldatuko zen, objektua aldatuz gero. Baina biraketa linguistikoaren arabera, ordea, objektu berdinak esanahi desberdinak —edo berdinak— izan ditzake momentu historiko desberdinetan. Esanahiak historikoki aldakorra izaki, izaera ezegonkorra dute eta beste esanahiekiko etengabeko lehia egoeran daude. Hori dela-eta, biraketa linguistikoaren barruan diharduten historialarien interesa honako honetan kokatzen da: klase, nazio, emakumea edota gizona bezalako kategoriek testuinguru jakin batean eta denboran zehar izan dituzten esanahien azterketan.

Kategorien izaera historikoa azpimarratzea iraultzailea izan zen, besteak beste, historiaren alorrean, agerian utzi dutelako hain naturalizaturik ditugun «gizona»,

«emakumea», «beltza», «txuria», «langilea»… kategoriak eraikiak direla eta, haien esanahia denboran zehar aldatzen doala. Azken batean, ideia horrek, besteak beste, identitateen izaera ez-esentzialista azpimarratzen du. Horrek esan nahi du historian zehar modu desberdinean ulertu izan dela gizon edo emakume izatea zer den eta, aldi berean, naturaren determinismotik ihes egitea ahalbidetu duela. Azken batean, gure eremu akademikoan dugun Nerea Aresti historialariak dioen bezala, historia funtsezko tresna epistemologikoa da sexuen, arrazaren, klasearen edota generoaren izaera aldakorra eta kontingentea dela azaleratzeko eta gorputzak esentzia aldaezinen eramaile direlako ustea baztertzeko (Aresti, 2010: 13).

Aipatutako guztiarekin lotua, subjektua lengoaiaren ondorioa da, hots, esanahiaren sistema diferentzialaren ondorioa eta, hortaz, historikoa da. Horrela, marxismoaren baieztapenetatik aldenduz, indibiduoen identitatea ez da haien existentzia-baldintzen isla, ez da bere egoera material objektiboen kontzientzia-hartzearen ondorioa. Aldiz, identitatea eta subjektibitatea indibiduoen eta haien testuinguru sozialaren arteko bitartekaritza linguistikoaren ondorioak edo efektuak dira. Historia egiteko beste korronte historiografikoek subjektuaren izaera intenporal eta berezkotzat, instantzia osatutzat eta ziurtzat jotzen zuten bitartean, biraketak azpimarratzen du subjektuaren eraketaren historizazioa burutu behar dela. Horrek esan nahi du azalpen historikoak ezin duela emaitza abiapuntutzat hartu. Hau da, subjektua, subjektibitatea edota kontzientzia ez badira diskurtsoen aurretik existitzen, gure ikerketek ezin dituztela berezkotzat hartu, existentzia eman dieten kondizioak kontuan izan gabe —aztertu gabe—.

3.3. EKARPEN BERRIAK: INKORPORAZIOAREN PARADIGMA

Ikusi dugunez, historialariek geroz eta arreta handiagoa jarri zioten esanguren eraikuntzari XX. mendeko bigarren erdialdetik. Biraketa linguistikoaren paradigmarekin bat egin zuten aditu horien arabera, mundua lengoaiak eraikia dago. Ikuspuntu horren arabera, gizakiek ez daukate, inoiz, kontaktu zuzenik beren existentzia-baldintzekin. Kontaktu hori, munduari ulergarritasuna eta zentzua ematen dion lengoaia baten bidez baino ez da gertatzen. XX. mendeko 90eko hamarkadaren erdialdetik, ordea, ekarpen berriak egin zaizkie biraketa linguistikoaren proposamenei. Hainbat adituk, pentsalarik eta ikertzailek munduaren egitura linguistikoaren inguruko kontzepzioa birpentsatzeko beharra aldarrikatu zuten. Eta, izan ere, ekarpen berriak agertu dira biraketaren barruan gertatu den eztabaida intelektual emankor eta ireki batean (Appleby, 1989; Joyce, 2002; Spiegel, 2006; Biernacki, 2005; Reedy, 2001). Biraketaren norabide-aldaketa bultzatu duen jarrera kritikoaren mugarri bat izan zen 1996. urtean Victoria E. Bonellek eta Lynn Huntek editatu zuten *Beyond the Cultural Turn* (*Biraketa kulturaletik haratago*) lana.

Biraketa linguistikoaren paradigma edo marko teorikoa gero eta asegaitzagoa, edo behintzat, mugatuagoa suertatzen ari zitzaion hainbat adituri. Ezinegon horrek,

eta haren ondorioz biraketari egin zaizkion kritikek eta galderek, esangurekin eta subjektuen agentzia-ahalmenarekin dute lotura. Hala, XX. mendearen bukaeran agertu diren ekarpen edo proposamen berriek bi elementu horiekin lotutako zalantzei erantzuteko helburua izan dute. Lehenengo ideiari dagokionez, ahots kritikoek lengoaiaren nolabaiteko kontzepzio determinista baten garapena salatu dute. Ekarpen berriek zalantzan jarri dutena zera da: biraketaren arabera, lengoaiak, zeina munduaren aurrekoa baita eta —esanahiaren arau linguistikoei jarraituz— mundu materiala eratzen eta ulergarri bihurtzen baitu, esangura guztia monopolizatzen duela. Horrekin loturik dago kritikoek zalantzan jarri duten bigarren ideia: biraketaren arabera, subjektu historikoen esangurak eta sorrerak berak ere diskurtsoetan dutela iturria. Horregatik, kritikoen esanetan, subjektuek —egitura linguistiko batek gidatutako izakiak izanik— duten parte-hartze sozialerako aukera txikiena ere ezabatu egiten du biraketak. Azken finean, biraketa linguistikoak esangurari ematen dion garrantzia eta lehentasunaren ondorioz, erreferentea desagertu, edo behitzat, haren garrantzia hutsaren pare geratzen da. Esangura erreferentetik, erreala den horretatik, materiatik aldendu izana leporatzen diote hainbatek biraketari. Ikuspuntu kritiko horrekin geroz eta identifikatuagoak sentitu ziren aditu asko, eta, esan dugun bezala, biraketari zuzendu zaion salaketa nagusia haren lengoaiarekiko kontzepzio geroz eta deterministago baterako joera hartu izana izan da.

Kritiko gehienek bat egin dute aipaturiko determinismo linguistiko bezala identifikatzen dutena salatzerakoan. Baina komuntasuna hor bukatzen da, biraketarekiko hainbat sentsazio kontentagaitzekin beste horrenbeste erantzun eta biraketa-proposamen agertu baitira. Horien guztien zehaztasunetan eta planteamenduetan sakontzeak lan honen helburuak gainditu egiten ditu. Azalpenetan murgilduko ez garen arren, oso kontuan izan behar dugu nolabaiteko «atzera-buelta»tzat har ditzakegun proposamenak ere agertu direla, ibilitako bidetik itzultzea eta biraketak eskaini dizkigun lorpenez ere gabetzea planteatzen dutenak, alegia. Zentzu horretan, biraketa biologiko edota kognitiboa proposatzen duenik badago. Proposamen horietatik aldendurik, biraketa linguistikoa edo kulturala zuzendu eta osatzea proposatu dutenen artetik ekarpenik berritzaileena eta, agian, zergatik ez, iraultzaileena iruditzen zaigunari eskainiko dizkiogu atal honetako azken orriak: biraketaren ondare aberatsenetatik abiatuta, edo behintzat haiei uko egin gabe —esanguraren izaera historikoaren aldarrikapena—, analisi historikoaren birmaterializazio batera bueltatzeko aldarrikapena egiten duen proposamenari, alegia. Hala, hurrengo lerroetan José Javier Díaz Freire historialariak biraketari egindako biraketan jarriko dugu arreta, *inkorporazioaren paradigma* izena eman dion planteamenduan, hain zuzen.

Bestelako ekarpen batzuekin gertatu bezala, Freireren proposamenak ere biraketa linguistikoaren urritasunek eragindako kezketan du iturria. Horrela, adituaren planteamendu berritzailea, besteak beste, biraketak gizakiei prozesu historikoan esku hartzeko onartzen zien gaitasun mugatuak eragindako arduraren harira burututako hausnarketatik dator. Eta hortik abiatuta, historialari euskaldunak

analisi historikoaren birmaterializaziora —*batera*— bueltatzearen aldeko aldarrikapena egiten du bere *inkorporazio*aren proposamenarekin (2001: 79-96 eta 2007: 24). Funtsezkoa da aipaturiko *materializazio*aren ideia, hor baitago aportazio berri horren gakoa. Eta giltzarri horren funtsa eta ideia osatzerakoan, besteak beste, Antonio Damasio (2004a, 2004b) neurologoaren eta Baruch Spinoza (1984), Mark Johnson (1987, 1999) eta George Lakoff (1999) filosofoen eraginak jaso ditu.

Freireren inkoporazioaren paradigmak bat egiten du gizakiak historian duen esku-hartzearen gaitasunaren (autonomiaren) kontzepzio zabalago —biraketak zuenarekin konparatuz— baten proposamenekin. Subjektuen parte-hartze sozialaren inguruko hausnarketatik abiatuta, bat egin du gorputzaren inguruan egin diren kontzeptualizazio berriekin. Izan ere, Freirek proposatzen digun historiaren birmaterializazioak harremana du gorputzek errealitatearekin duten bizipena analisiaren erdigunean kokatzearekin. Eta, era berean, *inkorporazio*aren paradigmak, esangura sortzen direneko eremua aldatu eta gorputzaren kontzeptualizazio berri batean kokaturik ulertzen du. Izan ere, proposamen teoriko horren elementurik berritzaileena bere erdigunean kokatzen den kontzeptu baten berrikuspenarekin du harremana: gorputzarekin, hain zuzen.

Biraketak erakutsi zigun subjektuaren izaera historiko, aldakor eta eraikiaren ideiatik abiatuta, subjektuaren beraren esangura non sortzen den galderari erreparaturik aurkituko dugu Freireren gorputzaren ideia. Puntu honetara iritsita, euskal aditua Baruch Spinoza filosofoaren gorputz kontzeptuaren birformulazioaren zordun dela aipatu behar dugu. Spinozaren arabera, arima eta gorputza «indibiduo bakar bat eta berbera dira» (Spinoza, 1984: 141). Proposamen horren berrikuntza garrantzitsuena zera da: berekiko eta —guri gehien interesatzen zaiguna— munduarekiko harremanean dagoen elementu gisa definitzen duela gorputza. Berekiko, munduarekiko eta beste gorputzekiko etengabeko harremanean dagoen indar edo elementu bezala ulertuta, eraldatze- eta formatze-prozesu egonkorrean dagoen gorputzaz ari gara[8]. Gilles Deleuze filosofo frantsesak egin zuen gorputz spinozistaren interpretazioa baliagarria egiten zaigu:

> Alde batetik, amaigabeko partikula-eramaile den gorputz bat: atseden eta mugimenduko harremanek, bizkortasun eta mantsotasuneko harremanek definitzen dute gorputz indibiduala. Beste alde batetik, gorputzak beste gorputz ezberdinetan eragina du edota beste gorputzek eragina da; bigarren gaitasun horrek ere definitzen du gorputz indibiduala (Deleuze, 2001: 150).

Definizio horren arabera, gorputza eragiteko eta, era berean, eragina jasotzeko ahalmena duen elementua da. Eta kontzeptualizazio horretan ulertu behar dugu *inkorporazioa* eta berorrek proposatzen duen birmaterializazioa. Biraketari egindako kritiketara momentu batez bueltatzearren, ikuspuntu berri honen arabera, biraketa

8. Denboran aldaezina den gorputzaren definizio baten alde agertu denik ere badago (Fizhugh eta Leckie, 2001). Horrelako erantzun motak egungo krisi teorikoaren testuinguruan agerian ari dira geratzen (Cabrera eta Santana, 2006: 189-190).

linguistikoaren oinarrian Mendebaldeko gizarteok gorputzaren eta arimaren artean egiten dugun bereizketa egongo litzateke. Esangura zera litzateke: era horretara ulertutako bi elementu bereizietan osatutako gorputzaren adimenaren emaitza. Horren aurrean, *inkorporazioak* aipatutako bereizketa hura baztertzea eta gorputza eta adimena entitate bakar eta bereiziezintzat hartzea proposatzen du.

Antonio Damasio mediku portugaldarraren ideiek ere garrantzia izan dute azaltzen ari garen gorputzaren kontzeptualizazioan. Haren arabera, gorputza mundurako sarbidea da eta, horrela, gizakiok munduarekin dugun harremana *inkorporazio*aren bidez gertatzen da (Damasio, 2004). Era berritzaile horri jarraituz ulertutako gorputza izango litzateke munduari zentzua eta esangura ematen dizkiona: gorputzak ematen digu «munduaren esanahi haragitua» (Díaz Freire, 2015: 13). Izan ere, *inkorporazio*ak esanahia sortzen den esparrua zabaldu du, berau azaldu dugun gorputzaren kontzeptuan kokatuz, munduaren sarbidea den gorputzean.

Freirek biraketa linguistikoari planteatzen dion berrikusketaren protagonista den gorputz postmetafisikoaren ideia emozioaren kontzeptuarekin osatu behar da. Eta horrela, *inkorporazio*aren paradigmarekin batera, emozioen historia[9] —gizakiok munduarekin dugun harremana fisikoa eta emozionala den gorputz baten bitartekoa dela ulertzen duen «emozioen historia»— itxura hartzen eta egituratzen joan da. Azkeneko emozioen historia hori ere, subjektuen esperientzia eraikitzeko orduan munduari ematen zaion esangura *haragitua* non sortzen eta gauzatzen den galderei erantzuteko sortu den joera da (Plamper, 2010). Hala ere, ez ditugu emozioen historia eta *inkorporazioa* nahastu behar, biraketa linguistikoaren ikuspuntutik emozioetara begiratzen duenik ere badago eta —gorputzaren kontzeptu modernoa mantendua—. Izan ere, historia jakintza-arloaren barruan egiten ari den gorputzarekiko biraketa, *inkorporazio*arena alegia, nahiko mugatua da beste diziplina batzuetan egin denarekin alderatuta.

Laburbilduz, *inkorporazio*aren paradigmak errealitatearekiko harreman aurrediskurtsiboa posible dela aldarrikatzen du: harreman emozional bat, lengoaiaren bitartekaritzarik gabekoa. Gainera, aipatu dugun bezala, gorputza eragiteko eta eragina jasotzeko ahalmena duen elementua den neurrian, subjektuaren eta objektuaren arteko harreman berritzaile —eta transformatzaile— batean pentsatu behar dugu, une oro, batak eta besteak elkar eragin eta eraldatze-egoeran aurkitzen direnekoa. Proposamen horren arabera, gorputza eta emozioak bat eginik ulertzen dituen *birmaterializazioa* izango litzateke analisi historikoaren iparrorratza.

9. Bigarren kapituluan «emozioen historia» atalean azalduko dugun bezala, emozioen historiaren barruan ikuspuntu teoriko ezberdinak ari dira garatzen. Besteak beste, Peter eta Carol Sterns-en joera «emozionologikoa», Barbara Rosenweinek garatu duen «komunitate emozionak» kategoria ardatz duen joera, edota William Redyk proposatutako «erregimen emozionalak» eta «emotive» direlakoen inguruan garatu den joera.

2. atala. Ikerketa-kategoriak eta korronte analitiko berriak

1. Kategoriak

Historiografiak jasan dituen garapen eta aldaketak aztertu ondoren, azken hamarkadetatik hona eta gaur egun ere ikerketa historikoak egiteko orduan zenbait kategoria analitiko garrantzitsuren aurkezpena egingo dugu. Iragana aztertzeko orduan erabiltzen ditugun kategoria analitikoek —hau da, darabilzkigun kontzeptu teorikoek— gure interpretazio historikoetan dauzkaten inplikazioak ezagutzeak eta ulertzeak berebiziko garrantzia dauka. Izan ere, marko teoriko bat edo beste bat erabiltzeak iraganaren azterketa horretan emaitza desberdinak lortzea esan nahi du. Horregatik azpimarratu behar da ezen beharrezkoa dela erabiltzen ditugun tresna teorikoekiko jarrera kritikoa mantentzea, kategoria batzuk beste batzuk baino egokiagoak suerta daitezkeelako subjektu zein fenomeno historikoak interpretatzeko orduan.

Hurrengo orrialdeetan, azterketa historikoetan izan duten eta daukaten garrantzia teorikoarengatik honako kategoria hauek aztertuko ditugu: modernitatea/postmodernitatea, identitatea/subjektibitatea, gorputza, eta boterea eta kultura. Kategoria horien inguruko ekarpen berrienek proposatu digutenak gidatuko ditu gure azalpenak. Baina, agian, atal honen elementurik aberatsena, gure ustez, horien inguruko problematizazioa bera da. Azken finean, historiak egiten duen aldarrikapen begi-bistakoena, zera da, hemen azaltzen ditugun —eta historialarion erreminta diren— nozioak aldakorrak izatea.

1.1. MODERNITATEA/POSTMODERNITATEA

Modernitatea eta haren eratorria, modernizazioa, urteetan zehar nozio pribilegiatuak izan dira ikerketa historikoaren alorrean. Gauzak horrela, azken urteetan modernitate hitzaren erabileraren ugaritzeak nozioaren beraren esanahia lausotu du Lynn Hunten aburuz, eta kontzeptu horren berrikuspen sakona egitera behartu (2014: 109). Historialariek garaikidetasunaren berezkotzat hartzen diren modernizazio-prozesuaren nondik norakoak ikertu dituzte, Mendebaldeko munduari dagokionez oro har, bai eta herrialde konkretuei dagokienez ere. Horrela, moderno hitzaren esanahi unibertsal horretatik abiatuta, herrialdeen modernizazio-mailak haien egitura ekonomikoen, industrialen, politikoen eta kulturalen «garapenaren» arabera neurtu, aztertu eta baloratu dira. Moderno hitzak, halaber, maila historikoan berritasuna eta aldaketa adierazten duen dimentsioa ere izan du. Eta horrekin batera, modernismo berba (batez ere testuinguru anglosaxoian erabilia) XIX. mendearen amaiera eta XX.

mendearen hasierako korronte artistiko eta estetikoak izendatzeko erabilia izan da. Abangoardia artistikoak modernitatearen alderdi estetikoaren adierazgarri direla ulertu da, eta, nolabait, gizarte eta mundu modernoaren (bere dimentsio urbanoan eta burgesean) izaera bera ulertzeko berebiziko garrantzia daukatela ulertu da.

70eko hamarkadatik aurrera, giza zientzietan modernitate nozioari buruzko eztabaidari beste nozio bat erantsi zitzaion: postmodernitatea. Ez da erraza termino horren definizio zehatz, sinple edo bateraturik aurkitzea. Jean-François Lyotardek postmodernitatea modernitatearen metakontaketenganako mesfidantza-jarreratzat definitu zuen (1987: 4). Fredric Jamesonek, bere aldetik, kondizio edo izaera postmodernoari buruz hitz egitean, garai modernoetatik kualitatiboki desberdintzen gaituen aro bat adierazteko erabiltzen du. Mendebaldeko munduan, XX. mendeko 50-60ko hamarkaden bitartean bizi izandako aldaketa sozioekonomikoen harira, postmodernitateari berezkoak zaizkion ezaugarriak azpimarratu dira: kapitalismo neoliberala eta post-fordismoa, globalizazioa, modernitatearen sortze-balioen mutazioa, gizarte postindustriala, masa-kontsumoaren gizartea, etab. (Jameson, 2000a: 2). Eta bada postmodernitatea kronologia huts bat adierazten duen noziotzat jotzen duenik, modernitatearen ostean datorren garaia kronologikoki kokatzeko berba huts modura hartu duenik, alegia.

Edozelan ere, gero eta onartuagoa da teorialarien artean postmodernitatea kategoria erabilgarria izan dela modernitatea kritikoki berrikusteko, aldi historiko konkretu gisa, baita kategoria analitiko gisa ere (Wagner, 2001: 5). Batzuentzat, «modernizazioa» eta «modernitatea» kategorien erabilerak arrisku bat dakar: gizarteak eta aldaketa historikoak aurrerapenaren mitoaren menpeko analisi historikoen arriskua ez ezik, ustezko modernizazio-prozesuaren ezaugarriak bete ez dituzten kolektibitateak eta herriak historiaren bazterretan uzteko arriskua ere dakar (Chakrabarty, 2011). Beste batzuek, aldiz, jarrera postmodernoetatik historiagintzara egindako hurbilpenek erlatibismoetan erortzeko arriskua dakartela diote, datu historiko eta objektiboa baztertuz eta fikzioaren alorrean eroriz (Norris, 1997: 95). Edonola, modernitate *versus* postmodernitate eztabaidak ikerketa historikoari aberastasun teoriko eta analitiko handia eskaini dio, hausnarketa kritikoa egiteko aukera eman diolako urteetan zehar historiagintzari berezkoak izan zaizkion analisi-ereduei buruz.

Gure diziplina aberastea eta iraultzea eragin dutenen artean, modernitatearen eta postmodernitatearen arteko eztabaida garrantzitsuena Jürgen Habermas eta Lyotarden artean sortu zen, bigarrenak *La condition postmoderne* (1979) saioan argudiatu zuenaren inguruan. Eztabaida Max Weber teorialariak modernitateari eskaini zion definizioaren gaineko hausnarketa kritikoak zentratu zuen. Weberrek modernitatea kristautasunak eskaintzen zuen munduaren ulermen bateratuarekiko apurketa bezala ulertu zuen. Aditu alemaniarraren ikuspuntutik, apurketa hori lehenik protestantismoak bideratutako Erreformaren eskutik eta geroago Ilustrazioak aldarrikatutako arrazionalismo filosofikoaren bidez etorri zen. Weberren ustez, ezagutza eremu autonomotan banatzea izan zen modernitatearen printzipioa: zientzia,

moralitatea eta artea (Gunn, 2011: 134). Ezagutzaren banaketa horrek garapenerako, emantzipaziorako eta egiaren lorpenerako zeukan potentziala Ilustrazioaren eta modernitatearen lehen motorra izan zen. Hala ere, lehen formulazioetan modernitatea norbanakoaren askatasuna, duintasuna eta progresoa lortzeko bidea izateko jaio bazen ere, bere baitan balio horien gainbeherarako hazia ere bazeukan. Arriskua hau zen: arrazoiak emantzipaziorako eta askatasunerako zeukan gaitasuna alde batera uztea eta gizarte kapitalistetan arrazionaltasun burokratiko eta administratibo hutsa bilakatzea. Hau da, arrazoia Estatuek jendartearen bizitzaren arrazionalizaziorako bide soil gisa erabiltzea. Horrela, gizarte modernoa askatasunean eta justizian oinarritutako proiektu bat izatetik arrazionaltasun huts eta eraginkor baten peko kaiola bilakatzeko arriskua zuen (Gunn, 2011:134).

Jürgen Habermas teorialari sozialak, Max Weberren definizioari jarraituz, baina argi positiboago baten pean interpretatuz, modernitatea amaitu gabeko proiektua dela ulertu eta haren alderdi positiboak azpimarratu zituen, hau da, Ilustrazioaren potentzial emantzipatzailea azpimarratu zuen (Habermas, 1997). Teorialari alemaniarrak azaldu zuenez, Ilustrazioaren arrazoimen kritikoak norbanakoaren autokontzientzia eta autodeterminaziorako bidea ekartzearekin batera, aldaketa sozialerako gaitasuna ekarri zuen. Ilustrazioaren filosofoek irudikatutako modernitatearen proiektuak, zeina XIX. eta XX. mendeetan zehar garaikidetasunaren garapen politikoaren, sozialaren eta ekonomikoaren ustezko itsasargi ideologikoa izan den, zientzia objektiboa, moralitate eta legedi unibertsala eta arte autonomoa sortzeko asmoa zeukan. Pentsalari horien asmoa ezagutzaren eremu hauek antzinateko ereduen esoterismotik askatzea izan zen gizartearen antolamendu arrazional eta aurrerapenaren bidean aurrera egiteko. Horrek ez zuen bakarrik gizakia naturaren indarrak kontrolatzeko bidean jarriko, baizik eta bere etorkizuna zentzu hobean garatzen lagunduko zion (Habermas, 1997: 45). Giza arrazoimenak eta garapen zientifikoak eta industrialak ekar zezaketen suntsipena (kapitalismo basatia, inperialismoa, kolonialismoa, gerrak…) ikusita, Hebermasek galdutzat jo zuen garai batean gailendu zen aurrerapenarekiko eta etorkizun hobearekiko itxaropena. Arrazionalismoak aldarrikatu zuen giza garapena arrazoimen instrumental teknifikatu hutsean bilakatu zen (Horkheimer, 1973: 7-13). Baina hala ere, Habermasek modernitatearen potentzialitate kritikoa gaatzen jarraitzeko espazioa defendatu du, elkarbizitza elkarrizketa demokratiko eta arrazoimen komunikatiboan oinarritu eta postmodernitatea kontserbadurismo intelektual eta politikorako instrumentu bezala kontsideratu du (Habermas, 1997: 54).

Lyotardek ere modernitatea definitzeko orduan Ilustrazioa eta arrazionalismoa hartu zituen giltza-elementutzat. Haren kasuan, alta, modernitatea gidatu zuena ez zen ezagutza-eremuen banaketa eta garapen autonomoa izan, baizik eta modernitatea eta arrazionalismoa legitimatuko zituzten metakontaketen sorkuntza: Ilustrazioaren eta liberalismoaren, espirituaren dialektikaren, marxismoaren edo zientziaren narrazio handien sorkuntza, alegia. Baina pentsalari frantsesaren arabera, modernitatearen narrazio horiek XX. mendearen lehen erdialdean gertatu ziren gerrek eta sarraski handiek deslegitimatu zituzten. Horren ondorioz, kontaketa horienganako sinesgaiz-

tasuna sortu zen, eta fedegabetasun hori da, hain zuzen ere, izaera edo kondizio postmodernotzat jo izan dena. Lyotardek ez zuen ondorio halabeharrez negatibotzat hartu adierazitako fede-galtze hori. Alderantziz, modernitatearen eta arrazionalismo orohartzailearen eta totalizantearen alderdi negatiboak ekiditeko aukera berria sortu zuen baldintza lagungarri gisa ikusten zuen.

Pixkanaka, eta batez ere 70eko hamarkadatik aurrera, Habermas bezalako autoreek modernitatean ezarritako fedea eta modernitate edo modernizazio nozioak gidatutako ikerketek gero eta mesfidantza handiagoa sortu dute. Izan ere, 90eko hamarkadatik hona lan anitz kaleratu dira modernitate eta modernizazio kontzeptuek ikerketa historikora dakartzaten arrisku analitiko eta politikoei buruz. Hausnarketa-obra horien artean, analisi-kategoria legez izan dezakeen balioa bera ere zalantzan jarri duenik ere badago (Díaz Freire, 2016: 18). Fidagaiztasun hori, batez ere, baina ez soilik horregatik, denboraren kontzeptu modernoari dagokion arazo batekin lotuta dago: eurozentrismoan oinarritzen den periodizazio historikoarekin, hain zuzen ere (Chakrabarty, 2011: 663). Modernitate eta modernizazio nozioek dakartzaten arriskuak ulertzeko beharrezkoa da kategoria horiek denboraren ulermenarekin daukaten harremanari buruz hausnartzea. Alegia, historiagintzan iraganaren, orainaren eta etorkizunaren instantzien arteko harremana zelan ulertzen den eta ikerketa historikoan haren eragina zein den aztertzea.

Modernitateak berebiziko garrantzia izan du denbora historikoa ulertzeko eta antolatzeko orduan. XVIII. mendeko bigarren erdialdeko historialariek —Voltairek, Charles-Louis de Secondantek (Montesquieu), Adam Fergusonek, John Millarrek edo Jacques Turgotek— gizakiaren eta zibilizazioen historia aldi edo estadioen arteko garapentzat jo zuten. Historiografiaren garapen horrek bi aspektu garrantzitsu mahaigaineratu zituen: alde batetik, historia zentzu unibertsalean ulertu zela, eta, bestetik, historia linealki garatzen ziren eta hoberantz zihoazen aldaketez osatzen zela. Historiaren kontzepzio horrek inplikazio sakonago bat zekarren: gizarte batzuk historiaren garapenaren momentu gorenean kokatzera iritsi ziren bitartean —batez ere Europako nazioen artean Britainia Handia eta Frantzia—, beste batzuk oraindik ere historiaren atzealdean kokatzen ziren, barbarismoaren garaian (Hunt, 2008: 63). Lynn Huntek ikertu duen moduan 1789ko Frantziako Iraultza izan zen iraganaren eta orainaldiaren arteko apurketa erradikalena ekarri zuena. Iraultzak iraganeko ereduen erreprodukzioarekin apurtu behar zuen, guztiz berria zen beste gizarte-eredu bati hasiera emateko. Feudalismoarekin apurtu zuen gizarte guztiz berri baten jaiotzarekin batera, Frantziako Iraultzak denborarekiko harreman berri baten sorkuntza ere ekarri zuen (Hunt, 2008: 68). Mendeetan zehar iraganeko ereduen imitazioa giza ekintzen autoritatearen eta legitimazioaren gordailua izan bazen ere, pentsamendu ilustratuaren eta haren ideien adierazpen praktiko erradikalenak, Frantziako Iraultzak, gizakiak etorkizunera begira jarri zituen. Moderno edo modernitate hitzak haien lengoaian errotu gabe bazeuden ere, momentu historiko guztiz berri batean kokatzen zirelako kontzientzia zeukaten. Iraultzaileek beren ekintzen bidez etorkizuna hoberantz moldatzeko zeukaten gaitasunean sinistu zuten eta beren akzioen bidez denboraren

azelerazioa eragiten ari zirela sentitu zuten (Hunt, 2008: 70). Lehenengo atalean ikusi dugun bezala, marxismoak ideia hori partekatu zuen beranduago.

Goian adierazitakoa momentu historiko konkretu baten suertatu zen fenomeno singulartzat hartuko bagenu, ez litzaiguke problematikoa iruditu beharko. Baina arazoa sortzen da historiagintzak modernitatea, XVIII. mendearen amaieran iraganarekiko apurketa ekarri zuen zentzuan, fundatze-momentutzat hartu izan duen momentutik. Are gehiago, arazoa agertuko da baldin XIX. eta XX. mendeetako historia modernitatearen balioen garapenaren historia gisa —edo Habermasen ustetan garapen amaitu gabearen eta amaitu beharrekoaren historia gisa— ulertzen badugu. Alegia, akatsa egiten dugu aurrerapenaren mitoan oinarritzen den historiagintza egiten dugun momentutik. Iragana ikuspuntu horretatik ikertzean arriskua daukagu historia modernitatearen garapenarekin identifikatzeko, modernitatea Mendebaldeko munduarekin identifikatuz eta fenomeno historikoak ardatz bakar eta koherente horren garapenean kokatuz. Azken finean, historia modernitatearen balioen eta ezaugarrien arabera azaldu eta interpretatu baino ez dugu egiten. José Javier Díaz Freirek adierazi duen moduan, modernitateak denboraren joana aurrerantz abiatzen den ardatz zuzena balitz bezala irudikatzen du, zeinean munduko gertakari historiko bakoitzak posizio bakar bat hartzen duen. Modernitateak denboraren ardatz horretan kokatzen ditu gertakari edo subjektu historikoak. Toki-egokitze hori aurrerapen edo atzerapenaren kontzepzio modernoaren arabera egiten da, posizio horiei balio jakin bat esleituz (Díaz Freire, 2016: 18). Aldaketa historikoa modernitate eta modernizazio nozioen itzalaren pean ikertzean fenomeno historikoen historizazioaren beharra ahazteko arriskua ere badaukagu. Fenomeno eta subjektu historikoek beren testuinguru jakinaren argira eta garaian izan zuten esanahi historikoki espezifikoari so egin beharrean, ustezko modernizazio-prozesuaren ezaugarriak bete ote zituzten edo prozesu horren parte izan ote ziren azterketan gera gaitezke. Era horretara jardunez gero, ikerketen helburua ez da jada gizarteetan, prozesu edo subjektu historikoetan egin diren aldaketen esanahien interpretazioa egitea, baizik eta egiaztatzea modernizazio-prozesurik izan zen edo ez. Horrela, gizarteei eta pertsonei modernizazioaren historiaren ardatz handi horretan kokapen kronologiko eta espazial jakin bat ematen zaie aldagai jakin batzuen bidezko neurketa eginez: landa-eremuetatik hiritartze-prozesurik gertatu zen edo ez; sistema ekonomiko kapitalistan haien garapena edo azpigarapena gertatu ote den; sekularizazio-prozesuaren arrakasta edo porrota gertatu den; erlijioak indibidualki zein kolektiboki zeukan eraginaren galera edo areagotzea gertatu den; eredu liberalen garapena egin zen edo ez neurtzeko parte-hartze politikoaren neurketa egitea, etab. Baina gure ustea, Lynn Huntek berak adierazi duenez, hau da: «Munduaren historia ez litzateke ulertu behar modernizazio- edo globalizazio-prozesu homogeneizatzaile baten bitartez saihetsezina den modernitaterantz abiatzen den ibilbide legez » (2014: 116).

«Modernitatea» eta «modernizazioa» kategorien karga normatiboa ekiditeko, alegia, aldaketa historikoa garapen-eredu konkretu batzuen arabera eboluzionatu zuelako ideiari eta hori akritikoki onartzen duen ikerketa-joerari erresistentzia

egiteko, denbora historikoaren kontzepzio berriak hartu behar ditugu kontuan. Lineala ez den denboraren kontzeptu berri baten arabera egin behar dugu iraganaren azterketa. Horrekin lotuta, progreso historikoaren ideia baztertu beharko litzateke, beharrezkotasunaren eta kausalitate hertsiaren ideiak problematizatuz eta aldaketa historikoaren konplexutasuna kontuan hartuko duten hurbilpenak erabiliz. Ikertzea komeni da zentzu horretan egin diren ahalegin postmodernoak (Díaz Freire, 2016).

Modernitatearen esanahia eta erabileraren ondorioak definitzea zaila baldin bada ere, are zailagoa gertatzen da postmodernitate eta postmoderno hitzekin. Termino horiei edozein definizio oso edo koherente emateko saiakerak beti izango du hainbat kontraesanetan erortzeko arriskua. Zalantzarik ez dago postmodernitate hitzak modernitatearekin zerikusia daukala, izan modernitatea bera arbuiatzera datorren jarrera intelektuala, edo izan modernitatetik abiatuta beste garai bat definitzeko berba. Mundu akademikoan ohikoagoa da postmodernitatea edo postmodernismoa literatur kritikaren, teoria kulturalaren, artearen edota arkitekturaren alorrean irakurtzea. Baina historiografian ere, batez ere Hayden Whitek 70eko hamarkadatik aurrera ikerketa historikoari kritika literariotik eratorritako nozioak eta ikuspegiak gehitu zizkionean, gero eta eragin nabarmenagoa ari da izaten.

Keith Jenkinsek azaldu duen moduan, ikuspuntu postmodernoak historiaren ikerketan daukan eraginari buruz iritzi asko daude. Teorialari batzuentzat ikuspegi horrek eragin erabakigarria izan du historia tradizionalak berezkotzat jo dituen fundamentuak (neutralitatea, objektibitatea edota zientifikotasuna) desmitifikatzeko balio izan duelako eta ikertzaileak iragana aurkitu eta bere horretan azaldu beharrean haren izaera eraikia aldarrikatzera eraman dituelako. Beste batzuek, alor teorikotik metakontaketetan eta fundamentazioetan oinarritutako historiari egindako kritika postmodernoa positibotzat hartzen duten arren, erlatibismoan erortzeko arriskuak eta erlatibismo horrek dakarren kontserbadurismoaren arriskua salatu dituzte. Batez ere jatorri ideologiko ezkertiar marxistatik datorren ikuspuntu horren arabera, egia edo justizia bezalako nozioak erlatiboak direla onartuko bagenu, ez legoke aukerarik, esaterako, kapitalismoaren eta neoliberalismoaren gehiegikeriei aurre egiteko. Eta, azkenik, badago historialari tradizionalen talde bat, zeinak postmodernitatea ezker intelektualaren mugimendu edo jarreratzat jotzen baitu eta historia bera, diziplina gisa, desagertzeko arriskuan legokeela salatzen baitu (Jenkins, 1998: 22-24). Edozelan ere, postmodernitate nozioak definizio bat baino gehiago jaso ditu eta ikuspuntu edo dimentsio askotatik ikertua izan da. Alde batetik, Mendebaldeko modernitatearen eta logozentrismoaren kritika egiteko planteamendu kritiko bat eskaini du, eta, bestetik, fenomeno historiko gisa ere, garai edo izaera postmodernoaren ezaugarriak gizartean zein pertsonengan izan duen eragina ikertzeko gai bilakatu da.

Fredric Jamesonek adierazi duen moduan, postmodernismoa ez da bakarrik estilo artistiko edo arkitektoniko konkretu bat izendatzeko nozioa, baizik eta denbora jakin bat adierazteko kontzeptua. Maila kulturalean sortu diren ezaugarri formal berriak harremanean jarri ditu Jamesonek (2000: 3) eredu sozial eta ordena ekonomiko

berriaren —modernizazioaren, kontsumo-gizartearen edo gizarte postindustrialaren, *mass media* eta espektakuluaren gizartearen edo multinazionalen kapitalismoaren— agerpenarekin. Teorialari estatubatuarraren aburuz, postmodernitatearen sorkuntzak harreman estua dauka kontsumo-kapitalismo berantiarraren sorrerarekin. Baina Jamesonek kondizio postmodernoari berezkoa zaion beste ezaugarri bati buruz hausnartzen du, historiagileari are interesgarriagoa suerta dakiokeen nolakotasun bati buruz: denboraren esperientzia berriaz ari gara. Denbora modernoari zegokion ezaugarririk adierazgarriena zen berritasunean oinarritzen zela, alegia, gizadia iragan batetik bereizten zuen etorkizunari begiratzen zion estadio berri batean kokatzea, goian ikusi dugun moduan. Etengabe aldatu eta «garatzen» den gizarte teknologizatu eta kontsumitzaile batean bizi gara, zeinean aldaketak bere esanahi apurtzailea galdu duen. Alegia, teknologizazio-garaian modernitateari berezkoak zitzaizkion ezaugarrien azelerazioa gertatu da, berria eta berriarekiko miresgarritasuna, baina berrikuntzaren balio iraultzailea ere, guztiz galdu direlarik. 2007an lehen *iPhone*a agertu zenetik 10 urte baino denbora-tarte txikiagoan *iPhon*aren zazpi bertsio «berri» egin dira eta horietako garapen bakarrak ere ez du izan historiako lehen telefonoek izan zuten eraginaren erdia ere, ez gizartean, ezta pertsonen bizitzan eta harreman sozialetan ere. Eta hala ere, *iPhone* berria eskuratu behar dugulako sentsazioa hedatu da egun gure gizartean. Gure bizitzetako beste esparru batera begiratuz gero ere, artera esaterako, esan genezake artean ere antzeko zerbait antzeman daitekeela. Esparru artistikoan, orobat, aldaketak bere zentzu original «iraultzailea» galdu du. XX. mendearen hasierako abanguardia modernoek beren aurrekariekin apurketa sortu nahi zuten, ez bakarrik alor estetikoan baizik eta baita alor soziokulturalean ere. Errealitatearen errepresentazio-tekniketan egindako apurketa, eta errealitatearen beraren ulermenean gertatutako haustura, estilo berrien (espresionismoaren, kubismoaren, futurismoaren…) ezaugarri bereizgarriena zen. Baina, 50eko hamarkadatik aurrera, garai postmodernoetako artea errepresentazio-bide abstraktuetan eta kontzeptualetan oinarriturik etengabeko orainaldian murgildurik dago, errepresentazioaren mailan berrikuntzak sortzeko gaitasuna galdurik.

Beraz, postmodernitatea, kapitalismo berantiarraren garai gisa, hurrengo paradoxa edo antinomian kokatzen da: garapenaren eta berrikuntzaren aldarrikapena egiten du, baina aldaketa esanguratsu gehiago ematea ezinezkoa izanik (Jameson, 2000b). Berrikuntza eta dibertsitatearen aldarrikapena egiten du, baina egungo gizarteak inoiz baino jarrera eta harreman sozial homogeneizatuagoak ditu. Garai postmodernoak aldaketa teknologikoa edo artistikoa, baina garrantzitsuagoa, baita aldaketa soziala ere, ezinezkotzat aurkezten digu. Gure garai postmodernoak modernitatearen balioen eta helburuen azelerazio-prozesu legez uler daitezkeen arren (parlamentarismoaren hedapena, eskubide indibidualen diskurtsoaren onarpen unibertsala, segurtasun publikoaren eta pribatuaren babesa, garapen ekonomikoaren garaia, konfortean oinarritutako bizitza-estiloa…), modernitatea oinarritu zuten balioak desagertu dira. Modernitatearen azelerazioak modernitatearen oinarriekin amaitu du. Ez dago aldaketarako aukerarik, historiaren amaiera antzeko egoeran

geundeke, presentismo absolutu batean, alegia. Hala ere, Jamesonek ez du analisi horretatik ondorio kontserbadorerik ateratzen eta ez du konformismo edo erlatibismo absoluturik proposatzen. Alderantziz, eredu berriagoak eta zorrotzagoak proposatzen ditu kapitalismo basatiaren logikan sortzen diren botere-harremanak, prozesu sozialak eta kulturalak zein haien guztien kontrako erresistentziak aztertzeko.

Badaude, esan dugunez, postmodernitatea ulertzeko era diferenteak, zeinek, aurrekoarekin kontraesanean sartu ez arren, iraganari botatzen diogun begiradari ere beste aspektu batzuk gehitzen baitizkiote. Zentzu horretan goian aipatu dugun Keith Jenkins teorialari britainiarra ekarri behar dugu gogora. Egile horren arabera, postmodenitatearen adierazpen eta kritika teorikoak berezkoak zaizkio gizarte eta proiektu modernoa porrot bat izan delako usteari (Jenkins, 1998: 4). Zein izan da porrota? Europan XVIII. mendetik arrazoiaren, zientziaren eta teknologiaren bidez maila sozialean eta politikoan ongizate-maila altuak lortzeak hiritarrentzat eta subjektuentzat gero eta askeagoak izateko aukera emateko asmoa zuen. Baina, Jenkinsen aburuz, proiektu moderno unibertsalaren (nahiz eta errotik eurozentrikoa izan) bertsio liberal burgesak zein bertsio marxista proletarioak izandako garapenek modernitatearen beraren onarpena zalantzan jartzera behartu gaituzte. Eta hau da, hain zuzen ere, postmodernitateak hartzen duen definizio garrantzitsuetako bat: Mendebaldeko arrazionalismoan oinarritu diren eta haren arabera gidatu diren formazio sozialen eta politikoen fundamentuak zalantzan jartzen duen fenomeno teorikoa dela, onartuz prozesu historikoetan (aldaketa politikoak eta soziokulturalak; iraultzak; formakuntza nazionalak; identitate/subjektibitateen sorkuntzak eta garapenak, etab.) ez duela inolako beharrezkotasunak agintzen. Horrekin batera postmodernitateak adierazi du ez dagoela giza jarduera sozialak eta politikoak azaltzeko edo interpretatzeko orduan inolako oinarriri, fundamenturi edo esentziari apelatzeko lekurik.

Modernitatearen kritika postmoderno horrek erakusten du historiagileak erabiltzen dituen ikerketa-kategoriak historizatu egin behar lituzkeela. Ikuspuntu horren arabera, urteetan zehar sortu diren kontaketa uniboko eta absolutuen deseraikutza-lanak izan beharko luke historiagilearen eginkizunik garrantzitsuena iraganaren azalpen alternatiboak sortzeko. Generoaren historiari dagokionez, Joan Scottek ederki adierazi zuen moduan, ez da nahikoa urteetan zehar emakumeak patriarkatuaren pean zanpatuak izan direla adieraztearekin. Aldiz, desberdinkerien eta botere-harremanen forma historiko konkretuak eta haien kausak identifikatzeko, testuinguru historiko desberdinetan gertatu diren emakumeenganako erasoak eta menpekotasun-egoerak motibatu dituzten baldintza ideologikoak, diskurtsiboak, sozialak eta ekonomikoak aztertu behar ditugu. Ez dira berdinak, esaterako, Olympe de Gougesek 1789. urteko *Déclaration des droits de l'homme et du citoyen* (*Gizonaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpena*) delakoari aurre egiteko 1791n idatzi zuen Déclaration des droits de la femme et de la citoyenne (*Emakumearen eta Emakumezko Herritarraren Eskubideen Adierazpena*); XX. mendearen hasieran *suffragette*-ek botoa emateko eskubidearen alde egin zuten borroka edota 70eko

hamarkadatik Angela Davisek emakume beltzek esklabotza-garaitik jasan zuten bazterketa egoeraz aurkeztu dituen ikerketa eta salaketak (Davis, 1983). Guztiak izan dira emakumeen zapalkuntzaren aurkako adierazpenak, baina testuinguru bakoitzean emakumeen esperientziak diferenteak ziren, emakumetasunaren kategorizazioak eta esanahiak ere desberdinak zirelako. Bakoitzak testuinguru jakin bateko botere-harremanen logikari, sinesmen sozialei eta marko diskurtsibo zein emozional konkretuei erantzuten zien.

Batzuen aburuz, aukeratzen edo baztertzen den jarreratzat definitzea okerra den arren, historialariaren begirada eta sentsibilitate postmodernoak, gure garaiari berezkoak zaizkion ezaugarriak identifikatzeko ahalmena eskaintzeaz gainera, gure iragan urruna eta hurbila ulertzeko eredu edo nozio hertsien argi pean ikertzera baino gehiago zorroztasun analitikotik historizatzera behartzen gaitu.

1.2. IDENTITATEAK/SUBJEKTIBITATEAK

Gutako bakoitzari nor garen, zer garen edo nolakoak garen galdetuko baligukete, erantzun diferenteak emango genituzke, baina seguraski antzeko aldagaiak erabiliko genituzke: izenaz gainera, nazionalitatea edo herrialdea, gure lanbidea, aukeraketa politikoa edota zaletasunak adieraziko genituzke. Baten batek bere futbol-taldea ere aipatuko luke agian. Haatik, Indiako norbaiti galdetuko bagenio, segur aski bere kastaren berri emango liguke lehenik eta behin. Eta duela 300 edo 400 urteko norbaiti nor zen galdetuz gero, erantzuna zeharo diferentea izango zitekeen: leinuaren edo familiaren izena aipatuko zukeen eta ziur asko erlijioak ere garrantzi handia zukeen norbanakoek beren burua munduan eta gizartean kokatzeko eta gainerakoek ere koka zitzaten. Horrekin zera adierazi nahi da: identitate izendatu dugun hori ez dela pertsonengan «dagoen» «zeozer», beti berdin irauten duena, alegia. Ez da genetika hutsa. Aldiz, atal honetan ikusiko dugun eran, ikerketa historikoek argitzen dute identitatea eta subjektibitatea esperientziekin, prozesu diskurtsiboen, emozionalen eta soziopolitikoen bidez eta gainerako pertsonekin harremanean sortzen diren gizakion dimentsio aldakor indibidualak eta kolektiboak direla.

Historiagintzaren alorrean identitateak eta subjektibitateak kategoria analitiko gisa 80ko hamarkadatik izan duten gorakada nabarmena izan da. Identitateen ikerketaren kasuan, hazkunde hori alor edo ikasketa-eremu ezberdinetan gertatu da: bai identitate nazional edo etnikoen alorrean, bai generoaren historiografian baita ikerketa postkolonialen alorrean ere. Analisi historikoan kontzeptu arrakastatsua izan bada ere, eztabaida teoriko askoren erdigunea izan da. Rogers Brubakerrek eta Frederick Cooperek *Beyond Identity* (*Idenitateaz haraindian*) (2000) lanean adierazi zuten moduan, «identitatea» kategoria erabiltzean hainbat arazo sor daitezke. Alde batetik, identitate nozioa zentzu hertsian erabiliz gero, subjektu edo izate finko bati erreferentzia egiten diolako; eta, bestetik, zentzu ahulean ulertuz gero, alegia, eraikuntza diskurtsibo eta sozial legez ulertuz gero, identitateak eta identifikazio-

prozesuek izan dezaketen pisua gutxiesten delako (Brubaker eta Cooper, 2000: 1). Anbiguotasun horrek kategoria hauei berezkoa zaien izaera konplexua mahaigaineratzen du: alde batetik, identitateak egozte- edo atribuzio-prozesuak direla (kanpotik ezarritako etiketak, klasifikazioak, instituzioek eta aginpideek gure izana definitzeko daukaten botere sinbolikoa barne), eta, bestetik, prozesu intimo eta pertsonalak balira bezala, beren singularitate osoan, bizi eta gorpuzten direlako (Bolufer eta Morant, 2012: 318). Horrekin batera, ikerketa askok indibidualki eta kolektiboki funtzionatzen duten identifikazio-prozesuei buruz hitz egiten dute. Sarritan prozesu horien arteko harremana problematikoa da, barne-kanpo edo nia-bestea logiken bidezko eraikuntzen bitartez gertatzen direlako. Alegia, bakoitzak bere buruari buruz zer uste duen gainerakoek norbanakoari buruz uste dutenarekin kontrajarri edota nahasten da. Eta horrekin batera, bakoitzaren iritzi edota sinesmenen eta taldeak (politikoak, nazionalak, familiarrak, «tribu urbanoak») gugandik espero duenaren arteko talkak edota hartu-emanak suertatzen dira identifikazio-esperientzia konplexuak sortuz.

Zentzu horretan, kontuan hartu beharrekoa da identitatearekin harreman estua daukaten niaren eta subjektuaren nozioak garai historiko eta marko teoriko konkretu batean sortu zirela, XVII. mendetik XVIII. mendera doan denbora-tartean. Beraz, identitateen formulazioak ulertu nahi izatekotan, Mendebaldeko mundu modernoak nitasuna eta subjektua bera zein baldintza teoriko eta ideologikori jarraituz eraiki zituen kontuan hartu behar da. Alegia, modernitateak indarrean jarri zuen niaren eta kontzientziaren nozioaren izaera historikoa kontuan hartu behar dugula. Subjektu modernoaren lehen formulazio garatuena, ondare platonikotik eta kristautik jasotakoa birformulatu zuena, XVII. mendeko *cogito cartesiarra* izan zen. René Descartesen formulazioak mundu materiala gaitzetsi zuen eta subjektua kontzientzia hutsera murriztu. Pentsalari frantsesak niaren benetako existentzia pentsamenduaren eragiketara mugatu zuen, «cogito, ergo sum» famatua. Baina bere formulazioaren bertsiorik modernoena eta Mendebaldeko pentsamenduan errotuen dagoena Ilustrazioaren garaiko Kanten subjektu traszendentala izan zen. Pentsalari prusiarrak subjektuak mundua zein errealitate natural eta morala ezagutzeko zeukan autonomia eta gaitasuna aldarrikatu zuen. Formulazio kantiarrak gizaki arrazionala munduaren ezagutzaren jatorritzat eta fundamentutzat ezarri zuen. Alegia, subjektu autonomoak arrazoimenaren *a priorizko* kategorien bidez gaitasuna zeukan errealitatetik jasotako pertzepzio materialak klasifikatzeko eta ordenatzeko, hau da, ezagutzeko. Eta horrekin batera, Ilustrazioaren subjektu arrazional moderno horrek, arbasoen kateetatik askatuz, gaizki eta ongi moralaren artean bereizteko eta aukeratzeko gaitasun etikoa zeukan.

Historizismo klasikoak problematizatu gabe erabili izan du entitate bateratu, autonomo eta arrazional bezala ulertua den subjektuaren nozio moderno hori. Korronte historiografiko horrek subjektuak entitate arrazional, natural eta unitario/bateratu legez ulertu izan ditu, aldaketa sozialaren eta prozesu historikoen motor ziren agente kontziente gisa. Bere aldetik, marxismoaren eragin nabarmena

zeukan historia sozialak honela ulertzen zituen subjektuak eta haien identitateak: indibiduoen harreman sozialen eta materialen arabera zeukaten kokapenaren ondorio gisa. Alegia, beren baldintza sozialen adierazpen edo epifenomeno hutsak baino ez ziren, beren burua interpretatzeko eta ulertzeko baldintza material horiek eskainitako informazioa baino ez zutelarik (Cabrera, 2001: 111-112). Geroago, historiaren ikuspegi postestrukturalistek, batez ere historiagintzaren alorrean Michel Foucaulten eragina jaso zutenek, subjektu arrazionalaren kritika eskaini zuten. Ikuspuntu horien arabera, subjektua ez zen jada gizakioi berezkoa zitzaigun egitura unibertsaltzat, oinarrizkotzat edo esentzialtzat ulertzen. Haatik, subjektua testuinguru historiko eta espazial bakoitzari zegozkion diskurtso eta praktika sozial eta kulturalen bidez historikoki eraikitako entitatetzat jotzen hasi zen (Vázquez, 1995: 37). Hori erakutsi zigun Foucaultek bere ikerketa historikoetan subjektu eta subjektibitate modernoaren ereduaren sorrera ahalbidetu zuten praktika historikoak eta sozialak aztertu zituenean. Identitate sexualaren sorkuntzari eta klasifikazioari zegokienez, diziplina erlijioso eta medikoak aztertu zituen; «zoro»aren kategoriaren finkapena aztertzeko diziplina psikiatrikoak ikertu zituen eta «gaizkile»aren kategoriaren sorkuntza ikertzeko praktika penitentziarioei buruzko hausnarketa sakona eskaini zuen.

Foucaulten eta gainerako egile postestrukturalisten eraginez, egungo historiografiaren planteamendu berriek proposatzen dutenez, errealitate soziala hizkuntzak eta diskurtsoek mediatzen dute eta horrek identitatea bezalako kategorien berrikuntza ekarri du (Cabrera, 2001: 101). Berrikuntza horiekin batera etorri da subjektu nozioaren birplanteamendua. Subjektuaren ulermen moderno arrazionalista zein historia sozialaren ulermen materialista alde batera utzi dira, eta horren ordez subjektua etengabeko eraldakuntza-prozesuan dagoen entitate aniztun eta ez-jarraitu gisa ulertzera igaro gara. Proposamen horiek guztiak diskurtsoen historiaren parte dira. Joera historiografiko horren abiapuntuan zera daukagu: subjektuak eta subjektuek gizartean jokatzen duten papera ulertzeko moduak naturalak izan beharrean historikoki espezifikoak izatea. Joan W. Scottek adierazi zuen moduan, gure gorputzetan (generoa edota arraza) eta gure herentzia kulturalean (etnia eta erlijioa) errotuta egongo balira bezala ulertzen ditugun identitate-kategoriak ez dira naturalki erro horietatik eratortzen, alegia, identitateak ez dira sorkuntza-prozesu kreatibo baten aurretikoak (Scott, 2006: 113). Identitatea ez da esentzia natural bat, ezta baldintza sozialek determinatutako posizio huts bat ere. Gizabanakoak ez gara gure ustezko «benetako niaz» deskubritzen dugun hori. Eta teoria sozial marxista klasikoenek uste zutenaren kontra, gizabanakook ez dugu gizartean betetzen dugun funtzio edo posizioaren bat-bateko kontzientzia hartzen.

Miguel Ángel Cabrerak argudiatzen duen moduan, subjektuek beren burua eta errealitatea eraiki eta esanahia ematen diote aurretikoak zaizkien kontzeptuen eta kategorien «sare» diskurtsiboen bidez (2001: 115). Alegia, subjektu eta aldaketa historikoen esanahiak bilatzeko orduan baldintza materialetan soilik fijatu beharrean, ikertu beharko genuke nola erabiltzen duten subjektuek momentu historiko konkretuetako iruditeria soziala beren burua eta ekintzak interpretatzeko (Cabrera,

2001: 115). Tresna kontzeptual edo kategoria horiek identitatea eta identifikazioa bera baino aurretikoagoak dira eta testuinguru historiko bakoitzeko iruditeria da, hain zuzen ere, subjektuen eta identifikazio-formen baldintza diskurtsiboak ezartzen dituena. Aipatu beharrekoa da, halaber, identitatearen sorkuntzan parte hartzen duten kategoriak ez direla naturalak, baizik eta testuinguruaren araberako garapena daukatela eta askotariko pisu eta esanahiak har ditzaketela identitateak eta subjektibitateak sortzeko orduan. Hala ere, denboraren poderioz eta errepikapen-dinamiken ondorioz identitateek kristalizazio-prozesuak jasaten dituzte eta egonkortasun- eta naturaltasun-itxura har dezakete. Judith Butlerrek *Bodies that Matter On the Discursive Limits of «sex»* (*Inporta duten gorputzak. Sexuaren muga diskurtsiboen inguruan*) lanean sexuaren kasurako emandako azalpenak aukera ematen digu beste identitate-kategorien materializazio- eta esentzializazio-prozesuak ulertzeko. Aditu iparramerikarraren arabera, «sexua» kategoriak ideal erregulatzaile baten moduan funtzionatzen du eta, zentzu horretan, ez da bakarrik kategoria normatibo bat, baizik eta produktiboa ere bada: erregulatutako praktika sozial diskurtsiboen bidez, ikonografia jakinez bidez ideal horren araberako gorputzak eta subjektibitateak sortzen ditu (Butler, 1993: 1). Sexuaren materializazioa denboran zehar gertatzen den erregulazio eta praktika horien errepikapenarekin sortzen da. Denboraren poderioz pertsonok praktika erregulatzaile horiek performatu egiten ditugu gorputzei naturalki femeninoak eta maskulinoak diruditen ezaugarriak (ibilkera, ahots-doinua, mugimenduak, etab.) emanez. Beste identitate-kategoriekin ere (klasearekin, nazionalitatearekin, etniarekin…) azaldutakoaren antzeko, baina ez identiko, prozesu performatiboak gertatzen dira. Hau da, errepikatutako praktika sozialak gure izaeraren alderdi naturalak izango bailiran gorpuzteko joera daukagu. Butlerren performatibitatearen teoriaren alderdirik erakargarriena da, haatik, norma erregulatzaile horiek ez direla inoiz guztiz materializatzen. Hau da, horien performancea ez dela inoiz perfektua edo osoa, eta sortzen diren gune ezegonkor horiek normaren beraren eraldaketarako edo subertsiorako aukera eskaintzen dutela (Butler, 1993: 2). Hurrengo ataletan gai honetan sakontzeko aukera izango dugu.

Identitate-kategoriak eraikiak eta historikoki kontingenteak direla onarturik, historiagintzan itzal handia izan duen ikuspuntua identitate-kategorien arteko elkarguneen, elkarrekintzen eta transbertsalitatearen azterketan zentratzen dena da (Yuval-Davis, 2007: 3-4). Identitate-kategoria bakoitzak pisu eta bilakaera diferentea izan dezake testuinguru sozialaren arabera. Eta horrekin batera, identitate indibidual zein kolektiboak aurrean aipatu ditugun identitate-kategorien arteko konexio eta elkarrekintza konplexuen ondorio dira. Horrela, genero-identitateak aztertzean esaterako, feminitate- eta maskulinitate-idealen eraikuntzan klaseak, nazioak edota identitate erlijiosoak daukaten eragina aztertzeak berebiziko garrantzia dauka. Era berean, nazio-identitate kolektiboak zein indibidualak eraikitzean kontuan hartu behar da nolakoa den identitate horren generizazio-prozesua, alegia, sortzen den nazioaren ideian eta nazionalizazio-prozesuan feminitateak eta maskulinitateak zer esanahi hartzen dituzten, emakumeak eta gizonak zer rol jokatzen duten eta nola eragiten

dioten nazio-eraikuntzari (Amurrio, 2006). Kategoria horiek gizabanakoen posizio sozialen eraikuntza-prozesuetan transbertsalak dira eta elkarrekintza horretan batak bestea eraikitzen du. Hainbat prozesu historikotan, generoak eraikuntza nazionala, Mila Amurriok (2006) edota Nerea Arestik (2014) erakutsi duten moduan, edota klase-identitatearen eraikuntza egituratu du. Eta era berean, lanari, klaseari edota hierarkia sozialari buruzko ideiek eta arauek feminitatearen esanahia eta emakumeen egoera soziala egituratu eta baldintzatu dute (Arbaiza, 2002). Baina testuinguru diskurtsiboen eta sozialaren arabera pisu desberdina izan dute kategoriok. Horrek erakusten du identitate-kategoriek eduki unibertsalik ez dutela.

Sarri askotan identitate eta subjektibitate nozioak era trukagarrian erabili dira, esanahi berbera izango balute bezala. Beste batzuetan, subjektibitatea niaren edo norbanakoaren esperientzia subjektiboei buruz hitz egiteko erabiltzen den bitartean, identitatea norbanakoak indibiduo gisa gizartean daukan existentzia edo posizioa adierazteko erabiltzen da. Psikoanalisiaren ikuspegitik, Felix Guattarik eta Suely Rolnikek diotenez, gizarte postmoderno neokapitalistaren markoan, subjektibitatea edo «subjektibazioaren agentziamenduak» dimentsio sozialak sortu eta moldatu ditu (Guattari eta Rolnik, 2006: 46). Beste era batera adierazita, subjektibitateak (amarena, semearena, eroslearena, ikaslearena, langilearena…) gizarte kapitalista industrialak bere mekanismoen bidez (komunikabideak, eskola, ospitaleak, lantegiak…) sortutako produktuak dira, indibiduoen bizitza jaiotzetik moldatzen duten produktuak alegia. Pertsonek gorpuzten eta kontsumitzen dituzten subjektibitate-eredu horiek jokatzeko, sentitzeko, hautemateko, gogoratzeko edota sexu-harremanak izateko moduak sortzen dituzte (Guattari eta Rolnik, 2006: 42). Alegia, ikuspuntu horren arabera, subjektu izatea eskuragarri ditugun subjektibitateen kontsumitzailea izatea litzateke. Horrekin batera, ikerketa feministaren alorretik ekarpen berritzaileak, apurtzaileak eta erabat aberasgarriak egin dira. Zentzu horretan Rosi Braidottik ikerketa feministaren alorretik proposatu duen subjektibitate *nomada*ren nozioa azpimarratzekoa da. Kontzeptuak berak adierazten duenez, Braidottiren subjektu postmodernoa estabilitatearen eta finkotasunaren parametroetatik askatzen da. Era horretara, subjektibitatea etengabeko bilakaera bat dela, etengabeko aldaketa-prozesuan dagoen elementua dela, aldarrikatu du. Era argian adierazten duenez: «Egiazki, garai guztietan erabilgarria den identitate bat (sexuala, nazionala, soziala), baina ez identitate finko bat, behar dugu. Ainguratze-gune partzialak behar ditugu […] erreferentzia sinboliko gisa funtziona dezaten […] guk geuk geure burua birrasmatu dezagun» (Braidotti, 2004: 66).

Atal honetan identitateen eta subjektibitateen izaera eraiki eta diskurtsiboa azpimarratu dugu. Hala ere, lehenengo atalean ikusi dugunez, gizakiak errealitatea eraikitzeko, esanahiz betetzeko eta ulertzeko daukan paper zentrala zalantzan jarri dute zenbait adituk azken urteotan (Díaz Freire, 2007). Hurrengo ataletan sakonago ikusiko dugunez, gizakia hizkuntzaren eta diskurtsoen menpe geratzen den agentziarik gabeko entitate legez irudikatzearen arriskuaren aurrean, zenbait adituk identitateen eta subjektibitateen formakuntza-prozesuetan emozioek jokatzen duten papera

azpimarratu dute. Ildo horri jarraituz, gizakiaren emozioak ezinbesteko kanalak lirateke errealitateari esanahia emateko, mundua ulertzeko, bere burua ezagutzeko eta gizarte-egituretan kokatzeko. Zentzu horretan, garrantzi handia dauka eraikuntza identitario eta subjektiboen ikerketa egitean historian zehar prozesu emozionalek izan duten eragina aztertzeak, prozesu eta transformazio sozial garrantzitsuenetan dimentsio emozionalak berebiziko garrantzia daukalako (Reddy, 2000, 2001). Noski, identitate-kategoriekin adierazi dugun bezala, kontuan izan behar da ezen emozioak ere erradikalki historikoak diren prozesuak direla eta, beraz, emozioen esperientziak eta esanahiak, gure hiztegian adierazpen berbera mantentzen badute ere, aldatu egiten direla. Historiagileen lana da, beraz, eraldaketa emozional subjektiboen dimentsio historikoa eta horiek errealitate soziala sortzeko, transformatzeko eta eragiteko izan duten gaitasuna aztertzea. Yuval-Davisekin jarraituz, ulertu beharreko aspektua da pertenentzia-eraikuntzak ez direla narrazio kognitibo hutsak, baizik eta karga emozional garrantzitsua daukatela (Yuval-Davies, 2007: 7).

Ahozko historiagintzaren alorrean, goian aipatu diren subjektuaren deszentralizaziorako hainbat elementu hartuta, subjektibitatea eta subjektuaren agentzia, (hau da, gizakiak gizarteak ezartzen dituen parametroetan murgilduta ekintzak egiteko daukan gaitasuna) memoriarekin erlazionatzen dira eta forma narratiboak hartzen dituztela adierazten da. Luisa Passeriniren aburuz, memoria, narrazioen bidez sortzen den norbanakoari eta inguruari buruzko istorioak, subjektibitateak hartzen duen forma printzipalena da eta historiak prozesu historikoen protagonista diren subjektuen eta pertsonen esperientziak ulertu nahi baldin baditu, memoriak eskaintzen duen informazioa hartu behar du gidatzat (Passerini, 2010: 117). Antzeko zentzuan, Miren Llonak ere memoria eta narrazioak subjektibitatearen sorkuntzan daukaten izaera fundamentala azpimarratu du. Memoria eta narrazio pertsonal/subjektiboen inguruan arituko gara, ikusiko denez, lan honen hirugarren atalean. Zentzu horretan, historiaren ikerketa-objektua narrazio subjektiboak behar du izan, emozioen karga daukana, subjektuaren transformazio subjektiboen berri ematen duena (Llona, 2010: 154). Eta antzeko zentzuan Yuval-Davisek dioskunez: «Identitateak, baieztatzen dut, narrazioak dira, pertsonek beren buruei eta gainerakoei kontatzen dizkieten istorioak berak direnari —eta ez direnari— buruzkoak» (Yuval-Davis, 2007: 6).

1.3. ESPERIENTZIA

XX. mendeko 60eko hamarkadan zehar historiografia marxistaren barruan eztabaida sakonak egon ziren esperientziaren kontzeptuaren inguruan. Era batean edo bestean, esperientziaren inguruan zihardute aditu guztiek ikuspuntu politiko bera partekatzen zuten, zeinaren arabera, gizarteari azalpen materialista bat eman behar baitzitzaion, eta askapen-proiektuaren barnean langile-klaseak funtsezko papera beteko baitzuen. Europako testuinguru politiko eta intelektualean aspalditik gertatzen ari ziren aldaketen sakontzeak edo azeleratzeak, ordea, eragin zuzena izan zuen gutxieneko

adostasun horren haustura gerta zedin eta galderez —berriez— jositako garai berri bat gailendu zedin (Eley, 2008). Lehenago aipaturiko esperientzia kontzeptuaren inguruko eztabaidak mantendu egin ziren 70eko hamarkadan zehar, eta ordura arte pentsalarien artean sortu zen nolabaiteko batasuna higatuz joan zen. Orduan joan ziren nagusitzen lengoaiari protagonismoa eman zioten ikuspuntu berriak, ahaztu gabe historia egiteko aurreko joerak mantendu egin zirela eta beren garapen propioa bizi izan zutela.

Jarraian ibilbide orokor horretako ekarpenik garrantzitsuenak eta adierazgarrienak azalduko ditugu. Alde batetik, 60ko hamarkada horretako esperientziaren inguruko ekarpen garrantzitsuena egin zuen Edward P. Thompsoni buruz; eta beste alde batetik, galdera berriez jositako garai berri batean, proposamen berriekin etorri ziren aditu esanguratsuenetarikoak izan ziren Gareth Stedman Jonesi eta Joan W. Scotti buruz.

Beste atal batean azaldu dugun bezala, E. P. Thompson izan zen, historiagintzaren barruan, esperientziaren kontzeptuari klase-kontzientziaren sorrera azaltzeko paper esplikatibo protagonista eman zion lehena. Historialari ingelesaren formulazioak marxismoaren oinarrizko araua zalantzan jarri zuen, norberaren bizi-baldintzek subjektua, haren identitatea eta kontzientzia baldintzatzen zutela baieztatzen zuen printzipioa, alegia. Hori izan zen britainiarraren *The Making of the English Working Class* (1963) lan iraultzailearen ekarpen garrantzitsuenetariko bat. Liburu horren hitzaurrean adierazi zuen esperientzia giza izatearen eta kontzientziaren arteko bitartekaria dela. Era horretara, historiagile ingelesa, ordura arte mekanikoki erabilia izan zen azalpen ekonomiko deterministatik aldendu zen. Marxismoaren materialismo historikoaren tradiziotik zetorren azalpen-eredu klasiko horren arabera, Industria Iraultzak ekarri zituen baldintza ekonomikoen ondorio zuzena izan zen langile-klasearen agerpena. Thompsonen ustetan, ordea, klasea ezin zitekeen ulertu bakarrik norbanakoak ekoizpen-sisteman betetzen zuen tokia kontuan hartuta. Klasea eta klase-kontzientzia, hor dagoen berezko zerbait baino gehiago, norbanakoaren esperientzien artikulazio kultural baten ondorioz historikoki eratu egiten direla proposatu zuen (Thompson, 1989: xv). Historialari britainiarraren arabera, subjektu baten existentzia —langilegoa—, subjektibazio bat gertatuz gero baino ezin zitekeen ulertu. Bere esperientziak emango lioke subjektibazio hori —hau da, bere egoeraren berri—, eta, horrela, esperientzia klase-kontzientziaren euskarri bezala funtzionatuko lukeen komuntasunaren hornitzailea izango litzateke. Proposamen horrek egoera objektiboaren eta klase-kontzientziaren arteko lotura zuzena eta automatikoa lausotzea eragin zuen, eta, nolabait, kontzientzia faltsuaren eta egiazkoaren inguruko ikusmoldeari edo printzipioari uko egitea ekarri zuen (Thompson, 1991: 27-32).

Azken finean, Thompsonek kontzientziaren kontzeptu klasikoari uko egin zion: haren ustez, langile-klasearen sorrera egituraren nahitaezko ondorio izanik, termino horren edukia aurre-ezarria agertzen zelako. Hala ere, historialari britainiarraren esperientzia kontzeptuak ere aurretik finkatutako ezaugarriak zituen; oraindik ere,

marxismoaren eraikinaren metafora zurrunarekin zerbait zuen komunean: azken finean, esperientzia produkzio-harremanek baldintzatuta legoke eta, beraz, gizonen eta emakumeen erabaki eta jarrera politikoak egitura materialaren eta sozialaren isla lirateke. Horrelakorik gerta ez dadin, aurre-ezarritako premisetatik edo berezkotzat hartutako kategorietatik askatzeko, marxismo klasikotik zetozen bi instantzien —azpiegitura eta gainegitura— arteko bereizketa hautsi beharra aldarrikatu zuten Gareth Stedman Jonesek eta Joan W. Scottek. Horren harira dialogatu zuten Thompsonekin, eta historiagintzaren esparruan egin zituzten ekarpenek eta proposamenek berebiziko garrantzia izan dute.

Thompsonen esperientziaren kontzeptuari aurre eginez, Stedman Jonesek errealitatearen eraikuntzan lengoaiak daukan paper protagonista aldarrikatu zuen. Aditu britainiarra, semiotikatik hartutako *egituraketa* edo *antolaketa linguistikoa* kontzeptuez baliatu zen lengoaiari errealitatearen eraikitze-prozesuan nolabaiteko papera onartuz eta mugimendu politikoen nozioaren inguruko planteamendu berri bat eginez. Berrikuntza teoriko horren arabera, gizarte-erakundeak ez lirateke errealitateari ematen zaion erantzun bat izango, baizik eta lengoaia politiko jakin eta bateratu batean mintzatzen den errealitatearen irakurketa eta uste edo konbikzio komun baten adierazpena (Stedman Jones, 1989: 21 eta 92). Joan W. Scott historialariaren lanak komuneko puntuak zituen Stedman Jonesen proposamenekin. Ezberdintasunei begiratuz gero, ordea, Scotten ustez Stedmanek arreta handiagoa jartzen zuen jendeak erabiltzen zituen hitzetan, hitzen esanahi-eraketan baino (Scott, 1989: 87). Horregatik Stedmanen lana bukatu gabe legoke, lengoaia ideiak komunikatzeko bidetzat hartzen duelako eta ez esanguren sistema eraikitzailetzat. Izan ere, Scotten ustez, lengoaia sistema konplexu bat bezala ulertu behar dugu, inguruan dugun mundu soziala eta naturala bere osotasunean ulertzeko bide ematen digun sistema konplexua bezala. Gainera, kontuan izan behar da sinbolo jakin baten esangura sortua edo gertatzen den testuinguruak baldintzatuta dagoela. Biraketa linguistikoaren proposamenen ildo beretik, historialari estatubatuarraren arabera, gizakiek ez dute, inoiz ez, zuzeneko kontakturik beren bizi- edo existentzia-baldintzekin. Kontaktu hori bitartekaritza linguistiko baten bidez egiten da, munduaren egituraketa linguistikoa gauzatzen duen lengoaia baten bitartez, alegia.

Joan W. Scotten lana, eta bereziki esperientziaren kontzeptuaren inguruan egindako berrikuspen funtsezkoa, erabakigarria izan zen historia sozialak biraketa linguistikorantz egindako bidean. Zentzu horretan, gainera, 70eko eta 80ko hamarkaden artean historia sozialaren hegemoniarekin hautsi zuten aldaketen ordezkari garrantzitsuenen eta eraginkorrenen artean dago Scott. Historialari sozialen arteko ordezkari bikainenetako bat izan zen Joan W. Scott postestrukturalismoan oinarritzen zen proposamen berri bat egiten hasi zen. Haren hasierako lanek, zeinek XIX. mendeko lehen erdialdeko Frantziako emakume langileak protagonista zituzten, «historia behetik» eta aldarrikapen feministak uztartu zituzten. Beranduago, berak sortzen lagundu zuen proposamen berritik, bere aurreneko lan horiei kritika zorrotza egin zien: «historia behetik» ikuspuntutik egindako lanek menpeko egoeretan

zeuden subjektuei historia tradizionalak ukatutako tokia ematea ahalbidetu bazuten ere, menpeko subjektu horiei kategoriak era automatiko batean eta zalantza gabe egozten zizkieten. Era horretara, subjektu horien identitateak entitate finkotzat jotzen zituzten, haien identitateak ziurtzat joz —eta nolabait hierarkiak erreproduzituz— (Scott, 1996: 59-88).

Denise Rileyren, Jacques Derridaren eta Michel Foucaulten obren hausnarketa eta lanketa eginez, Joan W. Scottek proposatu zuen (Scott, 2000) munduaren irudikapenak —autopertzepzioa eta lotura intersubjektiboak barne— eta praktikak signifikazio-sistemen bidez —diskurtsoaren bidez— antolatzen direla. Era horretara, identitateak entitate finkoak bainoago diskurtsoek eratutako formakuntza ezegonkorrak eta aldakorrak lirateke eta, beraz, historizatu eta erlatibizatu beharrekoak. Miguel Angel Cabrerak azaltzen duen bezala, Scottek egiten duen diskurtsoaren erabilerak haren izaera eraikitzailea azpimarratzen du (2001: 56-57). Proposamen hauetatik abiatuta, Scotten ustez ezin da esperientzia ulertu berau artikulatzen duten diskurtsoetatik kanpo, «esangurarik gabe ez baitago esperientziarik» (Scott, 1990: 38). Azken finean, Scottek planteatu zuen esperientziaren berrikuspen kritikoak identitate-kategoria beraren problematizazioan izan zuen bere erdigunea. Subjektua eta hark errealitatearekin duen harremana problematizatu egin zituen, lehenengoa entitate egonkorra eta finkoa izan beharrean, aldakorra dela mahaigaineratu zuelarik.

Historiografian sekulako eragina izan duen 1991. urteko «The Evidence of Experience» («Esperientziaren Ebidentzia») testuan heldu zien Scottek xehetasunez esperientziaren inguruko arazoei. Bertan, menpekotasun-egoeretan zeuden kolektiboei edo identitateei protagonismoa emateko borondateak gidaturik bazen ere, azalpena behar duten gizarte-kategoriak naturaltzat hartzen zituzten lanak kritikatu zituen beste behin. Scotten ustez, lan horiek subjektuen esperientzia erabiltzen zuten beren azalpenen froga edo ebidentzia bezala. Historialari iparramerikarrak kritikatu zituen ikerketak subjektua —langile, homosexual, emakume, gizon— eta haren sortze-prozesua berezkotzat ari ziren hartzen. Era horretara, zalantzan jarri ordez, subjektu eta identitate-eraikitzaile diren sistema ideologikoak errepikatu, legitimatu eta sendotu egiten zituzten (Scott, 1991: 776). Esperientzia ezagutza-iturri eta azalpenen oinarri gardentzat hartuz, esperientzia horri dagokion eraikuntza oro alboratu egiten dela ohartarazi zigun Scottek. Analisi-eredu horri aurre eginez, adituaren planteamenduen arabera, norbanakoak munduaz daukan esperientzia, norbanakoak errealitatearekin daukan kontaktua bezala, ez da gardena ez zuzena, baizik eta diskurtsoaren bitartekaritzaren bidezkoa. Beraz, esperientzia ere diskurtsiboki eraikia da, eta horrekin lotuta sortuko dira, hortaz, subjektuak. Noski, bere jarrera postestrukturalista kontuan hartuta, analisi hori ezin zitekeen subjektu eratu edo bukatu, finko eta pitzadurarik gabeko batetik abiatu. Alderantziz, subjektibitatea bera diskurtso horren bidez eraikiko litzateke eta, beraz, Scotten arabera ez dira gizabanakoak esperientzia dutenak, baizik eta subjektuak eurak dira esperientziaren bidez eraikitzen direnak. Eta, adierazi dugunez, esperientzia bera gertakari linguistiko bat izanik —ez da eskuragarri dauden esanguretatik at gertatzen

den zerbait—, gure azalpenen froga baino gehiago, *azaldu behar dugun* horixe bera da: esperientziak, gure azalpenaren iturria barik, azaltzen dugun hori izan behar du (Scott, 1991: 793, 780 eta 797). Horretarako, diskurtsoen bidez subjektuak kokatu eta beren esperientziak produzitzen dituzten prozesu historikoetara zuzendu behar dugu begirada.

Laburbilduz, Thompsonen kontzeptutik aldenduz, zeinak gizarte-izate eta -kontzientziaren arteko bitarteko bezala ulertu baitzuen esperientzia, Scotten planteamenduan, esperientzia ez da errealitateak norbanakoaren subjektibitatean egiten duen talkaren ondorio. Horregatik esperientzia ezin daiteke izan kontzientziaren funts kausala, ezin da izan interesak, identitatea edo ekintza kontzienteak diktatu edo definitzen dituen elementua. Alderantziz, esperientzia errealitateaz dugun jabetze diskurtsiboa da, eta zentzu horretan, bizi-baldintzak esangura-patroi jakin baten arabera artikulatuak diren neurrian bakarrik eragingo dituzte ekintzak.

1.4. GORPUTZA

Ez da batere erraza gorputzaren inguruan egin diren ekarpenak sailkatzea eta laburbiltzea. Zentzu horretan, Caroline Bynum historialari mediebalista estatubatuarrarekin bat gatoz azpimarratu zuenean (Bynum, 1999: 242) zenbait lan angloamerikar berri aztertu ondoren kategoria honen erabilera nahaspilatsua eta kontraesankorra dela. Bestalde, gorputzaren inguruko ikerketa-lanen loraldian gaudela baiezta dezakegu, zeinetan diziplina ugarik bat egin duten. Baina, hala ere, ez dago adostasunik ikerketa-alor desberdinen artean «gorputza» kategoria definitzeko orduan. Are gehiago, badirudi gorputzaren inguruko eztabaidek ez dituztela batzuen eta besteen ekarpenak jasotzen, ezta elkarrekin dialogatzen ere. Historiari dagokionez ere, gorputza hainbat ikuspuntutatik jorratzen da. Hala, esan dezakegu gure diziplinan aspaldidanik hitz egin izan dela gorputzaren inguruan. Baina 80ko eta 90eko hamarkadetan gorputz-biraketa deitu izan zenaren eskutik bihurtu da ikerketa historikoaren objektu adierazgarri. Eta, azken urteetan, argitaratu diren lanen kopuruak kontuan izanda, historiagintzan ere, gorputzaren inguruko ikerketa-lanen *boom*a gertatu dela esan dezakegu.

Historia tradizionalean eta, oro har, mendebaldarron pentsamenduan, gorputza naturaren eremuan kokatu izan da, hau da, gorputza ziurtzat jo zitekeen entitate biologiko bezala ulertu zen. Baina XX. mendean zehar gorputzaren inguruko planteamendu berriak garatu ziren teorialarien hausnarketen eskutik. Gogoeta horietatik ondorioztatu zen ezen gorputzak historia zuela eta, hala, ikerketa historikoaren baitan, azterketa merezi zuen objektua izatera pasatu zen. Hausnarketa horietan parte hartu zuten autoreen artean Norbert Elias (1939) antropologo eta soziologoa, Marcel Mauss (1934) soziologoa eta mentalitateen historiaren baitan Marc Bloch (1949) aipa ditzakegu. Frankfurteko Eskolaren barnean Max Horkheimer eta Theodor W. Adornok ere Mendebaldeko historian gorputzak izan duen garrantzia

azpimarratu zuten euren lanetan. Aipaturiko Eliasek, adibidez, gorputzen adierazpen-moduak, jarrerak, imintzioak eta jokabideak aztertu zituen, besteak beste. Are gehiago, Erdi Arotik estatu absolutisten eraketa bitartean gizarteak onartzen zituen eta onartzen ez zituen gorputz formak aztertu zituen. Hala, ordura arte ustez naturalak ziren funtzio korporal horiek historiaren eta soziologiaren objektu bilakatu ziren haren ikerketa-lanetan.

Humanitateetan eta gizarte-zientzietan izandako biraketa kulturalak eragin handia izan zuen gorputzaren historiaren arloan. Zentzu horretan, gorputzaren inguruko eztabaida medikuntzaren, generoaren eta sexualitatearen historiaren eskutik joan zen garatzen. Dena den, postestrukturalismoaren eskutik etorri da gorputzaren inguruan emandako berrikuntzarik esanguratsuena. Beste atal batean aipatu dugun bezala, eztabaida postestrukturalistek hankaz gora jarri zituzten Mendebaldean indarrean zeuden dikotomiak. Elkarren kontrajarriak ziren binarismo horien artean kokatzen dugu ere adimenari eta gorputzari dagokiena. Hala, postestrukturalismoak, adimenetik bereizitako gorputza —gorputza entitate biologikotzat ulertuta— modernitatean sortutako kategoria gisa ulertu zuen (Cooter, 2010: 394). Horren harira, hainbat autorek erakutsi dute gaur egungo gorputzen inguruko ikusmoldeak, hau da, egitura binario naturalak eta sexudunak direlako ideiak, modernitatean duela sorburua (Laqueur, 1994; Riley, 1988). Bestalde, feminismoak akademian izandako eraginak ere gorputza ikerketa historikoaren erdigunean kokatu zuen. Jakina denez, teoria feministak giza gorputzean materializatutako diferentzia sexualaren esanahi historikoen, sozialen eta politikoen inguruan hausnartu zuen. Hala, emakumeen menpekotasuna defendatzen zuten biologian oinarritutako diskurtsoak deslegitimatzeko ikerketa feministek beharrezkoa izan zuten «gorputza» kategoriaren berrirakurketa bat egitea. Izan ere, teoria feministak aurre egin zion ikuspuntu haren arabera, gorputz maskulinoaren eta femeninoaren arteko ustezko desberdintasun biologikoak genero-desberdintasuna legitimatzeko balio zuen. Baina teoria feministak egindako «gorputza» kategoriaren nolabaiteko desnaturalizazioa, hasiera batean behintzat, mugatua izan zen, zeren eta sexua naturari zegokion zerbait eta generoa kulturari zegokion eraikuntza bat bezala ulertu baitzituen. Hortaz, binarismo horretan oinarrituz, gorputza naturalki eta dimorfikoki desberdindutako elementua zela eta generoak naturala den gorputzari esanahi kulturalak ematen zizkiola ulertu zuten hausnarketa feministek.

Diogun bezala, postestrukturalismoaren proposamenek gorputza entitate historikotzat jo zuten, hau da, denboran zehar aldakorra eta kulturak, lengoaiak eta ideologiak moldatua zen zerbait bezala. Zentzu horretan, zalantzarik gabe Michel Foucault eta Judith Butler filosofoen lan teorikoak izan dira «gorputza» kategoriaren ikerketa historikoaren bultzada erabakigarriena eta eraginkorrena ahalbidetu dutenak. Autore horien aburuz, diskurtsoek ematen diete forma gorputzei. Jarraian autore bakoitzak «gorputza» kategoriaren inguruan garatutako ideiak laburbilduko ditugu.

Aipatu bezala, Michel Foucault filosofo frantziarraren gorputzaren inguruko ideiek eremu teoriko honen berrikuntzari bultzada handia eman zioten. Foucaultek gorputzaren ikuspuntu ez-biologikoa eta antiesenzialista aldarrikatu zuen: «gizakian, ez dago nahikoa finkoa den ezer —ezta bere gorputza ere—, gainerako gizakiak ulertu ahal izateko eta beste horiengan norberak bere burua ikusi ahal izateko» (Foucault, 1980: 19). Hala, historialariok, lehenago azaldu dugun Foucaulten analisi genealogiakoaren bidez, gorputza historiaz josia ikusiko dugu, eta historia gorputzaren suntsitzaile bezala (Foucault, 1980: 15). Zentzu horretan, gorputzak eta errepresentazio korporalak historiaren marken arrastoari jarraitzeko eremua izango dira, eta, aldi berean, gorputzaren izaera historikoak bere ustezko unitate atenporal eta biologikoaren izaera suntsituko luke. Horrela, autore frantsesak boterearen eta gorputzaren arteko harremana azpimarratu zuen, gorputza diskurtsoen botere produzitzailetik at ez dagoela aldarrikatzean. Haren ustez botereak gorputza modelatuko, sortuko luke eta, beraz, kontingentea izango litzateke eta botere-harremanek, hain zuzen ere, gorputza mugatu, markatu, hezi, azpiratu eta abar egingo lukete (Foucault, 2009: 32).

Aipatu dugun bezala, mendebaldar pentsamendu modernoan, tradizionalki, gorputza aldez aurretik emandako materia edo elementua kontsideratu izan da. Baina kartzelen eta kliniken sorreraren eta sexualitatearen historiaren inguruko ikerketetan Foucaultek proposatu zuen biologiaren eta medikuntzaren inguruko ezagutzek gorputz jakin batzuk sortzen dituztela. Izan ere, bere lanetan, zenbait boterek, medikuntzaren botere-ezagutza diskurtsoak adibidez, indibiduoaren gorputza arauez hornitzen dutela azaldu zuen. Zentzu horretan boterearen jarduna korporala, materiala, izango litzateke (Foucault, 1980: 105). Indibiduoari nola jokatu edo obeditu behar duen esaten dioten arau korporal horiek arrakastatsuak izatera iristen badira, botereak ordena sozialaren bermatzaileak izango diren gorputzak produzituko ditu. Horregatik, Foucaulten arabera, boterea *produzitzailea* da. Zentzu horretan, gorputzak kontrol eta arautze sozialerako oinarrizko gailuak izango lirateke. Bestalde, aditu frantsesak gorputzetan inkardinatutako botere-mekanismoak aztertu zituenean, zigor-gailu desberdinak ikertu zituen. 1975ean argitaratutako *Surveiller et Punir: Naissance de la prison* liburuan, kartzelaren sorrera politikoki otzanak eta ekonomikoki errentagarriak ziren gorputzak *produzitzeko* helburuarekin lotu zuen. Anatomia otzan horiek gorputzaren kontrol zurruna ahalbidetzen duten metodoen bidez sortuko lirateke, hots, diziplinaren bidez (Foucault, 2009).

Foucaulten proposamen iraultzaileak historialari eta filosofo feminista ugariren ikerketen abiapuntua izan dira. Filosofo frantsesaren planteamenduetatik abiatuta, autore anitz zalantzan jartzen hasi ziren *emakume* bezala kategorizatutako gorputzen ustezko materialitate biologiko esentzial komunaren ideia. Hau da, gorputzaren existentzia objektiboa, ezbaian jartzen hasi ziren. Genero-identitateen sorreran gorputzaren eraikuntzari eta gorpuztasunari garrantzia berezia eman dieten autoreen artean Denise Riley (1988), Donna Haraway (1991), Judith Butler (1993), Elizabeth Grosz (1994) eta Anne Fausto-Sterling (2000) azpimarra ditzakegu. Hala, autore

horiek «gorputz femenino»aren materialitatea, objektiboa eta begien bistako zerbait bezala interpretatzeko posibilitatea, zalantzan jarri dute. Gorputza, izan «femeninoa» edo «maskulinoa», ezin daiteke ulertu esanahi egonkorra edo finkoa duen entitate material bat bezala. Esanahi hori ezin daiteke ondorioztatu ustez begi-bistako izaera duten eta objektiboki interpretagarriak diren ezaugarri batzuetatik. Azken finean, ezin dugu gorputza ulertu kategoria adierabakar bat bezala. Horren aurrean, denboran zehar gorputz-idealak garai historiko eta testuinguru soziokultural desberdinetan nola eraiki izan diren aztertu behar dugu. Honako hausnarketa hauen inguruan jardun behar dugu gorputzen azteketa egiten gaudenean: zeintzuk dira bere egiten dituzten esanahiak? edota oinarri politiko, kultural, ekonomiko edota medikuntza jakin batzuek nola eraikitzen dituzte idealak eta gaitzesgarriak kontsideratuko ditugun gorputzak?

Aurrerago ikusiko dugun bezala, «sexua» kategoriak, kultura-eremuari erreferentzia egiten dion «generoa» kategoriari kontrajarriz, gizonen eta emakumeen gorputz finkoei, aldagaitzei eta naturalei egiten zien erreferentzia. Ikuspuntu horren arabera, gorputza biologikoki determinatutako elementu pasiboa, finkoa, eta aurrediskurtsiboa izango litzateke. Denboran berriagoa den *queer* teoriak «sexua» kategoria ere ezegonkortu du. Judith Butler filosofo estatubatuarra izan da aipaturiko teoriaren oinarriak ezarri dituena. Autoreak «sexua», «generoa» eta «natura» kategorien inguruan burutu zituen hausnarketek bete-betean izan zuten eragina gorputzaren kontzeptualizazioan. Gorputzaren materialtasunaren eta generoaren arteko harremanaren inguruko hausnarketetatik abiatuta, Butlerrek azpimarratu zuen gorputzen materialtasuna ez dela haien generizazioaren aurrekoa. Hau da, gorputz bat sexu femeninotzat edo maskulinotzat jotzea gorputz femeninoa edo gorputz maskulinoa zer den adierazten duen ikusmolde kulturalaren ondoren gertatuko litzateke. Zentzu horretan Butlerrek, Foucaulten ideietan oinarrituz, sexua kategoria «ideal erregulatzailea» dela proposatu eta materializazio-prozesu baten ondorioz sortzen dela argudiatu du (Butler, 2002). Zentzu horretan, eta aipatu bezala, gorputzaren materialtasuna (sexu biologikoa) ez bada genero-identitatearen edo diferentzia sexualaren inguruko egia objektiboaren elementu fundatzailea, nola azal daiteke gorputzak duen finkotasunaren edo egonkortasunaren edota feminitate eta maskulinitate naturalaren irudipena?

Sexua kategoria normatiboa izateaz gain, gobernatzen dituen gorputzak produzitzen dituen praktika arautzaile baten parte ere izango litzateke. Hau da, «sexua» kategoriaren izaera erregulatzaileak botere produktibo bezala funtzionatuko luke, kontrolatzen dituen gorputzak produzitzeko boterea baitu. Hala, guztiz erregulatutako eta naturalizatutako praktika jakin batzuen bitartez lortzen eta inposatzen da gorputzean sexuaren materializazioa. Beste modu batera esanda, sexua halabeharrez denboran zehar gertatzen den errepikapen egonkorraren bidez materializatzen den eraikuntza ideal bat izango litzateke eta ez elementu natural finko bat. Filosofo estatubatuarraren aburuz, sexuaren arau erregulatzaileek

performatiboki jarduten dute gorputzen materialitatea burutuz eta, zehazki, sexua gorputzean materializatuz (Butler, 2002: 18). Beraz, Butlerren aburuz, sexua ez da generoa oinarritzen deneko egitatea. Adituak sexua ere eraikuntza soziala dela argudiatzen du eta, hortaz, sexuaren eta generoaren arteko desberdintasuna egitea zentzugabea izango litzateke. Aitzitik, generoak diferentzia sexuala gertakari naturala delako ilusioa sortzen du.

Bestalde, autore estatubatuarraren aburuz, diferentzia sexualaren diskurtso heterosexistak eremu sozialean dauden gorputzak ulergarri —ez— egiteko irizpideak xedatuko lituzke. Botereak ikuspuntu heterosexual batetik egiten ditu ulergarriak gorputzak. Hau da, gorputz batek, bere sexuaren arabera genero bat edo beste izango du, eta izango da. Horrela, arau heterosexualaren baitan sexu-genero-desio-praktika sexual hurrenkerarekiko koherenteak diren gorputzak ulergarriak izango dira, eta gainontzeko gorputzak abjektu. Baina, jakina denez, gorputz guztiek ez dute eredu normalizatuen eskemekin bat egiten. Anatomia transexualek eta, batez ere, intersexualek diferentzia sexualaren eredu dimorfikoa zalantzan jartzen dute; izan ere, gizon/emakume dikotomiaren eskema hertsian kokatzea zaila egiten zaie gorputzoi. Intersexualitateak gizon/emakume errealitate binarioa eta ustez unibertsala salatzeko eta deseraikitzeko aurkera ematen digu (Fausto-Sterling, 2000).

1.5. BOTEREA

XX. mendeko 70eko hamarkadara arte teorialari marxistek eta psikoanalitikoek erabiltzen zuten botererearen kontzeptualizazioa izan zen nagusi. Kategoria horri ematen zitzaion esanahia errepresioaren teorian oinarritzen zen (Vázquez Garcia, 2012: 18-20). Ikuspuntu horren arabera, errepresioa edota boterea, kanpo-eragileren batek norbaitengan —edo talde batengan— eragindako ekintza litzateke. Boterea modu zuzen eta publiko batean lan egiten zuen ekintza bat bezala ulertzen zen. Bereziki, tradizio marxistari jarraituz, langileriaren egoera sozioekonomikoa bere horretan mantentzeko burgesiaren esku legokeen gaitasun bat bezala ulertu zen. Ikuspuntu horren arabera, boterea burgesiak edo klase menperatzaileek langileen —edo klase menperatuaren— gain egindako ekintza zen. Kontzepzio horrek dominaziorako eta ukaziorako bideak zeuzkan, eta transgresioa errepresioaren kontrako ekintza subertsibo kontzientea zen. Michel Foucaulten lanaren agerpena eta botererearen inguruan egin zituen hausnarketek eta planteamendu berriek gizarte-zientziak irauli zituzten.

Bere lan guztian proposatzen digun botererearen inguruko *mapa*ren irudia egin beharko bagenu, hiru lerro nagusi marraztu zituela esango genuke: botererearen izaera juridiko-errepresiboa —boterea ukazio bezala—, botererearen ezagutza-produzitzaile izaera —boterea produkzio bezala—, eta boterea, subjektu batean transformatu aldera, norbanakoak berarekiko duen harreman bat bezala —boterea subjektibazio-prozesu bezala—. Definizio horren garapena denboran zehar argitaratutako obretan

azaldu bazuen ere, aipatutako definizioak ez ditugu bata bestearen baztertzailetzat hartu behar. Boterearen dimentsio produktiboaren kontsiderazioak ez dio uko egiten bere izaera errepresiboari (Foucault, 1989: 19-20).

Beraz, botere foucaultianoa hiru dimentsiok osatzen dute: errepresioarenak, produkzioarenak eta indibiduoak berarekiko sortzen duen harreman formarenak. Lehenbiziko dimentsioaren inguruko hausnarketa bere hasierako lanetan jorratu zuen, 60ko hamarkadan. Hurrengo hamarkadan, hipotesi hori eskasa —ez gainditua— zela pentsatu, eta hipotesi errepresiboaren genealogia lantzeari ekin zion. Pixkanaka aurreko perspektibatik urrundu, eta horri berezkoa zaion Boterearen —letra larriz— eta *botere-harreman*en —biobotereari dagokiona— arteko bereizketa burutu zuen. Horrela joan zen gorpuzten boterearen definizio berritzailea: izaera immateriala eta nonahikoa duena, ukiezina eta ikusezina dena, zeharkatu ezin daitekeena eta pertsonifikatugaitza dena, «ez da toki zehatz eta subirano batetik abiatuta gauzatzen, behetik dator, gorputz sozialaren erraietatik dator, indar lokar, mugikor eta iragankorretatik dator» (Blanchot, 1988: 18). Aditu frantsesak era honetara adierazi zuen:

> Boterea ez da eskuratzen, kentzen eta partekatzen den zerbait, gorde egiten den edo ihes egiten duen zerbait; boterea gauzatu/jardun egiten den zerbait da, kontaezinak diren puntuen bidez eta bere harreman mugikor eta ez-berdintasunezkoen jolasen baitan (Foucault, 1989: 114).

Foucaultek *botere-harremanez* hitz egitera gonbidatu gintuen: «Gizartean ez da botere bat bakarrik existitzen, baizik eta anitz eta ugariak diren botere-harremanak, eremu desberdinetan, zeinetan harreman batzuk beste batzuetan oinarritzen diren edota elkarren aurka jarrita dauden» (Foucault, 1999: 277-278). Kontzeptualizazio horrek boterearen funtzionamenduari ere egiten dio erreferentzia: «Teknologia politikoak gorputz sozialaren bidez funtzionatzen duten modua da»; bai eta haren norabide anitzeko izaerari. Beraz, botereak gizartea zeharkatzen eta artikulatzen du, Botere metafisikoaren erabat ezberdina den *mikrobotere*aren bidez: lehenengoa ideien eremuari dagokio, abstraktua eta teorikoa da; bigarrena praktika bat da, zehatza eta estrategikoa.

Historiagintzarako oinarrizkoak izan diren bi obratan landu zuen aditu frantsesak boterearen beste dimentsio funtsezko bat: haren izaera produktiboa. Diogunez, ideia hori oso garrantzitsua izan zen 1975. urtean argitaratu zuen *Surveiller et Punir: Naissance de la prison* —zibilizazio modernoaren hasierarekin zigor-sistemaren barnean gertatutako aldaketen inguruko hausnarketa izan zen— eta 1976. urteko *Histoire de la sexualité, 1. La volonté de savoir* —zibilizazio modernoaren jaiotzarekin bioboterea edo gorputzen inguruko kontrolaren inguruan hausnartu zuen— obretan. Boterearen izaera produktibo hori azaltzeko orduan, boterea eta ezagutza elkarrekiko harremanean jarri zituen Foucaultek. Horrela, boterea historikoki determinaturiko ezagutza instituzionalizatuen sareak bezala definitu zuen. Ezagutza horien abidideak lirateke medikuntza, pedagogia edota

psikiatria. Horrela, boterea, errepresio-iturri ez ezik, egia-efektuak eta ezagutzak ere sortzen ditu. Horregatik, adituaren esanetan, boterea produkzio-iturri bat ere bada, «botereak ezagutza produzitzen du» (Foucault, 2009: 34). Beste era batera esanda, ezagutza-sistemek —aipaturiko medikuntzak, pedagogiak eta abarrek— *egia-erregimenak* sortzen dituzte, jarrera eta portaera zuzenak eta okerrak definitu eta era berean produzitzen dituzte: bizitza edo gorputz onartuak eta baztertuak definitzen eta modelatzen dituzte. Azken finean, adituaren kontzeptualizazio horrek hausnartzen laguntzen digu zer edo nor garen nola definitzen den, garen hori modelatzeko baldintza diskutsiboak nola ezartzen diren, eta patologikoa edo *anormala*, legala edo ilegala, zilegizkoa eta ez zilegizkoa nola definitzen den. Noski, *egia-erregimen* hauek eraginkorrak izango dira —boterea gauzatzeko ahalmena izango dute— zilegitasuna duen igorle bat daukaten neurrian. Puntu honek jakintzaren eremura garamatza beste behin: ezagutza konkretu batzuei onartu zaie, historian zehar, zilegitasun hori. Era horretara, adierazi dugun bezala, ezagutza-sistemek gizartean orokorki onartuak diren egiak sortzen dituzte, errealitatea bera definitzeko/sortzeko gai den *egia-erregimen*ak sortzen dituzte (Foucault, 2009: 34). Horrek zera esan nahi du: ezagutza-botere hori gai dela sinismen-sistema jakin bat sortzeko, zeinean ideia eta ekintza batzuk pentsaezinak bihurtu eta beste ideia batzuk ukatu ezinezko *egiak* bihurtzen baitira. Azken batean, egia-erregimenek mundua ikusteko moduak sortzen dituzte, eta *egia* horiei egokitutako bizitza moduak arrunt bihurtzen ditu.

Foucaultek botere-ezagutzaren funtzionamenduaren adibide gisa jartzen digu XIX. mendean zehar diskurtso medikoak desira sexualaren inguruan egin zuen taxonomizazioa. Tradizionalki, pertsona homosexualen ekintzak sodomia legez, perbertsio edo degenerazio bezala irudikatu ohi ziren, baina kontzeptu mediko jakin eta konkretu bat aplikatu gabe. XIX. mendearen amaiera arte itxaron behar dugu diskurtso psikiatrikoen, legalen edo higienisten eskutik *homosexuala* psikopatologia legez definitzeko. Orduan, homosexualitatearen kategoria eta tipologia horren eremuaren barruan definitu ziren pertsonen deskripzio anatomikoak, psikikoak eta sozialak agertu ziren (Vázquez García, 2001). Sexu bereko pertsonenganako desirak betidanik existitu badira ere, subjektibitate mota propio bezala egindako agerpena garaikidea da. Desira sexualaren *egia* deskubritzera zetorren hizkuntza autorizatu moduan sortu zen diskurtso mediko zientifikoa —beraz, ustez objektiboa— eta hark eduki zuen, edo hari aitortu zitzaion, subjektibitate motak sortzeko boterea. Momentu hartatik aurrera, sexu berekoenganako desira sexuala zeukaten pertsonak ezaugarri horren arabera definitzen eta identifikatzen hasi ziren. Horrela, desio sexuala, ordura arte izate soziala definitzeko unean ezaugarri askoren artean bat izatetik, indibiduoaren izatearen ezaugarri garrantzitsuena izatera igaro zen. Bide batez, orientazio sexualaren —eta orientazio patologikoaren— naturalizazio edo biologizazioa egin zen. Alegia, diskurtso psikiatrikoak, hizkuntza medikoaren bidez, indibiduoen desio sexualak gizakiaren ezaugarri naturalak izango balira bezala definitu zituen eta subjektuen identitateak definitzeko —homosexuala, heterosexuala, bixesuala— kategoriatzat hartu ziren.

Ikusten denez, aditu frantsesaren ikuspuntutik diskurtsoek pertsonen gorputzetan ondorio materialak dituzte. Edo beste era batera esanda, botereak gorputzetan efektu materialak ditu. Zentzu horretan, botere-ezagutza ideiarekin batera, biobotearen inguruan, eta haren bi ardatzen inguruan aritu zen Foucault. Gainera, boterearen dimentsio historikoa azpimarratu zuen. Adituaren arabera, XVII. eta XVIII. mendeetan zehar, Erdi Aroan existitzen ziren boterea administratzeko formak indarrik gabe edo operatiboak izateko ahalmenik gabe geratu ziren, eta kudeaketa forma berriak agertu ziren. Filosofo frantsesak era magistralean erakusten digu aldaketa horren funtsa *Surveiller et Punir* lanean: zigor forma kartzelarioen jatorriaren inguruko ikerketa izanik, botere- eta opresio-harremanen inguruko hausnarketa egin zuen. Bertan azaltzen digu kultura modernoaren jaiotza baino lehen gizarteek gaizkilea publikoki zigortu egiten zutela eta tortura, mina eta sufrimendua era publikoan eragitea, zigorraren parte zela. XVIII. mendean gertatu zen aldaketa eta botere modernoaren funtzionamendua ulertzeko, errepresioa eta ideologia terminoen ordez, *normalizatu* eta *diziplinatu* terminoak erabilgarriagoak direla adierazi zigun aditu frantsesak. Foucaulten arabera, botereak, bere forma modernoetan, legeetatik kanpo jarduten du. Proposamen horri jarraituz, indibiduoaren transformaziorako teknika edo ingenieritza berri bat jartzen da martxan: eskolak, ospitaleak, manikomioak, orfanatoak eta lantegiak dira transformazio-teknika berri horiek. Horietan gauzatzen da boterea edo diziplinaren teknika. Nolabait, eguneroko bizitzan gizabanakoak espazialki ordenatu egiten dira, ordutegien bidez beren ekintzak neurtu, kontrolatu egiten dira, ekintzen errepikapen konstantea ematen da —harik eta ekintzak edo erreakzioak automatiko bihurtzen diren arte—, jokabide onak eta txarrak ezberdintzen dira —onak sarituz— eta normalizatzen dira, eta abar. Zentzu horretan, espetxeak ez lirateke zigor hutsa betetzeko espazioak izango baizik eta, garrantzitsuagoa dena, diziplinaren bidez indibiduoa erreformatu eta gizarteratzeko teknika. Teknika eraginkorra eta arrakastatsua izan bada, norbanakoaren autorregulazioa edo otzantasuna lortuko du, gizaki otzan bat, eskatzen zaiona zalantzarik gabe egin egiten duena.

Oso era laburbilduan proposatu dugun sistema kartzelarioaren adibidean, bioboterearen bi ardatzak aurki ditzakegu: diziplina —indibiduoen gorputzen gobernua— eta biopolitika —populazioaren gobernua—. Aipaturiko lehenbiziko ardatz hori funtsezkoa da, hori da norbanakoaren autorregulaziorako teknologia moderno garrantzitsuena, eta botere foucaltianoaren beste gakoetako bat. Ideia horren inguruan, garrantzitsua da 1976. urtean kaleratu zen *Histoire de la sexualité. La volonté du savoir* liburua. Lan horretan sexualitatearen inguruan hausnartu zuen bioboterearen —gorputzen gaineko kontrola— funtzionamendua azalduz. Hori izango litzateke estatu modernoen boterea gauzatzeko era, zeinaren arabera gorputzen arauen barneratze bat egingo bailitzateke. Lehenago aipatu ditugun gure eguneroko bizitzan parte hartzen duten erakundeak —eskolak, lantegiak, ospitaleak…— norbanakoaren erregulaziorako gailu batzuk lirateke. Nolabait, bioboterea zentzu positibo batean gauzatzen da eta bi norabide desberdin eta osagarri hartzen ditu: alde batetik, «giza gorputzaren anatomopolitika», hau da indibiduoen gorputzen

normalizazioa produzitzen duen diziplina; eta bestalde, «populazioen biopolitika», haien bizitza biologikoaren normalizazioaren gauzapena. Diziplina anatomikoa eta indibidualizatzailea da —XII. mendetik joan zen garatzen—, eta bigarrena biologikoa eta espezieari zuzendua dago —XVIII. mende erdialdetik gauzatuz joan zena—. Ikuspuntu honetatik, gizarte moderno normalizatzailea bizitzan zentratua dagoen botere-teknologia baten ondorioa da. Azalpen edo proposamen horien barnean, sexualitatearen garrantzia zera da: diziplina eta biopolitikaren dimentsioen arteko gurutzamenduan kokaturik agertzen zaigula —eta beraz bioboterearen bi ardatzak artikulatzea/azaltzea ahalbidetzen du—. Esan genezake botere politikoaren gauzapenaren forma modernoa litzatekeela bioboterea, bere aplikazioa eta eragina bizitzaren eremu guztietara sartzen den era, populazio osoaren bizitza erregulatzen eta arautzen duen gobernu forma litzateke. Teknika diziplinario indibidualizatzailearen bidez, gizabanakoen jokabideak eta gorputzak arautuko lirateke gorputz otzanak eta zatikatuak sortuz. Horrela, gorputz sozialean atomoetara —norbanako bakoitzera— iritsiz osotasunaren gaineko kontrola egingo litzateke.

Azken finean, filosofo frantsesarentzat, boterea ezin dugu erakunde batekin identifikatu edo toki zehatz eta jakin batean kokatu. Boterea ez da norbanakoak subirano bati *ematen* edo *aitortzen* dion zerbait. Gainera, boterea ez da edukitzen den zerbait, baizik eta gauzatu egiten den ekintza bat. Boterea zehaztugabe dago, zatikaturik eta deslokalizaturik dago, nonnahi dago eta giza harreman guztiak blaitzen ditu. Boterea indar-harreman bat da —jakintzek inposatutako egia-erregimenek erregulatutako harremana— eta edonon dago. Subjektua botere-harremanek zeharkatzen dute, eta ezin dugu norbanakoa horietatik at ulertu. Boterea ezagutza instituzionalizatuen sareak lirateke, eta horiek historikoki era ezberdinetan funtzionatu izan dute. Bioboterea eta haren tekniken garapena benetako iraultza bat izan ziren gizakiaren historian. Izan ere, gorputzak arautzeko teknologien eta egia-erregimenen bidez, botereak erabat beregain hartu eta antolatu zituen bizitzak.

Foucaultek boterearen inguruan formulatutako proposamenak eragin zuzena izan du identitate eta subjektibitateen hausnarketetan. Haren lanen ondorioz, botere-harreman diferenteen eraginez —edo marko diskurtsibo jakinen bidez— sortutako baldintza edo posizio subjektiboei buruz hitz egitera pasatu gara. Izan ere, Foucaulten lanak zalantzan jarri zuen lehenago Ilustrazioak eta ondoren liberalismoak niaren izaerari eta sorkuntzari buruz sortutako kontaketa. Filosofo frantsesaren lanez geroztik, ez dago indibiduoa entitate itxi, kontziente eta autonomo bezala ulertzerik.

2. Korronteak

Azpiatal honetan, azken hamarkadetan historiagintzaren alorrera berrikuntza epistemologiko esanguratsua ekarri duten hainbat korronteren inguruan arituko gara. Zentzu horretan, ibilbidea egingo dugu emakumeen historia eta genero-historiaren azken ekarpenen, ikasketa kulturalen, teoria postkolonialaren eta emozioen historiaren inguruan. Gure xedea, hain zuzen ere, azpimarratzea da korronte edo joera horiek historiagintza tradizionalari eta mendebaldar historiaren kontaketari egindako desafioa. Aipatutako joera horiek aukera ematen digute subjektu berriak, haien diskurtsoak eta horiek munduarekin harremanetan jartzeko dituzten moduak hobeto ulertzeko.

2.1. EMAKUMEEN HISTORIATIK GENERO-HISTORIARA

«Emakume» kategoria tradizio teoriko desberdinetan txertatu da eta, ondorioz, haren historia ikuspuntu teoriko desberdinetatik landu eta haren inguruan gai anitz jorratu dira. Jarraian aniztasun horren inguruko zertzelada nagusiak emango ditugu.

Emakumeen historiaren sorrera historiografian gertatzen ari zen aldaketa zabalagoaren testuinguruan kokatu behar da. 60ko hamarkadaren testuinguruan hasitako berrikuntza historiografikoa iritsi aurretik, historiaren subjektua figura abstraktua zen eta izaera unibertsala zuen indibiduo maskulino eta zuri bezala errepresentatzen zen. Aurreko atalean aipatu dugun bezala, historia sozialak, *history from below* delako korronteak esaterako, subjektu historikoen demokratizazioa ekartzen lagundu zuen. Joera hark talde sozial desberdinen identitate kolektiboekiko zuen interesa zela-eta, baztertuta zeuden horietako zenbait kolektibo —nekazariak, langileak, esklaboak edota emakumeak— historiaren subjektu bilakatzeko bideak zabaldu zituen. Emakumea historia sozialaren baitan gai berri gisa agertzeak legitimitatea eman zion emakumeen historiari (Scott, 1996: 76). Bestalde, emakumeen historiaren sorrera mugimendu feministaren bigarren olatuaren eraginarekin ere lotu behar dugu. Zenbait historialari aipatutako hamarkadan indarra hartzen ari zen mugimendu feministak inspiratuta, emakumeen inguruko informazioa biltzen eta haien inguruan ikertzen hasi ziren.

Hasiera batean emakumeen historia egin zutenen borondate nagusia emakumeen presentzia *berreskuratzea* izan zen. Hain zuzen ere, korronte horrekin bat egin zuten lehen ikertzaileek emakumeak historia tradizionaletik at edota ezkutuan zeudela

salatu zuten eta *ikusiezina* zen hori ikusgai egiteko beharra aldarrikatu zuten. Isabel Morantek dioen bezala, emakumeak historia-liburuetatik baztertuak izan ziren eta ez zegoen ezta bazterketa horren inguruko hausnarketarik ere (1995: 32). Aditu horien ustez, emakumeak iraganeko kontaeretatik at egoteak ez zuen, soilik, historiografia osatugabe zegoela adierazten, baizik eta iraganarekiko ikuspuntua alderdikoia zela ere adierazten zuen. Azken planteamendu horren harira, aldarrikapen feministek eragin nabarmena izan zuten diziplinaren beraren barnean: ezagutza historikoa androzentrikoa zela salatu eta akademiaren izaera aldatu beharra aldarrikatu zuten. Zentzu horretan, emakumeen historia egitea ekintza politikoa zen. Izan ere, historiagintza modu horri bide emateko, ezagutza sortzen duten botere-harremanen birnegoziazio bat egin beharra egon zen, instituzioaren —unibertsitateetan— eta diziplinaren barruan besteak beste (Scott, 1996). Hala, emakumeen historiak historiografia tradizionalari erronka jo zion; izan ere, aurrerantzean emakumeak ezin ziren historian txertatu historia tradizionalaren oinarriak —objektibotasuna, neutraltasuna eta unibertsaltasuna— birpentsatu gabe (Scott, 1996: 83). Historialari tradizionalen aurkakotasuna izan bazuen ere, azken finean, emakumeen historiaren korronteak, historia sozialaren eskutik, historiagintzan aurretik existitzen ez zen protagonista berri bat gehitzeaz gain, historiaren beraren aldaketa ere eragin zuen (Scott, 1996). Hau da, historiaren objektibotasuna zalantzan jarri zuen, baita premisa epistemologiko eta oinarrizko kontzeptuen berrazterketaren beharra azpimarratu ere. Beraz, korronte analitiko berri horrek, diziplinaren mugak zabaldu eta historiagintza tradizionalaren premisak eta irizpideak zalantzan jarri zituen.

Aipatu bezala, emakumeen historia ikuspuntu desberdinetatik jorratu da. Mundu anglosaxoian emakumeak subjektu historiko bilakatzeko egindako lehen saiakera *herstory* delakoa izan zen[10]. Ikuspuntu horren barnean ere hainbat bide ibili ziren. Ibilbideotako batek, adibidez, emakumeen inguruko datuak biltzen zituen, subjektu historiko bezala gizonekin dituzten antzekotasunak azpimarratzeko. Nolabait, emakumeek historian paper protagonista bat izateko gizonek bezainbesteko zilegitasuna zutela «frogatzeko» modu bat ari ziren mahaigaineratzen. Zentzu horretan, aipatutako *herstory*k emakumeak gai berri bezala txertatzen zituen aurretik ezarritako eta problematizatu gabeko kategoriak erabiltzen zituen historia eginez. Beste ibilbide batek, aldiz, historia tradizionalaren egituratik bereizi eta narratiba, periodizazio eta kausa desberdinak planteatzen zituen. Azken joera horrek emakumeek historian izandako rol aktiboa eta emakume gisa bizi izandako esperientzia propioa azpimarratzen zuen arren, historiaren gai berezi eta bereizitzat jorratzean, emakumeak eta gizonak bi eremu desberdinetan mantendu zituen (Scott, 2008: 37-40).

Bestalde, testuinguru akademiko anglosaxoian historia soziala eta emakumeen historia batu ziren. Alde batetik, historia sozialak ikerketetan subjektu berriak

10. Hitz-jolas bat da eta, aldi berean, salaketa bat. Hitz-jolasa asmatu zuten historialarien arabera, ingelesezko *history* hitza, *his* (gizon) aurrizkiak osatuko luke. Horren aurren sortzen da emakumeak protagonista lituzkeen *her* (emakume) aurrizkiak osatutako historia edo *her-story*.

txertatu izanak bultzatutako historiaren demokratizazioa emakumeen historiari lagungarri gertatu zitzaion. Korronte horrek garatutako subjektuen pluraltasun horretan zerikusi handia izan zuten 60ko hamarkadako mugimendu sozial berriek eta, zehazki, aipatutako bigarren olatuko mugimendu feministak. Historialari feministen konpromiso pertsonalak eta politikoak akademiaren mundura eraman zituzten emakumeen inguruko kezkak. Bestalde, historia sozialak bere metodoak (kuantifikazioarena, esaterako) eta kontzeptuak mailegatu zizkion emakumeen historiari eta 70eko hamarkadatik aurrera, korronte horren eskutik, ikerketa historikoan lantzen ziren gaiak ugaritzeak eta pluraltasun berri horren barruan esparru pribatuaren hausnarketek —eguneroko bizitza, familia, ugalkortasuna edota sexualitatea— hartu zuten protagonismoak zera ahalbidetu zuten: iraganeko emakumeen esperientziaren eta agentziaren inguruan idaztea.

Orain arte aipatutako bi ikuspuntu historiografikoen desberdintasuna, historia sozialaren eta *herstory*ren artekoa alegia, «genero» kategoriaren esanahiarekin du zerikusia. Lehengoaren arabera, generoa ez da ikerketaren arazo edo gai nagusia; izan ere, genero-desberdintasuna ekonomiaren esparruan azal daitekeen aspektua izango litzateke. Gerora, Joan Scottek planteamendu horrek sortzen zituen mugak salatu zituen (1983: 152). Alderantziz, bigarrenaren arabera, generoak gizonezkoen eta emakumezkoen historia desberdinduak azaltzeko balio duela onartzen zuen. Hala ere, geroago, zenbait historialarik salatu zuten ezen *herstory*k ez zuela «genero» kategoria historizatzen, hau da, ez zuela teorizatzen generoak historian zehar nola jardun duen (Scott, 2008: 42).

Edonola ere, emakumeen historia jorratzen hasi ziren lehenengo autoreen ekarpen nagusietako bat «emakumeak» historiaren subjektu bilakatu izana izan zen. Gerora ibiliko zen bidearen lehenengo pausoa izan zen hori. Historia egiteko forma berri horrek hainbat arazori aurre egin behar izan zion. Bereziki historia egiteko forma tradizionalaren baitan emakumea subjektu bezala txertatzean sortzen ziren zailtasunekin eta kontraesanekin zerikusia zuten arazoei, alegia. Izan ere, «emakumea» Mendebaldeko historiografia modernoaren subjektuaren aurka zihoan, aipatutako gizon zuriaren figuraren zentralitatearen kontra, alegia. Teorialari feministek zailtasunak zituzten emakumeak errepresentazio unibertsal horren barnean kokatzeko; izan ere, haien ikuspuntutik, ustezko unibertsaltasun horrek ez zituen emakumeen partikulartasunak barne hartzen. Noski, kontuan izan behar dugu, unibertsaltasunaren kategoriak osotasun-borondatea izanda ere, dikotomien sisteman oinarrituta, partikulartasuna behar duela bere esanahia finkatzeko orduan, zeren partikulartasunaren aurkakoa bezala definiturik baitago. Beraz, gizonezko zuria bada Historiaren subjektu unibertsala, nola txerta diezaiokegu emakumeen inguruko narrazioa? Emakumeen historiak, halabeharrez, diferentziaren arazoari aurre egin behar izan zion.

Orain arte aipatutako garapen historiografikoak erabiltzen zuen «emakume» termino kolektiboak, alde batetik, kategoria hori unibertsal bilakatu zuen, kategoria

horren barruan zegoen heterogeneotasuna inbisibilizatuz edo ezkutatuz, eta, ondorioz, emakumeen arteko desberdintasunak lausotuz. Edo beste modu batera esanda, emakumeen esperientziak orokortzean, paradoxikoki, emakume askoren bisibilizazioa ukatu zuen. 70eko hamarkadako mugimendu feministak, emakumeen historiak egin zuen bezala, emakumeen identitate kolektiboa finkatu eta sendotu zuen. 80ko hamarkadan, ordea, besteak beste mugimendu feministaren barruan, beste identitate-kategoriak indartzen joan ziren, zeinek emakume batasundun edo kohesiodunaren kategoria solidoa arrakalatzea eragin zuten. Mundu anglosaxoian emakume beltzek eta, gure eremuan, lesbianek, emakumearen kategoria solido hura zalantzan eta mehatxupean jarri zuten. Eremu akademikotik ere «emakume» kategoriaren unibertsalizaziorako joera salatu zuten, besteak beste, teorialari postkolonialek. Teorialari postestrukturalistek, beren aldetik, erabiltzen zen «emakume» kategoriak izaera esentzialista zuela adierazi zuten (Sánchez-Pardo, 2003: 293-4). Horren guztiaren harira, Kathleen Canningek dio diferentzia nabarmentzen zuten diskurtsoak agertzeak erraztu zuela genero kontzeptuarekiko biraketa (2006: 8).

Bestetik, aipatutako «emakume» kategoriaren erabilera hark naturaltzat jo zuen emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna. Hau da, gizonen eta emakumeen arteko harreman hierarkikoak ez zituen zalantzan jarri. Gainera, emakumeen historiak emakumeengan baino ez zuen arreta jarri. Hau da, gizonezkoak alde batera uzten zituen eta botere-harremanetatik kanpo zeudelako itxura sortu. Zentzu horretan, Scottek salatu zuen bezala, emakumeen historiak gizon/emakume arteko oposizioa sendotu zuen, oposizio hori segurutzat edo naturaltzat jo zuelako. Are gehiago, emakumeen historiak baliatzen zuen «emakume» kategoria ahistoriko, esentzial eta unibertsaltzat hartuz, korronte horrek berreskuratu nahi zituen iraganeko subjektu horiek historiatik at mantentzen jarraitu zuela salatu zuen Scottek 2010. urtean (Scott, 2011: 98).

Arazo horien guztien aurrean, 1970eko hamarkadaren amaieran emakumeen historiaren premisak zalantzan jarri ziren. Haatik, zalantza edo arazo horiek guztiak azaleratzeak eztabaida historiografikoaren eta oinarri teorikoen aldaketa gertatzen ari zela adierazten digu. Alde batetik, «emakume» kategoriaren bideragarritasuna ez zen jada hain argia. Emakumeei, iraganari buruzko narrazioetan merezi zuten presentzia aldarrikatu eta eman beharrean, kontzeptu eta teorizazio berrien premia sumatu zuten adituek. Emakumeen historiaren agortze-sintomen aurrean zenbait ikertzaile feminista gerora hain garrantzitsua izan den genero kontzeptua erabiltzen hasi ziren. Diferentzia sexualaren kontzeptua naturan oinarritzen zenez, bazirudien sexuak emakumeen eta gizonen halabeharrezko patua adierazten zuela. Determinismo horri aurre egiteko helburuaz hasi ziren genero kontzeptua erabiltzen: sexuak inplizituki adierazten zuen determinismo biologikoaren ideia gainditzeko. Azken finean, generoaren kategoriak zera ahalbidetu zuen: emakumeen ustezko gutxiagotasuna arrazoi sozialei, eta ez naturari edo biologiari, zegokiela baieztatzea eta arrazoitzea. Aldi berean, kontzeptu horren bidez berdintasunaren aldeko argumentuak hobeto

jorra zitezkeela argudiatu zuten adituek. Izan ere, bide soziokultural egokiak ezarriko balira, berdintasuna posible izango litzatekeela uste zuten. Hala, sexu eta genero dikotomiaren arteko bereizketa egiteko ikertzaile feministen ahaleginak natura eta kultura dikotomiaren inguruan gizarte-zientzietan indarrean zegoen eztabaida zabalagoan koka daitezke. Beraz, aditu feministek generoaren izaera kulturala eta sexuaren izaera biologikoa azpimarratu zituzten. Azken batean, testuinguru horretan genero kontzeptua maskulinitate eta, batez ere, feminitatearen eraikuntzari eta esanahi soziokulturalari buruz aritzeko erabiltzen hasi ziren.

Generoaren inguruko teorizazioa egin zuen lehenengo autorea Gayle Rubin antropologoa izan zen. 1975ean plazaratutako «The Traffic in Women: Notes on the "Political Economy" of Sex» («Emakumeen salerosketa: sexuaren "ekonomia politikoari" oharrak») artikuluan, «sexu-genero sistema» kontzeptua erabili zuen lehen aldiz. Artikulu horretan gizonak eta emakumeak biologikoki hain antzekoak izanik, desberdinak direlako ideia naturan ez beste tokiren batean bilatu behar genuela azpimarratu zuen (1975: 179). Haren borondatea zera izan zen: emakumeen zapalkuntza eragiten zuten emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak zer prozesuren bitartez eraikitzen ziren azaltzea. Asmo horrek gidatuta sortu zuen aipatutako «sexu-genero sistema» kontzeptua. Antropologo iparramerikarrak sistema horri eman zion definizioaren muinean gizarteak sexualitate biologikoari ematen dizkion esanahien garrantzia azpimarratzea zegoen (Rubin, 1975: 159). Rubinek zera adierazi nahi zuen: gizarte patriarkalak gorputz maskulinoarekin eta femeninoarekin zerikusia zuten zenbait aspektu erabiltzen zituela genero-identitateen —maskulinoa eta femeninoa— oinarriak sortzeko eta, hala, gizonei boterea emateko eta emakumeak mendean jartzeko. Hau da, sexu-genero sistemak biologikoki desberdin katalogatutako gorputzentzako arauak, errepresentazioak eta praktika sozialak eraikiko lituzke, eta gizarte patriarkalak eraikuntza kultural horiei izaera *natural* eta denboragabearen itxura emango lieke. Eta hortik dator, hain zuzen ere, haren eraginkortasuna. Eta hemen datza, hortaz, Rubinen lanaren ekarpen handiena: gizonek eta emakumeek mundua esperimentatzeko modu desberdinen kausa sozialki eraikitako genero-desberdintasunean zetzala. Genero-harremanak naturaren eta biologiaren interpretazio jakin batean oinarritzen diren arau eta praktika sozialen bidez eraikitzen direla, alegia. Gerora definizio horrek kritikak jaso zituen, sexua berezkoa den zerbait bezala ulertzen zuela leporatu ziotelako.

Rubinen ekarpena eta lana genero-historiaren ikerketarako abiapuntua izan zen. Aipatutako «The Traffic in Women» artikulua argitaratu ostean hainbat autorek obra ugari kaleratu eta «sexu» kategoriak denboran zehar izandako esanahi sozialen azterketaren beharra azpimarratu zuten (Kelly-Gadol, 1976; Davis, 1976; Newton *et al.*, 1983). Hala, 70eko eta 80ko hamarkada bitartean, batez ere mundu akademiko feminista anglosaxoian, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna azaleratzeko eta hura nola sortzen zen ikertzeko borondatearen eskutik, generoa gero eta presentzia zabalagoa eskuratzen joan zela ikus dezakegu. Hedapen edota hazkunde horrek generoak ikerketa historikoan aplikatzeko zilegitasuna lortzea ahalbidetu zuen.

Edonola ere, Joan W. Scott historialari estatubatuarra izan zen genero kontzeptuaren inguruko teorizazioari ekarpen handiena egin zion autorea. 1986an argitaratutako «Gender: A Useful Category of Historical Analysis» («Generoa: analisi historikorako kategoria erabilgarria») artikulua emakumeen historian zeuden kezkei irtenbidea emateko saiakera bat izan zen.

Scotten aburuz, emakumeen historiaren alorreko autore askok genero kontzeptua era deskriptiboan erabiltzen zuten. Are gehiago, kategoria horren erabilera gehienek emakumeen identitatea esentzializatzeko joera izaten zuten. Gainera, emakumeen historiak ez zuen gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunaren jatorriaren inguruko azalpen asegarririk ematen. Scott, historia sozialaren barruan sortzen ari ziren ezinegonekin kezkaturik, postestrukturalismo frantsesaren ekarpenez baliatu zen generoaren inguruko teorizazioari biraketa berria egiteko. Zentzu horretan, lengoaiak errealitatea eraikitzeko orduan duen garrantzia azpimarratuz, erabiltzen ditugun kategoriak zalantzan jarri eta historizatu beharra aldarrikatu zuen. Horrela egin behar genuen, haren esanetan, «genero» kategoriarekin, eta haren errepresentazio binarioaren egonkortasunaren ideia desegin. Autoreak urte batzuk geroago aitortu zuen bezala, artikulua idatzi zuen momentuan Michel Foucaulten eragina jaso zuen. Filosofo frantsesaren proposamenetik abiatuta erantzuna eman nahi zien zenbait galderari, hala nola diferentzia sexuala naturala zen inguruko ezagutza nola ezartzen zen eta «egia-erregimen» batek beste «egia-erregimen» bat nola eta noiz ordezkatzen zuen inguruko galderei (Scott, 2001: 97).

Scotten generoaren definizioak bi atal ditu: alde batetik, generoa, sexuen inguruan hautemandako desberdintasunetan oinarritzen diren giza harremanen oinarrizko osagaia zela, eta, bestetik, botere-harreman sinbolikoek hartzen duten oinarrizko forma zela baieztatu zuen. Autorearen aburuz, generoa gizarte-harremanen eraikuntzaren, legitimazioaren eta botere-harremanen sorreraren oinarrizko elementua zen. Gainera, ikuspuntu esentzialisten aurrean, Scottek generoaren izaera historikoa, eraikia, aldakorra eta erlazionala azpimarratu zuen.

Bestalde, Scotten proposamenak generoaren, boterearen eta politikaren elkarren arteko lotura azpimarratu zuen. Aipatu bezala, generoa botere-harremanei esanahia emateko era nagusia zela argudiatu zuen. Are gehiago, generoaren eta boterearen esanahiek, haren esanetan, elkar eraikitzen dute. Azken ideia horrek zera adieraziko luke: botereak harreman zehatzak eta partikularrak sortzen dituela eta subjektuak botere-harreman horren arabera egituratzen direla (Scott, 2006: 137). Generoa eraikitzen duten esanahiek botere-banaketa jakin bat ezartzen dute, baliabide materialen eta sinbolikoen kontrol eta erabilera desberdina, esaterako (Scott, 1990). Diferentzia sexualaren eraikuntza sozialak —eraikuntza hori botere-harreman esanguratsuena den heinean— testuinguru jakin batean dituen esanahiak ikertzeko aukera eman zuen Scotten proposamen teorikoak. Zentzu horretan, Scotten «genero» kategoriaren kontzepzioaren haritik, historiaren ikerketa-objektuak diferentzia sexualaren eraikuntza bera izan beharko luke. Hau da, diferentzia horren

inguruko ikusmoldeek gizarte-harremanen antolamendu hierarkikoen eraikuntza nola gauzatu zuten azaldu eta «emakumea» eta «gizona» kategorien esanahiak, bata bestearekin harremanean, nola sortu, hedatu eta eraldatu diren aztertu beharko genuke. Horren harira, azpimarratu behar da generoa kategoria erlazionala izanik, ez dela feminitatea aztertzera mugatzen. Genero-historiak maskulinitatearen eraikuntza eta horrek historian zehar izan dituen esanahiak ere ditu aztergai. Maskulinitatea, feminitatea bezala, kategoria ezegonkorra da, emakumeekiko botere-harreman jakin batzuen baitan denboran zehar eraikia. Maskulinitatearen esanahi sozial horren inguruko ikerketek gero eta interes handiagoa piztu dute historialarien artean, eta lan horien artean aipagarrietako bat George L. Moosena da (1996) eta gure esparru akademikoan Nerea Arestirena (2010).

Scotten proposamen teorikoei jarraituz, Denise Riley filosofoak, «*Am I That Name?*»*: Feminism and the Category of Women* («*Izen hori al naiz? Feminismoa eta Emakume kategoria»*) (1988) liburuan, genero-oposizio binarioaren eraikuntza historikoaren inguruan hausnartu zuen. Aditu ingelesak zera adierazi zuen (1988): gizonen eta emakumeen oposizioa historian zehar eraikia bada ere, paradoxikoki oposizio horrek efektu bezala aldagaitza eta beti berdina delako itxura duela.

Egiatan, genero terminoa oso ezaguna egin zen akademian zein eremu horretatik kanpo, eta haren erabilera izugarri hedatu zen. Hedapen eta arrakasta horrekin batera, Scott ardura berri batekin etorri zitzaigun 90eko hamarkadaren amaieran. Haren ustez genero terminoaren erabilera akritikoa gertatzen ari zen. Historialariak ohartarazi zuenez, lan batzuetan «genero» kategoria «emakume» kategoriaren sinonimo bezala erabiltzen zen eta, beste batzuetan, ordea, «sexu» kategoriaren sinonimo bezala. Adituaren aburuz, erabilera desegoki horren ondorioz, genero terminoa bere esanahi akademikoz eta politikoz husten ari zen. Scottek aitortu zuen sexuen arteko desberdintasunaren eta sexua, ikuspuntu historiko batetik, kontzeptu aldakorra izatearen inguruan gero eta gehiago hausnartzen zuela.

1990ean, Scotten «Gender: A Useful Category» artikulu ezagunak argia ikusi eta lau urtera, hain zuzen ere, *Gender trouble: feminism and the subversion of identity* (*Generoa ezbaian: feminismoa eta identitatearen subertsioa*) lana plazaratu zuen Judith Butler filosofo estatubatuarrak. Zalantzarik gabe, autore horren obrak egundoko eragina izan du, besteak beste, historiaren alorrean. Bestalde, haren ekarpenek, hein handi batean, *queer* teoriari hasiera eman ziotela esan liteke. Autoreak liburuaren hitzaurrean adierazi zuen bezala, aipatutako obra feminismotik idatzitakoa da, eta haren asmoetako bat, hain zuzen ere, izan zen azaleratzea eta salatzea mugimendu politiko horren oinarri heterosexuala eta feminismoak erabiltzen zuen «genero» kategoria hierarkikoa eta baztertzailea zela. Butlerren lanak «genero» kategoriaren problematizazioan sakontzen jarraitzeko helburua ez ezik, haren eraikuntzan botereak nola jarduten duen ikertzea ere zuen helburu. Asmo horiek gidaturik, Butlerrek genero kontzeptuan ez ezik «sexu» kategorian ere jarri zuen arreta. Autoreak dio sexuaren eta generoaren artean desberdintzean,

sexua «erreala» eta «egiazkoa» dena bezala aurkezten dela, oinarri material edo korporala, non generoak inskripzio kulturaleko egintza bezala parte hartzen duen (Butler, 2011: 283). Hau da, sexua errealitate aurrediskurtsibo bezala aurkeztu du nagusi den ordena heterosexualak, kulturaren —generoaren— aurrekoa balitz bezala. Mendebaldeko mundu akademikoan hedaturik dagoen fundamentu horri aurre eginez, filosofoaren aburuz, sexua, ez-eraikia den zerbait bezala aurkezten den arren, diskurtsoaren ekoizpena da. Hain zuzen ere, generoa izango litzateke sexu-dualitatea eremu aurrediskurtsiboan «kokatzen» duena eta, aldi berean, «kokapen» eragiketa hori ezkutatzen duena. Beste era batera esanda, sexua ez da generoaren oinarri objektiboa, aitzitik generoa diferentzia sexual anatomikoa natural bezala eraikitzen duena da. Ondorioz, autorearen aburuz, ez du zentzurik «sexu» eta «genero» kategoriak bereiztea. Butlerren esanetan, sexua gorputzen materializazioa gobernatzen duen arau kultural bat da (2002: 19). Sexua «naturala» den zerbait ulertzeak genero-identitate duala, maskulino-femenino, justifikatzeko balioko luke. Aginduzko heterosexualitateak zenbait identifikazio sexuatu onartuko lituzke eta beste batzuk baztertu eta arbuiatu. Desberdindutako generoen eredua, hau da, «emakumeak» eta «gizonak», ondo betetzen duten gorputzak humanizatu egiten ditu gaur egungo kulturak, eta dagokien generoa ondo errepresentatzen ez duten indibiduoak zigortuak izaten dira (Butler, 2011: 272). Eredu baztertzaile horren bidez subjektuak eraikitzen diren bitartean, subjektua ez diren horiek —abjektuak— ere sortzen dira. Azken horiek subjektuen kanpo-osagaia delakoa sortuko lukete (Butler, 2002: 19).

Filosofo iparramerikarrak «sexu» kategoriaren inguruko hausnarketan sakondu zuen 1993an kaleratutako *Bodies that matter. On the Discursive Limits of* «*sex*» liburuan. Foucaulten eragin argiz, sexua «arau» bat ez ezik, ideal arautzailea zela, hots, botere produktiboa zela baieztatu zuen. Hau da, sortzen edo produzitzen dituen gorputzak kontrolatzeko boterea izango lukeela. Gorputzak produzitzeko, mugarriztatzeko, mugatzeko, desberdintzeko boterea, alegia. Baina sexua nola materializatzen edo gauzatzen da? Denboran zehar zurrun araututako praktiken errepikapenaren bidez hain zuzen ere. Aurreko lanean adierazi zuen bezala, sexua ez da gorputzaren errealitate estatiko bat, baizik eta arau erregulatzaileen derrigorrezko errepikapenaren bidez sortzen den marka bat. Butler lengoaiaren izaera performatiboaz baliatzen da bere genero kontzeptua formulatzeko. Filosofoak generoa performatiboa den praktika edo ekintza soziokultural bat dela argudiatzen du, hots, generoa arau sozialen arabera gauzatzen den antzezpen errepikatu konstantea da. Beste era batera esanda, generoa ez da pertsonok *dugun* zerbait, *egiten* dugun zerbait baizik. Iterazio hori ez da egintza berezi eta berariazkoa, baizik eta praktika errepikakor eta erreferentzial bat, zeinaren bitartez diskurtsoak izendatzen dituen *efektuak* sortzen dituen (Butler, 2002: 18). Imintzio, mugimendu eta estilo korporalek genero iraunkor eta egonkor bat *duen* niaren ilusioa sortuko lukete (Butler, 2011: 273-4). Gainera, derrigorrezko heterosexualitate erreproduktiboaren eremuan, sexualitatea erregulatzeko diskurtsoak ilusio hori babestuko luke (Butler, 2011: 266-7). Esandako

horretatik guztitik zera ondoriozta daiteke: genero identitatea ez litzatekeela soilik kategoria diskurtsibo bat izango, gorputzetan haragitzen den zerbait baizik.

Bestalde, aipatutako formula performatiboak legitimatzaileak dira, baina, aldi berean, hausturarako aukera ematen dute. Izan ere, Butlerren aburuz, errepikapen hori beharrezkoa izateak adieraziko luke materializazioa ez dela beti osoa, hau da, gorputzek ez dituztela beti guztiz onartzen beren materializazioa inposatzen duten arauak. Hala, egonkortasun ez horrek, prozesu honetan zabaltzen diren birmaterializatzeko aukera horiek lege arautzailea bere buruaren aurka joan daitekeen espazio bat sortzen dute, baita lege arautzaile horien indar hegemonikoa zalantzan jartzen duten berrartikulazioak ere (Butler, 2002: 18). Zentzu horretan praktika parodikoek, adibidez trabestismoa, generoaren egonkortasun- eta naturaltasun-itxura hausteko, generoa bera gainazpikatzeko balioko lukete. Trabestismoaren praktrika kulturalak genero-identitate originala existitzen delako ideia kinka larrian jarriko luke, zeren trabestiaren antzezpenak aktorearen anatomiaren eta antzezten den generoaren arteko bereizketa nahasiko bailuke. Trabestiak, ustezko genero originala imitatzean, generoaren imitaziozko egitura eta haren kontingentzia azaleratzen ditu modu inplizitu batean. Koherentzia heterosexualaren ordez, sexua eta generoa desnaturalizatu egiten ditu. Zentzu horretan, autore estatubatuarrak genero-parodiaren nozioaren bidez genero-identitate naturalizatuen eta esentzialisten existentzia ukatzeaz gain, haratago joateko aukera dagoela azpimarratzen du.

2.2. TEORIA POSTKOLONIALA

Postkolonial kontzeptuaren eta ikasketa kolonialen definizio bat ematea oso zaila da, haren erabilera anitzek esanahi diferenteak gordetzen dituztelako, eta kolonizatutako testuinguru askori buruz hitz egiteko erabili delako. Historialariak postkolonial hitza Bigarren Mundu Gerra osteko deskolonizazio-prozesuaren ondorengo estatu berriez aritzeko erabiltzen hasi ziren. Historia postkolonial deritzonak Indiako ikerketa-talde baten jarduerarekin izan zuen hasiera, Ranajit Guhak zuzendutako Ikasketa Subalternoak taldearekin, hain zuzen ere. Baina, aurretik ere kolonizazioaren eraginen inguruko hainbat ikerketa kritiko egin ziren, horien artean agian ezagunena Frantz Fanonen lana delarik. Frantz Fanon (1925-1961) Martinikan jaio zen. Kolonialismoaren aurkako aktibista izan zen eta Aljeriak Frantziatik independentzia lortzeko burututako iraultzan Askapenerako Fronteko partaide izan zen. Aljerian emandako denboran eginiko psikiatra-lanak aukera eman zion Fanoni deskolonizazio-prozesuak parte-hartzaileengan, bai aljeriarrengan baita frantziarrengan ere, zeukan eragina aztertzeko. Bere alor profesionala zen psikiatriatik eta marxismotik eratorritako kontrol sozialaren eta ekonomikoaren analisia eginez, Fanonek menderakuntza kolonialak kolonizatutakoen psikean zeukan eragina ikertu zuen. Esperientzia horren eraginez bere lanik ezagunena idatzi zuen hil baino apur bat arinago: *Les Damneés de la Terre* (*Lurreko madarikatuak*) (1961). Kolonizazioak ekarri zuen zapalkuntzaren aurrean, jatorrizko *intelligentsia*k gizartea bere-berezko

balioen eta jendearen ikuspegien arabera berregituratu behar zuela defendatu zuen idazle martinikarrak. Haatik, Fanonek ez zuen kolonizazio aurreko egoera natibo edo natural idealetan sinesten. Hark proposatutako nazionalismoa kritikoa zen, alegia, onartzen eta ulertzen zuen gizarte aurrekolonialak konplexuak eta heterogeneoak zirela, eta haietan genero-, erlijio- eta klase-zapalkuntzak indarrean zeudela eta berrikuntza erradikala behar zutela.

Bere aldetik, Edward Said (1935-2003) teorialari palestinar-estatubatuarra, *Orientalism* (*Orientalismoa*) (1978) bere lanik ezagun eta garrantzitsuenarekin, irudikapen kolonialen botere diskurtsiboa ikertzen lehena izan zen. Itzal handiko lan horren eraginez, «orientalismo» nozioa hedatu zen, Europak Asia ulertu eta irudikatu duen eredua kritikoki interpretatzeko. Kontzeptu horren bidez, pentsamendu europarrak «ekialdea», ekialdearen ideia, eraikitzen erabilitako prozesuak ikertu zituen Saidek. Haren ustez, orientalismoa ez da ulertu behar mundu akademikora mugatzen den diskurtso gisa, baizik eta pentsamendu europarrean erro sakonak dituen jarrera gisa. Azken finean, «Mendebalde»aren eta «Ekialde»aren arteko desberdintasun epistemologiko eta ontologiko garbia ezartzen duen pentsamendu era bat da (Said, 1979: 1). Diskurtsoaren ikuspegi produktibo foucaultiarra gidatzat hartuz, Saiden aburuz diskurtso orientalistak ez zuen Asia «zena» deskribatzen. Orientalismoa Asiari buruz hitz egiteko eta ikertzeko ereduak ezartzen zituen entitatea zen, alegia, Ekialdeari buruzko ezagutza autorizatua sortzeko diskurtsoa bilakatu zen. Zentzu horretan, Ekialdea ez litzateke datu objektibo edo natural bat izango, baizik eta pentsamendu europarraren ikuspegitik eraikitako irudikapen konkretu bat, balio europar horien beraien ikuspegitik sortutako ideia, alegia. Ikuspuntu honen aburuz, beraz, diskurtso horren bidez Europak Ekialdearen menderakuntza edo hegemonia sinboliko eta praktikoa mantendu eta legitimatu du urteetan zehar.

Aurrekari horien eragina jasota, historia postkoloniala deritzonak 70eko hamarkada aldera izan zuen hasiera Ikasketa Subalternoak ikerketa-taldearen eskutik, Indian. Haren zuzendaria Ranajit Guha izan zen eta parte-hartzaileen artean Shaid Amin, Gautam Bhandra, Dipesh Chakrabarty eta beste hainbat historiagile zeuden. Haien aburuz, ordura arte, alor akademikoa elite sozialei buruzko historia idaztera mugatu zen, bai metropoliko historiagileak baita historia nazionala egin zuten historiagileak ere. Egoera horri aurre egiteko, ikerketa-talde horren helburua Indiari buruz idatziko historia berritzea zen. Taldeak Hego Asiako ikerketa-gai subordinatuei buruzko eztabaida sistematikoa bultzatzeko asmoa zeukan, lurraldean zehar sortu ziren zapalkuntzak —klase (kasta), genero, zein lana edo beste edozein motatakoa— azalarazteko eta subjektu zapaldu horiek ere mundu akademikoaren ikerketen alorrean sartzeko. Bereziki, jazarpena pairatutako talde horiek kolonialismoaren kontra bideratutako borroka ikertu nahi zuten, *historia behetik* zeritzon ikuspuntua lurralde kolonialen ikerketara aplikatuz (Blasco Herrans eta Cabrera, 2010: 15). Ikasketa Subalternoak ikerketa-taldearen kritika printzipala hau zen: kolonizazio osteko elite indiarrek idatzitako historiografiak Indiako historia nazionala eraikitzean, logika inperial burges binarioa erreproduzituz, elitismotik egin

zuela, subalternoen historiak kanpoan utziz. Horren aurrean, kolektibo subalterno horien ahotsa eta historia berreskuratzea beharrezkoa zen. Gainera Blasco Herranz eta Cabrerak adierazi dutenez, ikerketa-talde horrek teoria marxistaren ikuspegia ere kritikatu zuen. Alde batetik, langile-klasearen nozio tradizionalaren bidez nekazariak alde batera uzten zituela leporatu zioten. Eta bestetik, erlijioan edo hierarkian oinarritutako erresistentzia kolektiboak kanpoan uzten zituztela salatu zuten, joera marxistek zerabiltzaten aurrerapen eta modernizazio kontzeptuak Mendebaldeko ideia ilustratuetan oinarritzen zirelako (2010: 15).

Antonio Gramsci teorialari italiarrarengandik eratorritako «subalterno» kontzeptua erabakigarri bihurtu zen talde horrentzat. Pentsalari italiarrak subalterno hitza erabili zuen klase eta hierarkia «baxuago»ko pertsonez aritzeko, hau da, agintzen zuten klaseen hegemonia pean bizi ziren taldeez aritzeko. Subalternoak ziren nekazariak, langileak edo boterera heltzeko aukerarik ez zuten taldeak. Gramsci talde horien historian zegoen interesatua, estatuen eta klase boteretsuen historia tradizionala baztertuz. Aipaturiko Indiako Ikasketa Subalternoak taldeak, kontzeptu hori oinarritzat hartuta, subalternoa subjektu kolonial gisa irudikatu zuen. Historiaren protagonistak bihurtuta, jasandako zapalkuntza-prozesuak agerian geratu ziren, baina aldi berean, aldaketa- eta matxinada-agente legez irudikaturik agertu ziren. Hau da, aldaketa historikoaren subjektu gisa, posizio positiboa eta aktiboa eskaini zioten. Taldearen borondate nagusietako bat izan zen, beraz, elitearen menderakuntzaren kontrako idea zentral bihurtzea.

Subalternoaren nozioa gehitzeaz aparte, taldeak planteatutako beste berrikuntza garrantzitsu bat historiaren marxismoaren garapen linealaren ideia arbuiatzea izan zen. Marxismoaren teorialari nagusien aburuz, Hobsbawm esaterako, nekazari-iraultzak errebolta aurre-politiko gisa ulertuta, benetan autokontzientea zen klase-borrokak zeukan nagusitasun eta eduki politikorik gabekoak ziren, alegia, kontzientzia atzeratu eta aurre-modernoa zeukaten taldeak ziren oraindik (Blasco Herranz eta Cabrera, 2010: 18). Planteamendu horrek ez zuen aukerarik ematen Mendebaldekoak ez ziren nekazarien eta beste mota batzuetako langileen kontzientzia eta esperientziak ezagutzeko. Horren aurrean, Ikasketa Subalternoak taldeko kideek pertsona haien esperientzia ezagutzea zuten helburu, eta, horretarako, bestelako autore eta marko teoriko berriak kontuan hartu zituzten. Era horretan, postestrukturalismoaren ekarpenak gero eta garrantzitsuagoak bilakatu ziren taldeko zenbait autorerentzat. Hala, batez ere 80ko hamarkadatik aurrera, botere-harremanak ulertzeko beste elementuak gehitzen —esaterako Foucaulten diskurtsoari buruzko teoriak eta Derridaren logozentrismoaren kritika gehituz—, hizkuntza-eraikuntzei garrantzia handiagoa ematen, edota pixkanaka subjektu historikoen sorkuntzan parte hartzen zuten eraikuntza kulturaletan eta diskurtsiboetan arreta handiago jartzen hasi ziren. Ikuspuntu horientzat garrantzitsuena ez zen nekazarien erresistentzia, objektiboa eta neurgarria balitz bezala ulertua, parametro europarrekin alderatuz, zenbateraino politikoa eta iraultzailea izan zen neurtzea. Talde horretako ikertzaileen borondatea egoera koloniala nola irudikatu izan zen ikertzea zen. Hau da, kolonialismoak

sortu zituen ezagutza- eta errepresentazio-ereduak nolakoak izan ziren ezagutu nahi zuten eta kolonizatutako populazioetan eta haien praktika sozial eta munduikuskeretan izan zituzten ondorioak ulertzea. Planteamendu horrek XIX. eta XX. mendeetan zehar Mendebaldeko historiografiaren beste aspektu bat kritikatu zuen: objektibitatearen auzia, alegia. Kritika hau zen: ezagutza historiko tradizionalak ez zuen India kolonialа *deskribatu* baizik eta *eraiki*. Zentzu horretan, urteetan zehar historiografia Mendebalde kolonialaren tresna izan zen okupazio-prozesuetan haien ezagutza- eta garapen-ereduak egiazkotzat eta bakartzat inposatzeko. Arazoa are garrantzitsuagoa bilakatu zen Indiako eliteek nazioaren garapen soziala eta politikoa irudikatu zutenean, metropoliko ezagutza-ereduak erreproduzitzen zituztelako (Blasco Herranz eta Cabrera, 2010: 26). Fenomeno kontrajarri bat suertatu zen horrela historiografia kolonial tradizionalean: kolonialismoari kritika egiten zitzaion, baina kolonialismoaren beraren tresna diskurtsiboak eta balioak unibertsalki baliagarriak eta aplikagarriak izango balira inkorporatzen ziren.

Ikasketa postkolonialen ildo kritiko horretan Chakrabartyk planteatutako zalantzak eta kezkak bereziki interesgarriak suertatzen zaizkigu. Autore horrek zalantzan jarri zuen indiarrek berek beren ikuspuntutik eraikitako historia bat idaztea posible ote zen. Arazoa era honetara planteatu zuen: historia akademikoa eta ofiziala beti eraiki izan da Europa erdigune eta erreferentzia-puntutzat hartuz, eta nolabait, gune «periferiko»etatik idatzitako historiak europar historia nagusiaren bariazio hutsak baino ez dira izan. Laburki esateko, historiografia tradizionalak, Indiako historia posizio subalternoan utzi du (Chakrabarty, 2008: 57). Chakrabartyk, bere lan ezagunenaren tituluak dioen moduan —*Provincializing Europe: Postcolonial Thought and Historical Difference* (*Europa probintzializatzen: Pentsamendu Postkoloniala eta Desberdintasun Historikoa*) (2000)—, Europa «probintzializatzea» eta kontinenteak alor akademiko zein sozialean daukan zentralitate eta legitimitate unibertsalarekin amaitzea proposatu du, alegia, Mendebaldeko arrazionaltasun-ereduak naturaltzat ez hartzea. Proiektu horrek, alta, zailtasunak dauzka. XIX. mendeko Europak modernitatea ulertzeko marko linguistiko, juridiko, politiko eta morala eskaini zuen, subjektuaren idea, Estatua, gizarte zibila, giza eskubideak… bokazio unibertsala zuten nozio abstraktuak —baina praktikan aplikagarritasun zeharo murriztua zutenak (gizon, zuri, burges, kolonial) — oinarritzat hartuz. Egilearentzat erronka honako hau da: Indiaren modernitate politikoa ulertzea historizismo europar modernoak eskainitako marko diskurtsiboa bera problematizatuz eta aipatu ditugun kontzeptuok pentsamendu indiarraren garapenean izan duten eragina tentuz behatuz eta deseraikiz.

Antzeko zentzuan, baina beste egoera kolonial bati buruz hitz eginez, Walter Mignolo teorialari argentinarrak Latinoamerikako kolonizazioak izandako eraginari buruz hausnartu du. Aditu hegoamerikarrak Saidek Ekialdeari buruz adierazitako aspektu asko jaso zituen, eta bere ikerketa, hizkuntzak errealitatea eraikitzeko daukan ahalmena onartuz abiatzen du. Zentzu horretan, *The Idea of Latin America* (*Latinoamerikaren ideia*) (2005) lanean, Mignolok argi adierazten du ez duela

aztertuko kolonialismoak eta egoera kolonialak nola eragin duen Hego Amerikan, hori diskurtsoen aurretiaz existituko balitz bezala. Alderantziz, kolonialismoak Latinoamerikaren ideia zer baldintza epistemologiko eta ideologikotatik nola sortzen duen ikertzen du. Hasieratik adierazten duen moduan, bost mendetatik hona indarrean izan diren muga geopolitikoak inposatutako eraikuntza inperiala lirateke. Munduaren historian eta geografian, ikuspuntu kolonialetik, modernitatearen kontrapartida legez sortu zen Latinoamerikaren ideia. Alegia, kontinente amerikarra hedakuntza kolonial europarraren ondorioz «sortzen» da, eta Amerikaren historia, haren kontaketak eta kronologia bera, modernitatearen ideiatik abiatutako ikuspuntu europarretik sortu dira (Mignolo, 2007: 16). Ikerketa postkolonialek eta kolonialismoaren eragin materialak eta kulturalak ikertzen dituzten gero eta ugariagoak diren azalpenek, urteetan zehar ikerketa historikoaren bazterretan, kanpoan, utzitako subjektuen esperientziak kontuan hartzen dituzte. Esklaboen salerosketa eta zapalkuntza erdigunetzat daukan historiagintza afrokaribearrak esaterako, fenomeno horrek Latinoaremikaren historiaren joanean izandako eragin materialak, psikologikoak eta historikoak ikertuko lituzke.

Europak modernitateari buruz eraikitako diskurtso humanista eta unibertsalista deseraikitzeko intentzioz, Mignolok aldarrikatzen du kolonialitatea modernitate europarraren oinarrizko ezaugarria dela eta kontinente amerikarra Europako lehen hedapen komertzialaren eta kapitalismoaren motorra izan zela (Mignolo, 2007: 18). Are gehiago, adituaren ustez, Amerikako aurkikuntza eta esklaboen salerosketa modernitatearen pilare garrantzitsuenak izan ziren, alderdi ekonomikoari dagokionez gutxienez, are eta Iraultza Frantsesa eta Iraultza Industriala baino garrantzitsuagoak ere. Kolonialitatea da, Mignolok *The Darker Side of Western Modernity* (*Mendebaldeko Modernitatearen Alderdi Ilunagoa*) (2011) lanean adierazi zuen eran, modernitatearen *alderdi iluna*. Europako loraldi ekonomiko, kultural eta identitarioak, modernizazio deitu den horrek, kolonizazioan eta kontinente amerikarraren ustiapenean izan zuen oinarri. Zentzu horretan adierazgarria da Ilustrazioko historiografiarentzat, «natibo» edo «basati»aren ideiek berebiziko garrantzia izan zutela europarren nagusitasun moral eta fisikoa aldarrikatzeko eta, horren bidez, haien zapalkuntza justifikatzeko (Sebastiani, 2013).

Diskurtso kolonialaren logikak, hain zuzen ere, «bata» eta «bestea»ren arteko harreman dialektikoari erantzuten dio. Bestetasuna norbanakoarengandik bereizten dena adierazteko erabiltzen den irudikapena da. Baina bestearen errepresentazioa ez da deskriptibo hutsa, baizik eta, hizkuntza eta diskurtsoak esanahiak eraikitzeko daukan gaitasuna kontuan hartuta, produktiboa ere. Bestearen existentzia eta definizioak berebiziko garrantzia dauka norbanakoak bere identitatea sortzeko eta munduan daukan posizioa adierazteko, baita bere normaltasunaren parametroak ezartzeko ere (Ashcroft, Griffiths eta Tiffin, 2007: 154). Logika binario horren funtzionamenduan sakonduz, Gayatri Chakravorty Spivak teorialari indiarrak «bestetasun» nozioa landu zuen diskurtso inperialek beren «besteak» sortzeko erabiltzen zituzten prozesuei buruz hitz egiteko. Zentzu horretan, «bestea» baztertutako subjektua da,

boterearen diskurtsoaren bidez sortutakoa. Kolonizatutako subjektua, primitibotzat edo barbarotzat definitua, «bestea» bezala irudikatzen da, eta, horrela, metropoliak bere kultura eta mundu-ikuskera naturalizatzea edo normalizatea lortzen du. Azken finean, horrek kontrako norabideko irakurketa ere badauka; izan ere, «modernoek» beren identitate kulturala eraikitzen zuten modernoa edo aurreratua ez zenaren kontra. Historiografia postkolonialaren lana logika binario horretan oinarritzen ziren mito horiek deseraikitzea izan da, kolonizatutako herrietako biztanleriaren identitateen eraikuntzan izan zuten eragina aztertzea eta diskurtso horien kontra edo harremanean beren identitatea nola eraiki zuten ikertzea.

Gayatri Spivakek, postestrukturalismotik luzatutako begirada konplexutik, subalterno nozioaren planteamenduak agertzen zituzten kontraesan analitikoak mahaigaineratu zituen bereziki *Can the Subaltern Speak?* (*Hitz egin dezake subalternoak?*) (1988) bere lan ezagunean. Aditu indiarraren aburuz, Ikasketa Subalternoak taldeko egileek subalternoaren definizioa formulatu zuten, zeinak onartzen baitzuen posible zela antzeman zitekeen eta finkoa izango zen subjektu bat aurkitzea eta azalaraztea, eta, horrekin batera, kontzeptu hori erabili zuten talde heterogeneo baten ahots beraren isla izateko gaitasuna balu bezala, bere horretan identifikablea izango balitz bezala (Spivak, 1996: 211). Spivakek, subjektuaren eta kontzientziaren esanahi metafisikoaren eta esentzialistaren kritika aurkezteaz gainera, adierazi zuen ezinezkoa zela subalternoari buruz hitz egitea bere baitan beste motatako subordinazio-posizioak okupatuko ez balitu bezala. Zentzu horretan Spivakek Indiako emakumeen egoeran zentratzen da subalterno nozioaren kritika egiteko, eta, bere proposamenei jarraituz, emakumeak nolabaiteko subalternitate bikoitza bizi zutela adierazteko. Hau da, diskurtso kolonialak emakumeei ezartzen zien subordinazio-posizioaz gainera, genero-diskurtsoak ere, gizonezkoek dominatua, bestelako dominazio-egoera batean kokatzen zituen (Spivak, 1988: 294-308). Zentzu horretan, subalternoak ezin zuen hitz egin, ez zeukalako hitz egiteko edo diskurtsoaren markoan enuntziatuak sortzeko lekurik.

Baina Spivaken helburua ez zen subjektu subalternoak bere arazo politikoei buruz hitz egiteko zeukan ezintasuna edo gaitasuna adieraztea, baizik eta subalternoaren identitateen eraikuntza ez konplexuak erabiltzeak dakartzan arazoak azpimarratzea. Adituaren esanetan, ez dago subjektu subalternoak burututako desadostasun- edo erresistentzia-ekintzarik, diskurtso hegemonikoak eskaintzen dituen tresna kontzeptualetatik eta kategorietatik guztiz separatu edo desberdindu daitekeenik (Ashcroft, Griffiths eta Tiffin, 2007: 201). Eta aldi berean ezin da subalternoa ahots propioa eta bereizgarria izango balu bezala ulertu, ahots horrek, aldi berean, hitz egiteko beste hainbat posizio okupatuko ez balitu bezala. Esaterako, kontuan hartu behar da emakume nekazariak nekazaria den heinean eta emakumea den heinean okupatzen duen posizio diferentzial bikoitza. Alegia, subalternitate bikoitz horrek subjektibitate multipleei munduan ahotsa izateko eta borrokatzeko orduan sortzen dizkien talkak edo kolaborazioak kontuan hartu behar dira.

Historia postkolonialak, beraz, kolonizatuak izan direnen bizipenak eta prozesu politikoak, ekonomikoak eta soziokulturalak objektuak bailiran deskribatzea nahikoa ez dela ezagutarazten du. Korronte historiografiko hori eraginkorra izan da, alde batetik, urte askotan ezkutuan mantendu diren subjektu historiko askoren egoera ezagutarazteko eta haien historia idazteko. Eta bestetik, Mendebaldeko historiografia-eredu tradizionalen berrikuntza bultzatzeko balio izan duelako. Indiaren, Hego Amerikaren eta Afrikaren historiek ez dute izan behar atzerapena edo anomalia adierazten duen begirada europarretik idatzitako munduko historian puntu solte batzuk. Ez dira historia ofizialetan txertatu beharreko beste errealitate batzuk. Letra larriz idazten den Historia existitzen ez dela baizik eta mundua historia eta egoera zein prozesu subjektibo askok osatzen dutela onartu behar dela ohartarazten digute ikasketa postkolonialek. Gizataldeen garapenak askotarikoak direla, elkarrekin konektatuta daudela eta haien arteko harremanak ikertu behar direla onartu behar da, baina balioen eta ezagutza-ereduen inposizioak alde batera utzita. Horregatik, Mendebaldeko modernitatearen kontaketa deseraikitzea eta kolonizatutako taldeetan izan duen eragina ikertzea beharrezkoa da ikasketa postkolonialen ikuspuntutik egiten diren ikerketen aburuz, kolonizatutako taldeek sortutako diskurtsoei so eginez eta horiek Mendebaldeko diskurtso kolonialekin daukaten harreman eta konexioak ikertuz. Zentzu horretan baino ez litzateke posible izango egoera kolonialaren inposizio-egoerak ulertzea, kolonizatutako taldeen beraien eraldaketarako, apropiaziorako eta agentziarako izan duten eta daukaten ahalmena ukatu gabe. Zentzu horretan, egungo munduak eta gure iragan hurbileko historiak erronka etiko eta epistemologiko bereziki interesgarriak aurkezten dizkiote ikuspuntu postkolonialari.

2.3. IKASKETA KULTURALAK

Ikasketa kulturalen edo *cultural studies* delakoen jaioterria XX. mende erdialdeko Erresuma Batuan kokatu ohi da. Oraindik ere zenbaitek ikasketa kulturalek diziplina-izaera dutela aitortzea gogoko ez duten arren, Richard Johnsonek 80ko hamarkadan eman zien *mugimendu* edo *sare* definizioa egokia suerta dakiguke (1986-1987: 38). Hainbat jakintza-esparruren eraginez hornituak, ikasketa kulturalak eklektikoak, heterogenoak, irekiak, malguak eta mugikorrak dira. Horixe da, hain zuzen, batzuek «diziplina» kategoria onartu nahi ez eta «ikasketak» kategoria egokiago ikustearen arrazoia. Eta, egia esan, aipatutako azkeneko terminoa hobeto moldatzen zaio haien izaera eta jarrera ikertzaileari. Ikasketa kulturalak diziplina ezberdinen arteko bat-egitetik eta hartu-emanetatik sortu ziren. Kontaktu horiek egiten ari zirenean, 1956. urtean Hungariako Iraultzaren eta Suezko Kanalaren nazionalizazioaren harira sortutako gatazkekin Erresuma Batuko intelektual ezkertiar askoren komunismoarekiko atsekabea areagotu egin zen eta batzuek Alderdi Komunista utzi egin zuten (Inglis, 1993: 1, 2 eta 3. atalak). Pentsalari kritiko horiek, ordena hegemonikoaren aurrean, Estatutik at dauden espazio bezala ulertzen diren kultura popularrari eta herriko tradizioari zuzendu zieten begirada. Kultur adierazpen horiek

naturaltzat eta espontaneotzat jo zituzten, eta horien bidez herriaren ahotsa era gardenagoan eta benetakoagoan adierazten zela pentsatu zuten.

Ikasketa kulturalen taldean koka dezakegun lehenengo lana 1957. urtean agertu zen Richard Hoggarten eskutik: *The Uses of Literacy* (*Alfabetatzearen Erabilerak*). Bertan bi mundu-gerren arteko garaia II. Mundu Gerra ondorengo testuinguruarekin konparatu zuen. Liburu horretan, Ingalaterrako masa-kulturaren eragina aztertu zuen, eta eragin handi horren azpitik herri-tradizioari lotutako aurretiko ohiturek bizirauten zutela argudiatu zuen. Bestalde, kultura popularraren aberastasuna eta balioa, eta horrek kultura industrialari erakutsitako erresistentziaren hausnarketa beste lan garrantzitsu batean aurki dezakegu: Raymond Williamsen *Culture and Society* (*Kultura eta Gizartea*) (1958) obran hain zuzen. Aditu galestarrak XVIII. mendetik XX. mendera arteko «kultura» kontzeptuaren genealogia bat egin zuen. Forma kulturalak gizarte-prozesu sakonen manifestazioak direla proposatu zuen: praktika eta forma kulturalak pertzepzio-sistemen adierazle diren ikusmolde eta jarreren materializazioak direla adierazi zuen. Kulturaren eta ideologiaren artean dagoen harremanarekiko ardurak eraman zuen 1961. urtean *The Long Revolution* (*Iraultza luzea*) lana argitaratzera. Bertan azpimarratu zuen hezkuntza- eta komunikabide-sistemek jokatzen duten papera gizarte-aldaketetan.

Idazle horien lan eta planteamendu berritzaileek eta iraultzaileek bultzada hartu zuten 60ko hamarkadan zehar. Haien lanak garatuz eta ideiak hedatuz joan ziren, bereziki britainiar unibertsitate txiki eta xumeetan. 1960. urteko *New Left Review* aldizkariaren sorrerak eta, bereziki, lau urte beranduago, 1964. urtean Birminghameko *Centre for Contemporary Cultural Studies*-en sorrerak aipatutako hedapen horretan lagundu zuten. Ikasketa-zentro horretan topo egin zuten intelektualek bi gauza zituzten komunean: konpromezu politiko sakona eta ordura arteko historiografia ortodoxoak gutxietsi zituen gaiekiko interesa. Hurrengo urteetan, kultura popularraren manifestazio ezberdinen inguruko lanak biderkatu egin ziren. Lanotan eguneroko bizitzari eskaini zioten arreta, herri xeheak testuinguru politikoarekin eta ekonomikoarekin duen hartu-emanari so eginez. Klase-ideologiaren, arrazaren, generoaren, etnizitatearen edota komunikabideen garrantzia eta eragina landu zituzten, betiere garai bakoitzeko testuinguru soziokulturalarekin lotuz.

Stuart Hall izan da ikasketa kulturalen belaunaldi berri baten adierazle garrantzitsuenetarikoa. Hallek mezuaren igorpenaren inguruan sakondu zuen: errealitatearen esangura eta ulertzeko moduak ez daude soilik lengoaiak eta komunikabideen igorpen erak baldintzatua. Haren ustez hartzailearen subjektibitatea ere kontuan izan behar dugu. Gizonek eta emakumeek mezua, beren esperientzien, balioen, sinesmenen eta abarren arabera deskodetu eta esangura bat *burutu* egiten dute. Hortaz, Hallen ustetan, testuingurua eta hartzailea kontuan izanda, testuak irakurketa anitz izan ditzake (1980: 128-138). Adituaren proposamenei jarraituz, aipaturiko subjektibitate horretan barneratuz, ideologiak gure inguruan gertatzen dena nola jasotzen dugun eta esperientziari aurre egiteko daukagun modua baldintzatzen ditu. Hala ere, haren

esanetan, «ekoizpen kapitalistako harreman ekonomikoen barruan okupatzen dugun tokiaren arabera ideologia bat edo beste bat automatikoki eta duda gabe agertuko dela bermatzen duen legerik ez dago» (Hall, 1998: 32). Gizataldeen eta ideologien artean artikulazio bat gertatzen dela planteatu zuen aditu jamaikar-britainiarrak. Hala ere, eta Ernesto Laclau bezalako intelektualen proposamenen eraginez, une oro, testuaren esangura garai bakoitzeko testuinguru sozialarekin egiten duen artikulazioak baldintzatuko duela proposatu zuen.

Bestalde, Stuart Hallek Gramsciren hegemonia kontzeptua berreskuratu egin zuen. Haren ustez, komunikabideen bidez Estatuak balio eta esangura jakin batzuk inposatzen ditu eta era horretara lortzen du gizartean *statu quo*arekiko adostasun eta onartze-jarrera orokortu bat garatzea. Prozesu hori gertatu eta diskurtso ofiziala inposa dadin, beharrezkoa da aurreko gizarte-egituren aztarnak ezabatzea edo ahaztaraztea. Horrekin guztiarekin, nolabait, etorkizunean ikasketa kulturalek hartuko zuten joeraren ibilbidea adierazten ari zen Stuart Hall: indar hegemoniko sozialen eta kulturalen ikerkuntza eta horrekiko erresistentziak bilatzea. Hau da, orokortutako ereduetatik kanpo geratzen zena, ezberdina zena, hibridoa eta heterogeneoa zena bilatzea (Hall *et al.,* 1978: 208-217; Maqueda Cuenca, 2003: 65-71).

Kulturarekiko interesa beste jakintza-arlo eta munduko beste hainbat herrialdetara ere hedatu zen. Dena den, eta gaur egun munduko herrialde askotan zehar aurki ditzakegun arren, ikasketa kulturalek herrialde anglosaxoietan daukate beren eragin sendoena, bereziki Amerikako Estatu Batuetan (Mattelart eta Neveu, 2004: 47-57)[11]. AEBko *cultural studies*ek ezaugarri propioak dituzten arren, britainiarren oinordeko edo zordun dira. Gaur egun kolektibo murriztuekin, multikulturalismoarekin eta arrazaren, generoaren eta boterearen azterketarekin lotzen dira Ipar Amerikako *cultural studies*ak. Kolektibo gutxituak ikerketa akademikoen barruan sartu dituzte eta gizartean nagusi diren ikuspuntuekin, produkzioekin edota joerekin duten hartu-emana lantzen dute batik bat. Lau ataletan laburbildu genezake iparramerikarrek gehien jorratu dituzten esparruak. Lehenik eta behin, aurreko azpiatalean aipatu ditugun ikasketa postkolonialei buruzko lanak *cultural studies*en ikuspuntutik egin dira Ipar Amerikan: Mendebaldekoak ez diren kulturen inguruan mendebaldarrok egiten ditugun irakurketa desitxuratuak agerian utzi nahi dituzte. Bigarrenik, «menpekotasun-egoeran» dauden edo botererik gabeko eta ahotsik gabeko kolektiboen inguruko lanak genero-, arraza-, klase- edo kultura-ezberdintasunaren azterketan zentratzen dira. Hego Amerikarekin lotutako gaien inguruan garapen bereziki aberatsa izan du lan-esparru horrek, eta Ipar Karolinako Durhamen dagoen Duke University funtsezkoa izan da «Hego Amerikako ikasketa subalternoak» garatzeko. Hirugarren lan-esparru batean kokatuko genituzke kolektibo gutxituen diskurtsoak aztergai dituzten lanak. Hor aurkituko ditugu diskurtso eta historia

11. Europa kontinentalean, adibidez, egon badaude, baina ez dute presentzia garrantzitsurik (During, 2005: 19-26). Espaniari dagokionez, haien presentzia oso mugatua da, nahiz eta geroz eta gehiago diren beren ikerketak *cultural studies*en eremuan kokatzen dituztenak, eta 2005. urtean aldizkari bat ere agertu zen: *La Torre del Virrey* (Brinkmann, 2004: 191-202).

ofizialek isilean mantendu dituzten ahotsak. Memoria eta oroipenak aztergai dituzten ikerketok ekarpen garrantzitsuak egin dituzte diktadura osteko garaien inguruan. Azkenik, «hibrido»aren analisiak aipatu beharko genituzke. Lan horiek mahai gainean jartzen dute identitateak ez direla mugiezinak. Alderantziz, dinamikoak eta eragin anitzek eraikiak direla planteatzen dute. Kolonialismoak eta globalizazioak, gainera, identitate hibridoen eta mugikorren zabaltzea dakartela ohartarazi dute.

Ikasketa kulturalek kulturaren kontzeptu berri bat jarri dute analisiaren erdigunean. Kulturarekiko ardura duen *mugimendu* horren jaiotza lotua dago marxismoari —eta beranduago marxismo estrukturalistari ere bai— zuzendutako kritikarekin, eta horren harira egin zen kulturarekiko kontzeptualizaio berriarekin. Lehenengo ahots kritikoek, egituraren eta gainegituraren metaforaren barruan, kulturari autonomia handiagoa emango zioten arren, kultura klase hegemonikoek beheko klaseak menperatzeko tresna bezala ikusten jarraitu zuten. Ikasketa kulturalek kulturaren inguruan duten ideia malguagoa, irekiagoa eta dinamikoagoa da. Zentzu horretan, ikerketa-joera hori estrukturalismoari egindako kritika postestrukturalistetatik gertu kokatzen da, eta kultura praktika-sare konplexu eta zabal bat bezala ulertzen dute. Nozio horren barruan sartzen da norbanakoarena eta kolektiboa den imajinario baten eraikuntzan parte hartzen duten sinboloen multzoa (Barthes, 2002: 199-201). Produktu horiek mundua *gu* eta *haien* artean banatzen duen imajinarioa eraikitzeko balio dute eta horrela erabiltzen dituzte komunitateek. Hots, mundua ordenatzeko eta esangura emateko tresnak dira. Beraz, kultura zera litzateke, forma anitz hartzen dituen zerbait, gizartearekin eta politikarekin etengabeko hartu-emanean dagoen zerbait: bizimoduak, jarrerak, praktikak, hizkuntzak, botere-erakundeak, forma artistikoak, testuak, arkitektura, irudiak, kontsumo-artikuluak… (Williams, 2003: 87-93). Definizio horretan sartuko lirateke pintxoak, lehiakortasuna, *Coca-Cola*, Mikel Laboa, «I am Basque» eslogana, Guggenheim museoa edo Donostia. Bestalde, ikuspuntu berri horien arabera, «testuek eta praktika kulturalek ez dute aurre-ezarritako esangurarik, testua bera da esangura ezberdinak artikulatzen direneko espazioa, bertan gertatzen dira momentu bateko borroka ideologikoak, bertan irabazi edo galtzen da hegemonia» (Hall ed., 1997: 3-6).

Beraz, ikasketa kulturalen arabera, dinamikoa den eta erabateko mugimenduan dagoen zerbait bezala definituko genuke kultura, bizitzaren eremu guztietara iristen den zerbait. Kultura-produktuek ez dute esanahi finkorik, ez denboran zehar, ezta garai berberaren barruan ere, kontsumitzaile ezberdinen arabera aldakortasun-egoera etengabean dagoen zerbait baitira. Hortaz, ezin diogu inongo esanahi edo irakurketa aurre-adosturik ez eta inongo balio absolutu edo aurre-ezarririk ere egotzi artefakto kultural bati (Jenks, 1993: 157-158). Bukatzeko, *cultural studies*etatik aritzen diren adituek ohartarazten digute gizartea eta norbanakoak kulturarekin elkarrekintza egonkorrean daudela, eta kulturak gure subjektibitateen eraikuntzan eta ekintzetan eragiten duela. Elkar-eragite horretan, bai kultura bai subjektibitateak hauskorrak, ezegonkorrak, malguak eta pluralak dira eta egoera aldakor konstantean daude.

Zentzu horretan, kultura aldaketak eragiteko gaitasuna daukan botere-elementutzat jotzen dute joera edo mugimendu horrekin bat egiten dutenek.

Kulturaren inguruko kontzeptualizazio horren adostasuna orokortua dela esan genezake; baina hortik aurrera, aniztasuna eta pluraltasuna dute *cultural studies*ek ezaugarri. Hala ere, ikerketa-joera horren bereizgarriak definitze aldera, ildo orokor bat marraztu dezakegu: jakintza-arlo ezberdinen arteko hartu-emanean kokatzen dira, askotariko gorputz teorikoak erabiltzen dituzte, ikerketa bakoitzaren neurrira eratutako metodologietara jotzen dute eta gai-aniztasuna dute ezaugarri.

Aipatutako jakintza-arlo ezberdinen arteko hartu-emanak filosofia, filologia, historia, antropologia, soziologia eta bestelako disziplinen arteko topaleku ireki bihurtu du ikasketa kulturalen praktika. Eremu anitzetatik abiatzen diren ikuspuntuak elkarrekin bizi, elkarren aurka egin eta eztabaidatzen direneko esparru plurala da. Izan ere, mundu postmoderno, aldakor eta global baten barruan jaioak izanik, ikasketa kulturalek uko egiten diote epistemologia tradizional bat jarraitzeari eta, hortaz, beren lanak diziplina bakar batek ezartzen dituen «arauetara» mugatzeari. Haien ustez, horrek, ezaugarri duten ikuspuntuen pluraltasuna eta malgutasuna baldintzatuko eta murriztuko luke. Hortaz, ez diote inongo metodologiari lehentasunik ematen, eta ez dute bat ere baztertzen. Era horretara, testuen analisia semiotikatik, etnografiatik, dekonstrukziotik, estatistikatik, filosofiatik, elkarrizketetatik, fonetikatik, psikoanalisitik, ahozko historiatik eta abarretatik egiten dute. Horrekin guztiarekin lotuta, zenbaitek anti-metodologikoak direla esaten duten arren, beste batzuek teorikoki eklektikoak bezala definitu dituzte (Couldry, 2000: 1-19). Diziplinartekotasunak ematen die ikasketa kulturalei, hain zuzen ere, bereizgarri duten eta beren identitate-ikur nabarmenena den zehazgabetasun-kutsu hori.

Ikasketa kulturaletan diharduten adituen ustez, metodologia bakoitzak eskaintzen dituen tresnez baliatuz burututako begirada tangentzialetatik eta heterogeneoetatik abiatuz baino ezin da kulturaren mundu zabala —eta horrek boterearekin duen harremana— aztertu. Ikerketa-lan bakoitzak dituen beharrizanen arabera, metodologia bat edo bestea erabiltzen dute. Beraz, analisiaren eta hausnarketaren praktikarekin berarekin gorpuzten den metodologia bat da ikasketa kulturalek erabiltzen dutena: analisiaren helburu diren testuei zer galdera egiten zaizkien, horrelako metodologia hartzen da (Johnson, Chambers, Raughuram eta Rincknell: 2004: 2-4). Ildo beretik, edozein kolektiboren kultura-adierazpenaren analisian murgiltzeko, jakintza-esparruen arteko gurutzamenduetan ibiltzea egokiena dela azpimarratu dute. Era horretara, diziplina bakoitza bere kabuz ezin iritsi daitekeen muga-eremuetara iristea posible da (Martin, 2005: 34). Proposamen horiei jarraituz, ikasketa kulturaletatik abiatutako ikerketek beren proiektuak burutu ahal izateko baliagarri zaien edozein jakintza-eremutatik hartzen dituzte beharrezkotzat jotzen dituzten tresnak (Turner, 1992: 650). Izan ere, jakintza-alor ezberdinetan mugitze horrekin loturik dago *cultural studies*en bereizgarri den gorputz teoriko anitzen erabilera. Eragin teoriko ezberdinak izan dituzte: marxismoa, teoria feminista, psikoanalisia, estrukturalismoa,

postestrukturalismoa edo postmodernitatea, garrantzitsuenak aipatzearren. Orain arte azaldutako pluraltasunaren, eklektizismoaren eta heterogeneotasunaren barruan, ikasketa kulturalek zenbait teorikoren eta pentsalariren eragin nabaria eta argia daukate. Ikasketon ibilbidea eta izaera markatu duten pentsalarien zerrenda luzean Freud, Heidegger, Gramsci, Benjamin, Derrida, Foucault, Althusser, Bordieu, Ricoeur, Lacan, Deleuze, De Certeau, Debord, Barthes edo Badiou daude.

Metodologia eta teoriaren esparruan gertatzen den bezala, gaiei dagokienez ere, eremu tematiko oso zabalak lantzen dituzte ikasketa kulturalek. Jarraitzen duten kultura-kontzeptu zabalari eutsiz, ez dira historia intelektual bat egitera mugatzen eta gizakiek pentsatu, idatzi edo irudikatu dituzten gauzekin konprometiturik daude. Horretarako, haien lanen erdigunean kokatzen da narratiben azterketa: testuen hizkuntzan, kontzeptuetan aurkitzen dira garai jakin bateko praktikak, prozesuak eta esangurak. Azken finean, testuak egileek zein haien garaikideek mundua ulertzeko eta pentsatzeko duten formaren adierazle dira. Edozein euskarritako —izan eleberria, poesia, irudia, iragarkia, abestia, zinema…— testuaren azterketa da gizarte baten balioetara, arduretara, antsietateetara edo ametsetara hurbiltzeko giltza. Subjektu historikoen subjektibitatean barneratzeko giltza dira. Kultura errealitatearen eremu guztiei dagokionez, gizartearen egunerokotasunarekin lotura duen edozein gaik merezi du, haien ustez, arreta: generoa eta sexualitatea, nazionalismoa eta identitate nazionala, kolonialismoa eta postkolonialismoa, arraza eta etnizitatea, kultura popularra eta haren kontsumitzaileak, zientzia eta ekologia, identitate-politikak, pedagogia, estetika-politikak, kultura-erakundeak, diskurtso eta testualitatea, historia, globalizazio-garaiko kultura, eta abar eta abar (Storey, 2003).

Laburbilduz, ikasketa kulturalen funtsa kulturaren kontzeptu zabal eta irekian, eta mundu garaikidearekiko ikuspuntu kritiko eta konprometituan oinarritzen da. Eta, zentzu horretan, metodologia edo jakintza-esparru bat baino areago, ikerketarekiko, kulturarekiko eta gizartearekiko jarrera bat dela esan genezake: balio absolutu eta aurre-finkatuei uko egiten dien jarrera bat (Jenks, 1993: 157-158). Beraz, jakintza-alor, *mugimendu* edo jarreratzat hartuta ere, esan dezakegu ikasketa kulturalek heterogeneotasuna eta malgutasuna dituztela ezaugarri, teoria eta metodologia berriei irekia dagoen diziplina osatzen duela, zeina etengabeko aldakortasun egoeran dagoen, eta bere garaikideekin etengabeko hartu-emana bultzatzen duela.

2.4. EMOZIOEN HISTORIA

Gaur egun autore batzuek diotenez, biraketa emozional baten aurrean egon gaitezke (Plamper, 2010). Historiografia-lan batzuek (Pampler, 2014; Burke, 2005) emozioen historiaren aurrekariak XX. mendeko lehen erdian argitaratutako zenbait obratan (Huizinga, 1930; Elias, 1939; Febvre, 1941) kokatzen dituzten arren, azken urteetan ari da garrantzi handia hartzen mundu akademikoan. Alde batetik, korronte horri atxikitako lan anitz argitaratu da, eta, bestetik, instituzionalizazio-prozesu bat ere

egiten ari dela esan genezake. Horren adibide dira hainbat unibertsitatetan emozioen ikerketan aritzen diren departamentuen eta zentroen sorrera eta proiektu desberdinen finantzazioa. Egiatan, emozioak diziplina akademiko desberdinetatik landuak izan dira, bai gizarte-zientzietatik eta humanitateetatik baita bizitza-zientzien arlotik ere. Historiaren barruan ere emozioen historia hainbat ikuspuntu teorikotatik jorratu da, joera bakoitzak bere esparru teorikoa du eta modu jakin batean ulertzen ditu emozioak. Díaz Freire historialariak, bere aldetik, azpimarratu du egunotan korronteak bizi izan duen aipatutako hazkundea historiografia postmodernoaren eztabaiden testuinguruan kokatu beharra dugula (2015). Zehatzago, esanahiarenganako hurbilketaren inguruan egin diren hausnarketetan. Badago, aitzitik, emozioen historiaren ekoizpena, beste arloekin alderatuta, oso txikia dela esaten duenik (Goukek eta Hillsek, 2005).

60ko hamarkadara arte emozioak, oro har, objektu biologiko edo natural gisa ulertzen ziren. Hamarkada horretan, hain zuzen ere, sozio-konstruktibismoaren eskutik emozioak azaltzeko esplikazio berriak sortu ziren. Arnold (1960), Schacthter eta Singer (1962) eta Harré (1986) adituek, adibidez, emozioak —ordura arte zientzia biologikoen objektua zirenak— gizarte-zientzien ikerketa-objektu bilakatu zituzten. Schachterren eta Singerren ekarpena esanguratsua izan zen, gerora hain garrantzitsua izango zen emozioen ezaugarri bat azpimarratu baitzuten, horien aspektu kognitiboa, alegia. Bestalde, 70eko hamarkadan Annales eskolaren hirugarren belaunaldiak mentalitateen inguruan zuen interesak eragina izan zuen emozioen historiaren garapenean. 60ko eta 70eko hamarkadetan, antropologo kulturalistek ere, emozio unibertsalen ideiarekin apurtzen zituzten lanak plazaratu zituzten. Azkeneko ekarpen horiek historiaren arloan eragina izan zuen emozioen esentzialtasunaren ideia zalantzan jartzen lagundu zuten. Horren harira, ikerketa feministek ere emozioen kontzeptualizazioa birpentsatzen lagundu zuten, emozio estereotipatuak (adibidez, emakumeak sentiberak eta gizonezkoak emoziorik gabekoak direla diotenak) salatuz eta haien izaera kulturala —beraz, eraikia— agerian utziz. Bestalde, emozioen historia egiten duten aditu postmodernoek uste dute emozioak gizakiok mundu sozialari emandako esanahiak hobeto ulertzeko «tresna» direla.

Emozioen historiaren ahultasunetako bat, Zaragozaren ustez, ikerketa-objektua definitzeko zailtasuna da. Arazo hori, gainera, emozioen problematizazio ezarekin lotzen du, zeina era berean natura *versus* kultura eztabaidarekin lotua dagoen. Zaragozaren aburuz, galdera gakoa honako hau litzateke: emozioak gertaera naturalak dira eta, hortaz, historiarik gabekoak, edota historian zehar aldatu diren eraikuntza sozialak dira? (Zaragoza, 2013: 2). Historiaren alorrean gailentzen ari den ikuspuntua bigarrena da, emozioek historia dutela baieztatzen duena, alegia. Dena den, adostasuneko printzipio horren ondoren, pluraltasuna nagusitu egiten da. Pluraltasun horren erakusle da jarraian ikusiko dugun kontzeptualizazio-aniztasuna, zenbait autorek iraganeko gizarteak hobeto ulertzen laguntzeko proposatu duten terminologia, alegia. Kontzeptu horietako bakoitza korronte edo paradigma bati dagokio, eta eragin handiena izan dutenak, hala nola *emotionology*, *emotive/ erregimen emozionalak* eta *komunitate emozionalak,* hemen jorratuko ditugu.

Peter Stearnsek eta Carol Stearnsek 1985ean *emotionology* deituriko teoria garatu zuten «Emotionology: Clarifying the History of Emotions and Emotional Standards» («Emotionology: Emozioen historia eta arau emozionalak argituz») lanean. Norbert Eliasen zibilizazio-prozesuaren ideietan oinarritutako planteamendu hori historia sozialaren testuinguruan txertatzen zen. *American Historical Review* aldizkarian argitaratutako artikulu horretan, emozioen esperientzia indibidualaren eta arau emozionalaren arteko bereizketa egin zuten. Horretarako, emozioak eta *emotionology* bi kontzeptu analitikoen arteko bereizketa proposatu zuten. Bi instantzien arteko bereizketa egin zuten arren, elkarri eragiten ziotela onartu zuten. Euren lanean Stearnsdarrek antropologia kulturalaren, psikologiaren edota soziologiaren eraginez zera argudiatu zuten: gizarte guztiek edota talde sozialek adierazpen eta jarrera emozionalak erregulatzen dituen sistema normatiboa, *emotionology* delakoa, zutela. Autoreek historialarien ikerketa-objektua *emotionology* horrek izan beharko lukeela planteatu zuten. Hala, gizarte osoaren sentimenduen espresioa edo adierazpena gobernatzen zuen aparatu arautzailean jarri zuten euren arreta. Bestalde, emozioen eta *emotionology*aren arteko bereizketak baino ez luke ahalbidetuko esperientzia emozionala neurtzea edo ezagutzea (Stearns, 1985: 825).

Autore horiek izaera historikoa eman zieten arau emozional horiei; beraz, denboran zehar aldatzen joango liratekeen instantziak dira haien ustez. Haiek proposatutako *emotionology*aren teoriak zera zuen helburu: argitzea ea emozioen adierazpen- edota errepresio-arauen aldaketek bestelako aldaketa sozialak azal zitzaketen, edota, alderantziz, argitzea ea zein neurritan ziren aldaketa sozialak arau emozional berrien agerpenaren arduradun. Hala, armadak, eskolak edota familia eta senar-emazteak ikerketaren interesgune bilakatu ziren. *Emotionology* edo arau emozional dominanteak ulertzeko, nola sentitu aholkatzen duen literatura aztertzea proposatu zuten, eta pertsonek *benetan* sentitzen zutena, hots, esperientzia emozional indibiduala ezagutzeko, berriz, egunerokoen, eskutitzen eta abarren analisia egitea planteatu zuten. Hala, arau emozionaletan emandako aldaketak edota arauen eta esperientziaren arteko egokitasuna edo egokitasun eza ezagutu genitzake.

Bestalde, William Reddyk garatutako marko teorikoak *emotive* eta erregimen emozional kontzeptuak ditu giltzarri. Historialariaren «Against Constructionism: The Historical Ethnography of Emotions» («Konstrukzionismoaren aurka: emozioen etnografia historikoa») (1997) eta *Navigation of Feeling: A Framework for the History of Emotions* (*Sentimenduen nabigazioa: Emozioen historiarako egitura*) (2001) lanetan aurkitzen ditugu haren proposamenaren ildo nagusiak. Reddyren aburuz, diskurtsoaren teoria postestrukturalistek edota Bourdieu, Giddens eta beste autore batzuen lanetatik eratorritako «praktika» kontzeptu desberdinek ez dituzte emozioen ahozko adierazpena eta imintzio emozionalak behar bezala azaltzen, ez baitute haien izaera dinamikoa azpimarratzen. Hau da, praktika kontzeptu desberdin horiek ez dute ahalmenik hitz egiten duenaren egoera aldatzeko (Reddy, 1997: 327). Historialariak, gabezia edo hutsunetzat hartzen duen hori gainditzeko asmoz, adierazpen emozionalen teoria garatzeari ekin zion. Horrela, *emotive* delako

kontzeptua sortu zuen. *Emotive*a adierazpen emozionala izango litzateke eta izaera performatiboa aitortzen dio. Reddyren aburuz, *emotive* delakoaren ezaugarririk esanguratsuena zera da: emozioen adierazpenek emozioengan, berengan, eragin handia dutela. Azken batean, *emotive*a hizketa-ekintza izango litzateke, deskribatu eta, aldi berean, aldatu egingo lukeen adierazpen bat. Hala, kontzeptu horrek izaera deskribatzailea izateaz gain, eraldaketa-efektua ere sortuko luke. Adibidez, indibiduo batek «pozik nago» esatean prozesu bat jarriko litzateke martxan, zeinak erreferentzia egiten dion sentimendua bera hobe dezakeen eta sentimendu horrekin gatazkan egon —eta hortaz gutxitu— daitezkeen beste sentimendu batzuk geldiaraz ditzakeen (Reddy, 2001: 101-5).

Lehenago aipatu dugun 2001ean plazaratutako *Navigation of Feeling* lanean azaldu berri dugun lengoaiaren filosofian oinarritutako teoria garatu zuen. Ordutik aurrera emozioen historialariak erabiltzen hasiko ziren kontzeptu teorikoak sortu zituen: *nabigazio emozionala*, *babesleku emozionala* edota *askatasun emozionala*, besteak beste. Horien guztien artean, eragin handiena izan duen kontzeptua e*rregimen emozionala* izan da. Kontzeptu horrek hauxe adieraziko luke: testuinguru jakin batean indarrean dauden emozio normatiboen, erritualen, praktiken, eta adierazten diren eta sustatzen diren *emotive*n multzoa. Foucaulten ideietan oinarrituta, termino horrek muga batzuk sortuko lituzke, baina ez luke izaera zapaltzailea izango soilik, baizik eta produktiboa ere. Hala, *emotive*ak biobotereak bezala jardungo luke, besteen aurrean ulergarri egingo gintuzketen adierazpen emozional era normalizatuak edo arautuak sortzen. Izan ere, gure jarrerak, erritualak edo praktika emozionalak ulergarriak badira, garai bateko edo talde sozial baten adierazkortasun emozionalekin bat egingo dute. Zentzu horretan, erregimen emozional bat erregimen politiko bat ere izan daiteke. Reddyren aburuz, bereizketa bat dago emozioaren esperientzia fisikoaren eta emozio horren hitzekin egindako adierazpenaren artean. Bereizketa edo arrakala horretan kokatuko lirateke, hain zuzen ere, botere-jarduera, giza agentzia eta esanahi historikoa. Laburbilduz, *emotive* kontzeptuarekin Reddyk emozioen inguruan adierazten denaz baino haratago joan nahi zuen, emozioen esperientzia bera aztertuz (Plamper, 2014: 24).

Bukatzeko, Barbara Rosenweini zor diogu *emotional communities* delako kontzeptua. 2002 urtean sortu eta bere lanik ezagunena den *Emotional Communities in the Early Middle Ages* (*Komunitate emozionalak goi erdi aroan*) (2006) obran garatu zuen kategoria horren inguruko proposamen teorikoa. Emozioen historian diharduen historialari mediebalista horrek *eredu hidraulikoa*ren teoria salatu zuen, zeina Erdi Aroko emozioen historiaren barnean *narratiba handia* deitu zuen (Rosenwein, 2002). Johan Huizingak eta Norbert Eliasek, bakoitzak bere aldetik, proposatutako emozioen eredu hidraulikoaren arabera, Mendebaldeko historia emozioen kontrolaren areagotze progresiboaren historia da. Narratiba horren aurrean Rosenweinek proposatutako komunitate emozionalen kontzeptuak erreferentzia egiten die adierazpen emozionalen arau berak partekatzen dituzten, emozio berberak edo antzekoak balioetsi ditzaketen eta adierazpen-estilo berdinak dituzten taldeei

(Rosenwein, 2006: 2). Hein handi batean, berak sortutako terminoa deskribatzen duenean, komunitate sozialak balira bezala deskribatzen ditu: familiak, auzoak, ofiziale-elkarteak, monastegiak eta abar. Bakoitzak komunitate emozional bat osatuko luke. Zentzu horretan, historialariek komunitate emozional horietan dauden «sentimendu-sistemak» —*systems of feelings*— aztertu behar dituztela proposatzen du: komunitateek eta bertako gizabanakoek zer definitzen eta ebaluatzen duten baliotsu edo kaltegarri bezala; zer ebaluazio egiten duten besteen emozioen inguruan; elkar ezagutzen duten pertsonen artean dauden lotura afektiboen izaera, eta pertsona horiek espero, sustatzen, onartzen eta deitoratzen dituzten adierazpen emozional motak (Rosenwein, 2002: 842). Aipaturiko guztia kontuan hartuta, autoreak berak onartu du komunitate emozionalak, moduren batean, Foucaultek erabiltzen duen diskurtso nozioaren baliokideak direla, «elkarbanatutako hitz edo pentsamendu sistema [dela], zeinak kontrol-funtzioa, funtzio diziplinarioa, duen» (Rosenwein, 2007: 25).

Gure gertuko alor akademikoan ere emozioen historiak gero eta presentzia handiagoa du. Espainiako unibertsitateetan emozioen historia hainbat ikuspuntu desberdinetatik jorratzen dituzten hainbat ikerketa-talde daude. Produkzio historiografikoa ere gero eta zabalagoa da eta horren seinale dira azken urteetan aldizkari espezializatu ezberdinetan plazaratu diren dosierrak: 2014an *Cuadernos de Historia Contemporánea* delakoan argitaratutako «Historia de las emociones» eta 2015ean *Ayer*, *Rúbrica Comtemporánea* eta *Historia Social* aldizkarietan kaleratutako «Emociones e historia», «Història de les emociones» eta «Del uso de las pasiones: la civilización y sus sombras», hurrenez hurren. Azken urteetan, testuinguru akademiko horretan, emozioen historiaren korronte zabalaren barruan joera desberdinetan kokatzen diren adituen ikerketa-lanek argia ikusi dute. Adibidez, Javier Moscosok, Hist-Ex ikerketa-taldeko aditua denak, esperientziaren izaera kulturalki esanguratsua posible egiten duten baldintzekiko eta emozioak posible egiten dituzten forma kulturalekiko interesa du. 2011n argitaratu zuen minaren esperientzia historikoaren inguruko gogoeta egiten duen *Historia cultural del dolor* (*Minaren historia kulturala*) lana. Bere aldetik, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko irakaslea den Juan Prok ere emozioen historian txertatzen diren lanak plazaratu ditu. Horietako bat «Mujeres en un estado ideal: la utopía romántica del fourierismo y la historia de las emociones» (Emakumeak egoera ideal batean: fourierismoaren utopia erromantikoa eta emozioen historia) dugu. 2015ean argitaratutako lan horretan Cadizko talde fourierista baten azterketatik abiatuta, *erromantizismoa* mugimendu artistiko, literario eta kulturala izateaz gain, hasiera batean estilo emozional bat eta geroago erregimen emozional bat ere izan zela planteatu du —Peter Stearnsen eta William Reddyren eragin argia ikus dezakegu—. Granadako Unibertsitateko Rosa Medinak, bestalde, frankismoko lehen aldian zehar maitasunaren inguruan indarrean zeuden diskurtsoak aztertu ditu *Ciencia y sabiduría del amor* (*Zientzia eta amodioaren jakinduria*) liburuan (2013). Errealitatea ulergarri egiteko zilegitasuna zuten ohiko diskurtsoez (zientifikoak edo medikoak) gain, emakumeei zuzenduriko

Meridiano Femenino aldizkariko maitasun-aholku sailean argitaratutako eskutitzak ere aztertzen ditu. Ikerketa horren bitartez, klase ertaineko emakumeak eta zenbait gizon, erregimen frankistaren maitasunaren inguruko egia-erregimenaren aurrean, beste ezagutza emozional bat produzitzeko gai izan zirela argudiatu du.

Euskal Herrian ere sortu dira lan garrantzitsuak eta esanguratsuak emozioen historiaren eremuan. Joera hori lantzen duen historialarietako bat Mercedes Arbaiza EHUko irakaslea da, zeinak Espainiako langile-klasearen sorrera gertaera emozional bat bezala definitu duen. 2015ean plazaratutako «Cuerpo, emoción y política en los orígenes de la clase obrera en España (1884-1890)» («Gorputza, emozioa eta politika langile klasearen jatorrian Espainian (1884-1890»») lanean, langile-mugimenduaren subjektu politikoaren sorrera esperientzia emozional baten emaitza izango litzatekeela adierazi du. Hala, adituaren aburuz, XIX. mendearen amaieran sozialismoaren gogatzeko ahalmena ez zegoen bere proposamenaren koherentzian, baizik eta proposamen horren harreran, aurretik sortutako *langile-komunitate emozional*arekin bat egiteko izan zuen ahalmenean. Hau da, diskurtso sozialistak arrakasta izan zuen, langileen haserrea edota amorrua bezalako emozioei esanahi politikoa eman zielako. Hala, imajinario liberalaren aurrean eta emozioen politizazioaren bitartez, klase-edukia eman zion makurrarazitako komunitateari.

3. atala. Iturriak

Artxiboa izan zen Rankek historia objektiboa egiteko aldarrikatu zuen gune sakrosantua. Ordutik bertan gordetako dokumentu idatziari nolabaiteko objektibotasun-kutsua aitortu izan zaio. Artxiboan, kategoria zurrunei jarraituz «egitateak» biltzen dira: espediente eta dosier judizialak, jaiotza-agiriak, ezkontza-agiriak, kontuak, herentziak, dokumentu administratiboak… Historiagileak erreskatatzen dituen errealitatearen puskak gordetzen dira, ondoren kuantifikatzeko, deskribatzeko eta azaltzeko. Gaur egun oraindik osasuntsu jarraitzen duen premisa horren aurrean, hainbat galdera egiteak zilegi dirudi: zer motatako dokumentuak gorde izan dira artxiboetan eta zergatik? Estatuen edo indar paralegalen errepresioa jasan duten kolektibo gutxituen esperientzia mingarriak zer artxibotan aurki ditzakegu? Sentimenduak artxiboko zein iturritan ageri dira? Artxiboko materialak al dira iraganeko errealitatearen isla?

Artxiboko materialek izugarrizko aberastasuna eskaintzen dutela ukaezina da, izan publikoak/ofizialak edo pribatuak. Baina hori onartzeak ez du esan nahi artxiboko dokumentua gainerako iturrien gainetik pribilegiatu behar dugunik. Edota bertan gordetzen ez dena ezin denik izan iragana hausnartzeko zilegizko iturria. Izan ere, egon dira, eta badaude, artxiboetan bildu ez diren iragan puskak, arrazoimen historiko konbentzionalari jarraituz klasifikagarriak ez diren materialak, baina iragana ezagutzeko berebiziko garrantzia dutenak. Atal honetan hiru iturri motari buruz arituko gara, aldarrikatuz badagoela iragana ezagutzeko hainbat motatako materiala erabiltzeko aukera, batzuetan, datu eta data ofizial mordoek ematen duten informazioa baino interesgarriagoa eta esaguratsuagoa suerta daitekeena. Hemen horietako hiru mota aztertuko ditugu: idatzizko iturri literarioan eta narrazio pertsonaletan oinarritzen diren kontakizunak, ahozko iturria eta zinematografikoa.

1. Idatzizko iturriak

Azpiatal honetan iturri literarioa, autobiografia eta gutun-liburua landuko ditugu. Horietako asko artxiboetan, batez ere pribatuetan, aurkitzen badira ere, badute bertute bereizgarri bat, hain zuzen: inongo dokumentu ofizialetan ageri ez diren eta datu objektiboen eremuan topatzen zaila den iraganeko subjektibitateen, ohituren zein mentalitateen eremura hurbiltzeko aukera bikaina eskaintzen digute (Canal, 2015: 15). Iturri mota hauek ez daude arazoez libre noski, baina artxiboko iturria ezta ere. Horrekin adierazi nahi duguna da, tratamendu desberdina eman behar diegun arren, artxiboko agiri judizialetatik lortzen dugun informazioa autobiografia literariotik lortzen duguna bezain partziala dela. Bata zein bestea erabili, haien bidez ez gara ustezko iragan errealera edo benetakora iritsiko, bata edo bestea ez direlako gertatutakoaren isla ezta ate irekia ere. Alderantziz, biak dira historiagileak interpretatu behar dituen iraganeko aztarnak.

1.1. LITERATURA

Nobela bat garai baten islatzat har dezakegu? Émile Zolaren *Germinal* (1885) nobela errealista XIX. mendearen amaierako meatzari frantsesen egoeraren isla da? Balzacen, Stendhalen edo Dickensen nobelek Frantziako eta Ingalaterrako XVIII. mendeko errealitate sozial gogorraren isla izateko asmoa zeukaten? Horrelako lanak ikertzerakoan, kontuan izan behar dugu zein izan zen egileen intentzioa, zein izan zen testuen harrera, zer-nolako eraginak izan zituzten gizartean eta gizabanakoengan, etab. Hala ere, ezin gara iturri horietara gerturatu iraganaren ezagutza gardena irekiko diguten ate gisa ulertuta. Izan ere, literatura-lanak ikertzean ez da hain garrantzitsua goiko galdera horiei erantzun zehatz eta objektiboak ematea. Bai, ordea, beren garaiari berezkoak zitzaizkion ikuspuntu batzuen adibide aberatsak direla eta egileen ezinegonak, pertzepzioak zein jasaten zituzten problemen inguruko ikuspegia eskaintzen dizkigutela ulertzea. Mota horretako informazioak berebiziko garrantzia dauka beste mota bateko iturriekin erkatuz gero, garaiko prentsarekin edo saio politikoekin, esaterako, garaiko atmosfera kultural eta politiko bati buruzko irudi bat egiteko aukera ematen dutelako.

Garai bateko sentsibilitate edo iruditeria bati buruzko informazioa emateaz gainera, nobelek eta gainerako lan literarioek (poesiek, saio laburrek, ipuinek…) irudimenaren mundua irekitzen digute. Garai bakoitzean imajinagarria den hori argitzen digute eta sarritan politikari, etikari edo zientziari buruzko kezkaz beterik

egoten dira. Aldous Huxleyk *Brave New World* (Bai *Mundu Berria*) 1932an kaleratu zuenean edota Geroge Orwellek *1984* (1949) idatzi zuenean etorkizun distopikoak irudikatzeko ariketa literario paregabea eskaini zuten. Bien lanek haien orainaldiaren ezinegonei buruzko informazioa eskaintzen digute: indibidualtasuna, askatasun politikoa edota kreatibitatea kolokan ikusten zituztela adierazten digute (Calder, 1976). Bietan, bakoitzak erakusten dituen berezitasunekin, garapenaren ideiaren eta aurrerapen zientifiko eta teknologikoaren arriskuen gaineko kezka da nagusi. Istorio mota horien erakargarritasunaren adierazle da zinemagintzaren agerpenaren garaitik etorkizun distopikoen argumentua zineman ere ustiatua izan zela. 1927. urtean kaleratutako *Metropolis* film goiztiarra esaterako, horren adibide da. Beranduago, Huxleyren eta Orwellen nobelek ere bertsio filmikoa izan zuten. Fikziozko eleberri horiek XX. mendeko lehenengo hamarkadetako gizarte garatuetan premiazkoak ziren ardurei heldu zieten irudimenaren bidez. Ez da kasualitatea, lehenengoa gerra arteko garaian idatzi izana, eta bigarrena nazismoaren zein estalinismoaren sarraskien ondorengo testuinguruan idatzia izana.

Egileen ardura politikoei buruzko informazioa eskaintzeaz aparte, garaiko gizartean kezkagarritzat jotzen ziren arazoak iker daitezke: nola berreraiki komunitatearen zentzua balio tradizionalak galtzean; kontsumismoaren garapenaren norabidea, teknologiaren erabilerak giza izatean izan zitzakeen ondorioak, autoritarismoaren eraginak, etab. Fikziozko lanen ikerketa historikoa, beraz, ez da interesgarria narrazioaren edukian aurki daitezkeen egitateei buruzko informazioa jasotzeko, alegia, nobela errealitateari buruzko isla edo errepresentazio, baizik eta produzitua izan den testuinguruari, egoera politikoari eta iruditeriari buruzko ideiak eskaintzen dizkigun heinean.

Horrekin batera, azpimarratu beharreko alderdia da historiak ere, nobelak eta bestelako lan literarioek bezalaxe, izaera narratiboa daukala. Iraganari buruzko ezagutza kontakizun eran idazten dugu eta Historia garai bati buruzko narraziotzat aurkezten dugu. Zentzu horretan, historia, narrazio eta memoriaren arteko hartu-emanak aztertzea eta kontuan hartzea beharrezkoa da. Historia eta literatura, iraganaren esangura eraikitzeko orduan, memoriaren narratibez baliatzen dira sarri askotan bi diziplinen arteko mugak lausotuz eta hibridazio diskurtsiboak suertatuz (Mackenbach, 2015: 88). Ildo horretan, komeni da Hayden White edo Keith Jenkins historiaren teorialariek egindako ekarpena gogora ekartzea. Haien arabera, historia literatura forma bat izango litzateke. Hizkuntzak daukan garrantzia azpimarratuz, egile horiek adierazi dute historiagileak era gordinean aurkezten zaizkien iraganeko gertaeren aurrean egoten direla, edo beste era batera esanda, iraganeko enuntziatuen aurrean. Ikertzaileak adierazpen horiek aukeratu eta ordenatu behar ditu, haien arteko kausalitateak sortu, iraganeko narrazio koherente bat eraiki, eta haien esanahia testuinguru zabalago baten kokaturik azaldu. Whiteren arabera, horrek ez du esan nahi iraganeko gertaerak ez zirenik benetan gertatu, baizik eta gertaera multzoak historiagileak zentzudun bilakatzen dituen eraikuntzak bilakatzen dituela. Historiagileak idazten duen iraganari buruzko kontaketak fikziozko zenbait

patroi formal oinarritzat hartuz egituratutako narrazioak dira. Zentzu horretan, historiagilearen testuak, askotan, iraganaren inguruan dioenari buruzko egitateen edo egia baten isla legez ulertu beharrean, bere interes epistemologikoei eta analitikoei buruz eskaintzen duen informazioagatik dira baliagarriak (Mackenbach, 2015: 93).

Baina nola irakurri literatura ikuspuntu historiko batetik? Literatur kritika eta ikasketa kulturalak arduratu dira literaturaren ikerketaz. Historiaren ikuspegitik erantzun beharreko galderarik garrantzitsuena literatur lanaren esanahiarena da. Nondik eratortzen da edo nola erabakitzen dugu zein den nobelaren edo beste mota bateko lan literario baten esanahia? Kontuan hartu beharreko lehen aspektua da literatur lanaren interpretazioa praktika sozial bat dela (Culler, 1997: 64). Zentzu horretan, literatur lanari egiten zaion hurbilpenean, irakurlearen edo, gure kasuan, historiagilearen, ikuspuntu analitikoa eta ideologikoa garrantzi handikoa da. Feminismoak genero-harremanen asimetriak hausnarketa-objektutzat dituen bitartean, marxismoak klase-borrokari buruzko zantzuak bilatuko ditu, eta postkolonialismoak inperialismoaren eta subjektu subalternoen arteko harremana ikertuko du (Culler, 1997: 64). Haatik, interpretazioen artean aukeratu beharrean topatuko gara sarritan. Nola? Culleren arabera, lau premisak gidatu dute lan literario baten esanahiaren determinazioa: egilearen intentzioaren arabera sortzen da esanahia; esanahia hizkuntzan bertan dago nahiz eta egileak zentzu jakin bat eman nahi izan; testuinguru historikoa da lanari zentzua ematen diona, eta irakurlearen esperientziatik eratortzen da esanahia (Culler, 1997: 65). Historiagilearentzat literatur lanaren esanahia edo dimentsio historikoa erabilgarria izateko, interesgarria litzateke aurrean aipatu diren faktore guztiei —batera edo era indibidualean— so egitea: egileak bere garai historiko jakinean transmititu nahi izan zuen ideia; zerabiltzan hizkuntza-egiturek berek lanaren esanahiari gehitzen dizkioten propietateak; noski, erredakzioaren, publikazioaren eta harreraren testuingurua eta, azkenik, irakurleen eta publiko orokorraren irakurketa-esperientzia subjektiboa bera ere. Horrekin batera, ikasketa kulturalen alorretik ikertu den beste eremu bat lan literarioaren harrera bera izan da. Literatur lanak identitateen eta subjektibitateen sorkuntza eta konfigurazioan garrantzia daukan artefaktu kulturalak diren heinean, haien harrera sozial eta kulturalaren efektuak ikertzea ere historiagintzaren eremu interesgarria da.

Literatur lanek garai jakin bati buruzko hausnarketa egiten nola lagundu gaitzaketen ikusteko, hiru lani egingo diegu hurbilketa. Lehenengoz, Lynn Hunten *Inventing Human Rights: A history* (*Giza Eskubideak Asmatzen: Historia bat*) (2007) lana aztertuko dugu. Lan horretan, egileak XVIII. mendearen amaierako literatura sentimentala aztertu zuen ikertzeko zer eragin izan zuten lan mota horien irakurketak, hedapenak eta harrerak giza eskubideen ideiaren garapenean. Bigarrenez, Wendy Ganen «Solitude and Community: Virginia Woolf, Spatial Privacy and A Room of One's Own» (*Bakardadea eta Komunitatea: Virginia Woolf, espazio-pribatutasuna eta Gela Bat Norberarena*) (2009) artikulua aztertuko dugu. Lan horretan egileak XX. mendearen hasierako idazle britaniarraren saio famatuenetariko bat den *A Room of One's Own* (1929) delakoari buruzko hausnarketa eskaintzen du. Garaiko

emakumeek, zapalketa viktoriarra gainditzeko bidean, beren emantzipazio intelektualerako eta moralerako garatu zituzten estrategia diskurtsibo eta praktiken berri ematen du domestikotasunaren eta publikoaren arteko artikulazio konplexuan zentratuz. Hirugarrenez, Magdalena Perskowskaren *Historias híbridas. La nueva novela histórica latinoamericana (1985-2000) ante las teorías postmodernas de la historia* (*Historia hibridoak. Nobela historiko latinoamerikar berria (1985-2000) historiaren teoria postmodernoen aurrean*) (2008) lanarekin emango diogu amaiera azpiatal honi. Egileak, historiografiari eta gizarteari buruzko eztabaida postmodernoaren testuinguru analitikoan kokatuta, 1985etik 2000ra bitarteko nobela historiko berri latinoamerikarraren azterketa eskaintzen du, eta adibide konkretuen analisia egiten du, hausnarketa eta diskurtso historikoarentzat «fikzio *locus*»[12] diren heinean.

Historia kulturalaren eta emozioen historiaren artean kokatzen den hurbilpenean, Lynn Huntek *Inventing Human Rights* lanean giza eskubideen sorkuntzaren baldintza kulturalak aztertzen ditu, nobela sentimental frantsesak «bestea»rekiko identifikazio emozionalean izan zuen garrantzi erabakigarria azpimarratuz. Giza eskubideen definizio filosofiko, etiko edo historiko bat eskaintzea ez da lan erraza, arrazoimenean oinarritzeaz gainera, egilearen ustez dimentsio emozionalean ere oinarritzen direlako. Ildo horretan, Huntek adierazi du giza eskubidearen nozioa sor eta onar zedin beharrezkoa izan zela gizabanakoek erruki, gupida edo elkartasunaren antzekoak ziren nolabaiteko barne-sentimenduak partekatzea. Adituak adierazten duenez, ilustratu frantsesek ez zituzten eskubideak ulertu paperaren gainean idazten ziren doktrina arrazional huts legez (Hunt, 2009: 25). Pertsonen izateari buruzko uste sendoetan eta munduaren ulermen sekularrean —ez erlijioso baten— oinarritzen ziren, ongiaren eta gaizkiaren artean dagoen desberdintasunaren barneratzean (Hunt, 2009: 26). Alegia, giza eskubideak gantxo emozional batean oinarritu behar ziren, benetan erabilgarriak eta gizarte osoak partekatuak izan zitezen. Zentzu horren ildotik, berdintasunaren ideiak enpatia emozionalean oinarriturik egon behar zuela uste zuten. Guztiei berezkoa zitzaien enpatia hori izango zen berdintasunaren balioaren eskubidearen gauzatze kolektiboa eta gizarteratzea ahalbidetuko zukeena. Autonomia eta enpatia praktika kulturalak lirateke Huntentzat, eta zentzu horretan gorputzean eta eguneroko ekintzetan gauzatuko lirateke. Enpatiaren balioa honetan datza: gainerakoek guk sentitzen dugunaren berdina senti dezaketela onartzean —sentitzean hobeto esanda—, hain zuzen ere (Hunt, 2009: 28). Lynn Hunten ekarpen historiografikoa ikertzea izan da emozioen historiaren ikuspegitik produktu kultural batek, nobela epistolar sentimentalak kasu honetan, subjektibitate eta identitate historikoen eraikuntzan izan dezakeen eragin garrantzitsua.

Hunten aburuz, nobela epistolar sentimentalek irakurleengan, eta, oro har, garaiko Ingalaterrako eta Frantziako giro kulturalean eta sozialean, izan zuten eragina oso garrantzitsua izan zen giza eskubideen eta duintasunaren ideia errotzeko.

12. Egileak gaztelaniaz erabiltzen duen «*locus* ficcional» kontzeptutik zuzenean itzulia.

Adituak mota horretako hiru lan ikertu ditu: Samuel Richardson egile britaniarraren *Pamela; or Virtue Rewarded* (*Pamela; edo Bertutea Saritua*) (1740) eta *Clarissa; or the History of a Young Lady* (*Clarissa; edo Emakume Gazte baten Istorioa*) (1747-48); eta Jean Jacques Rousseauren *Julie ou la Nouvelle Héloïse* (*Julie edo Héloïse Berria*) (1761). Hirurak giza eskubideen formulazioa baino arinago sortu ziren, baina urteetan zehar izugarrizko arrakasta izan zuten, bai beren sorterrietan bai nazioartean. Hiru eleberri horiek pertsonaia nagusien gutun-trukaketan oinarritzen dute beren narrazioa. Hiruretan pertsonaia nagusia emakume gazte bat da, ezbehar garrantzitsuen aurrean bere ongizatea jokoan jartzen duena era bertutetsuan jokatzeko. Egileek, Ilustrazioaren dimentsio sentimentalena ustiatuz, pertsonaien agitazio emozionala nagusitzen ziren atmosferak, gertakariak eta egoera subjektiboak sortu zituzten. Hunten aburuz, nobela horiek honako ekarpen hau egin zioten gizarteari: emakume horien egoerak, jokaerak eta istorioak kontatzeko lehenengo pertsonan idatzitako gutunen teknika erabiltzeak irakurleei enpatia bide berriak ireki zizkien (Hunt, 2009: 39).

Hain zuzen ere, nobela horiek izan zuten arrakasta ikaragarriaren arrazoietako bat irakurleek pertsonaia nagusiaren egoerarekin identifikazio-maila altua sentitzen zutela izan zen. Lan horiek zera lortu zuten: generoak (guztiak ziren emakumeak eta gizonezko irakurleek ere enpatia-maila altuak adierazi zituzten), klaseak (pertsonaiak aberatsak edo pobreak izan arren lortzen zuten identifikazio-sentimendua sorraraztea) eta nazioak (nobela hauek herrialde askotan irakurriak izan ziren) ezartzen zituzten desberdintasunen gainetik, irakurle orok beste pertsona baten subjektibitatearekin enpatiza zezaten. Nobela horiek pertsona guztiak berdinak garela, hain zuzen ere sentitzeko daukagun gaitasun horrek berdintzen gaituelako, erakusten zuten. Lehenengo pertsonan kontatzen zen narrazioan murgildurik, istorioen irakurketak berdintasunaren eta enpatiaren sentsazioa sortu eta nolabaiteko identifikazio psikologikoa errazten zuen. Horrekin batera, nitasuna eta autonomia barrentasun pertsonal pribatu batean oinarritzen zirela adierazten zuen gutuna erreproduzitzearen errekurtsoak (Hunt, 2009: 48). Norbanakoaren nozioan oinarritutako baliabide literario horrek berebiziko garrantzia izan zuen giza eskubideen arrakastarako. Alegia, nitasunaren eredu modernoaren erakusle paregabeak ziren. Eta, doktrina bidezko eredu eskolastiko formaletatik aldenduta, irakurleari autonomia nahiz enpatia hori sentiarazi ziotela izan zen haien ekarpena. Gizartean eskubide indibidualen beharrezkotasuna, alegia, moralitate sekular berri bat oinarritzeko beharrezkoak ziren entitate juridiko berriak behar zirela, sentiarazi zuten.

Bigarren lanari dagokionez, Wendy Ganek «Solitude and Community: Virginia Woolf, Spatial Privacy and A Room of One's Own» artikuluaren bidez, XX. mendeko bi gerra handien arteko Ingalaterrako emakume «modernoentzat» pribatutasun espazialak bereziki emakume idazleentzat zeukan garrantzia aztertzen du. Oro har, literatur lanak iturritzat hartuz, XX. mendearen hasieran intelektualitatearen eremuari lotutako zenbait emakumek beren egoerari irtenbidea emateko mahaigaineratu

zituzten estrategiei buruz hitz egiten digu artikuluak. Gainera, genero-ikuspegia erabiliz, garaiko Ingalaterrako domestizitatearen kontzepzioen gaineko hausnarketa baliagarria proposatzen du.

Artikuluaren egileak aro viktoriarrera egiten du hurbilketa garai berrietako emakumeen egoerarekin alderatzeko eta ematen ari ziren aldaketak ikusarazteko. Horrela, intimitatearen nozio viktoriarra jasaten hasia zen eraldaketen eta apurketen berri ematen du. Moral viktoriar hertsiak emakumeei eskaintzen zien «drawing room»eko intimitate-eredua baztertuz —guztion begietara eta erabilerara irekia zegoen gela—, guztiz pribatua zen espazio baten beharra aldarrikatzen hasi ziren zenbait emakume. Prozesu horren baitan, espazio maskulinoaren dominaziotik at legokeen espazio femenino propio bat beharrezkoa zela agerian geratu zen. Beharrizan horren aldarrikapenetik emakumeen identitatea espazio fisiko aparteko bat izatearekin identifikatzen hasi zen.

Virginia Woolfen saioa XX. mendearen hasierako emakume idazleak beren eskubideak aldarrikatzen hasi ziren atmosfera kultural eta sozial horren adierazgarri da. Ganen aburuz, gizartean espazio publikoari eta pribatuari buruzko kontzepzioak aldatzen ari ziren garaian, Woolfek domestizitatearen politika espazialari buruzko hausnarketa eskaini zuen (Gan, 2009: 68-69). Horra hor, kasu honetan, literatur forma hartzen duen testuinguru diskurtsiboaren adierazpen forma partikular bat. Idazle britaniarraren lanak, bere gaztaro eta gurasoen etxeko oroitzapenak gogoraraziz, domestizitate viktoriarrak ezartzen zituen generoaren araberako espazio-banaketak azaldu eta horrek emakumeen garapen intelektualetan inposatzen zituen mugak erakutsi zituen. Etxeko arkitekturak eta banaketa espazialak norberaren opresioan jokatzen zuten paperaz jakitun, Woolfek beharrezko ikusi zuen hura erreformatzea emakumeek beren espazioaren eta denboraren gainean kontrol handiagoa lor zezaten.

Esandakoaren ildotik, Gan, bizitzaren alor guztietan autonomia eta emantzipazio-bide handiagoak lortzeko emakume literato modernisten eta zientzialarien estrategiei buruz aritzen da. Tradizionalki ikasketa-estudioa gizonezkoen erabilerara mugatutako espazioa izan zen, emakumeak mugatuta egon zirelarik beren jarduera intelektualak edo kreatiboak edozein gune domestikotan egitera. Egilearentzat, ordea, Woolfek eta beste idazle modernista britaniarrek egiten zuten norberarentzako gelaren aldarrikapena ez zen gizonezkoen estudioen identikoak izatearen aldekoa. Estudioa, etxearen gaineko autoritate maskulino eta paternoa eragiteko sinboloa zen, hierarkia eta botere-harremanak kudeatzeko gunea. Zentzu horretan, egilearen aburuz Woolfek norbanakoarentzat gela baten aldarrikapena egiten zuenean, ez zuen autoritate maskulinoa bereganatzeko borondatea agertzen. Estudio tradizionalaren izaera isolatuaren aurrean espazio malguago baten jabegoa aldarrikatu zuen, emakumeek beren eremu pribatutik espazio publikoarekin eta sozialarekin zein komunitatearekin zeukaten harremana kudeatzeko aukera emango zien espazio berri bat (Gan, 2009: 78). Modernizazio-prozesuan zegoen gizarte batean, emakumeak espazio pribatu baten jabe izatea, viktoriar garaiko mugen aurrean, modernitate-sinbolo ere bilakatu

zen askorentzat. Emakumeek, gune pribatu horretatik lan eginez, ezagutzari eta, oro har, gizarteari egin ziezaieketen ekarpena oinarrizkotzat hartu zen garai hartan.

Azkeneko literatur lanari dagokionez, Perkowskak idatziko *Historias híbridas. La nueva novela histórica latinoamericana (1985-2000) ante las teorías postmodernas de la historia* liburuak ariketa praktiko bikaina eskaintzen du nobela, historia eta korronte historiografikoen arteko konexioei buruz hausnartzeko. Haren helburua izan da XX. mendearen amaierako Latinoamerikako nobelagintza historiko berriaren azterketa egitea, hain zuzen ere historiagintza tradizionala, diziplina gisa, eta gizartea, oro har, hainbat kritika eta berrikuspen teoriko jasaten ari ziren momentuan.

Egileak azaltzen duen moduan, 80ko eta 90eko hamarkadetako Latinoamerikan, diskurtso, eduki eta perspektiba historikoak nobelagintzan zeukan presentzian eta eraginean aldaketak egin ziren. 60ko eta 70eko hamarkadek eleberrien barnean genero historikoaren agortzea ekarri bazuten ere, 80ko hamarkadaren erdialdetik aurrera nobela historikoaren berrikuntza-prozesu bati hasiera eman zitzaion. Produkzio mota hori garatu zen aldi berean, trantsizio politiko eta erregioen arteko integrazio-prozesu garrantzitsuak gertatzen ari ziren Latinoamerikako herrialdeetan. Egileak dioskunez, aldi berean, Mendebaldeko potentzia garatu postindustrialek eta neoliberalek kanpo-zerga eta ekonomia globalizatuaren bitartez eragindako presio ekonomikoaren eta eredu ekonomikoen, sozialen eta estatuen krisi garrantzitsuaren garaia izan zen. Nobela historiko berriaren suspertzea, beraz, lortu gabeko modernitate baten krisiari erantzuteko gertatu zela adierazten du Perkowskak. Horrela, genero berritu hori kapitalismoaren eta garapenaren promesen eta momentuko errealitatearen arteko diferentziak sortzen zuen ezinegonaren lekuko izateko jaio zela defendatzen du (Perkowska, 2008: 31).

Latinoamerikan indartzen ari zen joera horrekin paraleloki, Europako eta Estatu Batuetako testuinguru akademikoetan historiagintzari buruz eztabaidatzen ari ziren. Azken horretan, eta batez ere alor akademikoetan, pentsamendu postestrukturalistaren eta postmodernoaren ideiak gero eta garrantzi handiagoa hartuz joan ziren. Pentsamendu eurozentrista batetik, produkzio intelektualaren geografía horretan, Latinoamerikako lanak gune periferikoan leudeke. Egilearen aburuz, latinoamerikarrak, garai asaldagarrietan murgildurik, beren iraganari eta orainaldiari buruzko hausnarketa-prozesu batean murgildurik zeuden. Gune anglosaxoietan historiagintzaren berrikuntza teoriaren alorretik etorri bazen ere, Latinoamerikako egileek beste bide batzuetatik ari ziren edukiei zein formei zegozkien berrikuntzak sartzen. Testuinguru konplexu horretan Perkowskak adierazten du 80ko eta 90eko hamarkadetako nobela historiko berria historia pentsatzeko fikziozko gune bilakatu zela. «Historia hibridoak» izenez izenpetzen duen literatura-genero horren bidez Latinoamerikako iragana tradizioak eskainitako formuletatik aldenduz ezagutzeko aukera badagoela adierazten du egileak (Perkowska, 2008: 42). Horrek iraganeko subjektu eta gertaera berrien iragana imajinatzeko eta irudikatzeko aukera eskaini

zuen. Perkowskak, goian aipatu dugun *Historias Híbridas* lanean, Latinoamerikako XV. mendetik XX. mendera arte doan bitarte luzeko zenbait momentu fikzio bidez irudikatzen dituzten sei nobela historiko aztertzen ditu. Horietako baten azterketan zentratuko gara laburki.

«Tinísima de Elena Poniatowska: La negociación del espacio de la mujer en la historia» atalean Perkowskak Elena Poniatowska idazle mexikarraren *Tinísima* (1992) nobela aztertzen du. *Tinísima* lanak, fikzioaz baliatuz, 1923-1930 eta 1939-1943 urte bitarteetan Mexikon bizi izan zen Tina Modotti (1896-1942) argazkigile italiarraren ibilbidea kontatu zuen. Mexikoko Alderdi Komunistako kide, Moskuko Nazioarteko Sorospen Gorriko aktibista eta Espainiako Guda Zibilean erizain izan zen. Perkowskaren aburuz, nobela horren bidez, Poniatowskak historiagintza tradizionalaren konbentzioek ezarritako isiluneetatik atera zuen Tina eta historiaren espaziora sartzea ahalbidetu zuen urteetan ahaztua izan zen bere ekintza politikoa errekuperatuz. Nobela historiko tradizionala ekintza eta gloria maskulinoak kontatzeko erabili izan da. Baina Perkowskaren aburuz, egileak diskurtso hori irauli egin zuen emakume baten istorioa eta eragin historikoa genero horren bidez kontatzean (Perkowska, 2008: 225). Poniatowskak bere lanarekin Mexikoko historian errotua egon den emakumeen bazterketaren aurrean aurrerapauso garrantzitsu bat eman zuen, herrialde horretako historia politikoan eragile aktibo legez izan zuten garrantzia kontatu baitzuen. Perkowskak, generoaren teoriak eta feminismoak eskainitako kontzeptu analitikoen bidez, Tina Modottiren bizitzaren berreraikuntza nobelatuak historiagintzari eragin diezaiokeen berrikuntzaren azterketa baliagarria eskaintzen du. *Tinísima* nobelaren pertsonaia zentrala den Tina Modottiren azterketaren bidez zenbait gai jorratzen ditu, hala nola genero-identitatea, identitate kolektiboen eta indibidualen arteko talka, eta nitasunaren eta subjektibitatearen eraikuntza. Mexikoko historiaren zati bati argia eskaintzeaz gain, Perkowskaren lanak historiagintzan iturri literarioen erabilerak ekar lezakeen abantaila erakusten du ere, ez bakarrik eduki ahaztuen errekuperazioaren aldetik, baizik eta formalki ere, kontzeptu analitiko berrien erabilerak ezagutza historikoari egin diezazkiokeen abantailak erakusten dituelako.

1.2. AUTOBIOGRAFIA

Idatzizko tradizioa duten kulturetan norbanakoari buruzko testuak idaztea Antzinarotik —eta aurretik ere— existitu izan den joera da. Ahozkotasunean oinarritu diren eta oinarritzen diren kultura indigenetan ere, norbanakoari buruzko ahozko narrazioak, abestiak edota ahozko genealogiak lantzen ziren, esaterako. Horregatik, hain zuzen ere, autobiografiek erabilgarritasun handia daukate gizakion historiaren iturritzat, antzinatetik egunera arte —aldaketa eta garapen handiak jasanda— dirauten formakuntza motak direlako. Autobiografien edo niari buruzko narrazio pertsonalen ikerketa historikoak iraganari buruzko ezagutza aberasteaz gainera,

erronka teoriko interesgarriak mahaigaineratzen ditu. Izan ere, genero berezia da literaturatik eta historiatik edaten duelako, baina ez delako ez bata ez bestea. Horrekin batera, iturri mota honek ikuspegi subjektibo baten aurrean kokatzen gaitu. Sarritan gainera, estilo autobiografikoa lengoaia literariotik gertuago dago lengoaiaren erabilera arruntetik baino. «Arazo» metodologiko horri erantzuteko asmoz, Jennifer Wallachek autobiografia literarioaren potentzialtasuna aztertu du ikerketa historikoaren alorrerako (Wallach, 2006). Autore horren aburuz, autobiografiaren erabilerak gure ulermen historikoa konplexuago bihurtzera bultzatzen gaitu. Haren tesia hau da: autobiografia literarioaren lengoaia metaforikoaren eta artistikoaren erabilerak errealitate eta subjektu historikoei buruz hizkuntza arruntaren erabileraren bidez ezagutu ezineko aspektuak argitzen ditu (Wallach, 2006: 446). Wallachen ideiari jarraituz, hizkuntza literarioak subjektibitate jakin batek munduarekin daukan harremanaren espezifikotasuna eta konplexutasuna era hobean aurkezteko gaitasuna dauka, pentsamenduen eta emozioen mundua harremanean jartzen diren espazioa irekitzen duelako (Wallach, 2006: 448-449). Kontuan izan beharko genuke, beraz, memoria idatziak hizkuntza metaforikoan aurkezten direla, alegia, ez dutela, aipatu bezala, hizkuntzaren erabilera arrunt deskriptiboa erabiltzen. Iturrion ezaugarri hori, errealitate historikoa ezagutzeko eragozpentzat baino gehiago, iraganaren esperientzia adierazteko gaitasun bereziki interesgarritzat hartzen du idazleak. Wallach Terry Eagletonen lanaz baliatzen da hizkuntza literarioak errealitate historikoa ezagutzeko dauzkan abantailak adierazteko. Azken horren aburuz, hizkuntza literarioak esperientziaren zentzu sakonago bat eskaintzen du, erreflexibotasun handiagoa eragiten duelako. Hizkuntza arruntarekin alderatuta, hizkuntza literarioak autorearen, irakurlearen eta testuaren arteko harreman estuagoa eskatzen du, eta, zentzu horretan, iraganaren berreraikitze enpatikoa errazten du (Wallach, 2006: 451).

Gisa horretako dokumentuak ezin dira errealiteari buruzko egitateak bilatzeko iturri gisa erabili, baizik eta subjektibitateen eraikuntza historikoari buruzko informazioa lortzeko aukera gisa. Subjektibitateak eta identitateak, orain arte adierazi dugun moduan, eraikuntza historikoak dira eta historiagileak horien interpretazioa eta historizazioa egin behar du. Alegia, identitate horrek bere testuinguruan daukan esanahia ikertu behar du. Izan ere, narrazio pertsonalak ez dira gizartetik era isolatuan eraikitzen diren istorioak, baizik eta inguruak eskaintzen dituen eredu kontzeptualetatik eta historikoetatik sortuak. Testu pertsonalak ikertzean, beraz, indibiduotik haratago begiratzen dugu subjektuaren sorkuntzak baino zabalagoak diren klase-, nazio-, erlijio- edo etnia-kolektibitateekin daukaten harremana ezagutzeko. Subjektibitate jakin baten formazioari buruzko ezagutza lortzeaz gainera, garai historiko bat argi berri baten pean ikertzeko aukera ematen dute, alegia. Autobiografien eta narrazio pertsonalen ikerketak erakusten du agentzia pertsonalak eta ekintza sozialak niaren eraikuntzarekin eta inguru sozialarekin eta instituzionalarekin daukaten harremana bere testuinguruari loturik hobeto ulertzen dela (Maynes, Pierce eta Laslett, 2008: 2).

XX. mendearen erdialdetik aurrera, historiagintzaren alorrean berrikuntza teorikoak sartzen joan diren heinean, narrazio pertsonalak tradizionalki iturri ofizialetatik bazterturik geratu diren subjektuak historiara gehitzeko erabili izan dira. Esperientzia disidenteak eta subalternoak aztertzeko (emakumeen, langileen, esklaboen, homosexualen…) narrazio pertsonalen errekurtsoa oso garrantzitsua izan da. Autobiografiaren generoak, esaterako, harrera hoberena afrikar-amerikar ikasketetan, Afrikako deskolonizazio-prozesuen ikerketan eta latinoamerikar ikasketetan izan zuen Maynes, Pierce eta Lasletten aburuz (2008). Autobiografiak esklabotzaren eta historia beltzaren ikerketan, esaterako, idatzi eta tradizio autobiografikoa oinarrizko ezagutza-iturriak izan dira (Maynes, Pierce eta Laslett, 2008: 20).

Autobiografiak eskaintzen duen nitasunaren eta norbanakoaren idea historizatzea beharrezkoa da, beraz, garai desberdinetan nia, pribatutasuna eta barren psikologikoak adierazteko eredu desberdinak egon direlako. Autobiografiaren bidezko iraganeko irudikapen bat egiteko beharrezkoa da material autobiografikoa garaiko beste iturriekin harremanean jartzea, sortu ziren hartu-emanak eta prozesu sozialak eta subjektiboak ulertzeko. Mynesek, Pierceek eta Laslettek James Amelangen *The Flight of Icarus. Artisan Autobiography in Early Modern Europe* (*Ikaroren Hegaldia. Artisau Autobiografia Europako Modernitatea Goiztiarrean*) (1998) adibidetzat hartzen dute autobiografiak ulertzean testuinguruan kokatzeak daukan garrantzia adierazteko. Lan horretan, artisau alfabetatuek beren autobiografia idazten zutenean, beren istorio pertsonalei esangura emateko tradizio klasikoko mitoetatik eta erreferentzietatik hartzen zituzten hainbat metafora konkretu erabiltzen zituztela ikusi zuen Amelangek. Haien kontakizun pertsonaletan kultura popularraren eta goi-mailako kulturaren arteko elementuak nahasten ziren. Amelangek datu esanguratsua ondorioztatzen du errekurtso horretatik; izan ere, goi-mailako kodeak erabiltzean, beren istorio indibidual eta familiarrei zentzua emateaz gainera, horien jakitun zirela erakutsi egiten zuten. Horrek ahozko historiarekin harreman estua dauka. Izan ere, narrazio pertsonalen kontaketan —izan idatzizkoak edo ahozkoak— norbanakoari eta kolektibitateari zentzua emateko erabiltzen diren errekurtso linguistikoen eta narratiboen izaera soziala eta kulturala ikertzeak berebiziko garrantzia dauka.

Mendeetan zehar konbentzio jakin batzuei jarraituz idatzi den beste autobiografia-eredu bat autobiografia erlijiosoa izan da. XVI. mendea genero horren urrezko garaia izan zen, baina presentzia handia mantendu zuen ordutik XIX. mende osoan ere. Emakume erlijiosoek ere autobiografia-eredu horren idazketan jardun zuten. Zentzu horretan, generoaren historiarentzat iturri garrantzitsua izan da, batez ere kontuan izanda garai hartako misoginia bortitza zela eta idaztea emakumeei eragozten zitzaien jarduera zela. Konbentzio estilistikoek eta doktrina erlijiosoak inposatzen zituzten mugen pean bazen ere, zenbait emakume erlijioso beren esperientzia pertsonalak adierazteko gai izan ziren idazketa mistiko autobiografikoaren bidez. Hala ere, urteetan zehar zenbait ikertzailek ez dituzte narrazio horiek autobiografiatzat hartu, ez zietelako jarraitzen XVIII. mendean nitasunaren adierazpenerako eredugarritzat

nagusitu zen autobiografia moderno laikoaren ezaugarriei. Idatzi erlijioso mota horien egileek, gehienetan konfesore baten zaintzapean idazten zutenak, ez zuten beren subjektibitatea ni edo subjektu autonomo bat izango balitz bezala adierazten, baizik eta jainkotiarra zen indar baten pean bizi eta sufritzen zuen mendeko izaki baten gisa (Durán, 2003: 20). Azken hamarkadetan egin den subjektu modernoaren kategoriaren problematizazioarekin batera, eta horrek aktore historiko premodernoen azterketan piztu duen interesak, haatik, mota horretako subjektibitateen ikerketa konplexuagoak areagotu ditu eta autobiografia erlijiosoekiko interesa piztu. Haien azterketaren bidez, konbentzio historikoetan eta sozialetan murgilduriko subjektuen agentzia-espazioak bilatu nahi izan dira.

Autobiografiak historiagintzarako daukan garrantzia ikusteko, jarraian Barbara Taylor historiagile kanadiar-britainiarraren *The Last Asylum. A Memoir of Madness in Our Times* (*Azken Zoroetxea. Zoramenari buruzko Oroitzapena Gaur Egunean*) (2015) testua aztertuko dugu laburki. Bertan Taylorrek, bere iraganeko gaixotasun mentalaren esperientzia pertsonalaz baliatuz, Britaina Handiko osasun psikiatrikoaren sistemari buruzko historia aurkezten digu. Sarreran adierazten duen moduan:

> *Last Asylum* nire zoramen urteen istorioa da, XX. mende amaierako zoroetxeen sistemaren heriotzaren istorioaren barnean kokatuta. Liburua gaixotasun mentalari buruzko meditazio historiko bat da: nagusiki nire gaixotasunari buruzkoa, baina gaixotasun mentalak sufritu, sufritzen eta sufrituko dituzten milioika pertsonei buruzkoa ere (Taylor, 2015: xi).

Historiagile batek idatzitako historia-lan bat da, zeinak iraganeko oroitzapenak, idatziak eta egunerokoak baliatzen baititu. Istorioa 80ko hamarkadako hasieran hasten da. Taylorren doktorego-tesia 1983. urtean argitaratu zen *Eve and the New Jerusalem. Socialism and Feminism in the Nineteenth Century* (*Eva eta Jerusalem Berria. Sozialismoa eta Feminismoa XIX. mendean*) izenarekin. Lanak arrakasta ikaragarria izan zuen eta historiagintza feministan klasiko bilakatu da. Ordurako, historiagilea guztiz ahituta zegoen eta neke kronikoaren sindromea diagnostikatu zioten. Hala ere, pilulen eta alkoholaren laguntzaz lanera itzuli zen. Psikoanalistarekin terapia hasi zuen eta, gutxira, Mary Wollstonecrafti buruzko ikerketa-lan bat egiteko diru-laguntza eskaini zioten. Baina terapia eta lana konbinatzea ezinezkoa egin zitzaion eta proiektua bertan behera utzi zuen. Maitasunarekin, adiskidetasunarekin, lanarekin, familiarekin eta alkoholarekin zerikusia zuten hainbat gorabeheraren ostean, 1988. urtean Taylor *Friern Hospital*ean sartu zuten, bere garaian zoroetxe viktoriar enblematikoa izan zen *Colney Hatch Lunatic Asylum*ean. 1993. urtean ospitalea itxi zuten arte, Taylor hainbat alditan sartu eta atera zen bertatik.

*Friern*en ingresaturik zegoela Raphael Samuel historiagile marxista ezagunak eta bere lagun minak egin bisita batean, hurrengoa esan zion: «Barbara maitea! Zelako pribilegioa zurea, historiagile gisa, azkenetariko instituzio viktoriar handienetariko baten desagertzean presente egotea!» (Taylor, 2015: x). Bere lan autobiografikoa

iradokizun ironiko horren erantzun gisa jaio zen nolabait. Horrela, Taylorrek, bere esperientzia pertsonaletatik abiatuz, moral viktoriarrari jarraituz *Colney Hatch* psikiatria-zentro eredugarria 1851n ireki zuten urtetik psikiatria europarrak XIX. eta XX. mendeetan zehar jasan zituen aldaketei buruz hitz egiten digu. XX. mendeko 60ko eta 70eko hamarkaden bitartean, osasun psikiatrikoari buruzko metodologia medikoak, mentalitatea, sentsibilitate sozialak eta legediak aldatuz joan ziren heinean, tankera horretako erakundeen ahotsak gero eta ugariagoak bilakatu ziren. Hamarkadotan, *Friern* ospitaleak bere itxiera gertu zeukan eta zentroaren amaiera horren lekuko izan zen Taylor. Berak 80ko hamarkada bitartean gaixotasun mentalak tratatzeko eredu modernoagoetara gertatzen ari zen trantsizioa bizi izan zuen eta hala ezagutarazten du bere autobiografian.

Taylorren lana, beraz, lehenengo pertsonan kontatutako istorio bat da eta, aldi berean, material autobiografikoan oinarritutako historia-lan bat. Idazlearen beraren gorabehera pertsonalak eta agentzia-eremuak erakusteaz gainera, XX. mendearen amaierako praktika eta terapia psikiatrikoek jasan zituzten aldaketen berri ematen digu haien bidez. Prozesu horietan bere subjektibitateak bizi izandako aldaketa eta konfigurazioez gainera, osasun-zentro eta terapia psikiatrikoen pean gaixotasun mentalen bat sufritzen zuten hainbat pertsonaren subjektibitateek jasandako transformazioen berri ematen digu Taylorrek. Hark dioskunez, *Friern* ospitaleko artxiboetan aurki daitezkeen dokumentuek ere informazio historiko argigarria eskain lezakete. Haatik, ematen du lehenengo pertsonan kontatutako istorioak sailkatzeko armairuetan topatu ezin daitekeen iragan baten irudia eskaintzen digula.

1.3. GUTUN-LIBURUA

Gutun-trukea Aro Garaikidea baino lehenago erabiltzen zen arren, ez zen orokortutako praktika. Erdi Arora arte gutun-idazketa elizgizonei mugatutako praktika izan zen. Baina garaiaren amaiera aldera praktika arrunta bilakatuz joan zen nobleziaren eta merkatarien artean ere. Castillo eta Sierraren aburuz, XVI. eta XVIII. mende bitartean, hizkuntza herrikoiak latinaren erabilera formalari gailentzearekin batera, «zibilizazio epistolarra»ren oinarriak ezarri ziren. Baina gizarte garaikidea izan zen gutuna komunikazio-bide gailentzat izan zuena. Fenomeno hori XIX. mendean zehar gertatu zen alfabetatze-tasen hazkundearekin zegoen erlazionatuta. Horrekin batera, XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen hasierako gerrek, migrazioek eta abarrek gutunen idazketa beharrezko bilakatu zuten. Baina 60ko hamarkadatik aurrera, eta zer esanik ez 80ko hamarkadatik hona eduki dugun digitalizazio-prozesuarekin, gutunek pertsonen egunerokotasunean zeukaten papera galdu dute (Castillo eta Sierra, 2014a: 13-15). Beraz, Aro Moderno eta Garaikidea ulertzeko, zeinetan gutunen trukea oso garrantzitsua izan zen, sorkuntza epistolarra oso iturri aberatsa da.

Gutunak ausentzia bati erantzuteko sortzen diren artefaktu kulturalak dira. Gutunak, haatik, beste mota batzuetako narrazio pertsonalek ez daukaten berezitasun bat dauka: beste pertsona batek irakurtzeko idazte da. Hau da, bigarren subjektu batekin jartzen gaitu harremanean. Autobiografia literario edo egunerokoen aurrean, gutunak elkarrekintza dialogiko baten aurrean kokatzen gaitu. Iturri mota hau, zentzu handi batean, autobiografiaren atalean aipatu ditugun zenbait aspekturekin parekagarria da. Azken baten, gutuna lehenengo pertsonan idatzitako dokumentu bat da. Beraz, subjektibitate jakin bati buruzko informazioa eskaintzeaz aparte, horrek bere garai historikoarekin eta sozialarekin daukan harremanari buruz ere informazioa eskaintzen du (Ciplijauskaité, 1998). Autobiografian bezalaxe, gutun-idazketan arau formal eta estilistikoak existitu izan dira. Baina horrek ez du gutunean zehar idatzitakoak indibiduoen agentzia-eremuak eta nitasunaren eraikuntza-prozesu historikoaren ezagutza eragozten.

Historian zehar hainbat gutun-eredu edo gutun-tipo garatu dira. Mezuaren eta egilearen helburuei begira, besteak beste, maitasunezkoak, pedagogikoak, bidaietakoak, exiliozkoak, guda-garaikoak edota egunkari eta aldizkarietara bidalitako iritzi-gutun publikoak ditugu. Gutunen azterketak hainbat fenomeno historiko ikertzeko aukera eskaini du. Esaterako, Aro Modernoko familia nobleen arteko harremanak berreraikitzeko, nobleziaren konexio ekonomikoak eta afektiboak ezagutzeko, leinuak eta maiorazkoak nola sortu ziren jakiteko edota ezkontzak nola paktatzen ziren ezagutzeko iturri paregabea izan dira. Pertsonen bizitza-historiak ezagutzeko ere, hau da, biografiak eraiki ahal izateko, berebiziko garrantzia izan du gutunen ikerketak, sentimenduen mundu subjektiboak ireki dituelako. Gobernu, erakunde zibil, pribatu zein erlijiosoen administrazio moduak ikertzeko ere era baliagarria da (Sierra, 2015; Castillo eta Sierra, 2014b; Castillo eta Sierra, 2014c; Amor, 2011; Sáez eta Castillo, 2002; Mestre, 2000). Eta noski, migrazio-fenomenoak ulertzeko gutun-trukearen azterketa ezinbestekoa izan da. Migrazio-momentu garrantzitsuetan edota gerra-garaian gutun-trukea «beharrezko» jarduera bilakatu zen (Sierra, 2014). Gutunen ikerketak aukera ematen digu aipatutako fenomeno historikoen irakurketa tradizionaletatik —gehienetan ikuspuntu politiko edo demografiko hutsetatik— haratago joateko: gerrek eta migrazio-mugimenduek duten dimentsio emozionala eta subjektiboa ikertzeko aukera eskaintzen dute, alegia. Azken batez, subjektu ezberdinen arteko gutun bidezko harremana protagonista izan duten edozein gertakariren azterketa egiteko iturri paregabea da gutuna.

Adibide batekin adieraziko dugu gutun-trukeen ikerketak eskain diezagukeen aberastasuna. Gure inguru kultural hurbilenari so egingo diogu Jose Paulo Ulibarri idazle euskaltzaleak 1830eko hamarkadan bere emaztearekin izandako gutun-trukean geldituz. Okondotarraren gutunen arteko batzuk egoera familiarraren ondorioz Parisen zegoen Pepa Landa haren emazteari idatzitakoak dira. Ulibarriren gutunak emazteak erantzutean igorritako gutunekin osatzen dira. Ulibarrik bere egunerokotasunaren berri emateaz gainera, egunerokotasun horren parte den bere auzoko eta inguru sozialeko pertsonei buruzko informazio ematen du. Tonuan

estimua eta maitasuna nabariak diren arren, senar-emazteen arteko harremana garaiari zegozkion formalismoen arabera bizi zela hauteman daiteke: «Nic gogoan dauket Zeure esan ondea cedo Concejuac eta gomutan edo Oroizan daukedaz gau era egunez iñoz astu bagaric»[13] (Ulibarri, 1975: 121) edo «Eguingot aleguiñe gustie zu diozun moduan bici ceco bada aspaldian estot urteiten etzeti campora, Ygaro dan domecan nintzan Aitortuten Jaundone Praizcu en Eleisara, eta Aldara Nagosian artu genduen gure Yauna…»[14] (Ulibarri, 1975: 140) esaten zion Ulibarrik bere emazteari. Bitartean, Pepa Landa emazteak hurrengo argibideak ematen zizkion: «Orain encargetan deutsut bios guztiaz Jaungoicoen amoriarren guizona leguez porta duzaizela»[15] (Ulibarri, 1975: z/g). Hemen iturriaren adibide txiki bat baino jarri ez dugun arren, garaiko beste iturri batzuekin eta testuinguruarekin berarekin harremanean jarriz, antzeman daiteke Ulibarriren eta Landaren arteko gutunek maskulinitate- eta feminitate-eredu jakin batzuen berri ematen digutela, elizaren eta komunitatearen kontrol sozial hertsiaren eraginez taxututakoak hein handi baten. Senar-emazteen arteko gutun-trukearen hurbileko begiradaren bidez garaiko moral kristauak eta egoera politikoak haien identitateen eraikuntzan izan zuten eragina azter genezake. Era horretara, iturri horrek euskal probintzietan XIX. mendearen hasieran maitasuna eta ezkonduen arteko bizitza ulertzeko forma jakinen eta horiek adierazteko konbentzioen inguruan ikertzeko aukera paregabea eskaintzen du. Hala ere, historiagilearen lana da haien agentzia- eta subjektibitate-eremuak berreskuratzea eta haien testuinguru diskurtsiboarekin izan zuten harremana aztertzea. Horrela, subjektu historikoek arau moralaren inkorporazioa nola negoziatu zuten eta zernolako estrategiak erabili zituzten ikertu ahal izango dugu, normaren aplikazioaren eta praktika sozial subjektiboen artean sortu ziren pitzadurak analizatuz.

13. «Nik gogoan daukat zure esan ona eta aholkuak eta pentsamentuan eta oroimenean dauzkat gau eta egunez inoiz ahaztu gabe».

14. «Egingo dut ahalegin guztia zuk diozun moduan bizitzeko bada aspaldian ez naiz irteten etxetik kanpora, igaro den igandean nintzen Aitortzen Jaun Deuna Frantzisko Elizara, eta Aldare Nagusian hartu genuen gure Jauna…».

15. «Orain agintzen dizut biotz guztiaz Jainkoaren maitasunaren gizona gizona legez porta zaitezela»

2. Ahozko iturriak

Historiaren diziplina akademikoaren barruan, ahozko testigantzen erabilera denbora luzez egon da alboratua. Historiaren profesionalizazioa eta, batez ere, haren instituzionalizazioa gertatu zenetik orain dela gutxi arte, hain zuzen. Orduan bihurtu ziren testu idatziak —batzuk, ez edozein— Historiaren iturri izateko baldintza betetzen zuten dokumentu mota bakarra. XX. mendearen lehen erdira arte itxaron behar dugu, soziologoen eta antropologoen eraginari esker, historialarien artean, pixkanaka, ahozko testigantzak ikerketarako iturri baliagarritzat jotzen hasteko. II. Mundu Gerraren ostean sortu zen sentimenduak bultzada handia eman zien ahozko iturriei. Gerraosteko Europa hartan, gertatutakoaren ahanzturaren kontra borrokatu behar zelako premia agertu zen. Gerrako testigantzak kontserbatzea zen ahanzturari aurre egiteko arma nagusia.

60ko hamarkadan zehar ahozko historiaren instituzionalizazio-prozesu bat gertatu zen Estatu Batuetan eta, besteak beste, *Oral History Association* sortu zen 1966an. Britainia Handian, ordea, ibilbidea bestelakoa izan zen. Gaur egun ahozko historia bezala ezagutzen dugunaren hastapenak Ingalaterran, 60ko hamarkadan Oxfordeko *Ruskin Collegen* Rapahel Samuelek antolatutako *History Workshop* delakoan aurki ditzakegu. Mintegi horren helburua *history from below* delakoari bultzada ematea zen, historia ofizialaren alternatiba bat sortzea, eta historia herrikoiagoa eta demokratikoagoa egiteko helburuz sortu zen. Hau da, eliteen aurrean pertsona arrunten ikuspuntua agerian uzten zuen historia jorratzeko borondatea izan zuten[16]. Baina Britainia Handian historia lokalean eta landa-eremuan desagertzen ari ziren tradizioak jasotzeko interesa zuten adituek ere ahozko historiaren bultzadari eragin zioten. Bestalde, *Oral History* aldizkariaren agerpena (1969) eta *Oral History Society*-ren sorrera (1973) mugarriak izan ziren Britainia Handiko ahozko historiarentzat.

Gure diziplinaren barruan ahozko iturrien erabileraren hedapenak historiaren demokratizazioa ekarri zuela esan daiteke, *behekoe*n edota *baztertue*n historiak ezagutzeko helburuz zabaldu baitziren. Hau da, historia ofizialetik at geratutako kolektiboen esperientziak jasotzeko asmoz eta historia ofizialak jaso ez zituen *egiak* berreskuratzen ahalbidetzeko borondatez hedatu zen iturri mota hauen erabilera (Llona, 2012: 40). Ahozko iturriez baliatzen zen historiak historia ofizialak mututu zituen haiei eman zien ahotsa. Horrela uler dezakegu beren lanetako protagonistak

16. <http://www.historyworkshop.org.uk/about-us/> (2016ko urriaren 24an kontsultatua).

emakumeak, klase subalternoak, eta, oro har, gizatalde edota historiako aldi guztietan bazterrean kokatuak izan diren horiek izatea. Gainera, zentzu horretan, ahozko dokumentuen erabilerak ikerketa-bide berriak zabaltzea ahalbidetu zuen: emakumeen historiarena, eguneroko bizitzarena, sexualitatearen edo identitateen formakuntzarena, esaterako.

Beharbada, ahozko historiaren baitan ikerketa-esparru esanguratsuenetako bat ahalbidetu zuten aitzindariak Italiako Alessandro Portelli eta Luisa Passerini historialariak izan ziren. Bi adituen ikerketak 80ko hamarkadan gertatu zen berrikuntza esanguratsuaren arduradun nagusietakoak dira. Memoriaren kontzeptuarekin du zerikusia Portellik eta Passerinik bultzatutako eraberritze horrek. Lehenengoak memoriaren inguruan plazaratutako hausnarketa teorikoek eragin handia izan dute ahozko testigantzekin lan egiten duten historialarien artean. Besteak beste, ahozko iturriek pertsonek egin zutenaren inguruko informazioa eskaintzeaz gain, beren iraganeko autopertzepzioei buruzko informazioa ere ematen zigutela ohartarazi zigun: zein zen pertsonen borondatea, zer egiten ari ziren, eta, gaur egun, egin zuten horretaz daukaten usteen inguruko informazioa eskaintzen dutela ere adierazi zuen aditu italiarrak. Proposamen horren harira, esanahien sorkuntza-prozesuan, memoriak esku-hartze aktiboa duela ohartarazi zuen autoreak (Portelli, 1991: 42 eta 45). Passerinik, bere aldetik, ahozko historiarako eragin handia izan zuen «Work Ideology and Consensus under Italian Fascism» («Lanaren ideologia eta adostasuna faxismo italiarraren pean») lan teorikoa plazaratu zuen 1979. urtean. Artikulu horretan, ahozko historiaren lehengaiak, hots, testigantzak, batez ere kulturaren adierazpen eta errepresentazio diren heinean, narrazio literal bat ez ezik, memoriaren, ideologiaren eta subkontzientearen dimentsioak ere eskaintzen dituztela azaldu zuen (Passerini, 1979: 84). Horrela, esan dezakegu, aipatutako bi autore italiar horiek 80ko hamarkadan zehar, ahozko historiaren barruan memoria bere azterketaren erdigunean kokatu zuen biraketa interpretatiboa egin zutela (Mudrovcic, 2005: 114-115). Iraganeko subjektuak ulertzeko grinak eta ahozko testigantzek daukaten esanahia interpretatzeko borondateak bultzatuta, diziplina anitzeko lanak egin zituzten aipatutako historialari biek. Izan ere, ibilbide horrek lagundu zuen ikertzaileen ardura gertakarien berreraikitzetik subjektibitateekiko kezkan oinarritutako lanak egitera igarotzen. Joera-aldaketa horrekin hiru lan-esparru garatu dira: memoriarekin lotutako lanak —nola funtzionatzen duen, haren fidagarritasuna, identitateak eraikitzeko prozesuan duen parte-hartzea—, oroimenen alderdi narratibo eta linguistikoekin zerikusia duten lanak —oroimenetara iristea ahalbidetzen duten forma literarioak eta haien interpretazioa—, eta, azkenik, norbanakoaren memoriaren adierazgarritasuna —garai bateko memoria sozialaren eta oroimen indibidualen arteko harremanak aztertuz—.

Aipatutako Portelli eta Passeriniren garaikidea izan zen Espainiako iragan gertuenaren memoria berreskuratzeko ahalegina. Zentzu horretan, 80ko hamarkadaren bigarren erdialdetik aurrera ahozko testigantzen erabilera hazi zen eta, hastapenetan behintzat, izaera militantea zuen historiagintza bat izan zela esan

genezake (Díaz Sánchez, 2007: 46). Izan ere, Gerra Zibila bizi zutenen, langile-mugimenduan aritu zirenen eta diktaduraren errepresioa jasan zutenen testigantzak jasotzen hasi zen korronte historiografiko bat bezala agertu zen. Lehenengo aldi horretan, historiagintzaren berrikuntza bultzatu baino gehiago, testigantzak jasotzeko premia gailendu zen. Testuinguru horretan, eragin handia izan zuen lehen lanetako bat Ronald Fraser historialariak 1979an argitaratutako *Recuérdalo tú y recuérdalo a otros* (*Gogoratu zuk eta gogoraraziezu besteei*) lana izan zen. Liburu horretan Gerra Zibila bizi izan zutenen testigantzak —hirurehun baino gehiago— bildu zituen eta, adituaren esanetan, berak egin zuena pertsona arrunten historia izan zen, historiako liburu tradizionaletan agertzen ez ziren subjektuen ahotsa biltzen zuen historia, alegia (Fraser, 1979). Ordutik ibilbide luzea bizi izan du ahozko historiak eta argitaratu diren lanak gero eta ugariagoak dira. Guztien artean, bere ikerketan ahozko iturriak erabili nahi dituen ikertzaileari funtsezko suerta dakizkioke, besteak beste, Cristina Borderíasen (1993), Miren Llonaren (2002), Rosa García-Orellán eta Joseba Beobideren (2004), eta Mercedes Vilanovaren (2005) lanak.

Ahozko iturrien erabilerak oraindik ere batzuen aurkakotasuna jasaten du. Askorentzat iturri horren izaera subjektiboa da egiazkotasuna nahikorik izan ez, eta, beraz, iraganaren berreraiketa bat egiteko zilegitasuna kentzen diena. Ahozko iturrien defentsan erabil dezakegun argumentua zera da: ez dagoela, egiatan, errealitatea leialki «islatzen» duen iturri objektiborik. Edozein iturri, euskarria zernahi duela ere, ez da inongo errealitatearen edo egiaren ispilu gardena. Iturri mota bakoitzak prozedura berezia inposatzen dio ikertzaileari, eta hor dago gakoa. Ahozko iturrien kasuan, «egia» edo «faltsu» kontzeptuak bigarren mailako arazo bihurtzen dira; izan ere, informazio kualitatiboa, esanguratsua ematen digute iturri horiek, ez iraganeko inolako egiarik (Llona, 2009: 361). Eta, aipatutakoaren harira, ahozko testigantzek ere, nola ez, jarraian azalduko ditugun prozedura propioak inposatzen dizkigute. Prozedura praktikoenak ez ezik, iturri horiekin lan egiteko, ezinbestekoa zaigu iturrion nolakotasuna baldintzatzen duen memoria kontzeptuaren eta haren adierazpen forma ohikoena den narrazioaren inguruko oinarrizko ideiak argitzea eta kontuan hartzea.

2.1. MEMORIA ETA NARRAZIOA

Gizakiok bizi izandakoa gaur egunera ekartzeko dugun mekanismo bat dugu: memoria. Gorputzean txertaturik daukagun giza gaitasuna bezala defini genezake memoria, une oro informazioa bereganatzen, eraldatzen eta berrinterpretatzen dagoen sistema dinamiko bat bezala. Lehenago aipatu dugun Alessandro Portellik era honetara azaltzen digu memoria zer den: haren esanetan, «memoria ez da datu-biltegi pasibo bat, baizik eta esangura-sortzailea den prozesu bat» (Portelli, 1991: 45). Memoria, irudikapenetara eta subjektibitateetara garamatzan kontzeptua da. Horregatik, ezinbestean, haren inguruan garatu diren hausnarketak eta ikasketak errealitatearen kontzeptu positibistetatik aldendurik dauden ikuspuntu

akademikoetatik egin dira. Izan ere, *egia izan den modukoa* aztertzen duen zientziaren ideia alboratu eta identitatearen zein subjektibitatearen inguruko lanek hazkundea bizi izan duten neurrian, memoriaren eta oroimenen interpretazioa ikerketa-lanen arduraren erdigunean kokatu da.

Lehenago aipatutako aditu italiarrek proposatutako ideiei jarraituz, memoria ez litzateke izango gertatu denaren artxibo bat, giza gaitasun dinamiko eta produktibo bat baizik. Norbanakoaren identitate-eraikuntzan parte hartzen du memoriak, are gehiago, subjektuaren identitatea memoriaren sorkuntza da. Ipuin bat kontatzen digutenean, irakurtzen dugunean edo gure inguruan gertatzen dena ikusten dugun bitartean, burmuinean informazioa gordetzen dugu, eta irudi forma duen informazio hori gordetzen dugun bitartean, esangurak eraikitzen gaude. Irudion finkapena ez da gertatu denaren erreprodukzio zehatz bat eta, gainera, une oro norbanakoaren subjektibitatearekin harremanean daude eta eraldatuz doaz. Izan ere, memoria sortzen duten sistemak aldakorrak dira. Aldakortasun-izaera horrek, batez ere, gaurko niari azalpen logiko bat ematearen beharrari erantzuten dio. Horrela, memoriak sortzen dituen sistemak, gaurko niari egokitzen doaz, eta, beraz, bizitzaren ibilbidearekin batera aldatzen doaz. Horrek guztiak memoriak «gorde» duen horren «desitxuraketa» sortzen du, baina, Antonio Damasio neurologo portugesak dioenez, une oro eraldatze-egoeran dauden zirkuituekin batera, badaude ia egonkor mantentzen diren beste batzuk ere. Eta azkeneko zirkuitu horiek dira norbanakoari bere biografiaren zentzua mantentzen baimentzen diotenak (Damasio, 2004a: 138). Horren harira oso erabilgarri egiten zaigu Miren Llonak sortutako kontzeptu bat: *memoria-guneak*, alegia. Norbanakoa toki mental horietara hurbil daiteke iragana gogoratu eta orduan bizi izandako emozioak (berriz) sentitzeko.

*Memoria-gune*ek sortzen dituzten oroipenak altzairuz eginda daudela dirudi: denborari eta aldakortasunari aurre eginez errepikatu egiten dira, ahazten gaitzak direla ematen dutelarik. *Memoria-gune*ek gizabanako baten identitate-narrazioaren lotuneak aztertzea baimentzen dute, eta ikertzaileontzat bereziki aberatsak dira bertan aurki baititzakegu iraganeko norbanakoaren bizipen eta esperientzia kolektiboen gako esanguratsuak (Llona, 2007: 55-56)[17]. Horra hor memoriaren azterketak ematen digun beste elementu aberats bat, norbanakoaren bizipen eta esperientzia kolektiboen ingurukoa dena, alegia. Kontuan izan behar dugu oroimenen elaborazioa ez dela bere osotasunean ekintza indibiduala. Bizi garen familien edo talde sozialen barruan eraikitzen ditugu gure bizipen indibidualari eta kolektiboari dagozkien oroimenak. Izan ere, norbanakoaren memoria eta *memoria kolektiboa* banaezinak dira. Maurice Halbwachs soziologoak sortutako termino hori, iraganeko gertakari eta tradizio multzoari ez ezik, eraginkorrak diren —eraikiak izan diren momentuan zein oroitzen den momentuan— esangura sozialen eta kolektiboen testuinguruari ere dagokio (Halbwachs, 2004a: 50 eta 2004b: 336). Beraz, esan dugun moduan,

17. Llonak berak memoria-gune kontzeptua *flash-bulb memories* kontzeptuarekin parekatzen du, bat-batean irudi eran agertzen zaigun argi iheskor erako oroipenak dira, esangura pertsonal eta emozional sakoneko memoriak.

memoria indibidualaren eta kolektiboaren artean banaezina den harreman sinbiotiko bat dago, eta paradoxikoa dirudien arren, memoria kolektiboaren analisi bat egiteko berorren bertsio indibidualen bidez baino ezin dezakegu egin, norbaiti galdetu behar diogu. Portellik adierazi zigun bezala, «memoriaren elaborazioa eta gogoratze-ekintza beti dira gauza indibidualak: pertsonek gogoratzen dute, ez taldeek» (Portelli, 1997: 157).

Memoriak bizi izandakoa orainaldira ekartzen digu. Oroimen horiek ahozko forman transmititzen direnean, norbanakoaren iraganeko esperientzia horiek narrazio forma hartzen dute. Horrela, narrazioa ahozko testigantzekin lan egiten dugunean kontuan izan behar dugun funtsezko beste elementu bat da. Horrela, aintzat hartu behar dugu narrazio forma hauek ez direla errealitatera gerturatzeko bidea ematen digun leiho bat, baizik eta subjektuek hura ulertzeko daukaten forma ezberdinak eta aldakorrak aztertzeko bide bat. Oroimenak errealitatearen pertzepzio indibidualak, gertakarien esperientzia eta nia berreraikitzen duten narratiba pertsonalak dira. Norbanakoak bere iraganari buruz egiten duen transmisioak ere izaera narratiboa hartzen du, eta gogoratzen duguna, oso bizia izanda ere, askotan zatikaturik, ordenarik gabe eta zehaztasun kronologikorik gabe ageri zaigu. Oroimen horrek koherentzia eta ulergarritasuna hartzen du inposatzen diogun egitura narratiboak ordena eta esangura ematen diolako. Narrazioarekin —eta ez ahanzturarekin— dago lotua, hain zuzen ere, memoriak ikertzaileontzat planteatzen duen arazorik handiena: ordena eza, dispertsioa, kaosa. Oroimenak antolatzeko tresnarik gabe, memoria erabilezina litzateke. Erretorikak, argudiatze-egiturek eta abarrek ahalbidetzen dute diskurtsoaren bidez oroitzapenak berreraikitzea. Narrazioak ahalbidetzen du oroipenei forma eta zentzua ematea.

Bizitakoa kontatzen dugunean, bi dimentsiotan burutzen dugu ariketa: alde batetik, memoria batek iraganeko niei dagozkien istorioak aukeratzen ditu, eta, beste alde batetik, gauzatzen dugun narrazioak, gaurko niaren balorazioak, etikak eta ideologiak, inposatutako ordenari jarraituz, artikulatzen dituzte oroipen horiek (Fernández, 1997: 82). Izan ere, kontuan izan behar dugu, ezen memoriak egunerokotasunetik egiten duela lan eta, beraz, oroitzen dugunak, orainaldiak eta etorkizunarekiko ditugun esperantzek, elkarri eragiten diotela. Eta ikertzaileok ni horien bertsio koherente bat bilatzen dugu, kausalitate- eta jarraitutasun-printzipioei jarraituko dien eta orainaldiarekiko logika mantenduko duen narrazio bat bilatzen dugu (Abrams, 2010: 33). Baina, hala ere, jende arruntaren bizitza-historiek ez dute izaten hain eroso suertatzen zaigun egituraketa narratiborik (Roca i Girona eta Martínez Flores, 2012). Aipatutako bi dimentsio horiez gain, jendearen kontaketek pertsonaiak eta argumentuak dituzte, kronologikoki egituraturik azaltzen zaizkigu eta, batez ere, garaikidea duten kulturan dauden egitura narratiboak erabiltzen dituzte. Aipaturiko eredu narratibo horiek informazio bereziki aberatsa ematen digute: norbanakoak bere bizipenak azaltzeko eta kontatzeko erabiltzen dituen narrazio formek ikerketarako esanguratsua den informazioa ematen digute (Chanfrault-Duchet, 1991: 81). Chanfrault-Ducheten esanetan, adibidez, narrazioak

genero epikoari heltzen dionean, subjektuak komunitatearekin bat egiten du aldaketa lortze aldera; narrazioak estilo erromantikoa duenean, aldiz, subjektuak aldaketa progresoaren eta desafio indibidualaren bidez ulertzen duela adieraziko luke. Parte honetan, literaturak eta historiak bat egiten dute. Hitz batez, narrazio forma hartzen duen memoriaren azterketa egitean, kontatzen dena eta horrek hartzen duen modua, biak dira azaldu beharreko elementuak, biak problematizatu behar ditugu.

2.2. AHOZKO ITURRIEN SORKUNTZA: ELKARRIZKETAK

Ahozko iturriak lortzeko elkarrizketa mota desberdinak egin daitezke eta, oro har, elkarrizketatzaileak elkarrizketaren aurrean duen parte-hartze maila da elkarrizketa mota horiek sailkatzeko irizpide nagusia. Sailkapen orokor bat eginik, bi elkarrizketa mota bereiz genitzake: alde batetik, elkarrizketa *eredu zuzenduan* edo *gidatuan***,** elkarrizketatzaileak aldez aurretik prestatu duen galdetegi edo inkesta aurkezten die elkarrizketatuko dituen pertsonei. Inkestan oinarritutako elkarrizketan berriemaileak kanpotik ezarri zaion ordena batean emango ditu erantzunak, testigantzaren bereizgarritasunak mugatuz. Eta are garrantzitsuagoa dena, elkarrizketa mota honek ez digu elkarrizketatuaren subjektibitatera iristeko aukerarik ematen.

Prozedura horren aurka azaldu diren historialariek metodo positibista, zientifizista eta ahistorikoa dela salatu dute (Gagnon, 1993: 35). Gure ustez, identitateen edo subjektibitateen inguruan hausnartu nahi duenarentzat, eredu erdi-zuzendua da aberasgarriena. Norbaitek esan lezake egokiena elkarrizketatzailearen inolako interbentziorik gabeko elkarrizketa litzatekeela, baina Paul Thompsonek dioen bezala «elkarrizketa guztiz askeak ez dira existitzen» (1988: 224). Beraz, esan bezala, erdi-zuzendutako galdetegi batean oinarritutako metodologiaren aldekoak gara. Eredu horretan ez dago aldez aurretik finkatutako galderarik, nolabait esatearren, gai-zerrenda bat baizik. Zerrenda hori elkarrizketaren joanarekin batera forma hartzen joango da —igarri denez, elkarrizketa bakoitzak bere galdera propioak izango ditu, solasaldiaren izaerak berak finkatuko dituenak—. Hortaz, ikertzaileak elkarrizketan landu nahi dituen galderak edo gaiak elkarrizketa igarotzearekin batera moldatzen jakin behar du. Ikusten denez, elkarrizketa mota honetan inprobisazioak eta espontaneotasunak presentzia garrantzitsua daukate. Horrela, aldez aurretik jorratu nahi den gaia ondo ezagutzeak eta elkarrizketatzailearen sormenak inprobisazio horri lagunduko diote, hein handi batean, elkarrizketaren beraren arrakastaren aukera areagotuz.

Horrela, guk, *bizitza-historia* deituriko metodoaren alde egiten dugu, narrazio-elkarrizketa bezala defini dezakegun elkarrizketa motaren alde, alegia (Grele, 1991: 257). Bakarrizketa —ikertzailearen eta elkarrizketatuaren artean sortzen den solasaldia— gidatu horren helburua elkarrizketatuak bere bizitzaren gertaera esanguratsuen inguruan berri ematea da. Elkarrizketa horietan, beraz, elkarrizketatua den pertsonak bere bizitzaren inguruko ibilbide erreflexiboa egiten

du, bere bizitza *nola* oroitzen duen jasotzen duen pasarte subjektibo bat eskuratzea delarik historialariaren xedea. Hau da, narratzaileak bere bizitzaren inguruko hausnarketa-ibilbidea garatuko duen «narrazio-elkarrizketa» mantentzea dugu helburu. Horregatik, ahalik eta interferentzia gutxien egin behar dugu narratzailearen kontaketan, ez dugu berariaz eta modu aktiboan elkarrizketatuaren diskurtsoan parte hartuko. Informatzailearen memorian gidarik gabe azaleratzen diren oroitzapenak eta horiek subjektuaren diskurtsoa nola artikulatzen duten interesatzen zaigu (Roca i Girona eta Martínez, 2012: 94). Zentzu horretan, eta datuak barik oroitzapenak interesatzen zaizkigunez, ez dugu aldez aurretik galdetegi edo inkesta zehatzik, aldaezinik eta sakonik prestatuko. Horren ordez, elkarrizketan jorratu nahi ditugun gaien eta horiekin lotutako azpigaien zerrenda bat prestatuko dugu. Garai bateko identitateen edo esperientzien inguruko ikerketa bat gauzatzeko elkarrizketa desberdin ugari egingo ditugunez, elkarrizketa indibidual guztien artean landutako gai-zerrendak koherentzia bat izan beharko luke, horien analisia erraztuko baitigu.

Bizitza-historien protagonista narratzailea da eta, hortaz, historialariok ahalik eta gutxien mintzatuko gara, jarrera diskretua mantenduko dugularik. Ez dugu iritzirik emango, noski. Baina, era berean, ez ahaztu historialariok garela elkarrizketaren gidariak. Gai jakin baten inguruan sakontzea nahi badugu, hura hobeto azaltzeko eskatuko diogu. Narratzailea gaitik urruntzen bada baina dioena interesgarria dela jotzen badugu, ez dugu etengo eta gure interesetatik urrun dauden gaiei buruz hitz egiten badu, sotiltasunez elkarrizketa birbideratuko dugu. Eta, kontuan izan, behin eta berriz galdetu zaionari erantzutea ekiditen badu, *ihes-egite* hori ere esanguratsua izan daiteke haren bizitza-historian.

Ez da gauza erraza proposamen horiek praktikara eramatea. Baliagarriak izan daitezke, zentzu horretan, euren elkarrizketen esperientzian oinarriturik, zenbait jarraibide zehaztu dituzten adituen lanak (Llona, 2012; Shopes, 2001; Tourtier-Bonazzi, 1991). Iturrien eraketa arrakastatsuak sortze aldera lagungarrienak iruditzen zaizkigun aholkuak nabarmenduko ditugu.

Lehenbizi, elkarrizketa arrakastatsua izan dadin, garrantzitsua da aldez aurretik berau ondo prestatzea. Zentzu horretan elkarrizketatua izango den pertsonaren inguruan ahalik eta informazio handiena bildu behar da. Gainera, oso garrantzitsua da elkarrizketatuak hizpide izango duen testuingurua lehenengo eta bigarren mailako iturrien bidez ondo ezagutzea: garaiko bizimoduaren ezaugarriak, balioak, kultura-adierazpenak, gertakari politikoak eta sozialak, etab. Subjektuaren esperientziaren zein eremuren inguruan ikertu nahi den argi izan behar dugu, eta, beraz, elkarrizketara joan aurretik, horri buruzko lanak irakurri beharko ditugu. Hau da, gure lanean XX. mendearen hasieran genero-identitateak nola eraiki ziren ikertu nahi badugu, kategoria horren eta gure gaiaren inguruan idatzi diren lanak irakurri behar ditugu. Azken batean, ikertu nahi dugun gaiaren inguruko ezagutza sakon bat izan behar dugu narratzailea hitz egiten ari den momentuan elkarrizketa modu bikainean gidatzeko.

Bestalde, narratzailea ezagutzen duen hirugarren pertsona bat ezagutuko bagenu, hirugarren pertsona horrekin solasaldi informal bat izan dezakegu elkarrizketatu nagi dugun pertsonaren inguruko informazio baliotsua eman eta elkarrizketaren diseinua prestatzen lagun diezaguke eta. Gomendagarria da, era berean, elkarrizketa egin aurretik elkarrizketatua izango den pertsonarekin solasaldi txiki bat izatea elkar ezagutzeko, datu biografikoak lortzeko eta ondorengo elkarrizketa prestatzen laguntzeko. Aldi berean, elkarrizketatu nahi dugun pertsonarekin kontaktuan jartzean geure buruaren eta proiektuaren inguruko datuak emango dizkiogu, baita elkarrizketan zer gairi buruz hitz egitea gustatuko litzaigukeen esan ere. Aurreneko aurkezpen-kontaktu hau, hezibide onekoa izateaz gain, haren prestasuna neurtzeko aukera ere izan daiteke. Hasiera-hasieratik elkarrizketa grabatu egingo dela, izengabetasuna atxikitzeko aukera duela, grabaketari zer erabilera emango diogun eta berau zein artxibotan utziko dugun azalduko diogu.

Elkarrizketaren hitzordua erabakitzeko orduan malguak izan eta elkarrizketatuaren nahietara moldatu behar dugu. Haren etxea izan ohi da elkarrizketa gauzatzeko lekurik ohikoena. Elkarrizketara joan aurretik aurkezpen bat grabatu behar dugu gure eta narratzailearen izen-abizenak, elkarrizketaren gaia, lekua eta data jasoz. Gainera, hitzartutako tokira behar dugun material guztia soinean daramagula baieztatuko dugu: elkarrizketaren eskema, grabagailuak memoria eta bateria nahikoa dituela; eta boligrafoa eta koaderno bat elkarrizketaren xehetasunak jasotzeko. Elkarrizketara garaiz heltzea funtsezkoa da. Ez iritsi inoiz berandu, elkarrizketatuaren eta gure artean sortuko den harremana konfiantzazkoa izateak ateak zabalduko dizkigu, eta horregatik komenigarria da horrelako errespetu faltarik ez egitea. Garrantzitsuena elkarrizketatua eroso sentitzea eta solasaldia oztopatuko duen trabarik gabeko espazio batean garatzea da. Beraz, grabatzen hasi aurretik elkarrizketa egingo den lekuak baldintza egokiak biltzen dituela ziurtatu behar dugu, hau da, ez dagoela elkarrizketatuari arreta galtzea eragingo dion faktorerik, ezta grabaketa oztopatuko duen zaratarik ere. Hala, arreta galtzea eragin dezaketen gailuak (telefono mugikorra, esaterako) itzaltzea komenigarria da. Lekuak grabatzeko baldintza egokiak betetzen ez baditu ez hasi grabatzen. Elkarrizketa on bat egiteko gakoetako bat narratzailearekin sortzen den harremana da: narratzailea eroso sentitu behar da eta, hortaz, adeitsua izan. Elkarrizketa hasi aurretik narratzailearekin hitz egin egunerokotasunei buruz, elkarrizketaren nondik norakoak azaldu… sor daitekeen tentsioa baretze aldera eta konfiantza-eremua zabaltzeko. Gaur egun indarrean dagoen Jabetza Intelektualaren Legeak elkarrizketaren autoretza historialariari aitortzen dio, baina elkarrizketa hasi aurretik narratzaileak baimena eman behar du bere kontaketa ikerketan erabiltzeko. Elkarrizketatuari eman diezaiokegun horrelako lege-dokumentuaren eredu ezberdinak eskaintzen dizkigu Ahozko Historiaren Artxiboak (AHOA <http://www.ahoaweb.org/euskera.php>). Web orrialdetik deskargatu horietako bat eta elkarrizketatuari eskaini sina dezan[18]. Oro har kalkulatzen da, elkarrizketa haren etxera iritsi eta 20-30 minutura hasiko

18. Ikus adibidea: <http://www.ahoaweb.org/doc_legales/ahoa-modelo-X-eu.pdf>.

dela. Elkarrizketa on bat garatzeko gako nagusietako bat berau lasai eta astiro egitea da (Llona, 2012: 36).

Kontaktu bakoitzarekin aipatutako pausoei jarraituz, ikerketa-proiekturako ikertu nahi den memoria kolektiboa aztertzeko esanguratsua izango den elkarrizketatulagin bat lortu behar dugu. Zentzu horretan, gure ikerketaren helburuek gidatuko dute elkarrizketatuko ditugun pertsonen profila. Elkarrizketatuak lortzeko bide errazetako bat *elur-bola*ren teknika izan daiteke, hau da, elkarrizketatu ditugun pertsonei kontaktu posible berriengatik galdetzea. Noski, guk geuk norbait ezagutuz gero hari zuzenean galde diezaiokegu. Ikerketaren hasierako unetik zerrenda zabal bat izanez gero, elkarrizketatu onak izan daitezkeenak aukeratuko ditugu lehendabizi. Norbait elkarrizketatu ona izan daitekeen edo ez baloratzeko, hitz egiteko prestutasuna duen edo ez baloratu behar dugu. Elkarrizketatu nahi ditugun pertsonen inguruko datuak (helbidea, telefonoa, posta elektronikoa, etab.) biltzen dituen zerrenda bat egiteak lana erraztuko digu etorkizunean. Bestalde, elkarrizketa kopurua egin diren elkarrizketen kalitatearen arabera finkatuko dugu. Zenbat eta elkarrizketa gehiago egin, orduan eta ziurragoa da ikerketarako lagin esanguratsu bat izatea. Edonola ere, ikerketa-lanerako egingo ditugun elkarrizketa kopurua ez dugu aldez aurretik finkatuko. Saturazio-puntua igarotzean, hau da, egiten diren elkarrizketek informazio berririk ematen ez digutenean jakingo dugu burututako elkarrizketa kopurua nahikoa dela. Elkarrizketatzea lan zaila da eta askotan ez dago historialariaren eskuetan elkarrizketaren arrakasta. Horregatik eskarmentuak lagunduko digu elkarrizketa onak egiten.

Elkarrizketa —bizitza-historiekin— hasteko modu bat «kontaidazu zure bizitza» zuzenean galdetzea da. Horrela, elkarrizketatuak narrazio autobiografikoari ekingo dio eta bere bizitzako elementu esanguratsuenak zeintzuk diren ikusi ahal izango dugu. Nola hitz egiten duten, zein hitz erabiltzen dituzten, narrazioa nola ordenatua dagoen, zer azpimarratzen duen edota zer gordetzen duen isilean, informazio esanguratsuak dira. Iraganeko gertakizunak, askotan, nahasirik agertzen dira gure oroitzapenetan. Zentzu horretan, horien gainean ezartzen dugun egitura narratiboak egiten ditu oroimenak ulergarri. Narratibitate hori da, hain zuzen, ordena eta esanahia ematen diena. Oro har, elkarrizketatuak garaikideak dituzten eredu narratiboetan oinarritzen dira euren testigantzak eraikitzeko. Adituek estilo narratibo desberdinak bereizten dituzte, adibidez, erromantikoa edo melodramatikoa, epikoa, etab. Bestalde, hainbat ikertzailek desberdintasun esanguratsuak ikusi dituzte gizonek eta emakumeek egindako niaren kontaeretan. Gehienetan emakumeek zeharkako estiloaz baliatzen dira, hau da, batik bat besteek esan dutena kontatzen dute, askotan hitzez hitz, eta gizonak, aldiz, euren hitzekin mintzatzen dira. Beste desberdintasun bat kronologiari dagokiona izango litzateke: emakumeek, oro har gizonek ez bezala, atzera-aurrerako salto gehiago egingo lukete. Edonola ere, Llonak ohartarazi bezala, genero-ezaugarriak aldatuz doaz eta, hortaz, eta horiekin, batak eta besteak erabilitako estiloak ere. Beraz, narrazio era hauen esanahiak ere historizatu behar ditugu eta ez naturaltzat jo edo era mekaniko batean identifikatu.

Narrazio-ereduak historizatzeko funtsezkoa da elkarrizketatua eta haren bizitza-historia, azkeneko hori posible egin duten baldintzekin harremanean jartzea (Llona, 2012: 29). Bestalde, bizitza-ibilbidea nola egituratzen duen, zein hito edo gertakari azpimarratzen dituen… kontuan izan behar dira analisian, informazio esanguratsua eskainiko baitigute.

Ez dugu kezkatu edo larritu behar errelatoan edo kontaketan sortzen diren etenaldi edota isiltasunengatik. Elkarrizketan esku hartu aurretik ondo bereizi beharko genituzke erantzun baten amaiera eta zalantzaren ondorioz sortzen den isilaldia. Passerinik azpimarratu zuen bezala, isiluneak ere guztiz esanguratsuak dira kontaketan. Askotan narratzaileek etenak egiten dituzte gauza garrantzitsu bat kontatu aurretik. Isiluneak errespetatu egin behar ditugu, pertsonaren kontaketa delako eta, batez ere, askotan adierazgarriak izaten direlako. Isiluneak ez dira ahanzturak, eta gehienetan narratzailea isilune horren jakitun da.

Narratzailea hitz egitera animatzen ez bada edo nondik hasi ez dakiela badago, laguntzerik badaukagu, noski: adibidez, «kontaidazu zure bizitza»ren ondoren «hitz egidazu zure txikitako bizitzari buruz, nolakoa zen egunerokotasuna…» bezalako galdera zabalak planteatuko dizkiogu. Memoria aktibatzeko argazkiak, pelikula-pasarteak —gaur egungo teknologiak ahalbidetzen digu pasarte txiki bat erakustea— liburuak, posterrrak, eta abar ikustea oso baliagarria izan daiteke. Bestalde, erantzuten bukatzen duenean eta informazio sakonagoa nahi izanez gero xehetasun gehiago eska diezaiokegu. Egiten diren galderek argiak eta erantzuna ahalik eta gutxien mugatuko dutenak izan behar dute. Adibidez, «non jaio zinen?» galdetzea baino, egokiago izan daiteke «hitz egidazu zure txikitako oroitzapenei buruz» bezalako galdera egitea. Galdera akademikoak —adibidez, «Zer pentsatzen zenuen patriarkatuari buruz» edo «zer iritzi zenuen»— ekidin behar dira. Esan dugun bezala, narratzaileari ez zaio moztu behar eta, hortaz, galderak bururatzen zaizkigun heinean koadernotxoan apuntatuko ditugu ez ahazteko eta galdera erantzuten bukatzen duenean egingo diogu.

Oro har, komenigarria da elkarrizketak gehienez bi ordu baino gehiago ez luzatzea. Lortu dugun testigantza interesgarria iruditu bazaigu, hobe da bigarren saio bat hitzartzea. Elkarrizketa amaitzean, ez dugu korrika eta berehala joan behar; lasaitasunez bukatu solasaldia, eta grabaketa bukatu bada ere, narratzaileari elkarrizketan zehar sentitu dituen emozioak baretzeko eta bere onera itzultzeko denbora eman. Lehenago aipatu dugun bezala, eta solasaldiaren bukaera errazteko, ezagutzen dituen kontaktu posibleengatik galde diezaiokegu.

Elkarrizketen audio-artxiboak etiketatu egin behar dira. Horretarako elkarrizketatuaren eta elkarrizketatzailearen izen-abizenak eta data ipini behar dira. Nahitaezkoa da audio-artxiboaren segurtasun-kopia bat egitea. Horretaz aparte, dokumentu batean ondoko informazioa biltzea komenigarria litzateke: elkarrizketatuaren izen-abizenak edota goitizena, kontaktuaren datuak (telefono-

zenbakia etab.), elkarrizketatzailearen izena, elkarrizketaren data eta lekua eta elkarrizketaren iraupena. Horretaz gain, informe txiki bat idatzi elkarrizketan xehetasunak jasoz.

2.3. TRANSKRIPZIOA

Ahozko iturriekin lan egiten duten historialarien lan-tresna da transkripzioa, zeina, zenbait adituren ustez, ahozko kontaeren narratibitatea aztertzeko beharrezkoa den (Llona, 2012: 38). Ahozko dokumentua, hau da, grabatutakoa transkribatzea lan luzea eta nekeza da. Grabazio-ordu bakoitzeko, gutxienez 3 orduko transkripzio-lana kalkulatzen dute adituek. Baina, elkarrizketaren azterketa eta sakoneko hausnarketa errazten du. Transkripzioaren praktika, ikuspuntu teoriko batetik ez dago eztabaidatik at; izan ere, ahozko lengoaia idatzizko lengoaiaren bidez irudikatzearen arazoaren inguruan hainbat ikuspuntu daude (Moore, 1999). Erabateko adostasunik ez dagoen arren, ahozko iturriekin lan egiten duten historialari askok transkripzioak erabiltzen dituzte. Gure aburuz, oro har, ahozko dokumentua ahalik eta fidelen transkribatzea da egokiena. Llona eta Folguera, esaterako, transkripzioaren alde agertzen dira, baina ahozkotasun osoaren errepresentazioa idatzizko lengoaiaren bidez egitea ezinezkoa dela aitortzen dute. Bi autoreak ahozko dokumentuaren edukiari ahalik eta fideltasun handiena gordetzearen alde agertzen dira, eta transkripzioak narratzailearen egoera emozionala, isiluneak, harridura- eta galdera-markak, eta abar jaso beharko lituzkeela diote (Llona, 2012: 38; Folguera, 1994: 88). Ahozko dokumentuaren transkripzioa egiteko, elkarrizketa egin dugunetik ahalik eta denbora gutxien igarotzen saiatu behar dugu eta, ahal izanez gero, elkarrizketa egin duenak transkribatu behar du.

Elkarrizketako zenbait pasarte transkribatzean arazoak sor dakizkiguke eta, horiek gainditzeko irizpide hauei jarraitzea gomendagarria izan daiteke:

- Gaizki edo gutxi entzuten diren pasarteak kortxete artean jartzen dira.
- Isiluneak, apurketa sintaktikoak, zalantzak eta abar hiru puntuekin irudikatzen dira.
- Diskrezioa behar izanez gero, elkarrizketan agertzen diren pertsonak izen-abizenaren hasierako letrarekin edo izengoitiarekin adieraziko ditugu.
- Informatzailearen keinuak edo ekintzak jasotzen dituen oharrak marratxoen artean idatziko ditugu, adibidez: barreak; besoak astintzen ditu…
- Ohikoa baino intonazio ozenagoa letra lodiz adieraziko dira.
- Elkarrizketa paragrafoetan antolatu eta puntuazioa zainduko dugu, testua ulergarri egiteko. Nahi bada, geroko analisia errazteko, gure galderak letra lodiz jarri, eta tarteka, minutuak jarri testuan.

3. Zinema

Kobazuloen garaitik kulturek beren sentipenak, emozioak, imajinazioak eta bizipenak irudikatzeko joera izan dute. Atal honetan, hain zuzen ere, irudizko errepresentazioen eremuan murgilduko gara. Zehazkiago, zibilizazio modernoko masen kontsumora bideratutako adierazpen-bide, komunikabide eta aisialdiko espektakulu nagusia izan den zinemaren irudiez arituko gara. Esperimentazio zientifikotik sortua, zinema izan da masa-gizarte garaikideen eta zibilizazio modernoaren masa-espektakulu paradigmatikoa eta jendarteen artean arrakastarik erabatekoena lortu duen arte-adierazpena. Duela gutxi arte, zinema-aretoak lehenbizi, telebistak ondoren, eta formatu ezberdinetako (VHS, DVD, BlueRay) erreproduzitzaileak beranduago, izan dira irudizko proiekzioetara iristeko moduak. Horien tokia hartu du gaur egun gailendu egin den euskarri informatikoak: hau da sarean aurki ditzakegun bideoak ikusteko gailu nagusia. Euskarriak aldatu dira, baina zinemagintzaren hizkuntzan oinarritzen diren irudien proiekzioek gure egunerokotasuna okupatzen jarraitzen dute —agian gaur egun inoiz baino gehiago, nahiz eta, noski, pelikula baten eta Youtubeko grabazio baten kodeak, logikak, baliabideak eta balizko jasotzaileak berdinak ez diren—. Film-irudiez inguratuta bizi gara eta, batez ere XX. mendearen bukaerako Mendebaldeko gizarteari dagokionez, belaunaldi ezberdinetako jendea zinemarekin hazi eta hezi da.

Zinema gure ikerketaren iturri nagusia denean, iturri horrekin lan egiteko beharrezkotzat jotzen ditugun oinarrizko ideia batzuen inguruan jardungo dugu. Bere sorreraren inguruan eta historiagintzan eskaini izan zaion arretaz arituko gara lehendabizi. Ondoren, iturriekin lan zehatza egiteko orduan, metodologiari dagokion eremuan sartuko gara: irudiek eta narrazioek bat egitean nola lan egiten duten azalduko dugu, eta, alde praktikoenean, pelikulekin kontaktuan gauden momentuan jarduteko aholkuak proposatuko ditugu. Irudiekin lan egingo duenak bere metodologia propioa eraikitzean oinarritzat erabil dezakeen lehenengo harria eskaintzea da gure helburua.

3.1. ZINEMA ETA HISTORIA: XX. MENDEKO MASA-GIZARTEAREN ESPEKTAKULUA

Zinemagintzaren jaiotza masa-gizartearen sorreraren garaian kokatzen dugu, XIX. mendearen bukaera eta XX. mendearen hasiera artean alegia. Testuinguru horretan Mendebaldeko gizarteek historia garaikideko prozesu garrantzitsuenetarikotzat jo dezakeguna bizi izan zuten. Eguneroko bizitzaren anatomia erabat aldatu eta

indibiduoek mundua ikusteko, sentitzeko eta bizitzeko formak ere aldatu egin ziren. Bigarren industria-iraultza eta hirietako populazioaren hazkundea gertatu ziren garai horretan, hirietako masak bizitza sozialeko protagonista anonimo eta inpertsonalak bilakatu ziren. Hiriguneak ziren modernitatearen erdigunea eta masa-gizartearen jaioterria. Gizarte tradizional eta hierarkikoen ezaugarri ziren harreman moduak —elizak, komunitateak eta senitartekotzak egituratua— alboratu eta hirietako borondatezko harreman indibidualista eta kontraktualak gailentzen joan ziren. Sekularizazio-prozesuarekin lotua egon zen ibilbide hura: mundu erlijiosoa esparru pribatura mugatu eta garai batean horrek okupatzen zuen espazio publikoa gizarte zibilak eta haren ohitura berriek okupatu zuten. Ohitura berri horietan kokatzen dira soziabilitate modernoaren espazio ere izango ziren masa-komunikabide eta espektakulu berriak, besteak beste, *music-hall*, kirola, eta nola ez, zinema.

Lehenago esan dugu zinemagintza esperimentazio zientifikotik jaio zela, eta zentzu horretan ere hartzen dugu modernitatearen masa-espektakulu paradigmatikotzat. Lumiére anaia frantsesak izan ziren lehenbiziko aldiz 1895. urteko abenduaren 28an imajinak mugimenduan erakutsi zituztenak. Soinuaren sarrera Ameriketako Estatu Batuetako Hollywoodeko zinema-estudioetatik etorri zen 1920ko hamarkadaren bukaeran. Lehenengo esperimentuetan argazki-pelikularen proiekzioari laguntzen zion orkestra edo musika-doinuarekin lortu zen pelikularen soinu-efektua. Asmakizun hori *The jazz singer* (Alan Crosland, 1927) pelikularekin frogatu zen lehen aldiz. Handik gutxira, 1928. urtean agertu zen soinu-banda zeluloidean inprimaturik, imajinaren ondoan. Esanguratsua gerta daiteke asmakizun hori aplikatu zuen lehenengo pelikulak *Applause* (Rouben Maumoulian, 1929) bezalako soinudun izenburua izatea. Jaiotzatik gertatu bezala, pelikulak egin eta proiektatzeko prozesuek zein zinemagintzari dagozkion gainontzeko elementu teknikoek aldaketa garrantzitsuak bizi izan dituzte denboran zehar: kolorea, cinemascope, efektu bereziak, 3D eta abar (Bordwell eta Thompson, 2011; Caparrós, 1990; Gubern, 2001; Parkinson, 1998).

Jendeak aho batez txalotu zuen asmakuntzaren etorrera eta XX. mende guztian zehar masa-komunikabide eta masen entretenimendurako ikuskizun protagonista izan da. Zinemak jendartean lortu zuen geroz eta populartasun handiagoarekin loturik, haren mobilizazio- edota eragite-ahalmena handitu egin zen, eta adoktrinamendu zein propaganda zabaltzeko erabilia ere izan zen XX. mendearen hasieran. Ezaugarri horiekin guztiekin loturik egon da zinemagintzaren ikerketa akademikoak urteetan zehar jasan duen errezeloa. Izan ere, masen kontsumora eta jende arruntenaren eta masen entretenimendura zuzendutako irudizko komunikazioaren ikerketak ibilbide luzea egin behar izan du analisirako merezimendua lortu arte. Pixkanaka zinemaren ikasketak zenbait diziplinaren interesa piztu zuen. Historia arloaren baitan ere, garai bateko mesfidantzak alde batera uzten joan dira eta gaur egun iturri aberasgarria eta erabilgarria kontsideratua dago (De Pablo, 2001: 9-28).

Noski, hein batean, historialariontzat eremu ezezaguna da, zeren zinemagintzaren kodeak eta narrazio zein irudien lan egiteko erak ez baitira, normalean, gure diziplinaren barruan jorratzen. Horregatik, gure borondatea iragana ikertzea dela ahaztu gabe, bestelako jakintza-eremuetatik oinarri teoriko, proposamen, ideia eta ikasketa interesgarriak inkorporatu diezazkiekegu gure lanei. Zentzu horretan, denboran zehar merezi izan dituen hurbilpen guztien artean, bereziki interesgarriak iruditzen zaizkigu teoria kritiko feministek eta haiekin lotura estua duten ikasketa kulturalek egindako proposamenak eta hausnarketak. Horiengandik ikasi dugu pelikula batean parte hartzen duten elementu guztiak —kameren begirada, enkoadraketak, narrazioak eta abar— botere-harreman jakinen adierazpen-formak direla. Teknikaren bidez gauzatzen diren hierarkia horiek esangura sozialak dituzte, eta horien analisiak gizarte baten mundua ulertzeko era argitzen lagundu diezagukete. Laura Mulvey aditua izan zen era laburbilduan azaldu dugun ideia hori mahaigaineratu zuena. Berari zor diogu kamerek eraikitzen duten begiradaren norabidearen eta horren eraikitze-prozesuaren inguruko hausnarketa aitzindaria. Zinemagintzaren teoria kritiko feministarentzat erabakigarria izan zen Mulveyk 1975. urtean *Screen* aldizkarian argitaratu zuen «Visual Pleasure and Narrative Cinema» («Ikus-plazerra eta zinema narratiboa») izenburuko artikulua. Lan horren analisian, zine klasikoaren izaera politikoa azpimarratu zuen, eta horrek irudikatzen duen emakumea ikuslearen begiradarentzako *fetix* bat baino ez dela aldarrikatu. Mulveyren esanetan, hiru begirada daude pelikula batean: kamerarena, narrazioarena eta publikoarena. Hiru begirada horiek maskulinoak lirateke. Horren arabera, narrazioetako irudi femeninoen helburua publiko maskulinoaren desira piztea izango litzateke; horrek emakume ikusleengan sortuko lukeen efektua —irakaskuntza— desiratuak izateko nahia izango litzateke. Ekarpen garrantzitsua izan zen geroago Teresa de Lauretisek aipaturiko ideiei emandako erantzun kritikoa. Teorialari feminista italiarraren ustez, Mulveyren analisiak guztiz baztertu egiten zuen emakumeek zine klasikoarekin gozatzeko zuten aukera. De Lauretisen ustez, aditu britainiarraren proposamena zurruna eta aldebakarra zen, eta ez zuen kontuan hartzen ikusleon aniztasunaren garrantzia eta era batean edo bestean aukeratzeko dugun ahalmena (De Lauretis, 1987 eta 1992).

Gure artean oraindik presentzia urria duten arren, ikasketa kulturalek zinemagintza eta subjektibitateen inguruan egindako hausnarketak erreferentzia garrantzitsuak eta baliotsuak dira gure ustez (Graham eta Labanyi, 1995: v; del Arco, 2007: 266). Proposamen horietatik, irudien esanahien hausnarketan, zinemak nola eragiten duen gizarteetan edota nola parte hartzen duen identitateen eraikuntzan eta subjektibitateetan sakon dezakegu. Gainera, XX. mendearen bukaeran eta XXI. mendearen hasieran, *cultural studies* horien baitan zinemagintza lantzen duten zenbait ikertzailek lehenengo atalean aipatu dugun *inkorporazio*aren paradigmatik gertu dagoen ikuspuntu haptikoa erantsi diete beren lanei. Proposamen horretatik abiatutako lanek, zinemaren dimentsio narratiboa edo linguistikoa ez ezik, dimentsio sentsoriala ere hartzen dute kontuan, pelikulen efektu korporala azpimarratuz.

Lan-eremu honetan aritzen diren adituen artean, funtsezkoak dira Jo Labanyiren (2002, 2010), Steven Shaviroren (1993 eta 2010), Laura Marksen (1999, 2002), Beth Carrollen (2016), Steven Marshen (2006) edota Thomas Elsaesser eta Malte Hagenerren (2015) obrak. Bestalde, pelikulek ikusleengan uzten dituzten aztarna emozionalak aztertzeko orduan, oso interesgarria da zinemagintzan zentratutako hausnarketari ahozko iturrien lanketa uztartzea. Ikerketa-praktika horren adibide ezin hobeak ditugu Annete Kuhnen «"Me he acordado de ese día toda mi vida". El papel del tiempo y los recuerdos en los fans fieles a una star» («"Bizi osoan zehar gogoratu dut egun hori". Denboraren papera eta oroitzapenak zinema izarren fan leialetan») (1998) lana eta lehenago aipaturiko Labanyiren «El cine y la mediación de la vida cotidiana en la España de los años 40 y 50» («Zinema eta eguneroko bizitzaren mediazioa 40 eta 50 hamarkadetako Espainian») artikulua (2002).

3.2. ZER DA ZINEMA? ZER INFORMAZIO MOTA LORTUKO DUGU ZINEMAREKIN?

Gure proposamenaren arabera, zinema ez da bere garaiko errealitatearen hartzaile, jasotzaile edo islatzaile soila. Zinema eragile soziala da eta gizarte-ekintzetan eta gizarte-aldaketetan aktiboki parte hartzen du. Ideia hori ondo ulertzeko erabilgarria zaigu bigarren atalean azaldu dugun boterearen kontzeptu foucaultianoa. Masa-gizarteen baitan produzitutako produktu arrakastatsuak —zinema ez ezik, prentsa, musika, iragarkiak, *star-system*a eta abar— subjektibitateen eta identitateen eraikuntzan laguntzen duten botere-ekimen eta ezagutza-sortzaile ez-zentralizatu, zatitu, aldakor eta emankor bezala ulertzen ditugu. XX. mendeko kultura popularrean, zinema popularra izan da gorputz otzanak sortzeko teknika diziplinario nagusia edo behintzat eraginkorrenetakoa. Emozioak eragiteko duen gaitasuna eta haren populartasuna dira pelikula boteretsuenen gakoa. Aipatutako bi elementuek pelikula batean bat egiten dutenean lortuko du film horrek masen eredu normatiboak eta bazterretakoak eraikitzeko mekanismo eraginkorra izatea. Baieztapen horri jarraituz gero ondoriozta dezakegu, ezen *Twilight*-saga (2008-2011)[19], *Frozen* (Chris Buck eta Jennifer Lee, 2013) edota *Ocho apellidos vascos* (Emilio Martínez-Lázaro, 2014) pelikulak gure ikerketen arreta merezi dezaketen adibideak direla. Ez da haien kalitate artistikoa edo gure errealitatearen dimentsio jakinen bat era bereziki fidelean erretratatzen jakin izana interesatzen zaiguna, baizik eta gure artean izan duten arrakasta bera. Denboran urrutiagoko adibideetara joz gero, honakoak aipa genitzake: *Cristal* (Renato Gutiérrez eta Daniel Farías, 1985-1986) telenobela edota *The Young Ones* telesail britainiarra (Paul Jackson, Geoff Posner eta Ed Bye, 1982-1984), euskal telebistaren lehenengo katean *Gazteak* izenburuarekin ikusi genuena 1985 eta 1986 urte bitartean. Adibideok gure testuinguru gertuko

19. Zuzendari ezberdinek zuzendu dituzte saga hori osatu duten bost filmak: *Twilight* (Ctherine Hardwicke, 2008), *The Twilight Saga: New Moon* (Chris Weitz, 2009), *The Twilight Saga: Eclipse* (David Slade, 2010), *The Twilight Saga: Breaking Dawn -part one-* (Bill Condon, 2011), *The Twilight Saga: Breaking Dawn -part two-* (Bill Condon, 2012).

memoria zinematografikoaren parte dira, bakoitza bere garaian eta bakoitzak jomuga izan duen publikoa zein izan den kontuan hartuta, analisi ezberdinetarako tresna erabilgarriak izan daitezke. Aipatu ditugun titulu guztiak zirkuitu komertzialetan edo telebistan eskuragarri diren produkzio hedatuen eta txalotuen adibideak dira. Horien moduko zinema popularreko narrazioak dira, ikusleria zabal batek kontsumitzen dituen produktuak, gure ustez, historiari interesgarrienak suertatzen zaizkionak. Izan ere, herritarren gehiengoak kontsumitzen dituen horiek dira identitateen eraikuntzan eragin handiena izateko aukera gehiago dutenak.

Orduan, diskurtso hegemonikoak (Gramsci)[20] helarazteko, hedatzeko eta indibiduoengan inkorporatzeko «Estatuaren aparatu ideologiko»aren (Althusser) parte da zinema? Bai eta ez. Lehenik eta behin, Gramsciren hegemonia-kategoria ñabartu batekin bat egiten dugu eta ulertzen dugu, testuinguru jakin batean, kategoria baliagarria dela existitzen diren beste diskurtsoekin batera bizi den diskurtso jakin bat gailentzen dela adierazteko (Aresti, 2010: 17-18). Diskurtso hegemoniko edo, hobeto, dominante hori, ordea, beti dago mugimenduan eta eraldaketa-prozesuan: bizikide dituen horiekin duen negoziazio-harremana etengabea da. Beraz, botere hegemoniko gramscianoak duen kutsu estatiko eta norabide bakarrekotik aldenduta ikusten dugu boterearen, eta horren baitan zinemaren, lan egiteko modua. Bestalde, pelikulek —beren narrazioa osatzen duten diskurtso multzoak— ikuslea *interpelatu* egingo dute, baina arrakasta —interpelazioaren erantzun positiboa— ez dago inoiz ziurtatua. Pelikularen parte diren polifonia diskurtsiboak bere osotasunean interpelatuko du ikuslea. Eta noski, ikusleak eta narrazioak bat egiten dutenean, elkartzen direnean, lehenak inkorporatzen duen mezuak ez du zertan bat egin hegemoniaren borondateekin ez eta Estatuaren ideologiarekin ere. Besteak beste, ikusle-pelikula kontaktu hori ez delako purua edo isolatua, eta beste hainbat eragilek eta faktorek parte hartzen dutelako harreman hori gertatzen denean. Horregatik, egilearen, ekoizlearen edota zentsorearen borondatea dena delakoa dela, pelikularekin helarazten den mezua edo sortzen den efektua ez dago haien esku ahalguztidunetan. Planteamendu horrek tentuz begiratzera behartzen gaitu, pelikulen ahalmena edo botere hutsezina zalantzan jartzera.

Beraz, pelikulak, sortu diren garaiko gizarte-arau eta ohitura onartuenen partaide eta eraikitzaile dira, gizarte batek onargarritzat eta baztergarritzat dituen identitateak eraikitzeko prozesuan aktiboki hartzen dute parte. Gaitasun biziki aktiboa daukate subjektibitateen etengabeko eraikuntza-prozesuetan parte hartzeko, ikusleek beren buruez eta gainontzekoenez egiten duten irudia marrazteko. Baina, esan dugunez, pelikula batek eragiten duen hori, ikusleak egiten duen irakurketa, ez dago ez filmak,

20. Antonio Gramsciren *hegemonia* kontzeptua funtsezkoa izan da kultura popularraren inguruko hausnarketan. Pentsalari horren arabera, botere hegemonikoak ezin dezake errepresioa eta indarra bakarrik erabili menpeko klaseak mende hartzeko. Haren ustez, klase buruzagiak edo menperatzaileak «hegemonia kultural» bat gauzatzen du, nola eta komunikabideen, elizaren edota hezkuntzaren kontrolaren bidez. Beraz, klase xumeen jarrerak eta ekintzak baldintzatuko dituen kultura bat inposatuz, kolektibo horien gaitasun iraultzailea desaktibatu eta kontrolpean geratuko da.

ez egileak ez eta borondate politikoak baldintzatua. Analisi historikoak laguntzen digu pelikularen irudi eta narrazioen garaiko esangura posibleak zeintzuk izan ziren —edota zeintzuek izan nahi izan zuten— hausnartzen. Era berean, zinemagintzaren analisi kritikoak hausnarketa historikoan laguntzen digu: gorputzei denboran zehar eman zaizkien zentzu ezberdinak eta horien arabera ezarri diren gizarte-arauen eraginkoratsuna ulertzeko tresna oso aberatsak dira. Pelikulak ekoitziak eta ikusiak izan diren testuinguruetan ulertu behar dira, hau da, sortuak izan diren testuinguru jakinen erregimen diskurtsiboen arabera ikertu behar dira. Pelikularen elementu guztiak diskurtsiboki eraikiak dira, garaiko diskurtsoek sortuak dira, eta, aldi berean garaiko *egia-erregimenak* sortzen, sendotzen edota eraldatzen laguntzen dute. Hartu-emaneko harreman hori da pelikulen analisi kritikoa gidatuko duena. Sumatuko denez, pelikulak zer neurritan diren errealitatearekiko fidelak bigarren maila batean geratzen da. Horren ordez, gure interesaren erdigunean egongo da errealitatea errepresentatzeko formen nolakotasuna, eta horrek ikuslearengan edota jendartean izan dituen eraginak, produzitu dituen subjektibitateak, izate forma eredugarriak eta gaitzezgarriak eta abar.

3.3. ITURRIEKIN LAN EGIN

Bestelako iturriekin gertatzen den bezala, zinemarekin lan egiterakoan eman behar dugun lehenbiziko pausoa iturrien selekzioa izango da. Eta noski, horretarako argi eduki behar dugu zein den aztertu nahi dugun gaia edota kolektiboa. Hori argituta daukagunean, testuinguru horretan gehien kontsumitzen zen zinemagintza izango litzateke gure selekzioa egiteko irizpide nagusia. Izan ere, lehenago adierazi dugun bezala, arrakasta eta oihartzun handiena lortzen duten pelikulak dira gizarte baten eraikuntzan parte hartzeko aukera gehien daukatenak. Beraz, bestelako iturriekin gertatzen den bezala, gure objektuak baldintzatuko du produkzio batzuen edo besteen aukeraketa. Pelikulen selekzio horretan, komenigarria da analisi-maila ezberdinak bereiztea. Hau da, gure lanaren emaitza bi pelikularen azterketan gauzatu arren, garaiko beste hamaika pelikularen inguruko hausnarketan ere oinarritutako ikerketa izatea komeni da. Horregatik beharrezkoa edo oso komenigarria da, gehien interesatzen zaizkigun pelikulen testuinguru filmikoa ere ezagutzea, eta, beraz, garaiko beste produkzioak ere ikustea. Era horretara diskurtsoen dimentsioan ere errepresentazioen testuinguru orokorra ezagutzea lortuko dugu.

Nola lortu pelikulak eta nola jakin zein diren popularrenak? Informazio horri buruzko eskuliburu dexente dago. Gainera, populartasuna neurtu duten estatistikak, diru-bilketaren inguruko neurketak, berredizioak eta antzeko informazioa erreferentzia-gidetan eta filmoteketan aurki daiteke. Beste aukera bat izan daiteke, selekzioa garaiko prentsan eta egunkarietako zinema-sekzioan espazio gehien okupatzen duten pelikulen arabera egitea. Edota ahozko testigantzetan, elkarrizketatuei galdetuta, gogotsuen gogoratzen dituzten pelikula horietan oinarritutako filmografia bat egitea. Ikusten dugunez, hasiera-hasieratik, pelikulekin

lan egitearekin batera, bigarren mailako bibliografia erabiltzeaz gainera, bestelako iturriekin egin dezakegu lan: ahozko iturriak, zinema-prentsa, egunkariak eta abar. Horrelako baliabideei esker gure filmografia propioa osatzen joan gaitezke eta, gainera, informazio esanguratsua ere lortzen joan gaitezke pelikulen aukeraketaren momentu beretik. Tokian tokiko filmategiak dira eremurik egokienak mota horretako baliabide guztiak lortzeko, esaterako Donostian egoitza duen Euskal Filmategia.

Hautaketa eginda dagoenean, pelikulak ikusi egin behar dira. Lantzen gauden gaiaren inguruan ematen diguten informazioaren arabera pelikula bakoitzak gure lanean izango duen presentzia eta garrantzia ezberdina izan arren, komeni da sorta guztia behin baino gehiagotan ikustea. Ariketa hau lagungarria izango da geure buruak testuinguruan murgiltzeko eta garaiko kode eta ereduen inguruko ikuspegi orokorrago bat irudikatu ahal izateko.

Gure ikerketarako erabiliko dugun pelikula bakoitzarekin fitxa bat bete behar dugu, bertan datu teknikoak jasotzeko: proiekzio-urtea, aktoreak, musika eta sinopsi propio txiki bat. Beste fitxa batean, bigarren ikusketa-saioan eta hurrengoetan zehar hartutako oharrak apuntatu behar dira: zer gai jorratzen duen, interesatzen zaigun agerraldia, pertsonaia, ikusi dugun datu tekniko interesgarriren bat, estetika… Pelikula ikusten eta notak hartzen gauden bitartean, jarraian azalduko ditugun oinarrizko hiru elementu edo ideia kontuan hartzea komeni da.

Lehenik eta behin, pelikula egituratzen duen narrazio mota aztergai izan beharko genuke. Kontaketa erromantikoa, epikoa, beldurrezkoa, umorezkoa… den. Gainera, ikusi beharko genuke narrazio horiek nola txertatzen diren beren testuinguruko «sen on»aren logikan. Azken batez, filmaren narrazioak nola erantzuten dion garai batean gailentzen den *egia-erregimen*ari aztertzea; edo, alderantziz, garai bateko *egia-erregimen*ak zer forma hartzen duen pelikula jakin batean aztertzea. Bestalde, pelikulek hasiera, korapiloa eta bukaera irudikatzen dituzten neurrian, interesgarria da filmek proposatzen duten denborazkotasun-sarearen logikaz hausnartzea: nola egiten duen bat jendearen subjektibitatean erroturik dauden elementuekin, iragana eta orainaldia uztartuko dituen narrazioa burutuz eta etorkizunerako aukera itxaropentsuak eskainiz. Adibide bat jartzearrean, oso adierazgarria da mundu kapitalistan hain arrakastatsua izan den —eta den— «from rag to riches» edo «txirotasunetik aberastasunera» esapidez ezagutzen dugun narrazioa. Amets amerikarraren edo arrakastaren kontaketaren parekoa da: materialki apala den bizimodu batetik abiatutako pertsonaia protagonista eredugarria *happy end* edo zorioneko bukaera narratiboan bizitzak aberastasun materialarekin saritzen du (Kipnis, 1992: 373-392; Herman, Jahn eta Ryan, 2005: 259 eta 439-440). Narrazio horietako eredu ezagunenak Ipar Amerikako zinemagintzatik datozkigu, baina Mendebaldeko zinemagintza gehienak erabili eta beren testuingu propiora moldatutako kontaketa izan da. Zentzu horretan, narrazio forma horren arrakasta bera ere esanguratsua izan daiteke: narrazio mota horren nazioarteko arrakastak kapitalismoaren hedapenarekin zerikusia duela pentsatzea zilegi izan liteke. Istorio mota hori oinarri duten pelikulen izenburu famatuenetako

batzuk dira: *Poor Little Rich Girl* (Irving Cummungs, 1936), *Cinderella* (Clyde Geronimi, Wilfred Jackson, Hamilton Luske, 1950), *Gentelmen Prefer Blondes* (Howard Hawks, 1953), *Annie* (John Huston, 1982), *Pretty Woman* (Garry Marshall, 1990) edota *Yo soy Betty la fea* (1999-2001). Nabari denez, denboran iraunkorra da «from rag to riches» narratibaren arrakasta, eta geografikoki ere herrialde ezberdinen produkzio filmikoen kontaeretarako inspirazio-iturri izan da. Melodramaren egitura narratiboan zentratzen diren Christine Gledhill (1987) eta Peter Brooksen (1995) lanak funtsezkoak dira mendebaldarron kultura filmiko narratiboa aztertzeko, eta masa-kulturaren mezuen analisi orokorragoaren barruan, Roman Gubern aditu katalanaren lana ere oso erabilgarria da (1974).

Gure arreta merezi duen beste elementu bat pertsonaiak dira. Gizartean erroturik dauden ikusmolde eta ohitura onartuenekin bat eginez, zinemak forma sinple eta arrunten bidez eraikitako eredu kontrajarriak proposatu ohi ditu. Pelikulen borondatea izango litzateke ikuslea identifikatzea eredugarri eta desiragarri agertzen den munduarekin; eredugarri den horrekiko oposizioan agertzen den gainontzekoarekiko, alderantzizko efektua bilatuko lukete pelikulek, gaitzespen-sentipenak piztea alegia. Oinarrizko egitura hori pelikula sortua den tokiko eta garaiko erregimen diskurtsiboen harira ikertu beharko genuke; hau da, nola ulertzen diren eta nola sortzen diren eredugarritasuna eta marjinaltasuna. Non eta noiz egiten den pelikula bat, eraikuntza horiek era batekoak edo bestelakoak izango dira, eta, beraz, garrantzitsua da sortuak diren denbora eta tokietako erregimen diskurtsiboak aztertzea galdera horiei erantzun egokiak emateko.

Pertsonaia onaren eta txarraren presentzian eta bakoitzak errepresentatzen duen ereduaren «norgehiagokan» oinarritutako pelikula popularren bukaerek, oro har, pertsonaia arauemaileen alde egiten dute. Baina hemen ere, diskurtso-aniztasunen ideiarekin begiratu behar dugu pantailara. Narrazioen garapenean bihotz oneko ereduen aurka zuzentzen diren bidegabekeriek pertsonaia zintzoekiko begikotasun-sentipenak piztu eta ikusleek ordenaren berrezarpena dakarten bukaerak txalotzea errazten dute. Baina horrek ez du esan nahi filmetako pertsonaia maltxurrekiko, edo haien ezaugarri batzuekiko, nolabaiteko enpatia edo identifikazio formaren bat sortzea ezinezkoa denik. Are gehiago, gerta liteke, pelikulako gaiztoarekiko gaitzespen-sentimendua gailendu arren, *happy end* narrazioaren izenean maltxurrak jasotzen duen zigorrarekin bat ez egitea (Martín, 2005: 14). Ikuslearen eta narrazioaren artean sortzen den harremana eta lehenengoak gara ditzakeen identifikazio- eta gaitzespen-sentimenduak askotarikoak dira. Eta, aniztasun hori kontuan hartuta diogu ezen pelikulek duten boterea ez dela ahalguztiduna. Beraz, zinema popularrak gaitasun arauemaile eztabaidaezina duen era berean, gaizkiaren errepresentazioak duen presentziak etengabeko mehatxua eragiten dio gailendu egiteko borondatea duen narrazio-proposamenari —mezu arauemaileari, alegia—. Narrazioetan ikuspuntu bat nagusitu arren —ongiarena—, garaikidea den aniztasun diskurtsibo bat aurkitzeaz gainera, hegemonikoa den ikuspuntu hori ere ikuslearekin kontaktuan sartzen denean, horren efektuak kontaezinak dira. Gainera, eredu kontrajarrien presentziarekin

eraikitako narrazio horiek beren baitan daukate, nolabait, kontaketaren diskurtsoa bera zalantzan jartzea ahalbidetzen duen elementua: interpretazio anitzen agerpena errazten duen kontra-eredua, alegia.

Kontuan izan behar dugun hirugarren elementua zera da: zinema popularra errepikapen ez-perfektuaren eskeman oinarritzen dela. Masa-kontsumoko pelikulak konbentzionalismoz eraikiak daude: publiko gehienak normaltzat dauzkan eredu ulergarriak erakusten dizkigu. Pertsonaia femenino edo maskulinoen jokabideez espero daitekeenaren eremuan mugitzen dira, eta hori proiektatzen dute behin eta berriro. Hau da zinema popularraren arrakastaren beste gakoetako bat: bere hizkuntzak adierazpen forma sinpleen iterazioan du oinarria. Horrek kontsumo erraza ahalbidetzen du eta proiekzioa erlaxamendu eta entretenimenduaren eremuetan garatzea ahalbidetzen du. Eta, nola ez, errepikapenaren eskemak diskurtsoek sortutako ereduen sendotzea, naturalizazioa eta fosilizazioa eragiten du. Dena den, ereduen iterazioa edo errepikapena ez da inoiz perfektua eta, izan ere, inperfekzio horrek garrantzi handia izan dezake, irakurketa errebeldeei irekitzen zaien ate bezala funtziona dezaketelako. Gerta liteke, gainera, errepikapen ez-perfektu hori borondatezkoagoa izatea eta momentu jakin bateko *egia-erregimen* batek eskaintzen dituen aurkeren artean aldaera onargarria baina, era berean, apurtzailea eta ezohikoa izatea. Horrelako «errebeldiak» izaten dira, batzuetan, pelikulen populartasunaren gakoa. Zinemak subjektibitateetan izaten duen eragina kontuan izanda, halako pelikulak izaten dira askotan pertsonen memorietan *memoria-gune* bezala mantentzen direnak. Eta, nola ez, horrelako proiekzio errebeldeek erantzukizun garrantzitsua daukate askotan oso pixkanaka eta oharkabean gertatzen diren aldaketetan —genero-identitateetan gauzatzen direnak, adibidez—.

Aipatu ditugun elementu horiek dira, gure ustez, gure filmategirako aukeratu ditugun pelikulen ikustaldietan kontuan izan behar ditugun oinarrizko elementuak. Gure ikerketaren gaia den hori gure iparrorratza izanik, pantailara bideratu behar dugun begirada analitikoak adierazitako elementu guztiei egin behar die so: narrazio-ereduei, pertsonaiei, dikotomiei eta abarri. Gainera esparru teknikoagoek ere informazio esanguratsua eman diezagukete: nondik begiratzen duen kamerak, dialogoak, koloreak, argiak, soinuak, gorputzek duten dispozizioa… Elementu horiek guztiak kontuan hartuta egin behar ditugu ikusketak, eta aldi bakoitzean notak hartu.

3.4. ITURRIAK GURE IKERKETAN TXERTATU

